



Memoriaren ibilbideak

Gerra zibilaren
memoriarekin lotutako
espazioen zerrenda



eman ta zabal zazu
Universidad
del Pais Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA



GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA

Memoriaren ibilbideak

Gerra zibilaren
memoriarekin lotutako
espazioen zerrenda

UPV/EHUko Biography & Parliament ikertaldearen
txostena

Zuzendaritza:
Joseba Agirreazkuenaga eta Mikel Urquijo
Historia Garaikideko katedradunak (UPV-EHU)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Lan honen bibliografia erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan
aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2015eko urria
Ale-kopurua: 65 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Lehendakaritza Saila
Internet: www.euskadi.eus
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Zuzendariak: Joseba Agirreazkuenaga eta Mikel Urquijo
Ikertzaileak: UPV / EHUko Biography & Parliament ikertaldea
Honen enkarguz eginda: Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Itzulpena: Hitzurun Hizkuntz Zerbitzuak, S.L.
Diseinua eta Maketazioa: Quod Sail, S.L.
Inprimaketa: Eusko Jaurlaritzako Inprimaketa eta Erreprografia Zerbitzua
ISBN: 978-84-457-3390-5
Lege Gordailua: VI 720-2015

Laburpena

Proiektuaren xedea da 1936an porrot egin zuen estatu kolpe militarrek sorrarazitako gerran garrantzi historikoa izan zuten gertaera bereziak zehaztea. Gerra, gertaera belikoa, 1937ko uztailan amaitu zen Euskadin, altxatuek garaipen militarra lortu baitzuten legeria errepublikanoaren eta “Euzkadiko Jaurlaritzaren” aurka.

Hala ere, 1937tik aurrera altxatuek F. Franco jenerala botere osoko estatuburu zuen diktadura militarra ezarri zuten, gerrak diktadura frankistan izandako ondorioak ere gerraren dinamikan kokatzen dira; hortaz, subjektibotasun horren baitan, gerrak jarraitu egin zuen 1937tik aurrera ere, garai hartako gertaerak gerraren emaitza eta ondorio zuzenak baitziren. Erregimen diktatorial berriak ezarritako salbuespen egoera militarra egoera haren froga garbia da, eta pertsona asko eta asko itzultzeko batere aukerarik gabe erbesteratu izanak berretsi egiten du orduko errealitatea.

Txosten honek 1936tik 1937ra bitarteko gerra garaia hartu du azterketarako ardatz gisa. Garai horretako gertaera politiko garrantzitsuenetako bat lehen Eusko Jaurlaritzaren eraketa eta haren kudeaketa politiko eta administratiboa izan ziren, zalantzarik gabe. Lehen Eusko Jaurlaritza 1936ko urriaren 7an eratu zuten, eta José Antonio Aguirre izan zuen lehendakari. Era berean, zehaztasunez azaldu nahi izan ditugu borroka belikoen gertalekuak, eta interes berezia eskaini diegu bombardaketei, bereziki biztanleria zibilen gainekoei; horien helburua izua zabaltzea zen, eta ikaragarri baldintzatu zuten gerra moderno berria. Italiaren eta Alemaniaren laguntzari esker, altxatuek nagusitasuna lortu zuten aire armadan, eta nagusitasun hura nabarmena eta erabakigarria izan zen, bombardaketak jasan zituzten herrien maparen ibilbideak adierazten duen moduan.

Halaber, espetxeak, ospitaleak eta gerrako presoek bortxazko lanak egiten zituzten tokiak aipatuta ageri dira.

Baina gerraren memoria oroimen bizia da, eta horixe ondorioztatzen dugu gerraren oroimena eta azterketa historikoa sustatzen dituzten erakunde zibilen zerrendari erreparatuta. Beraz, ez da iraganeko kontua; elkarre horien ekimenei esker, presentzia eta indar eguneratua ditu egungo errealitatean.

Errepresaliatuen hobi komunak aurkitu eta memoria leku bilakatzea, lapurtutako haurren gaiari heltzea eta erbesteko ibilbideak zehaztu eta oroitaraztea dira elkarre horien beste helburuetako batzuk. Eusko Jaurlaritzaren webgunean jasota daude beste garai batzuetan abiarazitako ekimenak, eta txosten honetan orain arte egindakoa hartu dugu abiapuntutzat, ekintza eta ekimen berriak abian jartzeko asmoz.

“Memoriaren ibilbideei” egin beharreko ekarpena ezin da mugatu errealitate fisiko-geografiko batera; aitzitik, oroimen kolektiboan eta gaur egunean islatuta dagoen esperientzia traumatiko baten iraganean eta orainean barrenako ibilbide bat behar du izan, baita iraganetik orainera igarotzeko bidea ere.

Aurkibidea

1. Sarrera orokorra. _____	9
2. Memoria bizi garaikidearen lekuak: erakunde publiko zein pribatuak protagonista izan dituzten memoria lekuak. (Dr. U. Belaustegi) _____	11
2.1. Sarrera eta metodologia. _____	11
2.2. Erroldatutako erakundeen zerrenda. _____	11
2.2.1. Erroldatutako erakundeen deskribapena. _____	14
2.2.2. Elkarrekin harremanetan jartzeko erabilitako fitxen eredia. _____	37
2.3. Erroldatutako elkarten mapa. _____	40
2.4. Ondorioa. _____	41
3. “Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzaren” espazio politiko-administratiboak (1936-1937). (Dr. J.L. Aranes, C. Landa, L. Sebastián) _____	43
3.1. Sarrera eta metodologia. _____	43
3.2. Jaurlaritzako sailen egoitza nagusien zerrenda. _____	46
3.3. Jaurlaritzako sailen egoitza nagusien kokalekuen mapa. _____	85
4. Gerra Zibila lekuz leku. _____	87
4.1. Borroka lekuak gerra zibilean (1936-1939). (F. M. Vargas) _____	87
4.1.1. Sarrera. _____	87
4.1.2. Gerra Memoriaren lekuak Euskal Autonomia Erkidegoan. _____	88
4.1.2.1. Araba. _____	88
4.1.2.1.1. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda. _____	88
4.1.2.1.2. Gerra Memoriaren lekuen kokapenaren mapa. _____	103
4.1.2.2. Bizkaia. _____	104
4.1.2.2.1. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda. _____	104
4.1.2.2.2. Gerra Memoriaren lekuen kokapenaren mapa. _____	189
4.1.2.3. Gipuzkoa. _____	190
4.1.2.3.1. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda. _____	190
4.1.2.3.2. Gerra Memoriaren lekuen kokapenaren mapa. _____	220
4.1.3. Gerra Memoriaren lekuak, non euskaldunek legezkotasun demokratikoa defendatzeko esku hartu zuten, Euskal Autonomia Erdidegoko mugetatik kanpo. _____	221
4.1.3.1. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda, Asturiasen. _____	221
4.1.3.2. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda, Kantabrian. _____	228

4.1.3.3. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda, Gaztela-Leon (Burgos).	231
4.1.3.4. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda, Aragoi eta Katalunian.	233
4.1.3.5. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda, erdialde eta hegoaldeko eremuan.	240
4.2. Hiriguneen eta herrien aurkako bonbardaketen zerrenda. (Dr. X. Irujo, A.Pérez)	244
4.2.1. Sarrera.	244
4.2.2. Bonbardatutako herrien zerrenda.	246
4.2.3. Bonbardatutako herrien mapak.	311
5. Gerra Zibilean espetxe eta kontzentrazio esparru gisa erabilitako espazioak: memoria lekuak. (Dr. A. Ipiña)	317
5.1. Sarrera eta metodologia.	317
5.2. Espetxeen eta atxilotze zentroen zerrenda.	319
5.2.1. Espetxe frankistak, Araban.	319
5.2.2. Espetxe errepublikanoak, Bizkaian.	322
5.2.3. Espetxe frankistak, Bizkaian.	325
5.2.4. Espetxe errepublikanoak, Gipuzkoan.	333
5.2.5. Espetxe frankistak, Gipuzkoan.	335
5.3. Espetxeen eta atxilotze zentroen kokalekuaren mapa.	340
6. Eusko Jaurlaritzak Gerra Zibilean sortu edo erabili zituen ospitale militarren zerrenda (Dr. A. Ipiña)	341
6.1. Sarrera.	341
6.2. Ospitale militarren zerrenda.	343
6.3. Ospitale militarren kokalekuaren mapak.	355
7. Lan behartuaz baliatu ziren leku publikoak eta pribatuak. (Dr. F. Mendiola)	357
7.1. Sarrera.	357
7.2. Lan behartua erabili zen leku publikoak eta pribatuak.	360
7.3. Lan behartua erabili izen lekuen mapa.	400
8. Etorkizuneko lanetarako aholkuak.	401
9. Txostena egiteko erabili diren iturriak.	403
9.1. Iturri dokumentalak.	403
9.2. Web orriak.	404

9.3. Egunkari-aldizkariak. _____	404
9.4. Bibliografia. _____	405
9.5. Bisitatu diren eraikinak. _____	419
10. I. ERANSKINA: Ikertaldeko kideen curriculum vitae. _____	420

1. Sarrera orokorra

Txosten honen xedea da 1936ko estatu kolpe militarrek sorrarazitako gerra zibilarekin lotura duten memoria lekuen zerrenda zehatz bat eskaintzea. Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatutako txostena da.

Eskaera horren jatorria Eusko Legebiltzarrak 2014ko ekainaren 12an onartutako ez-legezko proposamena da:

“Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin dadila txosten independente eta osatu bat, sei hilabeteko epean, UPV/EHUri edo Valentín de Foronda Institutuari enkargatu ahal zaiena, non jasoko baita estatu kolpe militarren ondorengo gerrak eta diktadura frankistak iraun zuten bitartean izandako gertakari edo jazoera berezi edo aparteko garrantzi historikodunei lotutako tokien zerrenda (memoria historikoaren ibilbideak), bai eta izandako gertakari buruzko informazio historikoa, tartean egon ziren pertsona eta erakundeei buruzko datuak, eta haiekin zerikusia daukan beste edozein informazio ere.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultza dadila, euskal udalekin akordioak eginez, memoria historikoaren ibilbideen identifikazioa, babesa eta seinalizazio-prozeduren erregulazioa, eta orobat susta dadila kendutako sinbolo frankistekin interpretazio-lekuak sortzea, horien testuinguruan kokatuz”.

Txostenaren egileak Eusko Jaurlaritzaren onespina duen UPV/EHUko *Biography & Parliament* ikertalde finkatuko kideak dira. Ikertaldearen zuzendariak Joseba Agirreazkuenaga eta Mikel Urquijo dira, Historia Garaikideko katedradunak, eta taldea unibertsitateko irakasleek, dokumentazioko espezialistek eta prestatzen ari diren ikertzaileek osatzen dute. Profil ugartasun horrek bi helburu ditu. Batetik, Eusko Jaurlaritzaren eskaerari erantzutea eta haren esku jartzea Legebiltzarraren aginduz garatu behar duen memoria politikarako informazio egokia. Bestetik, nazioarteko parametro akademikoak aintzat hartuta, ikerketa jarduerak prestakuntza espezializatua eskaintzea ibilbide profesionala hasten ari diren ikertzaile gazteei.

Memoria historikoarentzat lagungarriak izango diren ibilbideak finkatze aldera, egindako lanak bi alderdi nagusi izan ditu:

Batetik, gerra zibilaren eta frankismoaren gaineko gogoeta sustatzen duten elkarte, erakunde eta taldeek osatzen dituzten memoria garaikideko espazio sozial biziak identifikatzea.

Bestetik, gerra zibilaren memoria leku fisikoen errolda bat egitea. Bigarren atal horretan, zehaztuta ageri dira Eusko Jaurlaritzaren egoitzak (1936ko gertaera politiko garrantzitsua), baita borroken kokaleku geografikoak, biztanleria zibilaren aurkako bonbardaketak jaso zituzten udalerriak, ospitaleak, espetxeak eta gerran zein gerraostean bortxazko lanetarako erabili zituzten tokiak ere.

Txostenean ez da ageri hobien eta desagertutako pertsonen zerrenda; izan ere, Aranzadi Zientzia Elkarateak hamarkada bat baino gehiago darama lan horretan, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, eta Eusko Jaurlaritzaren webgunean ikusgai dago informazio hori. Askotan, hobi horiek borrokak gertatu ziren tokietan daude, eta toki horiek txosten honetan aipatuta datoz, dagokien atalean.

Memoriarekin zerikusia duen beste alderdi bat, zalantzarik gabe, erbesteko ibilbideak dira, bereziki haurren irteera masiboak. Euskal Autonomia Erkidegotik harago, ibilbide horien etapak beste txosten monografiko batean argitu beharko dira.

Aurrerantzean gerra zibilaren memoria lekutzat hartuko ditugun tokiak identifikatzeko eta behar bezala aztertzeko, metodologia enpiriko zorrotza erabili da. Atal bakoitzak honako hauek ditu: sarrera bat, non zehaztuta datozen erabilitako metodologia eta fitxa ereduak; memoria lekuen zerrenda eta horien adierazpen kartografikoa, eta fitxa zehatzak, memoria leku bakoitza zergatik aukeratu den eta memoria historikoaren ibilbidean non kokatuta dagoen adierazten dutenak.

Herrien bonbardaketen kasuan, herria bera aipatzen da, noski; baina atal hori nabarmendu nahi dugu, bonbardaketa horiek agerian utzi baitzuten Bigarren Mundu Gerratik aurrera mundu osora zabalduko zen gerra mota berria. Atal bakoitzean, fitxa hori deskribatutako gertaera moten eta esku artean dugun informazio kantitatearen arabera garatu dugu.

Ikertaldeak egindako lanak sei atal ditu, bat datozenak aipatutako gaiekin:

- Memoria biziko eremuak. Unai Belaustegi doktorea (UPV/EHU).
- Espazio politikoak eta administratiboak. J. L. Aranés doktorea, Karmelo Landa lizentziaduna, Lorenzo Sebastian lizentziaduna (DOKU taldea).
- Gerra Zibilaren lekuak: gerra lekuak. Patxi Vargas lizentziaduna (UPV/EHU). Bonbardatutako lekuak. Xabier Irujo doktorea (University of Nevada) eta Antón Pérez Enbeita masterduna (UPV/EHU).
- Atxilotze eremuak. Aritz Ipiña doktorea (UPV/EHU).
- Ospitaleak eta osasuna. Aritz Ipiña doktorea (UPV/EHU).
- Lan behartuetarako eremuak. Fernando Mendiola doktorea (NAUP).

Adierazpen kartografikoa Beatriz Fernandez de Manuel lizentziadunak egin du.

Azterlan horiek abiapuntutzat hartuta, etorkizunean gauza daitezkeen ekintza batzuen plangintzatarako gomendio batzuk prestatu ditugu.

Azkenik, txostena egiteko erabilitako iturriak ageri dira.

2. Memoria bizi garaikidearen lekuak: erakunde publiko zein pribatuak protagonista dituzten memoria lekuak

Unai Belaustegi doktorea (UPV-EHU)

2.1. Sarrera eta metodologia

Atal hau gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan Gerra Zibileko eta frankismoko gertaerak identifikatzen eta berreskuratzen (zuzenean edo zeharka) eta, hortaz, memoria historiko orokorra berreskuratzen diharduten erakunde publiko eta ekimen pribatuen kopurua zehazteko lehen azterketa baten emaitza da. Egokia iruditu zaigu lehen azterketa hori egitea; izan ere, elkarte horiek Gerra Zibileko eta frankismoko memoria historikoari lotutako taldeak dira, eta, hortaz, elkarteak berak memoria lekutzat jo ditzakegu.

Elkarte (edo ekimen pribatu) horietako batzuk hutsune historiografiko bat (ikerketen gabezia) betetzeko sortu dira, baita herritarrek antzemandako oroimen galerari aurre egiteko ere. Gehienak tokiko ekimenak dira, eta eremu mugatueta memoria historikoa berreskuratzeko lana egiten dute; horrek argi eta garbi frogatzen du gizarteak berak memoria historikoa berreskuratzeko beharra sentitu duela. Nolanahi ere, badira memoriaren erreparazioan modu orokorrangoan diharduten ekimenak eta elkarteak ere (Ahaztuak 1936-1937, Aranzadi Zientzia Elkarte edo erakunde publikoekin zein fundazio pribatuekin lotutako elkarteak).

Memoria historikoa berreskuratzeko elkarteek argi erakusten digute ekimen hori gaur-gaurko jarduera dela.

Nabarmentzekoa da gurekin harremanetan izan diren elkarte gehienei ongi iruditu zaiela zenbat elkarte dauden, zertarako sortu zituzten eta zer-nolako jarduerak gauzatzen dituzten zehaztea, eta gero, informazio hori abiapuntutzat hartuta, datu-base bakarra osatzea. Hartara, bi arazo garrantzitsu konponduko dira. Batetik, elkarteak elkarrekin harremanetan egongo dira, eta, elkarri lagunduta, haien ikerketek kalitate handiagoa izango dute. Bestetik, talde berrietan bikoiztasunak sortzea ekidingo da, edo dagoeneko abian diren jarduerak berriz abiaraztea.

Hemen ageri den zerrenda Euskal Autonomia Erkidegoan egindako lehen azterketa baten emaitza da. Bertan ageri diren elkarte batzuek zuzenean Gerra Zibileko memoria lekuak berreskuratzeko lan egiten dute (adibidez, Intxorta 1937 Kultur Elkarte eta Sancho de Beurko Elkarte, bereziki Burdin Hesiaren gainean lan egiten duena); beste elkarte batzuek, berriz, jarduera hori ez dute helburu nagusitzat, baina beren lanetan informazioa bildu dute gerran edo aldi frankistan jazotako gertaerei buruz (adibidez, Euskal Herriko Ahozko Ondarearen Elkarte).

Harremanetan jarri ahal izan dugu memoria historikoko ekimenak sustatzen dituzten elkarte edo pertsona batzuekin. Agian, zerrenda honetan zenbait elkarte edo ekimen pribatu falta dira. Baten bat aipatu gabe utzi badugu, ezjakintasunagatik izan da, ez nahita baztertu nahi izan dugulako.

Hori guztia dela eta, kontuan hartuta elkarteek berek harrera bikaina egin diotela datu-base honi, gure ustez beharrezkoa da hasi berri dugun egitasmo honekin jarraitzea.

2.2. Erroldatutako erakundearen zerrenda

Jarraian, zerrenda batean jasota datoz azken hamarkadan memoria historikoa berreskuratzen diharduten edo jardun duten Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte eta ekimen pribatuak. Gauzatzen duten jarduera aintzat hartuta, elkarteak berak memoria lekutzat jotzen ditugu. Elkarteetako batzuek zuzenean lan egiten dute memoria historikoa berreskuratzen, eta Gerra Zibileko eta frankismoko tokiak eta gertaerak kokatzen saiatzen dira. Beste batzuk ez dira berriaz helburu horretarako sortutako elkarteak, baina behin edo behin memoria historikoaren erreparazioan lan egin dute; hortaz, horiek ere memoria lekutzat dauzkagu, baita informazio iturri baliotsutzat ere. Izaera bertsuko elkarte gehiago izan badaitezke ere, lehen zerrenda honek argi erakusten digu gerrari eta frankismoari buruzko memoria historikoa bizi-bizirik dagoela Euskal Autonomia Erkidegoan. Elkarteen lana ez ezik, ekimen pribatuek gauzatutakoa ere aitortu nahi izan dugu, eta ekimen horiek ere aintzat hartu ditugu zerrenda hau prestatzean; izan ere, ekimen horiek elkarterik edo egitasmo publikorik ez zegoelako sortu dira, gehien-gehienetan.

Zk.	Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Kokapena
001	Ahaztuak 1936-1977	Algorta (Getxo)
002	Ahaztuen Oroimena 1936	Etxebarría
003	Ahotsak.com. Euskal Herriko Ahozko Ondarearen Elkarteak/ Badihardugu Euskara Elkarteak	Eibar
004	Andikona/ Otxandioko Udala	Otxandio
005	Andoain 1936/ Oroituz Andoainen Elkarteak	Andoain
006	Aranzadi Zientzia Elkarteak	Donostia
007	Baskale Elkarteak	Bilbo
008	Zinhezba Kultura Elkarteak	Gasteiz/Bartzelona
009	Harresi Kultur Elkarteak	Balmaseda
010	Gernika Gogoratuz, Bakearen Aldeko Aztertegia	Gernika
011	Asociación de víctimas 3 de Marzo-Martxoak 3 Elkarteak	Vitoria-Gasteiz
012	Asociación de Víctimas del Genocidio (AVICGE) / Donostiako Genozidioa 1936 Biktimen Elkarteak	Donostia
013	Asociación por la Memoria Histórica de Miranda de Ebro	Miranda de Ebro
014	Asociación Republicana de Andoain BELABIETA Andoaingo Errepublikarrak	Andoain
015	Asociación Republicana Irunesa Nicolás Guerenidiain / "Nicolás Guerendiain" Irungo Errepublikarrak	Irun
016	Bakeola	Bilbo
017	Bakioko Memoria	Bakio
018	Basque Children of 37 Association UK	Britainia Handia
019	Berriz 1936 gogoratzen	Berriz
020	Billabonako Aritza Kultur Elkarteak eta Billabonako Udala	Billabona
021	Castet Kultur Elkarteak	Zaldibar
022	Debagoienako Fusilatuen Senideen Batzordea	Arrasate
023	Durango 1936 Kultur Elkarteak	Durango
024	Egiari Zor Fundazioa	¿?
025	Ekai Center Fundazioa	Arrasate
026	Elgoibar1936	Elgoibar
027	ELKASKO, Asociación Vizcaína de Investigación Histórica/ Bizkaiko Ikerketa Historikoen Elkarteak	Sestao
028	Erkibe Kultur Elkarteak	Zumaia
029	Erriberagoitiko Udala	Erriberagoiti/Ribera Alta
030	Euskal Memoria Fundazioa	Donostia
031	Eusko Abertzale Ekintza/ Acción Nacionalista Vasca, Eusko Lurra Fundazioa	Orio
032	Frankismoaren Ekimenen Aurkako Euskal Plataforma	Hego Euskal Herria
033	EDE Fundazio Kanoniko Autonomia	Bilbo
034	Juan de los Toyos Fundazioa	Barakaldo
035	Euskal Herriko Meatzaritzaren Museo Fundazioa	Gallarta
036	Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa	Gernika
037	Ramon Rubial Fundazioa	Bilbo
038	Galdakao Gogora	Galdakao

039	Garaian Kultur Elkartea/ Patxi Juaristi	Markina-Xemein
040	Garraxika, Errepresioaren Ondarroako Biktimen Ahotza	Ondarroa
041	Gasteiz at war. I Congreso Internacional sobre Arqueología de la Guerra Civil española (Gasteiz, 9-13 de diciembre 2014) / Espainiako Gerra Zibilaren Arkeologiari buruzko Nazioarteko Lehen Kongresua (Gasteiz, 2014ko abenduak 9-13)	Gasteiz
042	Gerediaga Elkartea	Durango
043	Gernikazarra	Gernika
044	Geureak 1936	¿?
045	Gipuzkoa 1936	Gipuzkoa/Donostia
046	Gogoan Sestao Elkartea	Sestao
047	Goldatu	Bilbo
048	Gureak Memoria Historikoa	¿?
049	II Errepublika eta Gerra Zibila Deustun	Deusto/Bilbo
050	Valentín de Foronda Institutua	Gasteiz
051	Intxorta 1937 Kultur Elkartea	Bergara/Elgeta
052	Izquierda Republicana Vasca - Euskal Ezker Errepublikanoa	¿?
053	Jabier Txordo/ Mutriku	Mutriku
054	Jose Unanue Fundazioa	Bilbo
055	Kattin Txiki	Oiartzun
056	Larrabetzu 1937	Larrabetzu
057	Lau-haizetara gogoan	EAE/CAPV
058	Legazpi 1936	Legazpi
059	Leizaola Elkargoa	Bilbo
060	Lemoatx 1937. Lemoako Memoria Historikoaren Batzorde Herrikoia	Lemoa
061	Lenbur Fundazioa	Legazpi
062	Mario Onaindia Fundazioa	Zarautz
063	Matxitxako Elkartea	Donostia
064	Memoria Histórica Barakaldo	Barakaldo
065	Ondarroako Historia Zaleak	Ondarroa
066	Oñatiko Euskal Memoria	Oñati
067	Oroimen Historikoaren Mapa	Donostia
068	Oroituz	Portugalete
069	Sabino Arana Fundazioa	Bilbo
070	Sancho de Beurko	Trapagaran
071	SOS Haur Lapurtuak Euskadi	EAE/CAPV
072	Uda Berri Galdua	Bizkaia
073	Ugao-Miraballes, Asociación Ugao Burdin Hesia-Cinturón de Hierro de Miraballes	Ugao-Miralles
074	Uliako Taldea	Gros/Donostia
075	Urduña1936	Urduña
076	Zarauzko postalak	Zarautz

2.2.1. Erroldatutako erakundeen deskribapena

Atal honetan, gaurdaino identifikatutako elkartearen aurkezpena egingo dugu. Zenbait kasutan informazio ugari bildu ahal izan dugu, eta beste batzuetan, berriz, ezinezkoa izan zaigu elkartearen kokaleku geografiko zehatza lortzea edo elkarteko kideren batekin harremanetan jartzea. Hortaz, egokia iruditu zaigu elkarte bakoitzaren hasierako aurkezpen bat egitea, datu-base zabal eta zehatzago baterako datuak biltzen jarraitu ahal izateko¹.

Zenbakia	001
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Ahaztuak 1937-1977
Kokalekua	Algorta
Deskribapena	Ahaztuak 1936-1977 irabazi asmorik gabeko elkarte bat da. 2005eko azaroan sortu zuten, eta Getxon kokatuta dago. Elkartearen helburu nagusia da "Gerra Zibileko eta frankismoko biktimak" antolatzea, eta biktimen zein Gerra Zibileko eta frankismoko gertaera garrantzitsuenak gertatu ziren tokien memoria historikoa berreskuratzea, Getxon eta inguruan ez ezik, baita Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan ere. Horretarako, harreman sare zabala eratu dute, eta, horri esker, hainbat udalerritan lan egin dezakete, eta ekitaldi nahiz omenaldi ugari egin ahal izan dituzte lurralde historiko guztietan. Zenbait egitasmo eta jarduera gauzatu dituzte: frankismoko biktimen gorpuk hobitik atera; liburuak argitaratu; biltzarrak, erakusketak eta hitzaldiak antolatu...
Webgunea	http://ahaztuak1936-1977.blogspot.com.es/

Zenbakia	002
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Ahaztuen Oroimena 1936
Kokalekua	Etxebarria
Deskribapena	Etxebarrian (Bizkaia) kokatutako elkarte da, eta zenbait jarduera gauzatu ditu Gerra Zibileko tokiak eta bizkaitar udalerraren inguruan (Aulestia, Barinaga, Bolibar, Etxebarria, Larruskain, Markina eta San Miguel mendia) II. Errepublika babesteko bizia galdu zuten milizianoak gogora ekartzeko.
Webgunea	http://ahaztuenoroimena.com

¹ Zerrenda honetan ageri ez diren beste erakunde batzuek ere (alderdi politikoak, sindikatuak eta hainbat elkarte) memoria historikoa berreskuratzeko ekitaldiak egin edo antolatu dituzte (CNT Euskal Herria, PNV-EAJ, EH Bildu...). Gainera, kontuan hartu behar genituzke gai horri buruzko berriak eta informazioak biltzen diharduten Interneteko plataformak ere. Agian, Sare Antifaxista da adibide garbiena: errepresio frankistarekin lotutako albisteak eta gertaerak biltzen ditu (<http://sareantifaxista.blogspot.com.es/>). Azkenik, gogora ekarri behar ditugu Nafarroan gauzatu dituzten edo gauzatzeko ari diren jarduerak ere; batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte gehienek harreman zuzenak dituztelako Nafarroako elkarteekin, eta bestetik, Nafarroan egindako jarduera batzuk EAEen ere egin dituztelako. Hona hemen Nafarroako elkarteetako batzuk: Txinparta Fuerte San Cristobal (Ansoain), Memoriaren Bideak (Iruña), Oroimenaren autobusa (Nafarroa), Parque de la Memoria...

Zenbakia	003
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	<i>Ahotsak.com, Euskal Herriko Ahozko Ondarearen Elkarte (Badihardugu Euskara Elkarte)</i>
Kokalekua	Eibar
Deskribapena	Eibarko elkarte. Helburu nagusizat du euskararen ondarea berreskuratzea. Horretarako, euskalkien datu-base zabala sortzen ari dira, adinekoei elkarrizketak eginez. Nahiz eta elkartearen helburu nagusia ez den Gerra Zibilekin lotutako memoria historikoa berreskuratzea, adierazi digute adineko elkarrizketatuek Gerra Zibileko eta ondorengo urteetako gertaerak aipatzen dizkietela, eta, hortaz, iturri bikaina dira etorkizuneko lanetarako.
Webgunea	http://www.ahotsak.eus/info/

Zenbakia	004
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Andikona/ Otxandioko Udala
Kokalekua	Otxandio
Deskribapena	Bilbotik antolatutako zutabe antifrankistetako bat Otxandion kokatuta zegoen, eta 1936ko uztailaren 22an indar kolpistek udalerrria bonbardatu, eta berrogeita hamar pertsonatik gora hil zituzten. Gertaleku nagusia Andikona plaza izan zen. 75 urte geroago, 2011n, bonbardaketa gogorarazteko zenbait jarduera gauzatu zituzten, hala nola Otxandio Gerra Zibilean izeneko liburuaren aurkezpena.
Webgunea	http://www.otxandio.net/es-ES/Otxandio/Paginas/ElbombardeodeAndikona.aspx

Zenbakia	005
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Andoain 1936/ Oroituz Andoainen Elkarte
Kokalekua	Andoain
Deskribapena	Andoaingo bizilagun elkarte, 2007-2008an sortua. Haren helburu nagusia da Gerra Zibileko gertaerekin lotutako memoria historikoa berreskuratzea eta "militar faxisten errepresalia pairatu zutenen eskubide urraketa" salatzea. Elkartearen xede nagusia honako hau izan zen: "andoaindar antifaxista errepublikanoen memoria historikoaren, egiaren, justiziaren eta erreparazioaren alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa" frogatzea. Zenbait jarduera gauzatu dituzte: 22 andoaindar fusilatutako eta haien familiak omendu dituzte, besteak beste. Halaber, 1936ko abuztuaren 17ko fusilamenduei buruzko zenbait liburu argitaratu dituzte.
Webgunea	http://ahaztuak1936-1977.blogspot.com.es/2008/04/andoain-oroituz-critica-la-decision.html

Zenbakia	006
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Aranzadi Zientzia Elkarte
Kokalekua	Donostia
Deskribapena	1947an Donostian sortutako elkarte zientifikoa da, eta azterketa orokorrak eta ikerlanak garatzen ditu hainbat jakintza arlotan. Halaber, informazio zereginak betetzen ditu, "erakundeekin lankidetzan hobeto kontserbatzeko bai ingurune naturala, bai ondare arkeologikoa eta etnografikoa". 2002az geroztik, abian du plan berezi bat, Gerra Zibileko desagertuen eta exekutatuen senideei arreta eskaintzeko, eta duela hamarkada batetik hona hobi komunitatetik gorpuak ateratzen eta aztarnak aztertzen egiten du lan Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan.
Webgunea	http://www.aranzadi.eus/

Zenbakia	007
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Baskale Elkarte
Kokalekua	Bilbo
Deskribapena	Euskal-alemaniar elkarte soziokultural bat da, 2010ean sortua eta Bilbon kokatua. Haren xedea da "bi herrialdeen arteko truke sozial, politiko eta kulturala" sustatzea. Egitasmo zehatzetako programa bat prestatzen ari dira. Egitasmo horietako batzuk dira honako hauek: argazkigintzako jarduerak, erakusketak, bideo dokumentalak, turismo alternatiboa, bisita gidatu antifaxista Bilbon, faxismoaren biktimen memoria historikoaren berreskuratzea, etab.
Webgunea	http://baskale-elkarte.blogspot.com.es/2011/07/baskale.html

Zenbakia	008
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Zinhezba Kultura Elkarte
Kokalekua	Gasteiz/Bartzelona
Deskribapena	"Zinhezba 2004an sortu zen, zinemaren bidez giza eskubideetan oinarritutako heziketa eskaintzeko. Hainbat gairi buruzko hezkuntza programak garatzen ditugu, betiere ikaskuntza interaktibo eta partaidetzazko baten baitan". Zenbait egitasmo gauzatu dituzte Euskal Herrian zein Katalunian, eta, horrez gainera, irakasleentzako material didaktikoa sortu dute, Guía didáctica Amnesia izeneko gidaliburua barne. Dokumentu horretan izen bereko dokumentalarekin lan egiten dute, eta haren xedea da "Espainiako Gerra Zibilaren eta Bosniako gerraren lekukoen bitartez bakearen kulturari" buruzko go-goeta eta eztabaida piztea.
Webgunea	http://www.zinhezba.org/index.php

Zenbakia	009
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Harresi Kulturala Elkartea
Kokalekua	Balmaseda
Deskribapena	Elkartearen xedea da "kultura, ohiturak eta festa herrikoiak argazki eta bideo erreportajeen bidez sustatu eta hedatzea, multimedia formatu digitalak (WEB), dokumentu inprimatuak, liburuak eta beste edozein bitarteko erabiliz, eta argazkiak eta ikus-entzunezkoak berreskuratzea, katalogatu eta aipatutako bitarteko horien bidez eza-gutzero emateko". 2013an memoria historikoarekin lotutako ikerketa lerro berriari ekin zioten: "Que la memoria de Balmaseda no desaparezca... Proyecto para salvaguarda de la memoria histórica entre 1936 y 1978".
Webgunea	http://harresi.org/

Zenbakia	010
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Gernika Gogoratzuz, Bakearen Aldeko Aztertegia
Kokalekua	Gernika
Deskribapena	1987an Gernikan sortutako ikerketa zentroa da, memoriaren eta bake kulturaren arloko jarduerak gauzatzen dituena. Gernika Gogoratzuz elkartearen helburu nagusia da "bake askatzailea eta justua bultzatzea mundu mailan, eta, bereziki, Euskal Herrian; horrela, Gernikan Bakearen aldeko Ikerketa Zentroa ezartzeari buruz 1987ko apirilaren 10ean Eusko Legebiltzarrak onartutako ez-legezko proposamena betez". 13 monografia argitaratu dituzte; nazioarteko topaketak eta jardunaldiak antolatatu dituzte, eta parte hartu dute Gerra Zibilean eta Gernikako bonbardaketan frankisten esku hil zirenei eta haien errepresaliak jasan zituztenei egindako hainbat omenalditan.
Webgunea	http://www.gernikagogoratzuz.org/es/presentacion

Zenbakia	011
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Asociación de Víctimas 3 de Marzo-Martxoak 3 Elkartea
Kokalekua	Vitoria-Gasteiz
Deskribapena	1999an sortutako elkartea, "Gasteizen 1976ko martxoaren 3ko gertakizunetan greban zeuden langileen batzar baketsu bat desegiten saiatzean, espainiar polizia armatuaren ekintza hiltzailearen ondorioz hildako edo kalteetako pertsonak eta haien senideek" osatua. Elkartea arabar hiriburuan kokatuta dago, eta "Justizia, Egia eta Aintzatespena" lortu nahi ditu 1976ko gertaeraren biktimentzat.
Webgunea	http://www.martxoak3.org/

Zenbakia	012
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Asociación de Víctimas del Genocidio (AVICGE)/ Donostiako Genozidioa 1936 Biktimen Elkarte
Kokalekua	Donostia
Deskribapena	Elkarte hau 2009an sortu zuten, eta Donostian kokatuta dago. Haren helburu nagusietako batzuk hauek dira: “1936ko altxamendu militarrek, frankismoak eta estatu terrorismoak eragindako biktimen eskubideak babestea, (...) eskubideen aitopen osoa lortzeko beharrezkoak diren neurri politikoak, sozioekonomikoak, juridikoak eta zientifiko nahiz kulturak abian jar ditzatela eskatzea eta sustatzea (...) eta Euskal Herriko Egiaren Batzordea eratzea”.
Webgunea	http://www.genocidioendonostia.com/index.html
	https://genozidonostia.wordpress.com/

Zenbakia	013
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Asociación por la Memoria Histórica de Miranda de Ebro
Kokalekua	Miranda Ebro
Deskribapena	Miranda Ebroko kultura elkarte, 2003an sortua herritar talde baten ekimenez. Taldekide gehienak Gerra Zibilean hildakoen edo errepre-saliatuen senideak dira, eta lekukotzak nahiz dokumentuak biltzeaz gain, errepre-sio frankistaren biktimei buruz aztertzea eta ezagutza horiek hedatzea sustatzen dute. (webgunea gaur egun ez dabil).
Webgunea	

Zenbakia	014
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Asociación Republicana de Andoain BELABIETA Andoaingo Errepublikarrak
Kokalekua	Andoain
Deskribapena	Espainian errepublika ezartzearen alde lan egiten duen elkarte andoainarra. Horrez gainera, memoria historikoa berreskuratzeko eta errepre-sio frankista salatzeko zenbait jardura antolatu dituzte.
Webgunea	http://belabietaerrepublikarrak.blogspot.com.es/

Zenbakia	015
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Asociación Republicana Irunesa Nicolás Guerendiain / “Nicolás Guerendiain” Irungo Errepublikarrak
Kokalekua	Irun
Deskribapena	Irungo elkarte honek “hausnartu eta sakon aztertu” nahi ditu bai errepublikanismoa, bai irungo errepublikanoak, eta horretarako, “Irungo historiako bertako pertsonaiak eta gertaerak berreskuratuko ditugu, gure oroimenetik ezabatzen ahalegindu dira-eta. Horrez gain, Errepublika bera aldarrikatuko dugu”. Elkarteak Nicolás Guerendiainen semeari zor dio izena, 1937an fusilatutako gazteari. Elkarteak hainbat jardura gauzatu ditu: Gerra Zibileko fusilatutako eta zorigaitzokoak gogora ekartzeko zenbait ekitaldi antolatu ditu, besteak beste.
Webgunea	http://www.asociacionrepublicanairunesa.org/

Zenbakia	016
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Bakeola
Kokalekua	Bilbo
Deskribapena	Gatazketarako bitartekaritza zentroa, EDE Fundazio Kanoniko Autonomoarekin lotura zuzena duena. Bakeolak bake kultura, bizikidetza eta giza eskubideak hedatzen lan egiten du, nagusiki. Honako hauekin batera lan egin du, besteak beste: Donostiako Udala, Zarauzko Udala, Portugaleteko Udala eta hainbat elkarte (Moralismo Público, Martxoak 3...). Nahiz eta elkartearen lanen ardatza ez den Gerra Zibileko memoria lekuak identifikatzea, gatazketan bitartekaritza lanak egitean kontuan hartzen dituzte Gerra Zibileko eta frankismoko gertaera historikoak eta zer eragin izan duten horiek geroko bizikidetzan.
Webgunea	http://www.bakeola.org/oroimenabizirik/ - inicio

Zenbakia	017
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Bakioko Memoria
Kokalekua	Bakio
Deskribapena	1937an tropa frankistek fusilatutako bakiotarrak gogora ekartzeko sortutako elkarte. Antza denez, hertsiki lotuta dago Ahaztuak 1936-1937 elkartearekin. Badirudi 2012az geroztik ez dagoela inolako jarduerarik blogean.
Webgunea	http://bakiokomemoria.blogspot.com.es

Zenbakia	018
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Basque Children of 37 Association UK
Kokalekua	Britainia Handia
Deskribapena	Elkarte hau Natalia Benjaminek sortu zuen, 2002an, Helvecia Hildagoren laguntzaz. Elkartearen xedea da 1937an Bilbotik Britainia Handira erbesterratu eta itzultzerik izan ez zuten Gerra Zibileko haurrak (4.000) elkar-tzea eta haur horien eta haien ondorengoen memoria iraunaraztea, ez daitezen ahanzturan erori ("should not be 'los olvidados'").
Webgunea	http://www.basquechildren.org

Zenbakia	019
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Berriz 1936 gogoratzen
Kokalekua	Berriz
Deskribapena	Berrizko kultura elkarte, helburu nagusitzat duena udalerriko historia eta ondare kulturala ezagutzea. Horretarako, hainbat jarduera gauzatu dituzte: altxamenduaren eta Gerra Zibilaren ondorioz jasandako errepresioa aitortu; errepresaliatuen zerrenda bakarra sortu (Berrizko izen guztiak); biktimen senideei informazioa eman; toponimia eta ikur frankistak ezabatu...
Webgunea	http://www.berriz1936gogoratzen.com

Zenbakia	020
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Billabonako Aritza Kultur Elkartea eta Billabonako Udala.
Kokalekua	Billabona
Deskribapena	2014ko martxoan, Aritza Kultur Elkartek eta Billabonako Udalak Frankismoa Amasa-Villabonan. Iraganera hurbilpen bat, etorkizuna eraikitzeko izeneko erakusketa antolatu zuten, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako laguntza bati esker. Erakusketaren helburua eta hori antolatzeko egin dituzten lanena Gerra Zibilak Amasa-Billabonan eragindako "errepresio handia" gogoraraztea da. Horrez gainera, elkarteak errepresio frankistari buruzko zenbait lan argitaratu ditu, hala nola Frankismoaren aztarnak arakutzen, 2013an.
Webgunea	

Zenbakia	021
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Castet Kultur Elkartea
Kokalekua	Zaldibar
Deskribapena	1991n Zaldibarren sortutako elkarte, 1937an Intxortan hildako Iñaki Casteten izena daramana. Elkartearen xedeetako bat da "Euskal Herria eta askatasuna babesten eroritakoak" gogoan izatea. 2009an, Castet Eguna antolatu zuten, gerran hildako Durangaldeko "gudari" eta "miliziano" guztien omenez.
Webgunea	

Zenbakia	022
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Debagoienako Fusilatuen Senideen Batzordea
Kokalekua	Arrasate
Deskribapena	Arrasateko elkarte, helburutzat duena Gerra Zibilean Debagoieneko herrietan fusilatu zituztenen senideak koordinatzea.
Webgunea	

Zenbakia	023
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Durango 1936 Kultur Elkartea
Kokalekua	Durango
Deskribapena	Durango elkartea hau 2007an sortu zen, Gerra Zibilean “askatasunaren” aldeko borrokan fusilatu zituzten edo desagertu ziren pertsonen senideak elkartzeko. Webgunean adierazita dutenez, helburu nagusizat dute “askatasunaren eta herriaren alde frankismoaren aurka euren bizitza eskaini zuten durangarrak eta Durangaldekoak omentzea eta ohoratzea da. Euren berri izan eta herrian zabaldu nahi dugu”. Horretarako, 1936an altxatutako enpresaria jasan zuten gizon-emakumeen zerrendak sortzen dihardute. Abadiñon, Atxondon, Berrizen, Durangon, Elorrion, Ermuan, Garain, Iurretan, Izurtzan, Mallabian, Mañarian, Otxandion eta Zaldibarren gauzatu dute lan hori. Zerrenda horien bitartez, gogora ekarri nahi dituzte gerra garaian errepresio frankista pairatu zutenak.
Webgunea	http://www.durango1936.org/eu/hasiera.php

Zenbakia	024
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Egiari Zor Fundazioa
Kokalekua	
Deskribapena	Espainiako eta Frantziako estatuak sorrarazi eta zuzendutako “ukapenaren” eta “erasoen” eragina jasan duten pertsonak biltzea xede duen fundazioa da. Errepresioaren eta euskal gatazkaren biktimek gogora ekarri nahi ditu. Horretarako, 1936ra arte eta Gerra Zibilera arte egiten dute atzera. Webgunean frankismoko biktimekin zerikusia duten berriak argitaratzen dituzte, besteak beste.
Webgunea	http://www.egiarizor.org/index.php

Zenbakia	025
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Ekai Center Fundazioa
Kokalekua	Arrasate
Deskribapena	“Politika sozioekonomikoei, tokiko politikei, ekonomia sozialari eta legediari buruzko aholkularitza, ikerketa eta komunikaziorako” zentroa da, Arrasaten kokatua. Nahiz eta elkartearen zereginek ez duten zerikusirik memoria historikoarekin, frankismoari buruzko egitasmoren batean parte hartu dute. 2014an, esaterako, laguntza jaso zuten bi lan egiteko: bata, frankismoaren ekonomia politikari eta haren onespenean eta ordainari buruzkoa, eta bestea, frankismo garaiko emakumeari eta boto eskubideari buruzkoa.
Webgunea	http://ekaigroup.blogspot.com.es

Zenbakia	026
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Elgoibar1936
Kokalekua	Elgoibar
Deskribapena	Elgoibarko herritar elkarte, "Elgoibarko memoria historikoa berreskuratzeko" sortua. Elkartearen xedea da tropa frankistek Gerra Zibilean gauzatutako "hilketak" eta "sarraskiak" ezagutzera ematea. Horretarako, hobiak aurkitzen, biktimak identifikatzen eta eragindako mina aitortzen saiatzen dira. Elkartearen helburua da herriak herriarentzat eraikitzea historia, haien esanetan "galtzaileen" historia dena.
Webgunea	www.elgoibar1936.org

Zenbakia	027
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	ELKASKO, Asociación Vizcaína de Investigación Histórica/Bizkaiko Ikerketa Historikoen Elkarte
Kokalekua	Sestao
Deskribapena	Sestaoko elkarte hau 2010ean sortu zen, "Euskal Herria garaikideari buruzko ikerketak gauzatzeko asmoz". Ikerketa ugari egin dituzte, eta errepresio frankistaren gaineko zenbait liburu argitaratu. Azkena, Era más la miseria que el miedo. Mujeres y Franquismo en el Gran Bilbao. Represión y resistencias izenekoa, 2014ko azaroaren 7an argitaratu zuten.
Webgunea	https://elkaskoasociacion.wordpress.com

Zenbakia	028
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Erkibe Kultur Elkarte
Kokalekua	Zumaia
Deskribapena	Zumaiaren dinamizazioan tradizio handia duen kultur elkarte da, eta 2013. urteaz geroztik II. Errepublikako eta Gerra Zibileko memoria historikoarekin lotutako gaiak lantzen hasi da. 2014. urtearen amaieran oraindik ez zituzten argitaratu gauzatzen ari ziren lanen emaitzak.
Webgunea	http://erkibe.blogspot.com.es

Zenbakia	029
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Erriberagoitiko Udala
Kokalekua	Errigoiti
Deskribapena	Ahaztuak 1936-1937 elkartearekin lankidetzan, Erriberagoitiko Udalak frankismoan exekutatutako hiru nekazariri omenaldia egin zien 2010eko irailaren 1ean. Omenaldian, monolito bat ipini zuten nekazarien gorpuak aurkitu zituzten hobi komunaren ondoan.
Webgunea	http://erriberagoitia.eu

Zenbakia	030
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	Euskal Memoria Fundazioa
Kokalekua	Donostia
Deskribapena	Donostiako elkarte hau 2009an sortu zen, eta helburutzat du Euskal Herriko memoria berreskuratzea eta berreraikitzea. Alde batetik, egindako lanak ezagutzera emateko jarduerak gauzatzen dituzte, eta beste alde batetik, Euskal Herriko memoriari buruzko dokumentazio zentro bat sortu nahi dute. Gerra Zibileko eta frankismoko memoria historikoaren berreraikuntzarekin lotutako argitalpen ugari dituzte (aldizkariak, artikulak, liburuak, DVDak...).
Webgunea	http://www.euskalmemoria.com/sect/es_ES/4000/Inicio.html

Zenbakia	031
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	Eusko Abertzale Ekintza/ Acción Nacionalista Vasca
Kokalekua	Orio
Deskribapena	Eusko Abertzale Ekintza/Acción Nacionalista Vasca (EAE/ANV) 1930ean eratutako alderdi nazionalista historikoa da, demokrata, independentista eta sozialista. Eusko Lurra Fundazioak lotura hertsia du alderdiarekin. Eusko Lurra Fundazioaren helburuetako bat da Euskal Herriko memoria historikoa berreraikitzea hainbat argitalpen, oroime-nezko ekitaldi eta hitzaldiren bidez.
Webgunea	http://www.euskolurra.eu

Zenbakia	032
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	Frankismoaren Ekimenen aurkako Kereilaren Euskal Plataforma
Kokalekua	Hego Euskal Herria
Deskribapena	2014ko uztailan sortutako plataforma bat da, eta memoria historikoa berreskuratzeko eta "Euskal Herrian gauzatu zituen krimenen aurrean egia, justizia eta ordaina" lortzeko lan egiten duten hainbat elkarte biltzen ditu. Plataformak erantzule frankisten "zigorgabetasuna" salatzen du, eta auzia jarri du "frankismoaren aurka eta oraindik bizirik dauden frankisten aurka".
Webgunea	

Zenbakia	033
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	EDE Fundazio Kanoniko Autonomoa
Kokalekua	Bilbo
Deskribapena	Hainbat lan ildo eta proiektu dituen elkarte bilbotarra. Holokausto naziari buruzko ikerketan diharduen atal bat dute, besteak beste. Interesgarria izan daiteke naziek Frantzia inbaditu zuten garaian Gerra Zibilaren eta frankismoaren ondorioz herrialde horretara erbesteratu zituztenen gaineko ikerketa bat egitea.
Webgunea	http://www.fundacionede.org

Zenbakia	034
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Juan de los Toyos Fundazioa
Kokalekua	Barakaldo
Deskribapena	UGT sindikatuaren memoria historikoko fundazioa da; Barakaldon kokatuta dago, eta Juan de los Toyos sozialista eta lehen Eusko Jaurlaritzako lan sailburuaren omenez sortu zuten. Fundazioa memoria historikoaren ikerketan eta hedapenean espezializatuta dago. Gerra Zibilekin eta frankismoarekin lotutako zenbait lan argitaratu ditu.
Webgunea	http://juandelostoyos.com

Zenbakia	035
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Euskal Herriko Meatzaritzaren Museo Fundazioa
Kokalekua	Gallarta
Deskribapena	Meatzaritzaren Museoa meatzari eta siderurgiako langile ohiek sortu zuten, Gallartan, 1986an. Urteek aurrera egin ahala, "meatzaritzak sortutako elementuak berreskuratu eta zaintzen" hasi ziren, meatzaritza "ahaztuta gera ez dadin". Ikerketak sustatu, eta ahozko lekukotzak biltzen dituzte. Elkarreak egindako lanen artean edo elkartearen funtsen artean badira meatzaritzari eta meatzarien historiari buruzko zenbait lan Gerra Zibilaren garaia ere lantzen dutenak.
Webgunea	http://www.meatzaldea.eus

Zenbakia	036
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Kokalekua	Gernika
Deskribapena	Gernikako Bakearen Museoa Foruen plazan kokatuta dago, 1997ra arte udal museoa zegoen tokian. Udal museoaren gai nagusiak "Gernika-Lumoko historia eta hiriak Gerra Zibilean jasandako bonbardaketa larria" ziren. 2002an fundazio bilakatu zuten, baina gaur egun ere udalerraren historia eta 1937ko bonbardaketa ezagutzera ematen ditu. Museoan, bonbardaketari buruzko dokumentazio zentro interesgarri bat dago.
Webgunea	http://www.museodelapaz.org

Zenbakia	037
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	Ramón Rubial Fundazioa
Kokalekua	Bilbo
Deskribapena	Bilbon kokatutako fundazioa, Ramón Rubial euskal buruzagi sozia- lista historikoaren omenez sortua. Fundazioak lanean dihardu, “so- zialismoaren balioetan eta historian oinarritutako arrazoibide ideolo- gikoa eskaintzeko gizarteari”. Webgunean, Ramón Rubialen bizitza azaltzen dute, 1937tik 1957ra arte jasandako “espetxe zigorra eta errepresio frankista” barne. Haren bizitzaren azalpenak, gainera, “espetxeetako mugimendu sozialista” berrikusteko balio du.
Webgunea	http://www.ramonrubial.com

Zenbakia	038
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	Galdakao Gogora
Kokalekua	Galdakao
Deskribapena	Galdakaoko elkarte, Gerra Zibileko gertaerak gogora ekartzeko eta memoria historikoa berreskuratzeko lan egiten duena. Bloga egune- ratu gabe dago 2012az geroztik.
Webgunea	http://galdakogogora.blogspot.com.es

Zenbakia	039
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	Garaian Kultur Elkarte/Patxi Juaristi
Kokalekua	Markina-Xemein
Deskribapena	Kultura elkarte hau 2009ko abenduan sortu zuten, Markina- Xemeingo Garaian aldizkari/urtekariaren garai berria zuzentzeko. Elkartearen zein aldizkariaren helburua da udalerriko eta inguru- tako historia, etnografia, ohiturak eta abar sakontasunez aztertzea. Horretarako, hainbat motatako jarduerak antolatzen dituzte: hitzal- diak, dokumental emanaldiak, argazki erakusketak, musika, antzer- kia... Garaian aldizkariaren zenbait zenbakitan eta artikulutan landu izan dute Gerra Zibilaren gaia (39., 40., 41., 46. eta 47. zenbakiak). Horrez gainera, elkartearen sortzaileetako batek, Patxi Juaristik, me- moria lekuen identifikazioarekin lotutako hainbat lan egin ditu, eta Gerra Zibilak Markina-Xemeinen eta inguruetan izandako ondorioei buruzko hainbat liburu argitaratu ditu: Markinako Frontea. Markina eta Xemeingo egoera Politikoa eta Soziala Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean (1931-1939), 2011n argitaratua, eta Gerra Zibila Berriatuan eta Lekeitioko Frontean, 2014an argitaratua.
Webgunea	http://garaianelkatea.blogspot.com.es

Zenbakia	040
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Garraxika, Errepresioaren Ondarroako Biktimen Ahotsa
Kokalekua	Ondarroa
Deskribapena	Ondarroako elkarte hau 2007an sortu zen, eta udalerriko gudarien omenezko monumentuaren aurrean egin zuten aurkezpena. Inoiz atxilotuta egon diren ondarroarrak, preso egon direnak eta ihesi alde egin behar izan zutenak biltzen ditu, besteak beste, elkarteak, aurkezpenean nabarmendu zuten moduan: "gure esfortzuaren ordainetan, kolpe frankista, errepresioa, kartzela... azken finean sufrimendua jaso genuen". Elkarteak 400 bat bizilagun elkartu ditu guztira.
Webgunea	

Zenbakia	041
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Gasteiz at War. I Congreso Internacional sobre Arqueología de la Guerra Civil española (Gasteiz, 9-13 de diciembre 2014) / Espainiako Gerra Zibilaren Arkeologiari buruzko Nazioarteko Lehen Kongresua (Gasteiz, 2014ko abenduak 9-13)
Kokalekua	Gasteiz
Deskribapena	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Ondare Eraikiari buruzko Ikertaldeak (GPAC) garatutako proiektua: Arqueología y socialización del Patrimonio de la guerra civil en Euskadi.
Webgunea	http://gasteizatwar.jimdo.com/gasteiz-at-war

Zenbakia	042
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Gerediaga Elkartea
Kokalekua	Durango
Deskribapena	Durangoko elkarte hau 1965an sortu zen, eskualdearen historiarekin lotutako gaiak lantzeko eta ondare kulturala, soziala eta historikoa berreskuratzeko. Eginkizun nagusizat urtero Durangoko Liburu Azoka antolatzea badu ere, Durangoko historiari (batik bat garaiki-dea) eta 1937ko bonbardaketari buruzko zenbait lanetan ere arituda. Durangaldeko dokumentazio zentro nagusia ere bada.
Webgunea	http://www.gerediaga.com

Zenbakia	043
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Gernikazarra
Kokalekua	Gernika
Deskribapena	1985ean Gernikan sortutako historia elkarte, ardatz nagusizat duena Gernika-Lumori buruzko ikerketa historikoa. Hasieran, Gernikako bonbardaketarekin lotura zuzena zuten gaiak lantzen zituzten; gero, udalerraren berreraikuntzaren gaineko ikerketak egin zituzten, eta gaur egun memoria historikoa berreskuratzen dihardute. Gai horiei buruzko erakusketak antolatu eta liburuak argitaratu dituzte.
Webgunea	http://www.gernikazarra.com

Zenbakia	044
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Geureak 1936
Kokalekua	
Deskribapena	Frankismoko biktimen elkarte, 2004an sortua. Eusko Jaurlaritzak Gizarte Gaietako Sailaren bidez ematen zituen ordainak jaso ez zituzten errepresaliatuak babesteko sortutako elkarte da. Gero, Gerra Zibileko eta frankismoko biktimen ahozko lekukotzak eta lekukotza grafikoak biltzeko bi proiektu garatu zituen: Recopilación de los testimonios orales y documentales de las víctimas de la represión franquista en la Comunidad Autónoma Vasca, 2006an eta 2007an garatua, eta Recopilación de los testimonios orales y digitalización de la documentación de los represaliados por el franquismo en la Comunidad Autónoma Vasca (1945-1975), 2008an garatua. Ezin izan dugu egiaztatu elkarteak lanean diharduen.
Webgunea	

Zenbakia	045
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Gipuzkoa 1936
Kokalekua	Donostia
Deskribapena	Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak mantentzen duen webgunea. Haren helburua da "Gipuzkoa eraldatu zuen urtearen (1936) errealitate artega, zuzen-zuzenean, ezagutzeko aukera" ematea.
Webgunea	http://www.gipuzkoa1936.com

Zenbakia	046
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Gogoan Sestao
Kokalekua	Sestao
Deskribapena	Sestaoko elkarte honek Gerra Zibileko eta frankismoko memoria historikoa berreskuratzeko lan egiten du, baita "egia, justizia eta errepresazioa" lortzeko ere. Parte hartu dute hobi komunetatik gorpuak ateratzeko lanetan, baita frankismoko biktimen gorpuak berreskuratzeko lanetan ere; gogora ekarri dute 1937an Sestaon izandako bonbardaketa; zenbait biltzar eta jardunaldi antolatu dituzte, eta hainbat omenaldi egin dituzte.
Webgunea	http://www.gogoansestao.eus

Zenbakia	047
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	Goldatu
Kokalekua	Bilbo
Deskribapena	Francoren diktadura garaiko euskal preso eta errepresaliatuen el- katea, 2011n sortua eta Bilbon kokatua. Haren helburu nagusia da benetako historia aldarrikatzea: 1960ko eta 1970eko hamarkadetan diktadurari aurre egin zioten Euskal Herriko eta Estatu osoko mila- ka borrokalariren historia. Hainbat jarduera gauzatu dituzte: bilerak, hitzaldiak...
Webgunea	http://goldatu.org/es

Zenbakia	048
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	Gureak Memoria Historikoa
Kokalekua	
Deskribapena	Gorpuak hobietatik ateratzeko zenbait proiektutan parte hartu duen elkatea. Ez dugu elkarteari buruzko informaziorik aurkitu, baina Gerra Zibileko eta frankismoko memoria historikoa berreskuratzen diharduten beste elkarte batzuekin batera ageri da. Baliteke Geureak 1936 elkatea izatea (aurretik deskribatua).
Webgunea	

Zenbakia	049
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	II. Errepublika eta Gerra Zibila Deustuan
Kokalekua	Bilbo
Deskribapena	Deustu auzoko elkarte bilbotarra, Gerra Zibileko eta frankismoko gertaeren memoria historikoa berreskuratzeko lan egiten duena. Zenbait ekitaldi antolatu dituzte, eta liburuak argitaratu dituzte II. Errepublikan eta Gerra Zibilean Deustuan jazotako gertaerei buruz.
Webgunea	https://gerrazibiladeustun.wordpress.com

Zenbakia	050
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	Valentín de Foronda Institutua
Kokalekua	Gasteiz
Deskribapena	Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Historiarako Institutu mis- toa, gizarte historia sustatzeko sortua. Frankismoarekin eta Gerra Zibilekin lotutako biltzarrak eta hitzaldiak antolatu ditu, nahiz eta hori ez den institutuaren helburu nagusia.
Webgunea	http://www.ehu.es/es/web/institutovalentindeforonda/home

Zenbakia	051
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Intxorta 1937 Kultur Elkartea
Kokalekua	Bergara
Deskribapena	“Memoria historikoaren errekupeazioagatik” lan egiten duen elkartea, Bergaran kokatua. Zenbait liburu argitaratzeaz gain, erakusketak, hitzaldiak eta bideokonferentziak antolatzen dituzte, eta bisita tematikoak eskaintzen dituzte Elgetako frontea izandakoan. Elkartearen jarduera guztiek zerikusia dute Gerra Zibilarekin. Datu-base handi bat prestatzen ari dira, “faxismoaren aurkako borrokan Euskal Herriko hildakoen” izen eta argazkiekin.
Webgunea	http://www.intxorta.org

Zenbakia	052
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Izquierda Republicana Vasca- Euskal Ezker Errepublikanoa
Kokalekua	
Deskribapena	Espainiako Ezker Errepublikanoaren atala da. Hainbat jarduera gauzatu dituzte, honako hauek, besteak beste: II. Errepublikari eta Gerra Zibilari buruzko liburu eta artikulak argitaratu dituzte, eta alderdi frankistaren esku hildakoak oroitzeko egindako hainbat omenaldi eta ekitalditan parte hartu dute.
Webgunea	

Zenbakia	053
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Jabier Txordo/Mutriku
Kokalekua	Mutriku
Deskribapena	Kostaldeko herri txikiaren historiaren zalea da, eta urteen joanean datuak bildu, eta Gerra Zibileko eta frankismoko hainbat gertaerarekin lotutako askotariko jarduerak eta omenaldiak antolatu ditu. Hainbat erakunde publikok Saturrarango (Mutriku) espetxean giltzapetuta egon ziren emakumeei egin zieten omenaldiaren sustatzaileretako bat izan zen. Gaur egun, kultura elkarte txiki bat antolatzen ari da, udalerriko historia berreskuratzeko asmoz.
Webgunea	

Zenbakia	054
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Jose Unanue Fundazioa
Kokalekua	
Deskribapena	Comisiones Obreras sindikatuaren fundazioa da, eta "analisis, ikerketak, eztabaidak, ekonomiaren inguruko prestakuntza eta zabalke-ta ekintzak, jendartea, lan harremanak, sindikalismoa, gizarte babesa, zerbitzu publikoak, Euskadiko erakundeak eta horiek Estatua, Europa eta munduarekin dituzten harremanak sustatzen ditu". Helburu horiek betetzearen, langile mugimenduaren historiarekin lotutako jarduerak antolatu ditu, eta Gerra Zibila eta frankismoa lan-du dituzte jarduera horien baitan.
Webgunea	http://www.unanuefundazioa.org

Zenbakia	055
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Kattin Txiki
Kokalekua	Oiartzun
Deskribapena	Oiartzungo elkarte hau 2007an sortu zen, eta memoria historikoa berreskuratzen dihardu. Gauzatutako jardueren artean, Aranzadi Elkartearekin batera parte hartu zuen Gerra Zibileko lau fusilaturen gor-puak lurpetik ateratzeko lanetan, eta Isiltzen ez den isiltasuna: lurpetik berreskuratutako memoria izeneko liburua argitaratu du.
Webgunea	

Zenbakia	056
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Larrabetzu 1937
Kokalekua	Larrabetzu
Deskribapena	2012an Bizkargiko burdinazko hesiaren 75. urteurrena zela-eta sortutako elkarte, Larrabetzun kokatua. Elkartearen helburuak dira luzaroan historia ofizialak ahaztuta izan dituen gudariak omentzea, errepresio frankistaren gaineko isiltasuna amaiaztea, garaituen ahotsa berreskuratzea eta gizartea nahiz estamentu publikoak burdinazko hesiaren aztarnen eta hondarren galeraz ohartaraztea.
Webgunea	http://larrabetzu.org/1937

Zenbakia	057
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Lau-haizetara gogoan
Kokalekua	
Deskribapena	2007an, frankismoko biktimen hamaika talde eta elkartek Lau-haizetara koordinakundea aurkeztu zuten, "Memoria Historikoaren Legea onartzea ekiditeko (...) eta oraindik zenbait lekutan agerian dauden ikur frankisten aurka mobilizatzeko". Koordinakundearen asmoa da gizarteak gogoe-ta egin dezala eta "ikur frankista horien presentzia sala dezala". 2014ko ekainean, Las Milicias Antifascistas Vascas Durante el Alzamiento Fascista Español (1936-1939) liburuaren argitalpenean eta hedapenean parte hartu zuten.
Webgunea	

Zenbakia	058
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Legazpi 1936
Kokalekua	Legazpi
Deskribapena	"Gerraren ondorioz hil ziren legazpiarren omenez" 2011n egindako ekitaldiak. Izen bereko liburu bat ere argitaratu zuten (Legazpi 1936), non jasota datozen "frankismoaren aurkako" gerran hildako herritarren izenak. Horrez gainera, plaka bat ipini zuten, hainbat hitzaldi eskaini zituzten eta ibilaldia egin zuten Ormakioko frontera. Ez dirudi gaur egun jarduerarik gauzatzen dutenik.
Webgunea	

Zenbakia	059
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Leizaola Elkargoa
Kokalekua	Bilbo
Deskribapena	Jesus Mari Leizaolaren oroipenean sortutako fundazio bilbotarra, bakearen eta giza eskubideen alde lan egiten duena. Memoria historikoa berreskuratzeko hainbat proiektutan parte hartu du, hala nola Jesus Maria Leizaola berari buruzko dokumentalean (2014ko maiatzean aurkeztu zuten).
Webgunea	http://www.leizaola.org

Zenbakia	060
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Lemoatx 1937. Lemoako Memoria Historikoaren Batzorde Herrikoia
Kokalekua	Lemoa
Deskribapena	Elkarte hau Lemoako bizilagun batzuek abiarazi zuten 2012an, udalerriko memoria historikoa eta Gerra Zibileko ondarea berreskuratzeko. Ez zegoen memoria historikoaren berreskurapenean ziharduen erreferentziatzko elkarerik, eta hutsune hori betetzeko sortu zuten ekimena: aspalditik ezarrita zegoen “tabua” hausteko. Gaurdaino, Lemoatxan hil ziren 200 pertsona bildu dituzte zerrenda batean, bi bandotakoak, eta ikur frankisten katalogo bat osatu dute. Halaber, mendiko lubakiak eta gainerako azpiegiturak berregiten saiatzen ari dira.
Webgunea	http://lemoatx1937.blogspot.com.es

Zenbakia	061
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Lenbur
Kokalekua	Legazpi
Deskribapena	Legazpiko fundazio honek, Bikuña Enea jauregian kokatuak, “berziki burdinaren historiarekin lotuta dagoen eskualdeko kultur eta natur ondarea ezagutaraztea eta Urola Garaiaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzea du xede”. Gaur egun, gainera, memoria historikoa berreskuratzeko lanean ari dira, eta Francoren diktadurapean bizi izan ziren gizon-emakumeei elkarrizketak egiten ari dira horretarako.
Webgunea	

Zenbakia	062
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Mario Onaindia Fundazioa
Kokalekua	Zarautz
Deskribapena	<i>Mario Onaindiaren oroipenetan sortutako fundazioa, Zarautzen kokatua. Fundazioaren egitasmoetako bat da “Euskadin erregimen frankistari aurka egin zioten kultura politikoen memoria ahanzturatik ateratzea”, 1936tik aurrera izandako “militante eta jarraitzaileen memoria bilatuz, bilduz, aztertuz eta hedatuz”. Frankismoko sozialismoaren memoria historikoari buruzko liburu bat argitaratu du: Rojo esperanza. Los socialistas vascos contra el franquismo</i>
Webgunea	http://www.marioonaindiafundazioa.org

Zenbakia	063
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Matxitxako Elkartea
Kokalekua	Donostia
Deskribapena	Euskadiko Gudontzidiko Kideen Senideen eta Adiskideen Kultura Elkartea, Donostiako Untzi Museoan kokatua. Haren helburua da Euskadiko Itsas Armada Laguntzaileak 1936tik 1937ra bitarte izandako jarduna hobeto ezagutzea, eta “euren borondatez Euskadiko IALko kide izan ziren guztiei merezi duten omenaldia” egitea. Itsas gertaera ugari identifikatu dituzte, eta monolito asko seinatu eta eraiki dituzte tropa frankisten aurka borroka egin zutenak oroitzeko (Bermeo, Leioiz-Armintza, Pasai San Pedro, Donostia...). Horrez gain, urtero antolatzen dute Euskadiko Itsas Armada Laguntzaileko kideentzako omenaldia, eta jarduera hori erreferentziatzeko ekitaldi bilakatu da memoria historikoaren berreraikuntzarekin lotutako jardueren artean.
Webgunea	

Zenbakia	064
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Memoria Histórica Barakaldo
Kokalekua	
Deskribapena	Euskal Memoria Fundazioarekin lotutako koordinakundea, 2012ko udaberrian sortua. Urte horretako ekainean “frankismoko biktimak omentzeko egindako ekitaldia” sustatu zuen, besteak beste, eta Gerra Zibilean eta frankismoan hildako barakaldarrak urtero omentzea lortu nahi du.
Webgunea	

Zenbakia	065
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Ondarroako Historia Zaleak
Kokalekua	Ondarroa
Deskribapena	Ondarroako elkarte hau historiako espezialistek eta historiaren zale-tuek sortu zuten 2001ean, Ondarroako historia eta ondarea berreskuratzeko asmoz. Gai historikoei buruzko erakusketak eta mintegiak antolatzen dituzte. Urtero argitaratzen dute historiari buruzko artikulak biltzen dituen aldizkari bat, eta argitalpen horrek hedapen handi samarra du, bai udalerrian, bai inguruko herrietan. Gerra Zibilekin eta frankismoaren lehen garaiarekin lotutako lan eta jarduera ugari gauzatu dituzte; 2006an, esaterako, II. Errepublikan eta Gerra Zibilean Ondarroan jazotako gertaerei buruzko lan bat egin zuten.
Webgunea	http://ondarroakohistoria.wordpress.com

Zenbakia	066
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Oñatiko Euskal Memoria, Goiena
Kokalekua	
Deskribapena	2009an sortutako elkartea, lotura zuzena duena Euskal Memoria Fundazioarekin. Azken horren helburu eta lan ildo berberak proposatzen ditu Oñatiko memoria historikoa berreskuratzeko.
Webgunea	http://goiena.eus/komunitatea/euskalmemoria

Zenbakia	067
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Oroimen Historikoaren Mapa
Kokalekua	Donostia
Deskribapena	Mapa interaktibo bat da, eta bertan ageri dira Donostian Gerra Zibilean eta frankismoan izan ziren gertaera garrantzitsuenen kokalekuak: gatazka lekuak, bonbardaketa lekuak, ehorzketa lekuak, fusilamendu lekuak, atxilotze zentroak eta oroitzapenezko elementuak. Mapa Donostiako Udalaren laguntzaz egin zen, Aieteko Bakearen Etxean kokatuta dagoen Giza Eskubideen Bulegoak eskatuta. Erakunde hori hainbat jarduera gauzatzen ari da memoria historikoa berreskuratzeko. 2015eko urtarrilean/otsailean proiektu berria aurkeztuko dute: Giza Eskubideen Aholku Kontseilua, elkarrekin, eragileekin eta herritarrekin lan egiteko bitartekari gisa jardun nahi duena.
Webgunea	http://www.donostia.org/info/ciudadano/Oroimen.nsf/fwLugares?ReadForm&id=A513328&idioma=eus

Zenbakia	068
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Oroituz
Kokalekua	Portugalete
Deskribapena	Blogean irakur daitekeenez, Portugaleteko Oroituz elkartearen xedea da “José Antonio Aguirre Lekube buru izan zuen Eusko Jaurlaritzak Euskal Herrian ezarritako ideal errepublikanoak babes-teagatik espainiar faxismoak immolatutako herritarren oroimena bizirik mantentzea”. Elkarteak “hildakoak omendu nahi ditu”, eta Gerra Zibilean nahiz frankismoan jazotako gertaerak ikertzen jarraitu nahi du, “biktimen oroimenari eusteko”.
Webgunea	http://denepi.blogspot.com.es/2014/08/oroituz.html

Zenbakia	069
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Sabino Arana Fundazioa
Kokalekua	Bilbo
Deskribapena	1988an Sabino Aranaren oroipenean sortutako fundazioa, helburutzat duena Euskal Herriko historiaren ezagutza eta dibulgazioa sustatzea. Gerra Zibilekin eta errepresio frankistarekin lotutako hainbat jarduera eta argitalpen gauzatu ditu.
Webgunea	http://www.sabinoarana.org

Zenbakia	070
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Sancho de Beurko
Kokalekua	Trapagaran
Deskribapena	Trapagarango elkarte honek Gerra Zibilari eta Bilboko Burdin Hesiari buruzko 8 liburu eta artikulua ugari argitaratu ditu. "2008az geroztik lan aitzindari bat egiten ari dira EJKo Ondare Zuzendaritzarentzat: Burdin Hesiaren inguruan dauden Gerra Zibileko gotorlekuen inbentarioa"; horrez gainera, ondarearen garrantzia nabarmentzeko lan egin dute hainbat udalekin. "Gainera, birsorkuntza historikoaz arduratzen den taldeak zenbait filmazio sustatu ditu, eta kolaborazioak egin ditu irrati nahiz telebistan".
Webgunea	http://www.sanchodebeurko.org

Zenbakia	071
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	SOS Haur Lapurtuak Euskadi
Kokalekua	
Deskribapena	2006. eta 2009. urteen artean sortutako elkarte, Estatuko erkidegoetan ordezkaritza duena SOS Bebes Robados izeneko elkarte bitartez. Elkarte horien helburua da egia ezagutzea eta 1950eko hamarkadatik izandako "jaioberrien ustezko salerosketak" salatzea.
Webgunea	

Zenbakia	072
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Uda Berri Galdua
Kokalekua	
Deskribapena	Jatorri bizkaitarra duen Interneteko elkarte edo komunitatea da, eta hainbat jarduera gauzatu ditu; besteak beste, ezagutzera eman ditu Gerra Zibilari buruzko zenbait lekukotza.
Webgunea	http://udaberrigaldua.blogspot.com.es

Zenbakia	073
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	Ugao-Miraballes, Ugao Burdin Hesia-Cinturón de Hierro de Miraballes Elkartea
Kokalekua	Ugao-Miraballes
Deskribapena	2011n sortutako elkartea, helburutzat duena “Ugao-Miraballesen dauden Bilboko Burdin Hesiaren edo babes hesiaren hondar arkitektonikoak aurkitzea, katalogatzea eta aztertzea”, ezagutzera ematea eta kontserbatzea. Halaber, “Ugao-Miraballesekin zerikusia duen Gerra Zibileko gertaera oro” aztertzeko ikerketak egiten dituzte. 2013an, adibidez, udalerriri eman zioten Gerra Zibilarekin eta Burdin Hesiarekin lotutako zenbait elementu zituen bitrina bat.
Webgunea	https://www.facebook.com/BurdinHesiaUgaonEICinturonDeHierroEnUgao/timeline

Zenbakia	074
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	Uliako Taldea
Kokalekua	Donostia
Deskribapena	Donostiako Gros auzoko elkartea, Gerra Zibileko eta frankismoko memoria historikoa berreskuratzeko zenbait proiektutan lan egin duena. Lau Haizetara Gogoan koordinakundeko kidea da.
Webgunea	

Zenbakia	075
Elkartearen edo ekimen pribatua- ren izena	Urduña 1936
Kokalekua	
Deskribapena	Ekimen hau 2012. urtearen inguruan abiarazi zuten, tropa frankistak Urduñan sartu zirenetik eta kontzentrazio esparru bat ireki zutenetik 75 urte igaro zirela gogorarazteko. Ekimenaren xedea da (edo zen) Urduñako Gerra Zibileko eta frankismoko memoria historikoa bizirik iraunaraztea. Hainbat ekitaldi egin zituzten. Antza denez, lotura hertsia du Udalarekin: baliteke Udala bera izatea ekimenaren sustatzaile nagusia. Lau Haizetara Gogoan koordinakundean parte hartzen du.
Webgunea	

Zenbakia	076
Elkartearen edo ekimen pribatuaren izena	Zarauzko postalak
Kokalekua	Zarautz
Deskribapena	Zarauzko Udalak egindako proposamen baten ondotik, Amagoia Gurrutxagak Zarauzko Postalak, 36ko gerra liburua argitaratu zuen 2013an. Liburu hori Gerra Zibilean Zarautzen jazoetako gertaerei buruz egindako lanaren zati bat bakarrik izan zen, eta bildutako material osagarria, aldez aurretik zuten materiala eta biltzen joan direna erabiliz, Gurrutxagak blog bat sortu zuen. Etengabe eguneratzen du. Blog horretan, hainbat lekukok, gerratik bizirik ateratako gizon-emaume batzuek eta beste zarautzar batzuek Gerra Zibilari buruz egindako adierazpenak ageri dira, baita memoria lekutzat har ditzakegun zenbait toki ere.
Webgunea	http://zarautz1936.wordpress.com/

2.2.2. Elkarteekin harremanetan jartzeko erabilitako fitxen eredu

Aurreko atalean aipatu moduan, proiektu hau abian jartzean argi genuen ezinbestekoa zela memoria historikoa berreskuratzeko eta errepresio frankistak eragindako kalteen ordaina bermatzeko lan egiten duten elkarteak (tokikoak nahiz probintzialak) zehaztea. Behin elkarte horiek zehaztuta, harremanetan jarri gara horietako ordezkariekin, eta elkarrizketak egin dizkiegu. Oraingoan, elkarte batzuei bakarrik egin diegu elkarrizketa, ezagutza fitxa egoki bat prestatu nahi izan baitugu; bigarren fase batean aipatutako elkarte guztiei eta zerrenda horri erants dakizkiokeen beste batzuei hedatu behar zaie prestatutako fitxa. Fitxa horren helburu nagusia da elkarten datu-base hedagarri bat sortzea, non jasota geratuko den elkarteek egiten dituzten jardueren eta epe laburrean proposatzen dituzten ekimenen gaineko zuzeneko informazioa.

Elkarteei bidali diegun fitxa eredu bat aurkeztu dugu, abiarazitako lanaren adibide gisa balio duena.

Fitxa hau Markina-Xemeingo Garaian Kultur Elkarteak bete zuen, eta argi adierazten digu zertan diharduten, eta, batez ere, argi erakusten du elkarteekin harremanetan jartzea oso baliagarria dela Gerra Zibileko eta frankismoko gertaerei buruzko ahalik eta informazio gehien biltzeko²:


Garaian Kultur Elkarte	
0. Deskribapena:	2009ko abenduan, Garaian Kultur Elkarte sortu zen, aldizkariaren ziklo berri bat hasteko helburuarekin (Garaian aldizkaria 1989. urtean sortu zen). Elkarteko batzuk aldizkarian erredaktore lanetan aritutakoak dira, beste batzuk honelako lanetan inoiz ibili gabeak; dena dela, guztion helburua da Garaian aldizkaria aurrera ateratea. Taldeko kide guztiok Markina-Xemeingoak gara. Aldizkariaren gain, herriko historia, etnografia eta ohituren inguruan hainbat ekitaldi ere antolatzen ditugu: hitzaldiak, dokumentalak, argazki erakusketak, musika eta antzerki ikuskizunak...
1. Helburua:	Urtean Garaian aldizkariaren ale bat ateratzeaz gain, Markina-Xemeingo historiarekin, pertsonaiekin, etnografiarekin, kulturarekin... zerikusia duten ekitaldiak antolatzen ditugu: erakusketak, ibilaldiak, hitzaldiak... Aldizkaria Garaian Kultur Elkartearen oinarria da, baina hemendik abiatuta gauza gehiago ere egiten ditugu, Markina-Xemein ezagutarazteko helburuarekin.
2. Kokapena:	Markina-Xemein
3. Helbidea:	Abesua 12, Markina-Xemeingo Udal-liburutegia.

² Elkarteko kideek hautatu dute harremanetarako eta fitxa betetzeko hizkuntza. Kasu honetan, euskara.

4. Helbide elektronikoa:	infogaraian@gmail.com garaianelkartea@gmail.com patxi.juaristi@ehu.es
5. Telefonoa:	946169047
6. Kontakua	Patxi Juaristi
7. Facebook/Bloga	Facebook: www.facebook.com/pages/GARAIAN-Kultur-Elkartea Bloga: http://garaianelkartea.blogspot.com.es
8. Meoriaren lekuen identifikazioa. Orian arte burututako lanak.	<ol style="list-style-type: none"> 1. 2006ko abenduaren 30ean, Gerra Zibila bizi izan zuten 70 bat markinar eta xemeindar nagusi elkartu, eta gerrari buruzko berbaldi herrikoia egin genuen. 2. 2007ko apirilaren 27an eta 29an, "Ezkaba, la gran fuga de las cárceles franquistas" eta "Mujeres del 36" dokumentalak eman genituen. 3. 2007ko maiatzaren 1ean, 60 pertsonatik gora parte hartu zuten Markinako Frontea ezagutaraztea helburu zuen mendi ibilaldi batean. 4. 2008ko urriaren 28an, herrian ditugun metrailadore etxeak eta lubakiak ezagutzeko ibilaldia antolatu genuen. 5. 2008ko ekainean, Gerra Zibila, Jendea da Hila (Juaristi, 2008a) liburuaren aurkezpena aitzakiatzat hartuta, Gerra Zibilak Markina-Xemeinen izan zuen eraginari buruzko hitzaldi bat eman zuen Patxi Juaristik. 6. 2008ko abenduaren 7an, Joseba Goñi ikerlari eta idazlea ekarri genuen Markina-Xemeingo udal liburutegira, Alberto Onaindia abade markinarraren inguruan hitzaldi bat ematera. 7. 2011ko apirilaren 15ean, Saturrarango Kartzelari buruzko "Debekatua oroitzea" dokumentala eman genuen; eta bere zuzendariarekin, Txaber Larreategirekin, dokumentalari eta Saturrarango kartzelari buruzko gogoeta egin ahal izan genuen. 8. 2011ko maiatzaren 6an "Ezkaba: Francoren Kartzeletatik Egindako Ihesaldi Handia" dokumentala eman genuen bigarrenez. 9. 2011ko ekainaren 3an, Markinako Fronteari buruzko dokumentala eta hitzaldia antolatu genituen, Ahaztuen Oroimena elkarteko kideen laguntzarekin. 10. 2011ko ekainaren 5ean, oraingo honetan ere Ahaztuen Oroimena Elkarteko kideekin batera, mendi ibilaldia egin genuen Kalamua eta Akondian zehar, ingurune hortan egon zen frontea ezagutzeko helburuarekin. 11. 2011ko urriaren 3tik 23ra, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin, "Hilotzak deshilobiratuz, duintasuna berreskuratuz" erakusketa zabaldu genuen. 12. 2011ko urriaren 7an, Aranzadi Elkarteko Pako Etxebarriak erakusketaren izenburu bera zuen hitzaldia eman zuen. 13. 2011ko urriaren 14an, "Udaberri Galdua" dokumentala eman genuen, eta ostean bere egilearekin, Josi Sierrarekin, hitz egiteko aukera izan genuen. 14. 2011ko azaroaren 4an, "Memoria i Oblit d'una Guerra" dokumentala eman genuen, eta kontzentrazio esparruetako bizimoduari buruz hitz egin genuen. 15. 2011ko abenduaren 17an, Garaian aldizkariaren 47. zenbakiaren aurkezpena. Aldizkari honek Gerra Zibilak gure herrian izan zuen eragina aztertzen du. 16. Egun berean, 2011ko abenduaren 17an, Gerra Zibilari buruzko argazki erakusketaren ireki genuen, eta Gerra Zibila oinarritzat hartuta Pablo Fdez. Arrietak egin duen musika eta olerki ikuskizuna eskaini genituen. 17. 2012ko uztailaren 8an Xemeingo Gaur izeneko ekitaldian, Xemein Abesbatzak, Abarka Antzerki Taldeak eta Garaian Elkartek antolatuta, musika, testu eta antzerki ikuskizuna antolatu genuen. 18. 2013ko uztailaren 15ean, Markina-Xemeingo jaien txupinazioa Garaian elkarteko kideei egokitu zitzaigun. Egin genuena zera izan zen: Gerra Zibilean biktima izan zirenei eman genien hitza, eta beraiek bota zuten jaietako txupinazioa udaletxeko balkoitik.

<p>9. Etorkizunean burutu beharreko lanak (memoriaren lekuak identifikatu, omenaldiak, sinboloen ezabatzea...)</p>	<p>2016an, Gerra Zibila hasi zela 80 urte betetzen dira. Horren inguruan, hitzaldiak eta dokumental emanaldiak eman nahi ditugu.</p>
<p>10. Gehitzeko beste zerbaitekin (kexuak, iradokizunak...).</p>	<p>Taldeak burututako publikazioak: Garaian aldizkarian hainbat artikulu daude Gerra Zibilari buruzkoak. Begiratu, batez ere 39, 40, 41, 46 eta 47. zenbakiak. Nik neuk idatzitako artikulu eta liburuak honako hauek dira:</p> <p>AUTOREA: Patxi Juaristi TITULOA: "Gerra Zibila Markinan eta Xemeinen I" in Garaian, 39. zenbakia, 27-32 orrialdeak, 2006 Artikuluak. ISBN: 2173-3465</p> <p>AUTOREA: Patxi Juaristi TITULOA: "Gerra Zibila Markinan eta Xemeinen II" in Garaian, 40. zenbakia, 33-37 orrialdeak, 2007 Artikuluak. ISBN: 2173-3465</p> <p>AUTOREA: Patxi Juaristi TITULOA: Gerra Zibila, jendea de hila. Ayuntamiento de Markina-Xemein, 1-61 orrialdeak, 2008. LIBURUA. ISBN: 978-84-606-4585-6</p> <p>AUTOREA: Xabi Urrutia eta Patxi Juaristi TITULOA: "Jose Maria Eizagirre, bi urte eta zazpi hilabete gerran" in Garaian, 41. zenbakia, 42-43 orrialdeak, 2007 Artikuluak. ISBN: 2173-3465</p> <p>AUTOREA: Patxi Juaristi TITULOA: "Lau beato eta beatogai Markina-Xemeinen" in Garaian, 46. zenbakia, 10-11 orrialdeak, 2010 Artikuluak. ISBN: 2173-3465</p> <p>AUTOREA: Patxi Juaristi TITULOA: "Gerra Zibila Markinan eta Xemeinen: soziologiatik egindako irakurketa" en Karmel, Markina-Xemein, 2011-1, julio-septiembre, pp. 29-59. Artikuluak. ISSN: 1132-2357</p> <p>AUTOREA: Patxi Juaristi TITULOA: "Markinako eta Xemeingo emakumeak gerra zibilean" in Garaian, 47. zenbakia, 34-37 orrialdeak, 2011 Artikuluak. ISBN: 2173-3465</p> <p>AUTOREA: Patxi Juaristi TITULOA: Markinako Frontea. Markina eta Xemeingo egoera Politikoa eta Soziala Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean (1931-1939). UPV/EHU-ren argitalpen zerbitzua, 2011, Bilbao, 1-352 orrialdeak. LIBURUA. ISBN: 978-84-98605839</p> <p>AUTOREA: Patxi Juaristi TITULOA: Markinako Frontea. Markina eta Xemeingo egoera Politikoa eta Soziala Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean (1931-1939) in Karmel aldizkaria, 279. zenbakia, 2012-3, julio-septiembre, Zarautz, 46-65 orrialdeak. Artikuluak. ISSN: 1132-2357</p> <p>AUTOREA: Patxi Juaristi, Aitor Esteban, Francisco Etxeberria, Josu Chueca eta Iñaki Goigana TITULOA: Goazen Gudari Danok. Sabino Arana Fundazioa, 2014. LIBURUA. ISBN:</p> <p>AUTOREA: Patxi Juaristi TITULOA: Gerra Zibila Berriatua eta Lekeitioko Frontean LIBURUA. Argitaratze prozesuan</p>

2.3. Erroldatutako elkarten mapa.



Azkenengo bosturtekoan memoria historikoaren berreskuratzearrekin harremana duten edo izan duten elkarte eta ekimen pribatuak EAEn

2.4. Ondorioak

Atalaren hasieran esan bezala, gurekin harremanetan izan diren elkarte gehienei ongi iruditu zaie Euskal Herrian zenbat elkarte dauden, zertarako sortu zituzten eta zer-nolako jarduerak gauzatzen dituzten zehaztea, eta gero, informazio hori abiapuntutzat hartuta, datu-base bakarra osatzea, abian dituzten jarduerak koordinatu ahal izateko. Hori guztia dela eta, beharrezkoa iruditzen zaigu aurrerantzean ere orain arte egingdako lanarekin jarraitzea, modu honetan:

Alde batetik, beharrezkoa deritzogu zerrendako talde bakoitzeko kideekin elkarrizketa sakon bat egitea, elkarte bakoitzari buruzko fitxa zehatz bat osatzeko (fitxaren adibidean ezarritako eredua erabiliz). Hartara, hobeto ezagutuko genuke Gerra Zibileko eta Francoren diktadurako memoria demokratikoa sustatzen duen gizarte zibila, eta harreman instituzionala sustatuko genuke.

Beste alde batetik, ondorioztatu dugu behar-beharrezkoa dela euskal probintzietako erakunde demokratikoen eta autogobernuaren oroitza-penetan eraiki diren monumentu, monolito eta bestelako elementuen katalogo bat prestatzea, baita erakunde haiek babestu zituzten pertsonen katalogo bat ere. Katalogo hori lagungarria izango da memoria demokratikoa sustatuko duen mapa eta ibilbide bat zehazteko, eta horretarako ezinbestekoa da aipatutako elkarteekin elkarlanean aritzea.

3. Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzaren espazio politiko-administratiboak (1936-1937)

J.L. Aranes, K. Landa, L. Sebastián (Doku Taldea)

3.1. Sarrera eta metodologia

Txostenaren atal honen xedea da errola batean jasotzea non kokatu zituzten Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako sailen egoitza nagusiak, 1936ko urriaren 7an gobernua eratu zenetik 1937ko ekainaren 19an armada frankistak Bilbo hartu zuen arte.

Euzkadiko bitarteko Jaurlaritza izendapena *Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoaren* lehen zenbakian erabiltakoa da³. Nolanahi ere, errepikatzea saihesteko eta izendapen errazagoa erabiltzeko, ikerketa honetan berdin-berdin erabili dira izen ofizialaren sinonimoak edo antzeko izenak, hala nola *bitarteko Eusko Jaurlaritza*, *Euzkadiko Jaurlaritza* edo (lehen) *Eusko Jaurlaritza*⁴.

Lan honetan, Eusko Jaurlaritzako hamaika sailen egoitza nagusi eta iraunkorren (ez bitartekoa⁵) kokalekua jaso dugu⁶:

1. Lendaritza eta Guda Zaingoa
2. Zuzentza eta Gogo-Lantze Zaingoa
3. Erri Zaintza Zaingoa
4. Erri Lanak Zaingoa
5. Gintza Zaingoa
6. Nekazaritza Zaingoa
7. Salerosketa eta Orniketa Zaingoa
8. Ogasun Zaingoa
9. Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoa
10. Gizarte Laguntza Zaingoa
11. Osasun Zaingoa

3 Euzkadiko bitarteko Jaurlaritza. Autonomia Estatutuan *Euzkadi* izendapena ageri da Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak osatutako «eskualde autonomoa» izendatzeko. Bestalde, José Antonio Aguirre lehendakari izendatzeko aktan, hautetsia *Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzaren* buru gisa ageri da, eta gobernuaren buletinari *Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa* izenburua jarri zioten. Testu horiek eta *Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzaren aitortpena* argitalpen horren lehen zenbakietan ageri dira.

Nolanahi ere, aldizkari ofizialean antzeko beste izen labur edo sinpleago batzuk ere erabili zituzten, batzuk beste batzuk baino maizago (xedapen berean izendapen bat baino gehiago ager zitezkeen). Hona hemen izendapen horietako batzuk: *bitarteko Euzko Jaurlaritza*, *Euzkadiko bitarteko Jaurlaritza*, *Euzkadiko Jaurlaritza* eta *Euzko Jaurlaritza*. Aldaera horiek eremu instituzionalean eta garaiko prentsa idatzian erabili zituzten. Gobernu autonomikoak egindako txanponean *Euzkadiko Jaurlaritza* izendapena hautatu zuten: *Gobierno de Euzkadi*. Euskal lurraldean gerra amaitu zenean, eta batez ere Gerra Zibila amaitu zenean, ez zuen inolako zentzurik gobernu autonomikoaren izen ofizialean *bitarteko* kalifikatzailea erabiltzeak, eta, hortaz, urteen joanean *Euzkadiko Jaurlaritza* edo *Eusko Jaurlaritza* izenak nagusitu ziren (atzerrian).

4 Azterketa espezifikoa. Gaiari buruzko azterketa espezifikoa bat eginez gero, zehaztu egin genezake zein izan ziren lehen Eusko Jaurlaritzaren izendapenak (izendapen ofiziala, erabilera arrunteko izendapenak) eta zer-nolako isla izan zuten gerra garaiko Eusko Jaurlaritzak sortutako dokumentazioan (dokumentu eta buletin ofizialak, liburuxkak eta bestelako argitalpenak, etab.), baita autonomiak iraun zuten bitartean Bilbon argitaratu zituzten egunkarietan ere (*Euzkadi*, *El Liberal*, *Noticiero Bilbaíno*, *Euzkadi Roja*, *Eguna*...).

5 Behin-behineko egoitzak. Hasieran, egoitza iraunkorretan ezarri aurretik, gerra garaiko Eusko Jaurlaritzako sailak beste eraikin batzuetan instalatu zituzten, behin-behinean. Kasuak kasu, 1936ko urritik azarora bitarte egon ziren behin-behineko egoitza horietan, herri lanetako zuzendaritzak hautatutako eraikinetan egokitze lanak egiten zituen bitartean (lan horien barne zeuden hegazkinen aurkako babeslekuak eraikitzeko gauzatutakoak).

6 Sailak: antolamendua. Txosten honetan, *Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoan* ageri diren izendapenaren eta hurrenkeraren arabera landu ditugu lehen Eusko Jaurlaritzako sailak: «Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzaren zaingoak sortu erazi dituen oroagindua», *EAE*, 1936.10.09., 1. zk., 1.-3. or.

Lana gauzatzeko, erregistrarako fitxa bat prestatu dugu gerra garaiko Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusi bakoitzeko. Fitxa horrek 25 atal (edo dokumentazio eremu) ditu, honako hauek, hain zuzen ere:

- **Erregistro zk.:** Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzaren egoitza bakoitzari ikerketaren baitan esleitutako erregistro zenbakia.
- **Egoitza:** sail bakoitzaren egoitzaren izena.
- **Erakundea:** egoitzari dagokion erakundearen izen ofiziala.
- **Udalerrria:** sailaren egoitza kokatuta dagoen udalerrria. Euskadin Gerra Zibilean (1936-1937) erabiltzen zuten izen ofiziala erabili dugu.
- **Lurralde:** sailaren egoitza kokatuta dagoen lurraldea edo probintzia. Gerra Zibilean (1936-1937) erabiltzen zuten izen ofiziala erabili dugu.
- **Saila:** Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako sailaren izena.
- **Alderdi politikoa:** sailaren zuzendaritza izan zuen alderdi politikoa.
- **Sailburua:** sailburuaren izena eta noiz eta non jaio eta hil zen.
- **Organigrama:** zer organigrama erabili zuten saila egituratzeko, zuzendaritza nagusiak eta beste erakunde nagusi batzuk oinarritzat hartuta. Informazioa oinarritzakoa eta orientatzailea da, gerra garaian maiz aldatu baitzen sailen egitura eta izendapena.
- **Hasiera data:** saila eraikin edo egoitza horretan noiz ezarri zen (urtea, hilabetea eta eguna). Data gutxi gorabeherakoa da. Batzuetan, aldi orientagarri bat aipatu dugu.
- **Amaiera data:** sailak noiz utzi zuen eraikina edo egoitza (urtea, hilabetea eta eguna). Data gutxi gorabeherakoa da.
- **Eraikina:** sailaren egoitza hartu zuen eraikinaren izena.
- **Erabilera (1936):** eraikin mota, 1936ko altxamendu militarren hasieran zuen erabileraren arabera. Aukera hauek daude:
 - Etxebizitza eraikinak (familia bakarrekoak, kolektiboak, jabetzan, alokairuan...)
 - Bulego eraikinak (administratiboak, bankuak, profesionalenak...)
 - Egoitza soziokulturalak
 - Hotelak
- **Eraikuntza urteak:** sailaren egoitza izan zen eraikinaren eraikuntza aldia. Lehen urteak eraikitze proiektua sinatu zen urteari egin diezaioke erreferentzia, eta azken urteak, berriz, agintariek bizigarritasun baimena eman zuten urteari. Hortaz, adierazitako urteak gutxi gorabeherakoak dira.
- **Arkitektoa:** egoitzaren eraikinaren diseinua eta proiektua egin zuen arkitektoaren izena, eta noiz eta non jaio eta hil zen. Zenbait kasutan, bi arkitektoen artean egindako eraikinak dira.
- **Helbidea (1936-1937):** Euskadin Gerra Zibilak iraun zuen bitartean sailaren egoitzak izandako posta helbidea.
- **Barrutia (1936-1937):** Euskadin Gerra Zibilak iraun zuen bitartean sailaren egoitzari zegokion hiri barrutia.
- **Kokalekua (gaur egun: 2015):** sailaren egoitzaren egungo kokalekua. Eraikina desagertu egin bada, gutxi gorabeherako kokalekua adierazi dugu.
- **Erabilera (gaur egun: 2015):** Gerra Zibilean Eusko Jaurlaritzaren egoitza izandako eraikinaren egungo erabilera. Eraikina desagertu egin bada, ez dugu ezer aipatu.
- **Helbidea (gaur egun: 2015):** Gerra Zibilean Eusko Jaurlaritzaren egoitza izandako eraikinaren egungo helbidea. Eraikina desagertu egin bada, ez dugu ezer aipatu.
- **Barrutia (gaur egun: 2015):** Gerra Zibilean Eusko Jaurlaritzaren egoitza izandako eraikina zein hiri barrutitan dagoen gaur egun. Eraikina desagertu egin bada, kokalekuaren arabera gaur egun dagokion barrutia zehaztu dugu.
- **Auzoa (gaur egun: 2015):** Gerra Zibilean Eusko Jaurlaritzaren egoitza izandako eraikina zein auzotan dagoen gaur egun. Eraikina desagertu egin bada, kokalekuaren arabera gaur egun dagokion auzoa zehaztu dugu.

- **Sekzioa (gaur egun: 2015):** Gerra Zibilean Eusko Jaurlaritzaren egoitza izandako eraikina zein sekziotan dagoen gaur egun. Kasu honetan, Bilboko lurralde antolamendura mugatuta, sekzioak eskakizun estatistiko hutsei erantzuten die. Eraikina desagertu egin bada, kokalekuaren arabera gaur egun dagokion auzoa adierazi dugu.
- **Ondare kalifikazioa:** Gerra Zibilean Eusko Jaurlaritzaren egoitza izandako eraikinak gaur egun duen kalifikazio urbanistikoa eta arkitektonikoa. Kalifikazioa hiru erakunde ofizialen babes erregimenek zehazten dute:
 - Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
 - Bilboko Udaleko Hirigintza Arloa
 - Surbisa (Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkarte, SA)
- **Ondarearen beste alderdi batzuk:** egoitza autonomiko izandako eraikinean oro har Gerra Zibilari buruz eta zehazki lehen Eusko Jaurlaritzari buruz gordetako arrastoei erreferentzia.
- **Oharrak:** erregistro fitxan aipatutako hainbat alderdiri buruzko oharrak. Oharrei esker, dagokion eraikin edo sailarekin lotutako testuinguru historikoaren, urbanistikoaren eta arkitektonikoaren elementu hautatuak aipa daitezke.
- **Erreferentziak:** erregistro fitxa prestatzeko kontsultatutako erreferentzia bibliografikoen zerrenda. Erreferentziak modu laburtuan ageri dira.

Erregistro fitxetako edukia lagungarria izan daiteke lehen Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusiak hobeto eza-gutzeko. Horretarako, ikerketa lan honek eskaintzen dituen hainbat garapen lerroi heltzea proposatzen da:

 - Garapen historikoko lerroa
 - Garapen urbanistiko eta arkitektonikoko lerroa
 - Dokumentazioko garapen lerroa

Garapen lerro horien arabera, eta erreferentziazko oinarri bibliografikoa eta dokumentala erabiliz, txostean helburu hauek bete nahi ditugu:
- **Oinarrizko identifikazioa.** Lehen Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusiak hartu zituzten eraikinak eza-gutzea, baita haien kokaleku geografikoa eta denborazkoa ere. *Kartografia* hori iraganetik abiatu (Gerra Zibilaren testuinguruan euskal autonomia onartu zutenetik), eta orainaldian proiektatzen da (2015eko Bilboko planoaren gainean).
- **Testuinguru historikoa.** Saila bere oinarrizko testuinguru historikoan kokatzea, haren kudeaketa zibila baldintzatu zuen informazio politikoa, instituzionala eta administratiboa eskainiz (sailburua eta haren alderdi politikoa, barne antolakuntzarako organigrama eta beste alderdi aipagarri batzuk). Lan ildo honetan aipagarriak dira hautuz egindako ohar laburrak, *Oharrak* izeneko eremu edo atalean adieraziak.
- **Testuinguru urbanistikoa eta arkitektonikoa.** Eraikinen jatorria, erabilera eta ondare kategoria aipatzea (zein arkitekto diseinatu zituen, zenbat urte iraun zuten proiektuak eta eraikitze lanek, zer babes erregimenen mende dauden gaur egun, etab.).

3.2. Jaurlaritzako sailen egoitza nagusien zerrenda

Eusko legebiltzarrerako hauteskundeak egitea ezinezkoa zenez, lehendakariaren hautaketa Gernikako Batzar Aretoan antolatu zuten. 1936ko autonomia estatutuaren eranskin baten arabera, euskal herritarren ordezkari ziren zinegotzien biltzarra egin zen, eta José Antonio Aguirre jeltzalearen hautagaitzak Ramón Madariaga errepublikanoarenak baino boto gehiago jaso zituen.

1936-1937ko Eusko Jaurlaritzak Bilbon ezarri zituen egoitza nagusiak, eta hiria Euskadi autonomoaren hiriburu bilakatu zen. Jaurlaritza haren sorrera, kudeaketa eta kokalekua salbuespenezko testuinguru historiko batek baldintzatu zituen (altxamendu militarrek eta gerrak lehen hilabeteetan Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian⁷ izandako bilakaerak, alegia). Zehazki, egoitza nagusiak kokatzeko eraikinak Bizkaiko hiriburuaren Zabalguneko hainbat tokitan zeuden.

⁷ Toponimoak. Txosten honetan, Gerra Zibilaren garaian erabili ohi zituzten euskal toponimoak erabili dira. Hala ere, Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzaren egoitza izandako eraikinen egungo kokalekuari erreferentzia egiteko, egungo indarreko izenak erabili dira, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroen Zuzendaritzak ezarritakoaren arabera (EHAA, 2014.02.03, 22. zk.).

Ezarritako planteamenduaren arabera, egoitza nagusiak (11) eta haiei zegozkien eraikinak (10) aztertu ditugu (bi sail eraikin berean kokatu zituzten). Eraikin hauek hautatu zituzten:

1. Lendaritza eta Guda Zaingoa. Carlton Hotelaren eraikina.
2. Zuzentza eta Jakintza Zaingoa. Sota-Aznar itsasontzi enpresaren egoitza.
3. Erri Zaintza Zaingoa. Sociedad Bilbaína elkartearen egoitza.
4. Erri Lanak Zaingoa. La Equitativa eraikina.
5. Gintza Zaingoa. Kale Nagusiko 62. zenbakiko bulego eraikina.
6. Nekazaritza Zaingoa. Villa Mena jauregia.
7. Salerosketa eta Orniketa Zaingoa. Lezama-Leguizamón Etxea.
8. Ogasun Zaingoa. Merkataritza Bankuaren egoitza.
9. Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoa. Kale Nagusiko 62. zenbakiko bulego eraikina.
10. Gizarte Laguntza Zaingoa. Estraunza txaleta.
11. Osasun Zaingoa. Escauriaza Jauregia.

Erabilitako siglak eta akronimoak

ANB	Asociación de Navieros de Bilbao / Bilboko Ontzi-jabeen Elkarte
ANV-EAE	Acción Nacionalista Vasca / Euzko Abertzale Ekintza
BBK	Bilbao Bizkaia Kutxa
BBV	Banco Bilbao Vizcaya
BBVA	Banco Bilbao Vizcaya Argentaria
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala
BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria [Vitoria-Gasteiz: 1980-]
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
CNT	Confederación Nacional del Trabajo / Lanaren Konfederazio Nazionala
COAM	Colegio Oficial de Arquitectos de Madrid / Madrilgo Arkitektoen Elkargo Ofiziala
EHAE	Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
CSCAE	Consejo Superior de Colegios de Arquitectos de España - Espainiako Arkitekto Elkargoen Goi Kontseilua
DF	Distrito Federala
DOCOMOMO	Documentation and Conservation of buildings, sites and neighbourhoods of the Moderne Movement / Mugimendu Modernoko Arkitekturaren eta Urbanismoaren Dokumentazioa eta Kontserbazioa
EAE	Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa [Bilbo: 1936-1937]
EBB	Euzkadi Buru Batzar
FEVE	Ferrocarriles de Vía Estrecha / Bide Estuko Trenak
INSS	Instituto Nacional de la Seguridad Social / Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala
IR	Izquierda Republicana / Ezker Errepublikanoa
IVAP / HAAE	Instituto Vasco de Administración Pública / Herri Arduralaritza Euskal Erakundea

PCE	Partido Comunista de Euzkadi / Euzkadiko Alderdi Komunista
BEB	Berregokitze Egitasmo Berezia
HAPO	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra
EAJ	Eusko Alderdi Jeltzalea
PSOE	Partido Socialista Obrero Español / Espainiako Alderdi Sozialista
RSBAP	Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País / Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte
UPV/EHU	Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
UR	Unión Republicana / Batasun Errepublikanoa

Lendakaritza eta Guda Zaingoa

Carlton Hotelaren eraikina

EUZKADIKO BITARTEKO JAURLARITZA (1936-1937)

LENDAKARITZA ETA GUDA ZAINGOA

Carlton Hotelaren eraikina

Erregistro zk. 1

Egoitza

Carlton Hotelaren eraikina

Erakundea

Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako Lendakaritza eta Guda Zaingoa

Udalerrria

Bilbo

Probintzia

Bizkaia

Saila

Lendakaritza eta Guda

Alderdi politikoa

EAJ

Sailburua

José Antonio Aguirre Lecube (lehendakaria eta sailburua) (Bilbo: 1904 / Paris: 1960)

Organigrama

Lehendakaritza

Idazkaritza Nagusia

Idazkaritza Berezia

Urrutidazkitza Kabinetea

Zabalkundea eta Kanpokoekiko artu-emanak Atala

Lege Onuemalletza

Guda

Idazkaritza Nagusia

Idazkaritza Berezia

Trebetza Idazkaritza

Banakaritza (Bulegoak)

Ikuslaritza (Burutza)

Banakaritza Zuzendaritza Nagusia

Egazkiñak: Guda-ornien Batzordea

Goi Agintaritza

Itxas Gudaritza

Guda Arduraduntza

Bildegiak eta Izkilluak

Guda Eramanekartzeak

Zenbaketa, Eralguntza eta Gudaldutzea

Gintza Gudalduak

Guda Osasuntza

Euzko Gudarozteko Kapilau Taldea

Hasiera data

1936ko urriaren 22a (gutxi gorabehera)

Amaiera data

1937ko ekainaren 19a (gutxi gorabehera)

Eraikina

Carlton Hotela, Merkataritza Ganberaren egoitza, *Radio Emisora Bilbaina* irratia-aren instalazioak eta beste erakunde batzuen bulegoak kokatuta zeuden eraikina.

Erabilera (1936)

Hotela

Bulego eraikina

Eraikitze urteak

1919-1926

Arkitektoa

Manuel María Smith Ibarra

(Bilbo: 1879 / Getxo: 1956)

Helbidea (1936-1937)

Carlton Hotela

Lopez Harokoa plaza, 2. zk.

Bilbo

Bizkaia

Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera (eta beste erakunde batzuk)

Rodríguez Arias, 8. zk.

Bilbo

Bizkaia

Radio Emisora Bilbaina irratia

Rodríguez Arias, 8. zk., 8. solairua

Bilbo

Bizkaia

Beste erakunde batzuk

Rodríguez Arias, 8. zk.

Bilbo

Bizkaia

Barrutia (1936-1937)

2. barrutia: Ospitalea

Kokalekua (gaur egun: 2015)

Eraikinak etxadi bat osatzen du, Bilboko Zabalguneko lau bide publiko hauek mugatua:

- Federico Moyua plaza (Plaza Eliptikoa izenez ezaguna: aurrealdea)
- Recalde zumarkalea (eskuin aldeko fatxada)
- Elkano kalea (ezkerreko fatxada)
- Rodríguez Arias kalea (atzealdea)

Erabilera (gaur egun: 2015)

– Carlton Hotela: Aránzazu Hoteles kateko hotela (5 izar)

– Bulego profesionalak

Helbidea (gaur egun: 2015)

Carlton Hotela

Federico Moyua plaza, 2. zk.

48009 Bilbo

Bizkaia

Bulego profesionalak

Rodríguez Arias, 6. zk.

48008 Bilbo

Bizkaia
Barrutia (gaur egun: 2015)
6. barrutia: Abando
Auzoa (gaur egun: 2015)
Abando
Sekzioa (gaur egun: 2015)
18

Ondare kalifikazioa

Eusko Jaurlaritza (1995)

Kultura Ondasun Kalifikatuaren Erregistroan jasota dago, eta Monumentu kategoria du. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 411/1995 Dekretua

EHAA, 123. zk., 1991.06.18

EHAA, 20. zk., 1995.01.30

EHAA, 188. zk., 1995.10.02

Bilboko Udala: *HAPO* (1995)

Babes Erregimena duten Eraikin eta Multzoen Zerrendan dago: Babes berezia (B maila)

BAO, 124. zk., 1995.06.29

Ondarearen beste alderdi batzuk

Bilera aretoa. Gerra Zibilean, Euzkadiko Jaurlaritzak egungo *Luis García Campos Aretoa* (lehen *Embajadores* eta *Aránzazu*) erabili zuen bilerak eta eragiketak egiteko, eta bertan daude gerran kalterik jaso ez zuen garai hartako beirate bakarra eta lehendakariaren mahaia eta bi aulki.

Bunker Aretoa. Lendakaritza eta Guda Zaingoaren hegazkinen aurkako babeslekuari erreferentzia eginez, sotoan kokatuta dagoen Carlton Hoteleko areto batek *Bunker* du izena. Hotelaren sarreran, lehen eskaileretan ikus daitezke sail horren bunkerra izandakoaren haizebideak.

Oroitzapenezko plakak. Carlton Hotelaren sarreran bi plaka daude – bata euskaraz, EAEko armarrarekin, eta bestea gaztelaniaz eta ingelesez, xumeagoa–, eraikina lehen Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia izan zela gogorarazteko. Testu hau dute idatzita (letra larriz):

«1936eko urritik 1937eko ekainera bitarte Jose Antonio Agirre eta Lekuberen Lehendakariartzepeko Eusko Jaurlaritzak leku honetan izan zuen egoitza. Oroigarri hau, 50. urteurrenean ezartzen da. Carlton Hotelean Bilbon, 1986-X-6».

«Desde octubre de 1936 hasta junio de 1937 la sede del Gobierno Vasco, presidido por José Antonio Agirre y Lekube, estuvo ubicada en este lugar. Placa conmemorativa colocada en el 50

aniversario. Hotel Carlton de Bilbao, 6 de octubre de 1986».

«From October 1936 to June 1937 the Seat of the Basque Government, headed by Jose Antonio Agirre y Lekube, was located her. Commemorative Plaque placed on the 50 Anniversary. Hotel Carlton Bilbao, 6th october 1986».

Egiaztatu dugunaren arabera, lehen Jaurlaritzaren egoitza izan ziren eraikinen artean, Carlton Hotela da gertaera historiko hura gogoratzeko plaka bat duen bakarra.

Memoria historikoko gunea: J. A. Aguirreren estatua. Carlton Hotelaren sarreratik metro gutxira, Federico Moyua plazak eta Ercilla kalearen oinezkoentzako zatiaren hasierak bat egiten duten tokian, Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakariaren omenezko estatua bat dago, 2004ko martxoaren 28an ipinia. Bilboko Udalaren ekimenez ipini zuten, José Antonio Aguirreren jaiotzaren ehungarren urteurrenean.

Francisco López Hernández (Madril: 1935) eskultoreak egina, brontzezko estatua bat da, harrizko oinarria duena, tamaina naturalekoa eta estilo errealistakoa. 2004ko martxoaren 28an inauguratu zuten. Eskulturaren oinean idazkun hau irakur daiteke, euskaraz eta gaztelaniaz (letra larriz):

«Bilboko Udalak Eusko Jaurlaritzako lehenengo lehendakariari /
El Ayuntamiento de Bilbao al primer lehendakari del Gobierno Vasco
José Antonio de Aguirre y Lekube
Bilbao 1904 - París 1960».

Memoria historikoko gunea: suontzia. Carlton Hotelaren parean, Federico Moyua plaza-ko lorategietan, Eusko Jaurlaritzak José Antonio Aguirre lehendakariaren eta 1936ko euskal belaunaldiaren omenezko monolito bat inauguratu zuen 1998ko urriaren 7an. Manuel Salinas Larumbe bilbotar arkitektoak egina, monolitoa metalezko zilindro bat da, eta estilo klasikoko suontzi bat du goiko aldean. Oinarrian testu hau irakur daiteke:

«*En memoria y homenaje al Lehendakari Aguirre, al primer Gobierno Vasco y a la generación vasca del 36 por su sacrificio y abnegación en defensa de la democracia y de la libertad*».

Bada denbora bat pieza hori Moyua plazako lorategietatik kendu dutela.

Oharrak

Hotela eta bulegoak. Carlton Hotela (edo *Grand Hotel*) eraikitzeke proiektua sustatu zuen elkarteak Tomás Urquijo Aguirre izan zuen buru, Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberako presidentea (1918-1920). 1920ko hamarkadan bizkaitar hiriburua oso boteretsua zen, eta proiektu haren xedea bertan luxuzko hotel bat irekitzea zen.

Proiektu arkitektonikoan, Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberaren egoitza kokatu zuten eraikinaren atzeko aldean, baita beste elkarte batzuen bulegoak ere: Aduana Agenteen Elkargoa, Ameriketako Estatu Batuetako kontsuletxea, German Social Club elkarte, Unión Resinera Española sozietatea, Comercial Vasco-Cantábrica elkarte, Radio Emisora Bilbaína irrati, Goethe Bulegoa, Bilboko Ateneoa edo Ignacio Smith arkitektoaren estudioa, besteak beste.

Hasieran, bulegoek eraikinaren herenaren inguru hartu zuten, baina urte batzuk geroago ugaritu egin ziren, eta hotelaren gela kopurua murriztu egin zen. Ganberako bulegoetara eta gainerakoetara Rodríguez Arias kaletik sartzen zen, gaur egun bezala.

Bilboko Ganbera. Hala bada, 1926az geroztik, Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberak Carlton Hotelean izan zuen bere hirugarren egoitza (eta gainera jabetzan). 1980ko hamarkadaren hasieran utzi zuen Carlton Hotela, egoitza berri batera aldatzeko: eraikin eksklusiboa eta berria, Bilboko Errekalde zumarkaleak eta Poza Lizentziatuaren kaleak bat egiten duten tokian kokatua.

Gaur egun, eraikinaren bulego eremuan enpresa txikiak, mediku bulegoak eta abokatu nahiz aholkulari langelak daude, baita Erizaintzako Diplomadunen Elkargoa, Carmen Gandarias Fundazioa eta beste erakunde batzuk ere.

Radio Emisora Bilbaína irrati: konfiskazioa. Carlton Hotelaren eraikina Bilboko lehen hiru irrati estazioen egoitza izan zen: *Radio Club Vizcaya* (1926), *Unión Radio Bilbao* (1927) eta *Radio Emisora Bilbaína* (1933). Egungo *Radio Bilbao* irratiaren aurrekariak izan ziren horiek.

Gerra hastean, irrati oso garrantzitsua izan zen informaziorako eta propagandarako bitarteko gisa, eta gobernu errepublikanoak irratiak bahitu zituen. 1936ko irailaren 30ean, agintariek esku hartu zuten *EAJ-28 Radio Emisora Bilbaína* irrati estazioan eta udalerriko beste batzuetan. Berehala milizianoen guardia bat ezarri zuten, irratiaren antena babesteko (hoteleko terrazan zegoen) eta estudioetarako sarbidea zaintzeko (estudioak eraikinaren zortzigarren solairuan eta azken solairuan zeuden).

Une hartako salbuespenezko testuinguruan, *Radio Emisora Bilbaína* irratiaren programazioa ihesbidekoa (musika grabatua), zerbitzu publikokokoa eta propagandakoa zen: alderdi politikoei eta sindikatuei zuzendutako harenga militarrek eta deialdiak edo alderdi politikoei eta sindikatuei egindakoak eskaintzen zituzten, baita erakunde ofizialen hitzal-diak eta komunikazioak ere, hala nola Herrizaintza Ministerioarenak edo "Bizkayako Erki Jaurlaritzarenak", zeinak 1936ko uztailaren amaieran mikrofono bat ipini zuen bere bulegoetan. Gobernadoreak berak jakinarazi zuen Madrilen autonomia estatutua onartu zela eta Gernikan Euzkadiko Jaurlaritza eratu zela.

Lehendakariaren hitzaldiak. Carlton Hotelean ipinitako mikrofonotik, José Antonio Aguirre lehendakariak bi hitzaldi garrantzitsu egin zituen: 1936ko abenduaren 22ko *Gabon* hitzaldia, ordura arteko kudeaketaren berri emateko erabili zuena, eta 1937ko apirilaren 7ko hitzaldia, Jaurlaritza eratu zenetik sei hilabete igaro zirela eta.

Gernikako bonbardaketari buruzko programa berezia. Halaber, *Radio Emisora Bilbaína* irratiak programa berezi bat eskaini zuen, gobernu autonomikoak antolatua nazioartean salatzen urte hartako maiatzaren 4an Gernikan izandako bonbardaketa; gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez egin zituzten mintzaldiak. Programa horretan parte hartzeko, Carlton Hoteleko estudioan izan ziren, besteak beste, Jesús María Leizaola, Zuzentza eta Gogo-Lantze Zaingoko burua, eta Bonifacio Echegaray, Eusko Jaurlaritzako Lege Emalle Batzordeko presidentea eta Gogo-Lantze Batzordeko kidea.

Ebakuazioa. 1937ko ekainaren 16aren inguruan, Eusko Jaurlaritzako Lendaritza eta Guda Zaingoaren kide gehienek utzi egin zuten Carlton Hotela, eta Enkarerrietara abiatu ziren. Ihesaldian, eraikinaren barruan utzi zituzten *Radio Emisora Bilbaína* irratiaren tresnak, eta agintari frankistek erabili zituzten hasieran.

Radio Requeté de Bilbao eta Radio España de Bilbao. Frankistek udalerria hartu zutenetik Gerra Zibila amaitu arte, Carlton Hotelaren eraikinak irratiaren egoitza izaten jarraitu zuen: bertan ezarri ziren *Radio Requeté de Bilbao* (hiru hilabete eskas) eta *Radio España de Bilbao* (urte eta erdi), erregimen berriaren propagandaren bozgorailuetako bi.

1937ko abuztuan, bando frankistaren propagandako zuzendaritza nagusiak *Radio Requeté de Bilbao*, haren tresnak eta Carlton Hoteleko estudioa bahitu zituen, eta *Radio España de Bilbao* sortu zuen. Azkenik, 1939. urtearen amaieran, amaitutzat jo zuten konfiskazioaldi ofiziala, eta irratiaren berriz hasi zen saioak eskaintzen, *Radio Bilbao* izena hartuta. Hainbat hamarkadaz egon zen hotelaren eraikinean.

“Bizkayako Guda Batzordea”. Euzkadiko Jaurlaritza eratu aurretik, “Bizkayako Guda Batzordeak” Bilboko Ganberaren esku utzi zituen besteak beste Ogasun Zaingoari zegozkion eskumen batzuk.

Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzaren egoitza. Carlton Hotelaren eraikina hautatu zuten Lendaritza eta Guda Zaingoaren egoitza nagusi gisa. Sail bikoitz horrek gerra garaian garrantzi handia izan zuenez eta sailaren burua J. A. Aguirre lehendakaria izanenez, Carlton Hotela gobernu autonomikoaren egoitzatzat hartu zuten.

Gizarte Laguntza Zaingoaren egoitza. Behin-behinean, hoteleko eta bulego eremuko gela batzuetan kokatu zuten Gizarte Laguntza Zaingoa, Estraunza txaletera (Bilbo) aldatu zuten arte.

Jaurlaritza Batzarraren egoitza. Era berean, Carlton Hotela lehendakariaren jauregi ere izan zen, gobernu autonomoko Jaurlaritza Batzarra bertako areto batean bildu baitzen aldian-aldian.

Basurtuko Ospitalea. Batzarrak Bilbon egindako azken bilera Basurtuko Ospitalean izan zen, 1937ko ekainaren 16an; Carlton Hotelaren gainean jazo zitezkeen bonbardaketak saihesteko hartu zuten neurri hori.

Bilerak prentsarekin. Sailburuek Carlton Hotelean egiten zituzten adierazpenak prentsarentzat, batik bat atzerriko gerra berriemaitzat.

Atzeko sarbidea. Saileko hainbat zerbitzutarako sarrera hotelaren atzeko aldean zegoen, Rodríguez Arias kaleko atari batean; bertatik sartzen zen Guda Osasuntzara.

Berrikuntzak. Lendaritza eta Guda Zaingoaren egoitza ofiziala hobetzeko asmoz, Euzkadiko Jaurlaritzak Carlton Hoteleko bulegoak atontzeko lanei ekin zien. Berrikuntza lanei gutxienez bi aste iraun zuten.

Hegazkinen aurkako babeslekuak. Berrikuntza lanei luzatu egin ziren, hegazkinen aurkako bi babesleku eraiki baitzituzten: gobernuko kideentzako bunker bat, hotelaren sarreraren azpian kokatua, eta herritarrentzako beste bat, sarrera Rodríguez Arias kaletik zuena.

Lendaritza eta Guda Zaingoa –eta Jaurlaritza osoak– “Bizkayako Erki Aldundian” ezarri zuten bere egoitza edo biltzeko toki, hau da, Bilboko erdigunean (Kale Nagusia, 25. zk.).

Behin-behineko egoitza: Gizarte Laguntza Zaingoa. Behin-behinean, Gizarte Laguntza Zaingoa Carlton Hoteleko bulegoetan ezarri zuten.

Lekualdatzeak. Prentsan iragarri zuten José Antonio Aguirre lehendakaria Carlton Hotelera aldatuko zela urriaren 22an. Erri Zaintza Zaingoak albiste hura gaitzetsi, eta birrindu egin zuen.

Egun batzuk lehenago, Carlton Hotelean ezarri zuten Guda Zaingoko Gudaldutze, Zenbaketa eta Gudari-etxeratze Atala. Eta egun batzuk geroago eraikinaren etxabeetan ezarri zuten Guda Eraman-ekartze Atala. Horixe adierazten du *Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoan* «mekanika indarrez erabili ohi diren eta gudari dagozkion atzera-aurreretan jardun ohi diren gurdientzat» emandako agindu batek. Aste batzuk geroago, hotelak honako hauen egoitzak ere hartu zituen: Guda Arduraduntza, Gintza Gudalduak, Guda Osasuntza eta Kapilau Taldea.

Abenduaren amaieran, Bilboko Arte Ederren Museotik lehendakariak Carlton Hotelean zuten bulegora eraman zuten *Jura de los Fueros de Fernando el Católico –El besamanos* margolana (Francisco de Mendieta: 1609).

La Puente Jauregia (Turtzioz). Tropa frankistak Bilbon sartzear zeudela ikusirik, Eusko Jaurlaritzak ihes egin zuen Bilbotik, eta Turtziozera joan zen, Kantabriarekin mugan dagoen Enkarterrietako udalerrira. La Puente izeneko jabetza pribatuko jauregian ezarri zen.

Guda Batzordearen egoitza. 1937ko ekainaren 13an, Euzkadiko Jaurlaritzak Guda Batzorde baten esku utzi zuen bere agintea, Bilbo eta inguruneak modu ordenatuan ebakua zitzaizkien.

Guda Batzordea Guda Zaingoaren bulegoetan instalatu zen, eta buru izan zituen justizia nahiz kulturako sailburua, industriakoa eta herri lanetakoa: Jesús María Leizaola (EAJ), Santiago Aznar (PSOE) eta Juan Astigarrabía (PCE), hurrenez hurren. Mariano Gámir Ulibarri jeneralaren laguntza izan zuen.

Bereizgarriak. Carlton Hotelaren balkoi nagusian «*Lehendakaritza•Presidencia*» zioen kartel bat ipini zuten, baita ikurrina bat eta bandera errepublikano bat ere. 1937ko ekainaren 19an, tropa frankistek Bilbo hartu zuten egunean, ikur horiek kendu egin zituzten, eta bandera gorri-horia ipini zuten; antza denez, alemaniar teniente batek ipini zuen.

Ondare kalifikazioa. Carlton Hotelaren *monumentu kategoriako kultura ondasun* kalifikazioa eta babes erregimena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 411/1995 dekretuan argitaratu ziren. Xedapen horretan aipamen bat egiten zaio Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako *lehendakaritzako* bulego zaharrari.

Erreferentziak

- AGUIRRE LECUBE, J. A. de (s.a., 1937).
 ALONSO CARBALLÉS, J. J. (1998: 110).
 — (2007: 418-420).
 ANASAGASTI, I. (zuz.) (1986a: 281-334).
 ARRIETA ALBERDI, L., eta BARANDIARÁN CONTRERAS, M. (biltz.) (1999: or.g.).
 AZAOLA, J. M. de (2010: 154-155 eta 173-174).
 BACIGALUPE, C. (1997: 92).
 BEURKO, S. de [L. Ruiz de Aguirre] (1977: or.g.).
 BLASCO OLAETXEA, C. (1990: 103-104 eta 107-111).
 BUERBA Y ARENA, M. (1997: 323 eta 396).
 CÁMARA DE COMERCIO, INDUSTRIA Y NAVEGACIÓN DE BILBAO (arg.): (1983: 25).
 CENICACELAYA, J.; ROMÁN, A., eta SALOÑA, I. (2002: 38).
 DÍAZ MANCISIDOR, A. (1983: 70-71 eta 97-99).
 DORAO LANZAGORTA, J. (koord.) (1986: 112, 135, 137, 146 eta 162-163).
 DURANOÑA, J. A. de (2005: 7 eta 9).
 E. A. [EUZKO APAIZ] TALDE (1982: 58).
 EGAÑA, I. (zuz.) (1998: 63 eta 123).
 EGIBAR URRUTIA, L. de (2007: 69-71).
 ELORZA ARRIETA, G. (1981: or.g.).
 FEDUCHI, J., eta TEMPRANO, J. (1980: 89-92 eta 111).
 GARCÍA DE LA TORRE, B. I., eta GARCÍA DE LA TORRE, F. J. (1993: 123-124 eta 139).

— (2009: 134-137 eta 166-167).
GARITAONANDIA, C. (1987: 204, 211-212 eta 215-217)
GOIOGANA, I. (2014: or.g.).
GONZÁLEZ OLIVER, J. (2007: 201).
JAUREGI BERAZA, E. (1992: 14-16).
LANDA MONTENEGRO, C. (1995: 391 eta 414).
MEES, L. (koord.) (2014: 297 eta 351).
MOTA ZURDO, D. (2014: 174).
MUÑOZ, E. (koord.) (2007: or.g.).
MUÑOZ, J. A. (zuz.) (1997: 203-204).
MUÑOZ RIVERO, M.^a T (1996: or.g., 257, 263-264 eta 267).
NIEBEL, I. (2007: 61-62, 143 eta 213).
PALACIO VITORIA, J. M.^a (2011: 46-54).
PALIZA MONDUATE, M. (1988: 170-177, 656 eta 749-760).
— (2003: 346-348).
RADIO BILBAO (2008: 19 eta 28).
SALAZAR ARECHALDE, J. I. (2012: 196).
SARASOLA, V. (1992: 56-57, 59, 125, 169 eta 226).
SARASUA, J. de (1986: or.g.).
SEBASTIÁN GARCÍA, L. (1993: 30).
— (1999: 485 eta 495).
— (2007a: 159-160).
— (2007b: or.g.).
— (2012b: or.g.).
STEER, G. L. (1978: 137 eta 387).
TALÓN, V. (1988: 161).
UNTZETA, F. de (zuz.) (1937: 252-256).
ZABALA ALLENDE, F. (2006: 43-85 eta 223-228).

Zuzentza eta Gogo-Lantze Zaingoa

Sota-Aznar itsasontzi enpresaren egoitza

EUZKADIKO BITARTEKO JAURLARITZA (1936-1937)

ZUZENTZA ETA GOGO-LANTZE ZAINGOA

Sota-Aznar itsasontzi enpresaren egoitza

Erregistro zk. 2

Egoitza

Sota-Aznar itsasontzi enpresaren egoitza

Erakundea

Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako Zuzentza eta Gogo-Lantze Zaingoa

Udalerrria

Bilbo

Probintzia

Bizkaia

Saila

Zuzentza eta Gogo-Lantzea

Alderdi politikoa

EAJ

Sailburua

Jesús María Leizaola Sánchez
Donostia: 1896 / Donostia: 1989)

Organigrama

Zuzentza

Idazkaritza Nagusia
Zuzentza Zuzendaritza Nagusia
Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia
Auzitegi Ikuslaritza Nagusia
Lege Emalle Batzordea

Gogo-Lantzea

Idazkaritza Nagusia
Irakaskintza Zuzendaritza Nagusia
Erti-eder, Erakustegi, Idazkizartegi eta Liburutegi Zuzendaritza Nagusia

Hasiera data

1936ko urriaren 15a (gutxi gorabehera)

Amaiera data

1937ko ekainaren 16a (gutxi gorabehera)

Eraikina

Sota-Aznar itsasontzi enpresaren egoitza

Erabilera (1936)

Bulego eraikinak

Eraikitze urteak

1919-1926

Arkitektoa

Frederik Lindus Forge
(Londres: 1874 / -)
(Jatorrizko eraikinaren proiektua)

Manuel M.^a Smith Ibarra
(Bilbo: 1879 / Getxo: 1956)
(Jatorrizko eraikinaren obren zuzendaritza, eta 1920an, eraikina handitzeko proiektua)

Helbidea (1936-1937)

Ibañez de Bilbao kalea, 22. zk.
Bilbo
Bizkaia

Barrutia (1936-1937)

9. barrutia: San Vicente

Kokalekua (gaur egun: 2015)

Eraikina Bilboko Zabalguneko orube batean dago, eta honako hauek mugatzen dute:

- Ibañez de Bilbao kalea (fatxada nagusia eta sarrerak)
- Henao kalea (atzeko fatxada)
 - Mazarredo zumarkalea (eskuin aldeko fatxada: Albia lorategien parean)

Erabilera (gaur egun: 2015)

Herri Lan eta Garraio Sailaren egoitza (Bizkaiko Foru Aldundia)
Bilboko Itsas Komandantziaren egoitza (Espainiako Armada, Defentsa Ministerioa)

Helbidea (gaur egun: 2015)

Herri Lan eta Garraio Saila
Bizkaiko Foru Aldundia
Ibañez de Bilbao kalea, 20. zk.
48009 Bilbo
Bizkaia
Bilboko Itsas Komandantzia
Espainiako Armada
Defentsa Ministerioa
Ibañez de Bilbao kalea, 22. zk.
48009 Bilbo
Bizkaia

Barrutia (gaur egun: 2015)

6. barrutia: Abando

Auzoa (gaur egun: 2015)

Abando

Sekzioa (gaur egun: 2015)

12

Ondare kalifikazioa

Eusko Jaurlaritza

Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian sartzeko proposatutako eraikina.

Bilboko Udala: HAPO (1995)

Babes Erregimena duten Eraikin eta Multzoen Zerrendan dago:

Babes berezia (B maila)

BAO, 124. zk., 1995.06.29

Ondarearen beste alderdi batzuk

Oharrak

Sota-Aznar itsasontzi enpresaren egoitza. Sota-Aznar itsasontzi enpresaren egoitza konpainiako bazkide baten jabetzakoa zen: Ramón de la Sota y Llano. Aurreko egoitza ere Ibañez de Bilbao kalean bertan zegoen, baina 1919an egoitza berria eraikitzen hasi ziren, Lehen Mundu

Gerrak sorrarazitako testuinguru ekonomiko onuragarriaren baitan.

Eraikineko bulego batzuk Sotaren beraren beste enpresa batzuei alokatu zizkieten, baita euskal enpresaria buru zuen Asociación de Navieros de Bilbao (ANB) elkarteari eta antzeko beste batzuei ere.

Behin-behineko egoitza: EBB. Behin-behinean, Zuzentza eta Gogo-Lantze Zaingoa Bilboko Kale Nagusiko 41. zenbakiko eraikinean ezarri zuten, EBBren bulegoak zeuden tokian (EBB EAJ alderdiaren organo exekutiboa da). Eraikin horretan egon zen, halaber, *Eguna* euskaraz idatzitako lehen egunkariaren erredakzioa ere.

Egoitzen hurbiltasuna. Zuzentza eta Gogo-Lantze Zaingoaren, Erri Lanak Zaingoaren eta Ogasun Zaingoaren egoitzak elkarrengandik oso hurbil zeuden, Bilboko Zabalgunean elkarren ondoan zeuden hiru etxaditan.

Babeslekua. Hegazkinen aurkako babesleku bat eraiki zuten Zuzentza eta Gogo-Lantze Zaingoaren egoitzaren sotoan. Ibañez de Bilbao kaleko 22. zenbakian zuen sarrera.

Erri Lanak Zaingoa. Zuzentza eta Gogo-Lantze Zaingoaren egoitzatik metro gutxira zegoen Erri Lanak Zaingoaren egoitza, Mazarredo kaleko hurrengo etxadian.

Erreferentziak

- AIZPURU, M. (2012: 107-143 eta 241-275).
 ANASAGASTI, I. (koord.) (1986b: 57-117).
 AZAOLA, J. M. de (2010: 32).
 BACIGALUPE, C. (1997: 92).
 BEURKO, S. de [L. Ruiz de Aguirre] (1977: or.g.).
 CENICACELAYA, J.; ROMÁN, A., eta SALOÑA, I. (2002: 56).
 GARCÍA DE LA TORRE, B. I., eta GARCÍA DE LA TORRE, F. J. (1993: 140). — (2009: 168-169).
 GOIOGANA, I. (2014: or.g.).
 GONDRA REZOLA, J., eta VILLANUEVA EDO, A. (2008: 266 eta 510-511).
 GONZÁLEZ OLIVER, J. (2007: 153-154).
 GRANJA SAINZ, J. L. de la (2007: 405-433).
 GURRUCHAGA, I. de (1987: 72-81).
 LANDA MONTENEGRO, C. (1995: 381-391 eta 413-415).
 NIEBEL, I. (2009: 28 eta 231).
 PABLO, S., eta RUBIO POBES, C. (2006: 39-43).
 PALIZA MONDUATE, M. (1988: 169-170 eta 658-659).
 S. GRANJEL, L., eta GOTI ITURRIAGA, J. L. (1983: 182-183, 267 eta 279-285).
 SEBASTIÁN GARCÍA, L. (1994: 41, 73, 77 eta 110).
 — (2001: 113-137).
 — (2007a: 161).
 TALÓN, V. (1988: 161).
 TORRES VILLANUEVA, E. (1998: 296-297).
 ZABALA ALLENDE, F. (2006: 135-154 eta 231).

Erri Zaintza Zaingoa

Sociedad Bilbaína elkartearen egoitza

EUZKADIKO BITARTEKO JAURLARITZA (1936-1937)

ERRI ZAINZA ZAINGOA

Sociedad Bilbaína elkartearen egoitza

Erregistro zk. 3

Egoitza

Sociedad Bilbaína elkartearen egoitza

Erakundea

Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako Erri Zaintza Zaingoa

Udalerrria

Bilbo

Probintzia

Bizkaia

Saila

Erri Zaintza

Alderdi politikoa

EAJ

Sailburua

Telesforo Monzón Ortiz de Urruela
(Bergara: 1896 / Baiona: 1981)

Organigrama

Idazkaritza Nagusia
Ziurtasun Zuzendaritza Nagusia
Uri Banakaritzako Zuzendaritza Nagusia
Lege Onuemalletza

Hasiera data

1936ko urriaren 28a (gutxi gorabehera)

Amaiera data

1937ko ekainaren 16a (gutxi gorabehera)

Eraikina

Sociedad Bilbaína elkartearen egoitza

Erabilera (1936)

Jarduera soziokulturalerako eraikina

Eraikitze urteak

1909-1913 (gutxi gorabehera)

Arkitektoa

Calixto Emiliano Amann Amann
(Bilbo: 1882 / Bilbo: 1942)

Helbidea (1936-1937)

Geltoki kalea, 1. zk.
Bilbo
Bizkaia

Barrutia (1936-1937)

6. barrutia: Geltokia

Kokalekua (gaur egun: 2015)

Eraikina Bilboko Burtsaren egoitzaren eta FEVE Bilbo-Santander geltokiaren ondoan dago, honako hauen arteko orube batean:

- Nafarroa kalea (sarrera eta fatxada nagusiak)
- Bailen kalea (ezker fatxada)
- Jose Maria Olavarri kalea (eskuin fatxada)

Erabilera (gaur egun: 2015)Sociedad Bilbaína elkartearen egoitza
Merkataritzako establezimenduak**Helbidea (gaur egun: 2015)****Sociedad Bilbaina elkarte**

Nafarroa kalea, 1. zk.

48001 Bilbo

Bizkaia

Merkataritzako establezimenduak

Nafarroa kalea, 1. zk. eta Jose Maria Olavarri kalea, 1. zk.

48001 Bilbo

Bilbo

Bizkaia

Barrutia (gaur egun: 2015)

6. barrutia: Abando

Auzoa (gaur egun: 2015)

Abando

Sekzioa (gaur egun: 2015)

30

Ondare kalifikazioa**Eusko Jaurlaritza (2000)**

Kultura Ondasun Kalifikatuen Erregistroan jasota dago, eta Monumentu kategoria du. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 208/2000 Dekretua

EHAA, 15. zk., 1988.01.25*EHAA*, 131. zk., 1988.07.05*EHAA*, 91. zk., 1989.05.15*EHAA*, 218. zk., 2000.11.14*BOE*, 35. zk., 1988.02.10**Bilboko Udala: *Uri Zaharren BEB* (1998)**

Osoko Babeseko Eraikinen zerrendan dago, eta Monumentu Eraikinen kategoria du.

*Uri Zaharra Berregokitzeko Egitasmo Berezia**BAO*, 204. zk., 1998.10.26**Ondarearen beste alderdi batzuk****Oroigarria Jainkoaren eta Espainiaren alde hildakoentzat: «*Caídos***

por Dios y por España. ¡Presentes!». Gerra Zibilean, talde garailekoak ziren Sociedad Bilbaína elkarteko 44 kide hil ziren frontean («*borrokalaria*») eta erretagoardian («*immolatuak*», gehienak Bilboko espetxeetan eta itsasadarrean ainguratutako espetxe-ontzietan). Wilhelm (Gilen) Wakonigg bazkidea, Lehen Mundu Gerran Austria eta Hungariako kontsul izandakoa Bilbon, espioitza leporatuta fusilatu zuten, Herri Auzitegiak epaia eman ostean. 1939ko urriaren 14an, elkartearen mendeurrena gogoratzeko, eta gerra amaitu zela aprobetxatuz, brontzeko oroitarri handi bat inauguratu zuten, non idatzita ageri ziren hildako haien izenak. Pieza hori egoitzaren lehen solairuan dago gaur egun.

Bazkide guztientzako oroigarria. Pieza horren ondoan euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako testu bat ipini zuten 2003ko abenduaren 4an, gerran hildako bazkide guztien omenez. Keinu sinboliko horren bidez omenaldia egin nahi izan zieten gerran edo erbestean hildako talde galtzaileko bazkideei ere, hala nola Errepublikako gobernuko ministro izan zen Tomás Bilbaori (1938-1939) edo José Antonio Aguirre (1936-1960) *lehendakariari*, biak ala biak erbestean hilak, Mexiko DFn eta Parisen, hurrenez hurren.

«En recuerdo de los socios muertos en la guerra fratricida 1936-1939, y en la posguerra y por los que sufrieron de cualquier modo aquel drama y el olvido. Una oración. Bilbao a 4 de diciembre de MMIII».

«1936-1939'ko gudan, bai alde batean zein bestean ildako bazkideen oroimenez eta, zelan edo alan, ondamendi aren ondorioak eta azte mingorra jasan bear izan zituen lagunakaitik, otoitza. Bilbao 2003'ko abenduak 4».

Oharrak

Eliteko gizarte kluba. Euzkadiko bitarteko Jaurilaritzako Erri Zaintza Zaingoa Sociedad Bilbaína elkartearen egoitzan ezarri zuten. Eliteko gizarte kluba zen, 1839an sortua, eta Europako dotoreenetako bat zen; Bilboko Plaza Barrian kokatuta egon zen 1913. urtera arte. Bigarren egoitzaren proiektua Emiliano Amann Amanek egin zuen, eta Secundino Zuazo Ugalde (Bilbo: 1887 / Madril: 1970) arkitektoak ere parte hartu zuen proiektuan.

Hasierako kokalekua. Hasieran, Erri Zaintza Zaingoa Estraunza txaletean instalatzea pentsatu zuten; txalet hura Bilboko Kale Nagusiak eta Areiltza doktoarearen zumarkaleak bat egiten duten tokian zegoen, eta Gizarte Laguntza Zaingoa ezarri zuten bertan.

Behin-behineko egoitzak. Sociedad Bilbaína elkartearen gelak hartu aurretik, Erri Zaintza Zaingoa “Bizkayako Aldundiaren” jauregian eta Merkataritza Bankuan instalatu zuten, behin-behinean; Merkataritza Bankua Ogasun Zaingoaren egoitza izan zen geroago.

Egoitzaren hautaketa. Urriaren 15ean, Bizkaiko gobernadore zibilak, José Echevarría Novoak, Sociedad Bilbaína elkarteko orduko presidenteari jakinarazi zion elkartearen egoitzan ezarriko zutela eratu berri zen euskal gobernu autonomoaren Erri Zaintza Zaingoa.

Babeslekua. Erri Zaintza Zaingoaren babeslekua eraikinaren sotoan zegoen. Babesleku horretatik oso hurbil beste batzuk eraiki zituzten: bat *La Concordia* kafetegiaren sotoan (Jose Maria Olavarri kalean), eta bi Bilbo-Santander Geltokiaren inguruan (bi-biek Bailen kaleatik zuten sarrera).

Burtsaren eraikina. Sociedad Bilbaína elkartearen egoitza Bilboko Burtsaren eraikinaren (1905) ondo-ondoan zegoen. Errepublika garaian, Burtsaren eraikinean kokatu zuten Erri Zaintza Zaingoaren erakunde nagusietako bat: Ziurtasun Zuzendaritza Nagusia. Halaber, behin-behineko atxilotze zentroa ere izan zen hasieran, eta bertan erabakitzen zuten atxilotuak aske utzi edo Jaurilaritzak kudeatutako espetxeetara eraman behar zituzten.

Gorabeherak eta itxiera. Uztailaren 20an, Erasoko Guardiako kideek Sociedad Bilbaína elkarteak okupatu eta miatu zuten. Hiru egun geroago, eraikina itxi egin zuten (egun bakar batez).

Bizkaiko Gobernu Zibilaren eta CNTren egoitza. Gerraren lehen hilabeteetan, Erri Zaintza Zaingoa bertan instalatu aurretik, Sociedad Bilbaína elkartean egon ziren Bizkaiko Gobernu Zibila eta CNTko buruzagi eta indarrak:

– Bizkaiko Gobernu Zibila: abuztuaren 13tik irailaren 12ra.

– CNT: irailaren 26tik urriaren amaierara arte.

Anarkistak Bilboko lehen bonbardaketaren biharamunean iritsi ziren, gobernadore zibilak aurrez baimenduta. Hilabete horietan, erakundeko langileek Bizkaiko Guda Batzordean parte hartu zuten.

Lapurretak, galerak eta kalteak. Gerran, Sociedad Bilbaína elkartean lapurretak, galerak eta kalteak izan ziren, bai ondasunetan (altzariak), bai izakinetan. Errepublikaren garaian, erasoko guardiei eta anarkistei egotzi zizkieten, eta frankistek Bilbo hartu ostean, berriz, armada frankistako kideei.

Liburutegia: T. Bilbao. CNTko kideak sartu ostean, Tomás Bilbao Hospitalet (Bilbo: 1890 / Mexiko DF: 1954) arkitektoa, lehen Jaurilaritzako herri lanen zuzendari nagusia eta egoitzak egokitzeko lanen arduraduna, Sociedad Bilbaína elkartean agertu zen, bertako liburutegi

ospetsuaren (30.000 ale) atea itsutzeko asmoz: barruan neurrigabekeriak egitea eragotzi nahi zuen. T. Bilbao bera (erakundearen bazkidea, EAE-ANVko buruzagia eta Errepublikako ministro izango zena) arduratu zen atean horma egiteaz, eta Errepublika garaian elkartean egon zirenak ez ziren konturatu ere egin.

T. Monzón. Sociedad Bilbaína elkartearen egoitza Telesforo Monzón sailburuaren ohiko bizitoki ere izan zen.

Kaleratzea. 1937ko ekainaren 17an, Erri Zaintza Zaingoak utzi egin zuen Sociedad Bilbaína elkartearen egoitza. Indar armatu batzuk bakarrik geratu ziren bertan, eta armada frankista Bilbon sartu zen arte eraikina zaintzeaz arduratu ziren.

FET y de las JONS alderdia. Gerraosteko lehen lau hilabeteetan, Sociedad Bilbaína elkartearen egoitza FET y de las JONS alderdiak okupatu zuen.

Berriz irekitzea. Azkenik, 1937ko azaroaren 14an, Sociedad Bilbaína elkarteko zuzendaritza batzordeak egoitza berriz irekitzea eta jarduerari berrekitea lortu zuen.

Erreferentziak

- ANASAGASTI, I. (koord.) (1986b: 85-106).
BACIGALUPE, C. (1997: 91).
BASAS, M. (1989: 154-158 eta 198-211).
BASURTO, N.; URETA, J. M.^a, eta MURO GAZTAÑAGA, R. (1990: 56-57)
BEURKO, S. de [L. Ruiz de Aguirre] (1977: or.g.).
BUERBA Y ARENA, M. (1993: 467-469).
– (1997: 249-255).
CENICACELAYA, J.; ROMÁN, A., eta SALOÑA, I. (2002: 62).
ENCISO, J. (1913: 145-165).
GARCÍA DE LA TORRE, B. I., eta GARCÍA DE LA TORRE, F. J. (1993: 132).
– (2009: 156-157).
GOIOGANA, I. (2014: or.g.).
GONZÁLEZ OLIVER, J. (2007: 205-206).
LANDA MONTENEGRO, C. (1994: 359-384).
– (2007: 102-103).
NIEBEL, I. (2009: 93 eta 205).
SAN SEBASTIÁN, F., y TORRES, J. (2013: 208-209 eta 225).
SEBASTIÁN GARCÍA, L. (1994: 133-134).
– (2007a: 161-162).
TALÓN, V. (1988: 161 eta 253).
– (1994: 463).
VV. AA. (1965: 73-92 eta 134-145).
ZABALA ALLENDE, F. (2006: 87-96 eta 229-230).

Erri Lanak Zaingoa

La Equitativa eraikina

EUZKADIKO BITARTEKO JAURLARITZA (1936-1937)

ERRI LANAK ZAINGOA

La Equitativa eraikina

Erregistro zk. 4

Egoitza

La Equitativa eraikina

Erakundea

Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako Erri Lanak Zaingoa

Udalerrria

Bilbo

Probintzia

Bizkaia

Saila

Erri Lanak

Alderdi politikoa

PCE

Sailburua

Juan Astigarrabía Andonegui
(Donostia: 1901 / Donostia: 1989)

Organigrama

Idazkaritza Nagusia
Eraman-ekartze Zuzendaritza Nagusia
Erri-lanak Eraikitze Burutza
Erri-lanak Baliatze Burutza
Lege Onuemalletza

Hasiera data

1936ko azaroaren amaiera (gutxi gorabehera)

Amaiera data

1937ko ekainaren 16a (gutxi gorabehera)

Eraikina

La Equitativa eraikina, izen bereko aseguru etxearen egoitza (beheko solairuan eta lehen solairuan) eta etxebizitza partikularrak (gainerako solairuetan) zituena.

Erabilera (1936)

Bulego eraikina
Etxebizitza eraikina

Eraikitze urteak

1934-1935 (gutxi gorabehera)

Arkitektoa

Manuel Ignacio Galíndez Zabala
(Bilbo: 1892 / Madril: 1980)

Helbidea (1936-1937)

Mazarredo zumarkalea, 7. zk.

Bilbo

Bizkaia

Barrutia (1936-1937)

9. barrutia: San Vicente

Kokalekua (gaur egun: 2015)

Eraikina Bilboko Zabalguneko etxadi batean dago, eta etxadi hori bide publiko hauek mugatzen dute:

– Mazarredo zumarkalea (sarrera eta fatxada nagusiak: Albia lorategien parean)

– Colon de Larreategui kalea (ezker fatxada)

– Ibañez de Bilbao kalea (eskuina)

Zabalgune plaza (atzeko aldea)

Erabilera (gaur egun: 2015)

Etxebizitzak eta bulegoak

Bankua

Merkataritzako establezimenduak

Helbidea (gaur egun: 2015)

Etxebizitzak eta bulegoak

Mazarredo zumarkalea, 7. zk.

48001 Bilbo

Bizkaia

Bankua

Mazarredo zumarkalea, 7. zk.

48001 Bilbo

Bizkaia

Merkataritzako establezimendua

Colon de Larreategui kalea, 8. zk.

48001 Bilbo

Bizkaia

Barrutia (gaur egun: 2015)

6. barrutia: Abando

Auzoa (gaur egun: 2015)

Abando

Sekzioa (gaur egun: 2015)

12

Ondare kalifikazioa

Eusko Jaurjaritza (1996)

Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian sartuta dago, Monumentu kategorian. Eusko Jaurjaritzako Kultura Sailaren agindua

EHAA, 51. zk., 1995.03.14

EHAA, 9. zk., 1996.01.15

Bilboko Udala: HAPO (1995)

Babes Erregimena duten Eraikin eta Multzoen Zerrendan dago: Babes berezia (B maila)

BAO, 124. zk., 1995.06.29

Fundación Docomomo Ibérico fundazioa

Espainiako Arkitekto Elkargoen Goi Kontseilua

EHAE0-Bizkaiko ordezkariak

Docomomo Ibérico izeneko erregistroan dago, Bilboko estilo modernistari egindako ekarpenagatik. Barruan, atarian, eraikinaren balio arkitektonikoa egiaztatzen duen plaka bat

dago, Fundación Docomomo fundazioak, Espainiako Arkitekto Elkargoen Goi Kontseiluak (CSCAE) eta EHAE Oren Bizkaiko Ordezkaritzak emandakoa (2012).

Ondarearen beste alderdi batzuk

Idazkuna. Nahiz eta gaur egun aseguru etxea ez dagoen eraikinean, Mazarredo zumarkaleko fatxadan mantendu egin dute «*La Equitativa*» idazkuna.

Oharrak

Egoitzen hurbiltasuna. Erri Lanak Zaingoaren, Zuzentza eta Gogo- Lantze Zaingoaren eta Ogasun Zaingoaren egoitzak elkarrengandik oso hurbil zeuden, Bilboko Zabalgunean elkarren ondoan zeuden hiru etxaditan.

Kai Eraikitze Batzordea. Saileko bi zuzendaritza nagusien egoitza ez ezik (herri lanena eta garraioena), La Equitativa eraikina Kai Eraikitze Batzordearen egoitza ere izan zen.

Babeslekua. La Equitativa eraikinaren sotoan hegazkinen aurkako babesleku bat eraiki zuten. Mazarredo zumarkaleko 7. zenbakitik bertatik sartzen zen babesleku hartara.

Eskumenak: lokal barreatuak. Erri Lanak Zaingoaren eskumena herri lanei eta garraioari zegokien. Arlo horien izaera zela eta, zerbitzuetako asko eraikin ugaritan kokatuta zeuden, horietako batzuk probintziako beste udalerrri batzuetan.

Manuel I. Galíndez. Euzkadiko Jaurilaritzako lehendakaritzak errepresaliak hartu zituen Manuel Ignacio Galíndez La Equitativa eraikinaren egilearen aurka: 1937ko martxoko agindu baten bidez, ondasunen nahitaezko desjabetze erabatekoa ezarri zion, inolako kalte ordainik eman gabe. Hilabete batzuk geroago, I. Galíndezek Bilboko lehen udal frankistaren ordezkari gisa jardun zuen «hirigintzako, bide publikoetako, arkitekturako eta estetikako arloan».

Erreferentziak

- ANASAGASTI, I. (zuz.) (1986a: 149-171).
BACIGALUPE, C. (1997: 92).
BEURKO, S. de [L. Ruiz de Aguirre] (1977: or.g.).
BLASCO OLAETXEA, C. (1990: 56-64).
CENICACELAYA, J.; ROMÁN, A., eta SALOÑA, I. (2002: 55).
DUO, G. (2004: 226).
GARCÍA DE LA TORRE, B. I., eta GARCÍA DE LA TORRE, F. J. (1993: 152-153).
– (2009: 182-185).
GOIOGANA, I. (2014: or.g.).
GONZÁLEZ OLIVER, J. (2007: 191-192).
MENDIETA ARECHEDERRA, J. M.^a; OLAZÁBAL ARRIZABALAGA, M, eta SANZ ESQUIDE, J. Á. (1990: 54-55 eta 147).
MUÑOZ, F. J. (2004: 260 eta 262).
PÉREZ DE LA PEÑA OLEAGA, G. (1997: 176).
SANTAS TORRES, A. (2007: 73).
SEBASTIÁN GARCÍA, L. (2007a: 164).
SUSPERREGUI VIRTO, J. M.^a (2000: 44-49, 146-148 eta 179).
TALÓN, V. (1988: 161).
ZABALA ALLENDE, F. (2006: 177-183 eta 230).

Gintza Zaingoa

Kale Nagusiko 62. zenbakiko bulego eraikina

EUZKADIKO BITARTEKO JAURLARITZA (1936-1937)

GINTZA ZAINGOA

Kale Nagusiko 62. zenbakiko bulego eraikina

Erregistro zk. 5

Egoitza

Kale Nagusiko 62. zenbakiko bulego eraikina

Erakundea

Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako Gintza Zaingoa

Udalerrria

Bilbo

Probintzia

Bizkaia

Saila

Gintza

Alderdi politikoa

PSOE

Sailburua

Santiago Aznar Sarachaga
(Bilbo: 1903 / Caracas: 1979)

Organigrama

Idazkaritza Nagusia
Gintza Zuzendaritza Nagusia
Gudaz Kanpoko Itxasontzien Zuzendaritza Nagusia
Arraintza Zuzendaritza Nagusia
Errekiñak Arautzeko Batzordea
Tximist-indar Batzorde Nagusia
Gintzen Batzorde Koordinatzailea
Lege Onuemalletza

Hasiera data

1936ko urriaren amaieratik azaroaren hasierara bitartean (gutxi gorabehera)

Amaiera data

1937ko ekainaren 16a (gutxi gorabehera)

Eraikina

Kale Nagusiko 62. zenbakiko bulego eraikina

Erabilera (1936)

Bulego eraikina

Eraikitze urteak

1914-1920 (gutxi gorabehera)

Arkitektoa

Daniel Escondrillas Abásolo
(Bilbo: 1853 / Madril: 1922)

Helbidea (1936-1937)

Lopez Harokoa Kale Nagusia, 62. zk. (ezkerra)

Bilbo

Bizkaia

Barrutia (1936-1937)

10. barrutia: Ospitalea

Kokalekua (gaur egun: 2015)

Eraikina Bilboko Zabalguneke orube batean kokatutako dago, *Sota Eraikina* izenekoaren parean, eta hauek mugatzen dute:

- Kale Nagusia (fatxada eta sarrera nagusiak)
- José Anselmo Clavé pasealekua, Casilda Iturrizar parkearen parean (atzeko fatxada)
- Darío de Regoyos kalea (ezkerreko fatxada)
- Luis Salazar Zubia lorategia (eskuin aldeko fatxada)

Erabilera (gaur egun: 2015)

INSSren egoitza (hainbat erakunde)

Nazioarteko Txertaketa Zentroaren egoitza (Gobernuaren Azpiordezkaritza Bizkaian)

Osakidetzaren egoitza (Bilbo Eskualdea)

Helbidea (gaur egun: 2015)

Osakidetza: Bilboko Eskualdea

Osasun Saila

Eusko Jaurlaritza

On Diego Lopez Harokoa Kale Nagusia, 62. zk.

48011 Bilbo

Bizkaia

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (INSS)

Idem

Nazioarteko Txertaketa Zentroa

Gobernuaren Azpiordezkaritza Bizkaian

Idem

Barrutia (gaur egun: 2015)

6. barrutia: Abando

Auzoa (gaur egun: 2015)

Indautxu

Sekzioa (gaur egun: 2015)

1

Ondare kalifikazioa

Eusko Jaurlaritza

Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian sartzeko proposatutako eraikina.

Bilboko Udala: HAPO (1995)

Babes Erregimena duten Eraikin eta Multzoen Zerrendan dago: Babes berezia (A maila)

BAO, 124. zk., 1995.06.29

Ondarearen beste alderdi batzuk

–

Etxebizitza eraikina. Jatorrian, eraikina Víctor Chávarriren alargunaren (Soledad de Anduiza) eta haren semeen jabetza zen, eta etxebizitza eraikina izateko eraiki zuten. Hori dela eta, Chávarri Eraikina ere esaten zaio.

Behin-behineko egoitza: Merkataritza Bankua. Hasieran, Gintza Zaingoaren egoitza Merkataritza Bankuan (Kale Nagusia, 12. zk.) instalatu zuten. Bilboko Bankuaren filial horretan

egon zen Bizkaiko Guda Batzordeko Industria Komisariotza, eta horrexegatik aukeratu zuten kokaleku hura. Azkenik, Merkataritza Bankua Ogasun Zaingoaren (EAJ) egoitza izan zen.

Gudaz Kanpoko Itxasontzien Zuzendaritza Nagusia. Kale Nagusiko 62. zenbakian ezarri zuten Gintza Zaingoko erakundeetako bat Gudaz Kanpoko Itxasontzien Zuzendaritza Nagusia izan zen.

Eraikin partekatua. Gintza Zaingoak Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoarekin partekatu zuen Bilboko Kale Nagusiko 62. zenbakiko eraikina. Bi sailak alderdi beraren (PSOE) zuzendaritzapean zeuden, eta elkarren artean lotura zuten kudeaketa arloak zituzten. Baliteke horrela antolatuta egotea:

- Ezkerrean: Gintza Zaingoa.

- Eskuinean: Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoa.

Egoitzen hurbiltasuna. Gintza Zaingoaren eta Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoaren egoitza izandako eraikina Salerosketa eta Orniketa Zaingoaren egoitzaren ondoan zegoen (ondoan ondoko posta helbideetan zeuden: Kale Nagusiko 62. zenbakian eta 58.-60. zenbakietan, hurrenez hurren).

Areto ofizialak. Diktaduraren urteetan, Bilboko Kale Nagusiko eraikin hori zenbait erakunde ofizialen egoitza izan zen, Mugimenduaren Burutza Probintzialaren eta Aurreikuspeneko Institutu Nazionalaren egoitza, besteak beste.

Sarbideak. Gaur egun, hiru ataritatik sar daiteke lehen Eusko Jaurlaritzako Gintza Zaingoaren eta Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoaren egoitza izandako eraikinera. Hiru atariek dute 62 zenbakia.

Erreferentziak

- ANASAGASTI, I. (zuz.) (1986a: 195-228).
AZAOLA, J. M. de (2010: 153-156).
BASURTO, N. (1999: 232-233).
BEURKO, S. de [L. Ruiz de Aguirre] (1977: or.g.).
ELORZA ARRIETA, G. (1976: 29 eta 31).
GOIOGANA, I. (2014: or.g.).
PARDO SAN GIL, J. (2008: 62-65)
SAN SEBASTIÁN, K. (2001: 45-70 eta 97-102).
SEBASTIÁN GARCÍA, L. (2007a: 162).
ZABALA ALLENDE, F. (2006: 155-161 eta 231).

Nekazaritza Zaingoa

Villa Mena jauregia

EUZKADIKO BITARTEKO JAURLARITZA (1936-1937)

NEKAZARITZA ZAINGOA

Villa Mena jauregia

Erregistro zk. 6

Egoitza

Villa Mena jauregia

Erakundea

Euzkadiko bitarteko Jaurlearitza Nekazaritza Zaingoa

Udalerrria

Bilbo

Probintzia

Bizkaia

Saila

Nekazaritza

Alderdi politikoa

ANV-EAE

Sailburua

Gonzalo Nardiz Bengoechea

(Bermeo: 1905 / Bilbo: 2003)

Organigrama

Idazkaritza Nagusia

Nekazaritzako eta Aberezaintza Zuzendaritza Nagusia

Mendi, Eiza eta Arrantzako Zuzendaritza Nagusia

Lege Onuemalletza

Hasiera data

1936ko urriaren 11 (gutxi gorabehera)

Amaiera data

1937ko ekainaren 16a (gutxi gorabehera)

Eraikina

Villa Mena jauregia

Erabilera (1936)

Etxebizitza (familia bakarrekoa)

Eraikitze urteak

XIX. mendea [1866. urtea baino lehen eraikia]

Arkitektoa

-

Helbidea (1936-1937)

Hurtado de Amezaga plaza, z/g

Bilbo

Bizkaia

Barrutia (1936-1937)

6. barrutia: Geltokia

Kokalekua (gaur egun: 2015)

Villa Mena jauregia parkedun lursail zabal batean eraiki zuten, gaur egun Zabalburu plaza denaren inguruetan. Jauregia 1960ko hamarkadaren amaieran eraitsi zuten, *Zabalburuko Etxebizitza Multzoa* (17 solairuko 7 dorre) eta bertako *Merkataritza Gune Handia* eraikitzeko; hirigintza proiektua Construcciones Alcorta enpresak sustatu zuen. Gaur egun, honako bide publiko hauek mugatutako eremuan egongo litzateke parke osoa:

- Zabalburu plaza (1954ra arte, Hurtado de Amezaga plaza)
- García Salazar kalea (amaierako zatia)
- Pedro Martínez Artola kalea (1962tik 1965era bitartean, Zabalburu kalea)
- Nicolás Alcorta kalea (1971n sortua)
- Pablo Picasso kalea (1967ra arte, Zabalburu bidea edo zeharkalea, eta urte horretatik 1980ra arte, Spinola-Heredia kondeen kalea)
- Juan de Garay (lehen, Bilbo Zaharreko X.a, eta 1952tik 1980ra bitarte, Ortiz de Zarate Tertzioaren hiribidea)
- Concha jeneralaren kalea (amaierako zatia; lehen, Vista Alegre, eta 1926ra arte, Concha kalea)

Erabilera (gaur egun: 2015)

Desagertutako eraikina

Helbidea (gaur egun: 2015)

-

Barrutia (gaur egun: 2015)

7. barrutia: Errekalde

Auzoa (gaur egun: 2015)

Iralabarri

Sekzioa (gaur egun: 2015)

12

Ondare kalifikazioa

-

Ondarearen beste alderdi batzuk

-

Oharrak

Bizitoki partikularra. Villa Mena jauregia (*Chalé Mena*, *Palacio Mena* edo *Palacio Zabálburu* izenez ere ezaguna) parke zabal baten erdian kokatuta zegoen, eta Zabalburu sendiarentzat eraiki zuten, XIX. mendean (1866. urtea baino lehen). Bertan hartzen zuen ostatu Alfontso XIII. ak Bizkaia bisitatzen zuenean, bereziki Getxoko Abra Itsas Klubak antolatutako estropadetara joaten zenean.

Bilboko setioa: zaintza toki aurreratua. Bigarren karlistaldian, Bilbo setiatuta egon zen bitartean (1874ko urtarrilaren 24tik), Zabalburu Jauregia laguntzaile boluntarioen batailoien zaintza toki aurreratuetakoa bat izan zen, eta gauez udalerrira karlisten setiotik babesteko erabiltzen zuten.

Konfiskazioa eta desjabetzea. 1936an gerra hasi zenean, etxea Heredia Spinola kondeena zen: Alfonso Martos Arizcun eta Carmen Zabálburu Mazarredo. Euzkadiko Jaurlaritzak konfiskatu egin zuen, Nekazaritza Zaingoaren egoitza bilakatzeko. 1937ko martxoan, gobernu autonomoak honako hau adostu zuen, Lehendakariaren dekretu bidez: «*ogasun guziak deus ordaindu gabe kentzea [...]. Ona nortzuei: [...] Heredia Spinola'ko konde izan ziranei*». Urte batzuk geroago, Bilboko Udalak lursaila desjabetu zuen.

Ondare artistikoa. Jauregia konfiskatu aurretik, Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako Erti-eder, Erakustegi, Idazkizartegi eta Liburutegi Zuzendaritza Nagusiak barruko ondare artistiko eta dokumentalaren inbentarioa egin zuen, eta aurkitutako ondasunak katalogatu zituen. Lan hori amaituta zegoen 1936ko azaroaren erdialderako.

Berrikuntzak. Halaber, Nekazaritza Zaingoa Mena Jauregian ezarri aurretik, zenbait berrikuntza gauzatu zituzten, eta hegazkinen aurkako babesleku bat eraiki zuten, gobernuo kideek nahiz herritarrek erabiltzeko.

Kebelar Irakintegia. Jauregiaren gela batean 20.000 kilo inguru tabako pilatu zituzten, euskal lurraldean bilduak Errepublikaren jurisdikziopean. Kebelar Irakintegia sortu zuten horretarako.

I. Prieto. Mexikon erbesteratuta, Indalecio Prieto sozialistak Mena Jauregia desjabetzea sustatu zuen, Bizkaiko hiriburuan tren geltoki intermodala ezartzeko proiektua garatzeko. Azkenik, Bilboko Udalak lursaila desjabetu zuen, Zabalburu plazako etxebizitza eta merkataritza multzoa eraikitzeko.

Erreferentziak

- ANASAGASTI, I. (zuz.) (1986a: 137-148).
BACIGALUPE, C. (1997: 91).
BASAS FERNÁNDEZ, M. (1971: 123).
— (1982: 109-110).
BEURKO, S. de [L. Ruiz de Aguirre] (1977: or.g.).
BUERBA Y ARENA, M. (1997: 187).
DUO, G. (2004: 224).
ELORZA ARRIETA, G. (1976: 103).
— (1981: or.g.).
GARCÍA DE LA TORRE, B. I., eta GARCÍA DE LA TORRE, F. J. (1993: 122).
— (2009: 132-133).
GOIOGANA, I. (2014: or.g.).
GONZÁLEZ OLIVER, J. (2007: 296-297).
ORTEGA, V. (2001: II: 72).
PRIETO, I. (1980: 85-86, 90-91 eta 123-124).
QUADRA SALCEDO, F. de la (1963: 194-195).
RUIZ DE AZÚA MARTÍNEZ DE EZQUERECOCHA, M.^a E. (1976: 17 eta 160).
SEBASTIÁN GARCÍA, L. (1994: 132).
— (2007a: 164).
ZABALA ALLENDE, F. (2006: 163-175 eta 228-229).

Salerosketa eta Orniketa Zaingoa

Lezama-Leguizamón Etxea

EUZKADIKO BITARTEKO JAURLARITZA (1936-1937)

SALEROSKETA ETA ORNIKETA ZAINGOA

Lezama-Leguizamón Etxea

Erregistro zk. 7

Egoitza

Lezama-Leguizamón Etxea

Erakundea

Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako Salerosketa eta Orniketa Zaingoa

Udalerria

Bilbo

Probintzia

Bizkaia

Saila

Salerosketa eta Orniketa

Alderdi politikoa

IR

Sailburua

Ramón M.^a Aldasoro Galarza
(Tolosa: 1897 / Habana: 1952)

Organigrama

Idazkaritza Nagusia
Orniketa Zuzendaritza Nagusia
Edari eta Erosketen Zuzendaritza Nagusia
Gari, Irin eta Jatekoen Zuzendaritza Nagusia
Lege Onuemalletza

Hasiera data

1936ko urriaren amaieratik azaroaren hasierara bitartean (gutxi gorabehera)

Amaiera data

1937ko ekainaren 16a (gutxi gorabehera)

Eraikina

Lezama-Leguizamón Etxea

Erabilera (1936)

Etxebizitza eraikina (alokairuan)

Eraikitze urteak

1920-1922 (gutxi gorabehera)

Arkitektoa

Ricardo Bastida Bilbao
(Bilbo: 1879 / Bilbo: 1953)
José M. ^a Basterra Madariaga (laguntzailea)
(Bilbo: 1862 / Bilbo: 1934)

Helbidea (1936-1937)

Lopez Harokoa Kale Nagusia, 58. zk. (1918tik 1925era bitartean, Aliatuen hiribidea)
Bilbo
Bizkaia

Barrutia (1936-1937)

10. barrutia: Ospitalea

Kokalekua (gaur egun: 2015)

Bilboko Zabalgunean dago, hauen artean:

- Kale Nagusia, 58. zk. (fatxada eta sarrera nagusiak: egungo *Sota Eraikinaren* parean)
- Artetxe kondearen zumarkalea (ezkerreko fatxada)
- Luis Salazar Zubia lorategia (eskuin aldeko fatxada)
- José Anselmo Clavé pasealekua, Casilda Iturrizar parkearen parean (atzeko fatxada)

Erabilera (gaur egun: 2015)

Etxebizitza eraikina

Helbidea (gaur egun: 2014)**Etxebizitza eraikina**

On Diego Lopez Harokoa Kale Nagusia, 58-60. zk.
48011 Bilbo
Bizkaia

Barrutia (gaur egun: 2015)

10. barrutia: Ospitalea

Auzoa (gaur egun: 2015)

Indautxu

Sekzioa (gaur egun: 2015)

1

Ondare kalifikazioa**Eusko Jaurlaritza (2004)**

Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian sartuta dago, Monumentu kategorian. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren agindua

EHAA, 89. zk., 2004.05.13

EHAA, 138. zk., 2004.07.21

EHAA, 226. zk., 2004.11.25

Bilboko Udala: HAPO (1995)

Babes Erregimena duten Eraikin eta Multzoen Zerrendan dago: Babes berezia (A maila)

BAO, 124. zk., 1995.06.29

Ondarearen beste alderdi batzuk

–

Oharrak

Konfiskazioa eta desjabetzea. Eusko Jaurlaritzak Lezama-Leguizamón sendiaren etxea aukeratu zuen Salerosketa eta Orniketa Zaingoaren egoitza gisa. 1937ko martxoan eta maiatzean, gobernu autonomoak Manuel Lezama-Leguizamón Zuazolari (eraikinaren jabea) eta haren zenbait senideri ondasun guztiak inolako ordainik eman gabe kentzea erabaki zuen, Lehendakartzaren dekretu baten bidez.

Egoitzen hurbiltasuna. Salerosketa eta Orniketa Zaingoaren egoitza izandako eraikina eta Gintza Zaingoaren eta Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoaren egoitza izandakoa elkarren ondoan zeuden (ondoaz ondoko posta helbideetan: Kale Nagusiko 62. zenbakian eta 58.-60. zenbakietan, hurrenez hurren).

Edarien eta Erosketen Zuzendaritza Nagusia. Kale Nagusiko 62. zenbakiko eraikinean ezarri zuten, halaber, saileko zuzendaritza bat: Edari eta Erosketen Zuzendaritza Nagusia.

Ondare artistikoa. Eraikina konfiskatu aurretik, Euzkadiko Jaurjaritzako Erti-eder, Erakustegi, Idazkizartegi eta Liburutegi Zuzendaritza Nagusiak Lezama-Leguizamón etxean zegoen ondarearen inbentarioa egin zuen, eta aurkitutakoa katalogatu zuen. Lan hori amaituta zuten 1936ko azaroaren erdialderako.

Euskadi, Santander eta Asturiaseko Jakien Zuzendaritza Nagusia. Salerosketa eta Orniketa Zaingoaren egoitza nagusian ezarri zuten, halaber, Euskadi, Santander eta Asturiaseko Jakien Zuzendaritza Nagusia. Erakunde hura Errepublikako gobernuak sortu zuen, hiru lurralde horietako agintariak koordinatzeko kudeaketa eremu horretan.

Erreferentziak (hautaketa)

- ANASAGASTI, I. (zuz.) (1986a: 187-194).
 AZAOLA, J. M. de (2010: 153-156).
 BEURKO, S. de [L. Ruiz de Aguirre] (1977: or.g.).
 BUERBA Y ARENA, M. (1997: 107).
 CENICACELAYA, J.; ROMÁN, A., eta SALOÑA, I. (2002: 77).
 FORESTER BASTIDA, J. R.; BASTIDA DÍAZ-TEJEIRO, E. de, eta
 PÉREZ DE LA PEÑA OLEAGA, G. (2002: 29-31, 60, 82 eta 123).
 GARCÍA DE LA TORRE, B. I., eta GARCÍA DE LA TORRE, F. J. (1993: 187).
 — (2009: 164-165).
 GOIOGANA, I. (2014: or.g.).
 MAS SERRA, E. (2000b: 60, 74, 83 eta 122).
 — (2001: 81).
 RODA, D. (zuz.) (2006: 34-37).
 RUBIRALTA I CASAS, F. (2014: 130).
 SEBASTIÁN GARCÍA, L. (1994: 132).
 — (2007a: 163).
 TALÓN, V. (1988: 161).
 ZABALA ALLENDE, F. (2006: 115-119)..

Ogasun Zaingoa

Merkataritza Bankuaren egoitza

EUZKADIKO BITARTEKO JAURLARITZA (1936-1937)

OGASUN ZAINGOA

Merkataritza Bankuaren egoitza

Erregistro zk. 8

Egoitza

Merkataritza Bankuaren egoitza

Erakundea

Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako Ogasun Zaingoa

Udalerrria

Bilbo

Probintzia

Bizkaia

Saila

Ogasuna

Alderdi politikoa

EAJ

Sailburua

Eliodoro de la Torre Larrínaga
(Barakaldo: 1884 / Baiona: 1946)

Organigrama

Idazkaritza Nagusia
Ogasun Zaingoko Zuzendaritza Nagusia
Auzitegien Zuzendaritza
Lege Onuemalletza

Hasiera data

1936ko urriaren 17a (gutxi gorabehera)

Amaiera data

1937ko ekainaren 16a (gutxi gorabehera)

Eraikina

Merkataritza Bankuaren eraikina

Erabilera (1936)

Bankua

Eraikitze urteak

1920-1923

Arkitektoa

Pedro Guimón Eguiguren
(Bilbo: 1878 / Biarritz: 1939)

Helbidea (1936-1937)

Lopez Harokoa Kale Nagusia, 12. zk.
Bilbo
Bizkaia

Barrutia (1936-1937)

9. barrutia: San Vicente

Kokalekua (gaur egun: 2015)

Bilboko Zabalgunean kokatuta dago, bi bide publikoen artean (bi bideen ertzean du sarrera):

- Kale Nagusia (ezkerreko fatxada)
- Mazarredo zumarkalea (eskuin aldeko fatxada)
- Ledesma kalea (atzeko fatxada)

Erabilera (gaur egun: 2015)

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria (BBVA) bankuaren egoitza

Helbidea (gaur egun: 2015)

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria (BBVA)

On Diego Lopez Harokoa Kale Nagusia, 12. zk.

48001 Bilbo

Bizkaia

Barrutia (gaur egun: 2015)

6. barrutia: Abando

Auzoa (gaur egun: 2015)

Abando

Sekzioa (gaur egun: 2015)

13

Ondare kalifikazioa**Eusko Jaurlaritza**

Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian sartzeko proposatutako eraikina.

Bilboko Udala: HAPO (1995)

Babes Erregimena duten Eraikin eta Multzoen Zerrendan dago: Babes berezia (B maila)

BAO, 124. zk., 1995.06.29

Ondarearen beste alderdi batzuk

–

Oharrak

Merkataritza Bankua. Merkataritza Bankua 1891n eratu zuten Bilbon, eta Bilboko Bankuarekin bat egin zuen 1901ean. Nolanahi ere, filial gisa independentzia eta izena mantendu zituen 1988ra arte, eta urte hartan BBV finantza taldean sartu zen. 1957tik aurrera, Bilboko Bankuaren bulego nagusia izan zen.

Eraikin partekatua. Merkataritza Bankuak ez zuen eraikin osoa hartu, eta beste erakunde batzuentzat gorde zituen zenbait lokal. Alokatu egiten zituen, urte haietan ohikoa zen legez.

Berrikuntzak eta hedapenak. 1942an, Merkataritza Bankuak hainbat etxe erosi zituen Ledesma kalean (11. eta 13. zenbakiak) eta Kale Nagusian (14. zenbakia), egoitza handitzeko eta berritzeko. 1950etik 1957ra bitartean egin zituzten lan haiek, eta Ricardo Bastida arkitektoak zuzendu zituen lehenengo, eta 1953an hura hil zenean, berriz, Francisco Hurtado de Saracho Epalzak.

Bizkaiko Guda Batzordearen egoitza: Finantza Komisariotza. Gerraren lehen fasean, Merkataritza Bankuaren eraikinean instalatu zuten Bizkaiko Guda Batzordeko Finantza Komisariotza, Eliodoro de la Torre (EAJ) buru zuena; azken hori Eusko Jaurlaritzako ogasun sailburu izan zen handik gutxira. Hortaz, egoitza horretan autonomia aurreko garaiaren eta garai autonomikoaren artean jarraitutasun *naturala* izan zen, bai eskumenari zegokionez (Finantzak / Ogasuna), bai titularrari zegokionez (E. de la Torre).

Bizkaiko Gobernu Zibilaren egoitza. Era berean, Eusko Jaurlaritza eratu zenean, Bizkaiko Gobernu Zibila Merkataritza Bankuan instalatu zen. Abuztuan eta irailean Sociedad Bilbaína elkartearen egoitzan egon zen.

Sailen banaketa. Euzkadiko bitarteko Jaurlaritza eratu baino egun batzuk lehenago, alderdi politikoei Merkataritza Bankuan egin zituzten bilerak, gobernuaren sailak nola banatu erabakitzeke. Antza denez, hegazkinen bonbardaketarik izanez gero hura eraikin seguruenetako bat zelako aukeratu zuten Merkataritza Bankua.

Gintza Zaingoaren behin-behineko egoitza. Hasieran, Merkataritza Bankua lehen Eusko Jaurlaritzako Gintza Zaingoaren egoitza izan zen. Izan ere, banku horretan ezarri zuten Bizkaiko Guda Batzordeko Gintza Komisariotza, Julio Jáuregui diputatua (EAJ) arduraduntzat zuena. Azkenean, Gintza Zaingoa Bilboko Kale Nagusiko 62. zenbakira lekualdatu zuten, eta Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoarekin partekatu zuten eraikina.

Egoitzen hurbiltasuna. Ogasun Zaingoaren, Zuzentza eta Gogo-Lantze Zaingoaren eta Erri Lanak Zaingoaren egoitza izan ziren eraikinak elkarrengandik oso hurbil zeuden, Bilboko Zabalgunean elkarren ondoan zeuden hiru etxaditan.

Hegazkinen aurkako babeslekua. Merkataritza Bankuaren sotoan hegazkinen aurkako babesleku bat eraiki zuten, herritar guztiak erabil zezaketena.

Pedro Guimón. Ogasun Zaingoaren egoitzaren eraikina diseinatu zuen arkitektoa, Pedro Guimón Eguiguren, ingeniariaren 1. batailoi mistoko komandante izendatu zuten. Euskal Herrian gerra amaitu zenean, Guimónek Frantziara erbesteratu behar izan zuen. Handik gutxira hil zen, 1939ko urriaren 3an, Bidarteko *La Roseraie* ospitalean, Eusko Jaurlaritzak Gerra Zibileko ebakuatu, gaixo eta zaurituentzat sortutako osasun zentroan. *Hospital y Residencia de Mutilados de Euzkadi* izena ipini zioten (1937-1940).

Erreferentziak

- AGIRRE MUXIKA, L. Á. (2004: 227)
ANASAGASTI, I. (zuz.) (1986a: 127-135).
BACIGALUPE, C. (1997: 92).
BEURKO, S. de [L. Ruiz de Aguirre] (1977: or.g.).
CECILIO, M.; ZUBERO, B., eta PAREDES, V. (2010: 40-41).
CENICACELAYA, J.; ROMÁN, A., eta SALOÑA, I. (2002: 54).
DIÉGUEZ PATAO, S. (2003a: 44, 48-50, 53-54, 57-58 eta 60).
— (2003b: 128-137).
EGAÑA, I. (zuz.) (1998: 61).
ELORZA ARRIETA, G. (1981: or.g.).
FORESTER BASTIDA, J. R.; BASTIDA DÍAZ-TEJEIRO, E. de, eta
PÉREZ DE LA PEÑA OLEAGA, G. (2002: 164).
FULLAONDO, Juan Daniel (1971: 419-421).
GARCÍA DE LA TORRE, B. I., eta GARCÍA DE LA TORRE, F. J. (1993: 134).
— (2009: 160-161).
GIMÉNEZ SERRANO, C. (2003: 25, 27, 29 eta 36).
GOBIERNO VASCO (arg.): (1984: 14-17, 23-34 eta 69-156).
GOIOGANA, I. (2014: or.g.).
GONZÁLEZ OLIVER, J. (2007: 182-183).
LARRONDE, J-C. (2002: 69, 109 eta 146).
PALIZA MONDUATE, M. (2003: 314).
— (2011: 159-160).
SAIZ VALDIVIELSO, A. C. (koord.) (2001: 69).
SAN SEBASTIÁN, K. (2001: 109).
SALAZAR ARECHALDE, J. I. (2012: 172).
SEBASTIÁN GARCÍA, L. (2007a: 162).
ZABALA ALLENDE, F. (2006: 97-113 eta 230).

Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoa

Kale Nagusiko 62. zenbakiko bulego eraikina

EUZKADIKO BITARTEKO JAURLARITZA (1936-1937)

LANA, AURREBEGIRAMEN ETA ERAMAN-EKARRI ZAINGOA

Kale Nagusiko 62. zenbakiko bulego eraikina

Erregistro zk. 9

Egoitza

Kale Nagusiko 62. zenbakiko bulego eraikina

Erakundea

Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri
Zaingoa

Udalerrria

Bilbo

Probintzia

Bizkaia

Saila

Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri

Alderdi politikoa

PSOE

Sailburua

Juan de los Toyos González
(Barakaldo: 1890 / Mexiko DF: 1965)

Organigrama

Idazkaritza Nagusia
Lana Zuzendaritza Nagusia
Aurrebegiramena Zuzendaritza Nagusia
Eraman-ekartze Zuzendaritza Nagusia
Lege Onuemalletza

Hasiera data

1936ko azaroaren 3a (gutxi gorabehera)

Amaiera data

1937ko ekainaren 16a (gutxi gorabehera)

Eraikina

Kale Nagusiko 62. zenbakiko bulego eraikina

Erabilera (1936)

Bulego eraikina

Eraikitze urteak

1914-1920

Arkitektoa

Daniel Escondrillas Abásolo
(Bilbo: 1853 / Madril: 1922)

Helbidea (1936-1937)

Lopez Harokoa Kale Nagusia, 62. zk. (eskuina)
Bilbo
Bizkaia

Barrutia (1936-1937)

10. barrutia: Ospitalea

Kokalekua (gaur egun: 2014)

Eraikina Bilboko Zabalguneko orube batean kokatutako dago, *Sota Eraikina* izenekoaren parean, eta hauek mugatzen dute:

- Kale Nagusia (fatxada eta sarrera nagusiak)
- José Anselmo Clavé pasealekua, Casilda Iturrizar parkearen parean (atzeko fatxada)
- Darío de Regoyos kalea (ezkerreko fatxada)
- Luis Salazar Zubia lorategia (eskuin aldeko fatxada)

Erabilera (gaur egun: 2015)

INSSren egoitza (hainbat erakunde)
Nazioarteko Txertaketa Zentroaren egoitza (Gobernuaren Azpiordezkaritza Bizkaian)
Osakidetzaren egoitza (Bilbo Eskualdea)

Helbidea (gaur egun: 2015)

Osakidetza: Bilboko Eskualdea

Osasun Saila

Eusko Jaurjaritza

On Diego Lopez Harokoa Kale Nagusia, 62. zk.
48011 Bilbo

Bizkaia

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (INSS)

Idem

Nazioarteko Txertaketa Zentroa

Gobernuaren Azpiordezkaritza Bizkaian

Idem

Barrutia (gaur egun: 2015)

6. barrutia: Abando

Auzoa (gaur egun: 2015)

Indautxu

Sekzioa (gaur egun: 2015)

1

Ondare kalifikazioa

Eusko Jaurjaritza

Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian sartzeko proposatutako eraikina.

Bilboko Udala: HAPO (1995)

Babes Erregimena duten Eraikin eta Multzoen Zerrendan dago: Babes berezia (A maila)

BAO, 124. zk., 1995.06.29

Ondarearen beste alderdi batzuk

–

Oharrak

Etxebizitza eraikina. Jatorrian, eraikina Víctor Chávarriren alargunaren (Soledad de Anduiza) eta haren semeen jabetza zen, eta etxebizitza eraikina izateko eraiki zuten.

Behin-behineko egoitza: Lan Ordezkaritza. Hasieran, Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoaren egoitza Errepublikako gobernuaren Lan Ordezkaritza zegoen eraikinean instalatu zuten, Bilboko Kale Nagusiko 45. zenbakian.

Eraikin partekatua. Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoak Gintza Zaingoarekin partekatu zuen Bilboko Kale Nagusiko 62. zenbakiko eraikina. Bi sailak alderdi beraren

(PSOE) zuzendaritzapean zeuden, eta elkarren artean lotura zuten kudeaketa arloak zituzten. Baliteke horrela antolatuta egotea:

- Eskuinean: Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoa
- Ezkerrean: Gintza Zaingoa

Egoitzen hurbiltasuna. Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoaren eta Gintza Zaingoaren egoitza izandako eraikina Salerosketa eta Orniketa Zaingoaren egoitzaren ondoan zegoen (ondoan ondoko posta helbideetan zeuden: Kale Nagusiko 62. zenbakian eta 58.-60. zenbakietan, hurrenez hurren).

Laneko Zuzendaritza Nagusia. Kale Nagusiko 62. zenbakian ezarri zuten saileko erakundeetako bat Lan Zuzendaritza Nagusia izan zen. Zuzendaritza horretatik antolatuta zuten Lanbide Idazkola edo enplegu bulegoa.

Areto ofizialak. Diktaduraren urteetan, Bilboko Kale Nagusiko eraikin hori zenbait erakunde ofizialen egoitza izan zen, Mugimenduaren Burutza Probintzialaren eta Aurreikuspeneko Institutu Nazionalaren egoitza, besteak beste.

Sarbideak. Gaur egun, hiru ataritatik sar daiteke lehen Eusko Jaurlaritzako Lana, Aurrebegiramen eta Eraman-ekarri Zaingoaren eta Gintza Zaingoaren egoitza izandako eraikinera. Hiru atariek dute 62 zenbakia.

Erreferentziak

- ANASAGASTI, I. (zuz.) (1986a: 229-234).
- AZAOLA, J. M. de (2010: 153-156).
- BASURTO, N. (1999: 232-233).
- BEURKO, S. de* [L. Ruiz de Aguirre] (1977: or.g.).
- COMONTE SANTAMARINA, Á. (2010: 69-80).
- ELORZA ARRIETA, G. (1976: 29-31).
- EGAÑA, I. (zuz.) (1998: 128).
- GOIOGANA, I. (2014: or.g.).
- SEBASTIÁN GARCÍA, L. (2007a: 162).
- ZABALA ALLENDE, F. (2006: 121-133)..

Gizarte Laguntza Zaingoa

Estraunza txaleta

EUZKADIKO BITARTEKO JAURLARITZA (1936-1937)

GIZARTE LAGUNTZA ZAINGOA

Estraunza txaleta

Erregistro zk. 10

Egoitza

Estraunza txaleta

Erakundea

Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako Gizarte Laguntza Zaingoa

Udalerrria

Bilbo

Probintzia

Bizkaia

Saila

Gizarte Laguntza

Alderdi politikoa

PSOE

Sailburua

Juan Gracia Colás
(Bilbo: 1891 / Paris: 1941)

Organigrama

Idazkaritza Nagusia
Gizarte Laguntzako Zuzendaritza Nagusia
Lege Onuemalletza

Hasiera data

1936ko azaroaren 23a (gutxi gorabehera)

Amaiera data

1937ko ekainaren 16a (gutxi gorabehera)

Eraikina

Estraunza txaleta

Erabilera (1936)

Etxebizitza (familia bakarrekoa)

Eraikitze urteak

XIX. mendea

Arkitektoa

-

Helbidea (1936-1937)

Lopez Harokoa Kale Nagusia, 55. zk. [posta helbidea]
Bilbo
Bizkaia
Areiltza doktorearen zumarkalea, 7. zk. [herritarrentzako sarbidea]
Bilbo
Bizkaia

Barrutia (1936-1937)

10. barrutia: Ospitalea

Kokalekua (gaur egun: 2015)

Eraikina, gaur egun desagertua, lursail zabal baten barruan zegoen, Rodríguez Arias kaleak (egungo Emilio Campuzano plazatik aurrera) eta Areiltza doktorearen zurmakaleak (orduan 7. zk.) bat egiten duten tokian, Estrauntza kalearen inguruan, posta helbide honekin: Kale Nagusia 65. zk. (lehen, 55. zk.).

Erabilera (gaur egun: 2015)

Desagertutako eraikina

Helbidea (gaur egun: 2015)

-

Barrutia (gaur egun: 2015)

6. barrutia: Abando

Auzoa (gaur egun: 2015)

Indautxu

Sekzioa (gaur egun: 2015)

16

Ondare kalifikazioa

-

Ondarearen beste alderdi batzuk

-

Oharrak

Estrauntza txaleta. Estrauntza txaleta Juan Ibarra eta Calixta Bilbao senar-emazteen bizitokia zen. Izen bereko lursailean eraiki zuten, eta lorategi handiak zituen.

Behin-behineko egoitza: Carlton Hotelaren eraikina. Behin- behinean, Gizarte Laguntza Zaingoa Carlton Hotelaren eraikinean instalatu zuten, Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberarekin, *Radio Emisora Bilbaína* irratiarekin eta beste erakunde batzuekin batera.

Posta helbidea eta sarbidea. Estrauntza txaletaren posta helbidea Kale Nagusiko 55. zenbakia bazen ere (hortik sartzen zen lursailera), herritarrek Areiltza doktorearen zumarkaleko 7. zenbakitik sartzen ziren Gizarte Laguntza Zaingora.

Eraikinaren eraisketa. Estrauntza txaleta 1960ko hamarkadan eraitsi zuten. Etxea kokatuta zegoen orubearen zati batean, Kale Nagusiko 59. zenbakiaren inguruan, Estrauntza etxebizitzak (1967) eraiki zituzten. Félix eta José Luis Íñiguez de Onzoño eta Germán Álvarez de Sotomayor arkitektoek egin zituzten.

Erreferentziak

ALONSO CARBALLÉS, J. J. (1998: 52-55).

ANASAGASTI, I. (zuz.) (1986a: 235-279).

AZAOLA, J. M. de (2010: 153-156).

BEURKO, S. de [L. Ruiz de Aguirre] (1977: or.g.).

BUERBA Y ARENA, M. (1997: or.g.).

GARCÍA DE LA TORRE, B. I., eta GARCÍA DE LA TORRE, F. J. (1993: 220-221).

GOIOGANA, I. (2014: or.g.).

GONZÁLEZ OLIVER, J. (2007: 131).

RODA, D. (1954: 210)

SÁNCHEZ TIRADO, J. M. (2000: 276).

SEBASTIÁN GARCÍA, L. (2007a: 162-163).

TALÓN, V. (1988: 161).

— (1994: 470).

ZABALA ALLENDE, F. (2006: 188-194 eta 228).

Osasun Zaingoa

Escauriaza Jauregia

EUZKADIKO BITARTEKO JAURLARITZA (1936-1937)

OSASUN ZAINGOA

Escauriaza Jauregia

Erregistro zk. 11

Egoitza

Escauriaza Jauregia

Erakundea

Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzako Osasun Zaingoa

Udalerrria

Bilbo

Probintzia

Bizkaia

Saila

Osasuna

Alderdi politikoa

UR

Sailburua

Alfredo Espinosa Orive
(Bilbo: 1903 / Vitoria-Gasteiz: 1937)

Organigrama

Idazkaritza Nagusia
Idazkaritza Berezia
Osasun Zuzendaritza Nagusia
Lege Onuemalletza

Hasiera data

1936ko azaroaren 24a (gutxi gorabehera)

Amaiera data

1937ko ekainaren 16a (gutxi gorabehera)

Eraikina

Escauriaza Jauregia

Erabilera (1936)

Etxebizitza (familia bakarrekoa)

Eraikitze urteak

1909-1912

Arkitektoa

Leonardo Rucabado Gómez
(Castro Urdiales: 1875 / Castro Urdiales: 1918)

Helbidea (1936-1937)

Lopez Harokoa Kale Nagusia, 71. zk.
Bilbo
Bizkaia

Barrutia (1936-1937)

10. barrutia: Ospitalea

Kokalekua (gaur egun: 2015)

Desagertutako eraikina, orube handi batean kokatua. Orube hori Kale Nagusiaren amaierako zati bakoitian (89. zk.) eta Sabino Arana hiribidearen hasieran (orduan Sabino Arana Goiri) egongo litzateke gaur egun, Erruki Etxearen parean eta Jesusen Bihotza plazatik hurbil (lehen Belgika plaza).

Erabilera (gaur egun: 2015)

Desagertutako eraikina

Helbidea (gaur egun: 2015)

-

Barrutia (gaur egun: 2015)

6. barrutia: Abando

Auzoa (gaur egun: 2015)

Indautxu

Sekzioa (gaur egun: 2015)

20

Ondare kalifikazioa

-

Ondarearen beste alderdi batzuk

-

Oharrak

Escauriaza Jauregia. Osasun Zaingoaren egoitza hartu zuen eraikina Bilboko Zabalguneko jauregi bat zen, etxebizitza gisa erabiltzen zena. Tropa frankistak Bilbon sartu baino egun batzuk lehenago, Euzkadiko Jaurlearitzak ondasun guztiak kendu zizkion jauregiaren jabe zen Dámaso Escauriaza Ipiñari, inolako ordainik eman gabe. Hilabete batzuk lehenago, haren anaia Juliori kendu zizkioten ondasunak.

Estraunza txaleta. Hasieran Osasun Zaingoa Estraunza txaletean (Kale Nagusia, 55. zk.) kokatzea pentsatu zuten, jauregitik oso hurbil.

Behin-behineko egoitza: Basurtuko Ospitalea. Escauriaza jauregia egokitzen zuten bitartean, Osasun Zaingoa (Osasun Zuzendaritza Nagusia), Bilboko Basurtu Ospitalean instalatu zuten (egungo Montevideo hiribideko 18. zk.), Bilboko Udalak Guda Osasuntzari laga ziolako. Ondorioz, 1936ko azaroaren hasieran, ospitalearen zati bat militarizatu egin zuten.

Kontsulten pabiloia. Zaingoaren arduradunak kanpo kontsulten pabiloian kokatu ziren (Estanislao Segurola arkitektoaren proiektua: 1926-1932), nahiz eta eraikina berritze lanen azken fasean egon. Lanak 1937ko urtarrilean amaitu ziren.

Medikuntzako eta erizaintzako prestakuntza. 1936ko azaroan, erizainak prestatzeko ikastaroa antolatu zuten kontsulten pabiloian; 1937ko urtarrilean, berriz, Euskal Unibertsitate eratu berriko Medikuntza Fakultateko eskolei ekin zieten eremu horretan.

Erakundeak eta zerbitzuak. Escauriaza Jauregiaren barruan jarri zituzten hainbat erakunde eta zerbitzu, honako hauek, besteak beste: Osasun Zaingoko idazkaritzak, hainbat laborategi eta biztanleria zibila airetiko erasoetatik babesteko atala.

Biltegia eta garajea. Jauregia kokatuta zegoen lursailean eraikin txiki bat ere bazegoen, eta garaje moduan eta ospitaleko hornigaiak zein sendagaiak biltzeko toki gisa erabili zuten.


Gerraosteko eta diktadura garaiko erabilera. Bilbon gerra amaitu zenean, Escauriaza Jauregia errepublikanoak giltzapetzeko toki bat izan zen. Gero, 1943an, eskola gisa erabili zuten, eta Pureza de María Ikastetxea ezarri zuten bertan. Eraikin berrian, eskolaren inaugurazioa oroitzeko plaka bat dago.

Eraikinaren eraisketa. Escauriaza Jauregia 1960ko hamarkadan eraitsi zuten.

Erreferentziak

- ANASAGASTI, I. (zuz.) (1986a: 173-186).
AZAOLA, J. M. de (2010: 153-156).
BASAS, M. (1982: 113).
BASURTO, N. (1986: 17 eta 29-30).
BEURKO, S. de [L. Ruiz de Aguirre] (1977: or.g.).
BUERBA Y ARENA, M. (1993: 163).
— (1997: or.g., 59, 90 eta 376).
ELORZA ARRIETA, G. (1976: 29-30).
— (1981: or.g.).
GOIOGANA, I. (2014: or.g.).
GONDRA REZOLA, J., y VILLANUEVA EDO, A. (2008: 257 eta 265-271).
ORTEGA, V. (2001: 63-64).
RODA, D. (zuz.) (2006: 92).
S. GRANJEL, L., y GOTI ITURRIAGA, J. L. (1983: 109-110).
SAIZ VALDIVIELSO, A. C. (koord.) (2001: 114).
SÁNCHEZ TIRADO, J. M. (2000: 276).
SANTAS TORRES, A. (2007: 87).
SEBASTIÁN GARCÍA, L. (2007a: 163).
ZABALA ALLENDE, F. (2006: 185-188).

3.3. Gobernuo sailen egoitza nagusien kokalekuen mapa



4. Gerra Zibila, lekuz leku

4.1. Gerra zibileko borroka lekuak (1936-1939)

Francisco Manuel Vargas Alonso (UPV/EHU)

4.1.1. Sarrera eta metodologia

En este apartado del proyecto se realiza un inventario de los lugares de memoria que el conflicto generó. En Proiektuaren atal honek gerra zibileko borroka lekuen inbentarioa egiten du. Zehazki, gerran borrokatu ziren armadei lotutako gerra memoriaren lekuak aipatuko ditugu; hots, bi aldeetako milaka bizitza galdu ziren puntu geografikoak.

Euskal Autonomia Erkidegoarekin bereziki lotutako memoria historikoko gertakizunei dagokienez, bereizi egin behar ditugu: alde batetik, gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurraldeak; bestetik, lurralde horietatik kanpoko lekuak, proiektu honen aztergaiarekin lotura dutenak. Hurrenez hurren, zerikusia dute 1936-1937an –euskal lurraldeen eremu geografikoan– eta 1936-1939an –gerra zibilaren tes-tuinguru osoan– borrokatu zirenen “heriotza lekuekin eta memoria lekuekin”. Beraz, inbentarioak honako hauek barne hartzen ditu:

Lehenik eta behin, **gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoa** osatzen duten lurraldeak eta haren kostaldea.

Bigarrenik, **Santander** eta **Asturias**, aurrekoekin batera **Iparraldeko Frontea** eratu zutenak.

Hirugarrenik, **Aragoi**, **Katalunia**, **Levante** eta **Madrilgo** fronteak. Iparraldeko Frontea matxinatuen kontrol-pean erori zenean, leku horietan jarraitu zuten gerra euskal borrokalariak.

- Irun defendatu zuten milizianoek Bidasoa zeharkatu eta Kataluniara jo zuten.

- 1936ko urritik aurrera, Euskal Miliziak Madrilgo frontean aritu ziren: Boadilla del Monte (*Boadilla de Euzkadi* deituko zioten), Unibertsitate Hiria, Moncloako pasealekua... Errepublikaren Herri Armadaren 40. brigada mistoaren 2. batailoia osatu zuten. Ez ziren asko izan, ehunka gutxi batzuk, eta kopurua txikituz joan zen hilabeteak igaro ahala. Madrilgo defentsa lerroan borrokatu ziren, indar frankistekin aurrez aurre, amaierara arte (1939ko martxoaren bukaera). Garaileek errepresaliarik gabe Euskal Herrira itzultzen utziko zietela agindu bazieten ere, hil horren amaieran dozenaka fusilatu eta desagerrarazi egin zituzten.

- Katalunian, Errepublikaren Herri Armadaren 142. euskal-pirinioar brigada sortu zen. Kopuruz nagusi ez izan arren (ehunka batzuk), euskal milizianoak brigadako aktiboenetakoak izan ziren. Hainbat tokitan borrokatu ziren: Aragoian, Balaguerren, Kataluniako erretiradan (besteak beste, Mas-Bell-eko gertakari ahaztu eta odoltsuan parte hartu zuten). Frantziara igaro ziren miliziano errepublikano azkenetarikoak izan ziren, 1939ko otsailaren 13an. Iparraldeko Frontea itsasoz utzi zuten Euzko Gudarosteko beste kide batzuk, edo 1938an preso frankisten ordezkari gabe utzi zituztenak, Ebroko eta Ekialdeko Armadetan sartu ziren, horien Karabinero Brigadetan, 27., 44. eta 56. dibisioetan batik bat, baita beste dibisio eta unitate batzuetan ere, hala nola Ekialdeko Armada Taldearen Artilleria antiaereoan. Etsi-etsian aritu ziren hainbat gudutan: hala nola Vilanova de la Barca, Serós eta Ebroko gudaldietan. 1939an, ia 250.000 borrokalari errepublikano igaro ziren Frantziara; 4.000 euskaldun baino gehiago, horien artean (Gurseko eremuan sartu zituzten).

- Euskal milizianoak Levanten ere borrokatu ziren, gutxi izan baziren ere. Gehienak XXII. Armada Gorputzean aritu ziren, 30.000 gizonek osatutako lehen lerroko indar bat, Ibarrola koronelaren agindupean. Laudion jaiotako militar katoliko bat zen, Guardia Zibileko kapitain izan zena Bilbon, 1936an, eta euskal armadaren 3. dibisioko buru, 1937an. 1939ko urtarrilean, gerra galduta zegoela, 40 kilometro egin zituen aurrera Extremadurako frontean, Fuenteobejuna mendean hartzeko. Haren lehen agindua izan zen eliza irekitzea eta meza ematea.

Inbentario hau egiteko, proiektuaren fitxa orokorraren eredia erabili dugu, zazpi atalez osatutakoa, leku bakoitzak ibilbidean duen identifikazio geografikoa ahalbidetzen duen sekuentzian, informazio zehatza emanaz leku bakoitzeko gertakari buruz, memoria historikorako ibilbidea zehaztuz joateko era horretan. Fitxen atalak honako hauek dira: udalerrria, gertakari historikoa, parte-hartzaileak, data, gertakariaren deskribapena eta haren garrantzia, iturriak eta oharrak.

Hori horrela, jarraian, proiektuaren atal honekin (gerraren nondik norakoak gudu eremuetan) lotuta dauden lekuen zerrenda xehatuko dugu. Guztira, 200 bat leku jaso ditugu (behin-behinean), gehien-gehienak Euskal Autonomia Erkidegokoak. 10.000 lagun baino gehiago hil ziren toki horietan izan ziren gertakarietan. Leku batzuetan, hildakoak hobietan lurperatu zituzten: horietako batzuk lokalizatuak daude; beste batzuk, aurkitzeke.

4.1.2. Gerra Memoriaren lekuak Euskal Autonomia Erkidegoan

4.1.2.1. Araba

4.1.2.1.1. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda

- Aramaio (Santa Agueda)
- Zestafe
- Txabolapea
- Kruzeta
- Etxaguen
- Elosua
- Eribe
- Ipiztekarriaga (Tellamonte-Ipizte, Aramaio)
- Legutio
- Murua
- Murugain
- Nafarrate
- Olaeta
- Ollerieta
- Urduñako San Pedro.

Udalerrria	ARAMAIO (Santa Ageda)
Gertakari historikoa	<p>Aramaioko borrokak.</p> <p>Frankistek Arrasateri eginiko erasoarekin (1936ko irailaren 21-27) lotutako borroka txikiak.</p> <p>Arrasate-Gasteiz komunikazio ardatza kontrolatzeko borrokak (1936ko abendua).</p> <p>Borrokak Asensiomendi-Murugain-Untzella lerroan, Bizkaiaren aurkako ofentsiba frankistaren hasieran (1937ko martxoaren 31tik apirilaren 4ra).</p> <p>Izpizteko borrokak, Ipiztekarriaga eta Ipizte izenez ere aipatzen den lekuan (1937ko apirilaren 20).</p>
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: Arrasate inguruko gobernuaren aldeko miliziak, gero Dragones eta Azaña-Vizcaya batailoiak eratuko zituztenak, eta Otxandio zutabearen indarrak. Fronte lerroa ezarri zuten 1936ko irailean, matxinatuek Arrasateren aurka hasitako eraso gelditzeko. Abenduan, euskal tropek Gasteiz hartzeko hasitako ofentsibarekin koordinatuta, Dragones eta Azaña-Vizcaya batailoiek presioa areagotu zuten Arrasate eta Gasteizerako errepidea kontrolatzen zituzten indarren aurka.</p> <p>Martxoaren 31n, Bizkaiaren aurkako matxinatuen ofentsiba hasi zenean, Aramaio herria bi batailoi horiek (Dragones eta Azaña-Vizcaya) eta orduantxe sortutako Octubre batailoiak babesten zuten. Matxinatuak Otxandiorako bidean gelditzeko, beste hiru batailoi gehitu zitzaizkien: Fulgencio Mateos (UGTren 1.a), Stalin (Meabe zutabearen 2.a) eta Mungia.</p> <p>Aramaio apirilaren 20an erori zen. Zabalbide batailoiak atzera egin zuen, eta matxinatuen tropek mendean hartu zituzten Izpizteko posizioa eta Octubre eta Karl Liebknecht batailoiek defendatzen zuten eremua.</p> <p>Alde frankista: Alonso Vega zutabea (1936ko iraila-abendua); Nafarroako 1., 3. eta 4. brigadak (1937ko martxoa-apirila).</p>
Data	1936ko irailetik 1937ko apirilera.
Deskribapena	<p>1636ko estatu kolpea gertatu zenean, Aramaioko harana Arrasate inguruan zeuden gobernuaren aldeko milizien esku gelditu zen. 1936ko irailean, Alonso Vega zutabe frankistak Arrasateren aurkako eraso jo zuenean, gobernuaren aldeko indarrek eutsi egin zioten, Otxandio zutabearen errefortzuen laguntzarekin. Ondoren, 1937ko martxoaren 31n, Bizkaiaren aurkako matxinatuen erasoaldia hasi zenean, borroka gogorak izan ziren Asensiomendi, Murugain eta Untzellan. Frankistek haranaren hegoaldeko defentsa lerroa apurtu eta mendebalderantz jo zuten; Otxandio apirilaren 4an erori zen, eta hurrengo egunetan inguruko mendateak okupatu zituzten. Haranaren erdialdea apirilaren 20an erori zen. Euskal tropek atzera egin zuten Nafarroako 1. brigadak Anboto aldetik eraso inguratzaile bat jo zuenean, eta Izpizteko posizioak erori ziren, borroka gogorren ondoren.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992)</p> <p>HERRERA (1974)</p> <p>MARTÍNEZ BANDE (1971)</p> <p>MARTÍNEZ BANDE (1980)</p> <p>URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	

Udalerrria	ZESTAFE
Gertakari historikoa	Zestafeko borrokak, Legutioko gudua.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: Euzko Gudarostearen Cueto zutabea, Cueto teniente koronelaren agindupean. Zestafen, parte-hartze aipagarria izan zuten Largo Caballero (Meabe zutabearen 1.a), Stalin (Meaberen 2.a), Asturias, Sacco y Vanzetti eta Perezagua batailoiek. Abenduaren 7an, Largo Caballero batailoiak Murua eta Zestafe arteko fronte lerroa zaintzen zuen. Hil horretako 21eko frankisten erasoaren ondoren, errefortzu unitate errepublikanoak iritsi ziren, akituta eta adoregabetuta zeuden unitateen lekua hartzera; horien artean zegoen UGTren 5. batailoia.</p> <p>Alde frankista: Arabako frontearen bigarren sektoreko (Gopegikoa) kideak. Aginte postua herri horretan zuten, eta posizio aurreratuak, Gorbeiaiko urtegietan. Vea komandantea zen indar horien buru. Zestafe auzunea sektorearen abangoardia bihurtu zen, mehatxu garrantzitsu errepublikanoen zutabearen eskuin hegalarantz, Legutio-Gasteiz errepidearen mendebaldean. Ondorioz, abenduaren 2an, matxinatuek Zestafeko goarnizio txikia sendotu zuten, lehen lerroko batailoia batekin (Melillako Diziiplina Batailoia), eta biharamunean mota bereko beste unitate bat batu zitzaion (Tetuango Mehal-la). Azken hori Aragoiko frontetik zetorren, Galera teniente koronelaren Zutabe Ibiltaritik hain zuzen. Ondoren, unitate horietako batzuk erretiratu eta Melillako Ehiztari Batailoia B agrupazioak hartu zuen haien lekua.</p>
Data	1936ko azaroaren 30etik abenduaren 24ra.
Deskribapena	<p>Azaroaren 30ean, euskal armadak Gasteiz hartzeko erasoari ekin zionean, Cueto zutabeak matxinatuen lerroa apurtu zuen, Legutio mendebaldean, eta mendean hartu zituen Oketa eta Gorbeiaiko urtegietako posizioak eta Zestafe eta Elosua herriguneak. Borroka gogorak izan ziren hurrengo egunetan, eta euskal tropek Zestafe utzi eta inguruko gailurretan ezarri zuten lerroa, auzo horren ipar-ekialdean, eta Akostan, ipar-mendebaldean. Abenduaren 18an, porrot egin zuen euskal tropek Nafarrate eta Zestafe arteko lerroaren aurka hasitako ofentsibak, eta frankistek erasoari ekin zioten biharamunean. Abenduaren 21ean, Gasteizko indarren kontraerasoak ipar-ekialdeko posizioak bereganatu zituen, eta hil horretako 24an, Akostako auzunea berreskuratu zuten, amaiera emanez Legutioko gudua erasotzeko operazio nagusiei.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (2012) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	<p>Zestafe inguruko aurrez aurrekoak Legutioko guduko borroka odoltsuenak izan ziren. Murua eta Zestafe arteko fronte lerroa zaintzen zuen Stalin batailoiak (Meabe zutabearen 2.a) 381 baja izan zituen abenduaren 7ra arte (31 hildako eta 160 zaurituz gainera, 75 gaixo ebakuatu zituzten, eta beste 115 gaixo batailoia erasotzean artatu zituzten, Etxaguenen). Sacco y Vanzetti batailoiak 150 baja inguru izan zituen, eta Perezaguak ere ehunka kide galdu zituen. Meabe zutabearen 1. batailoiak, aldiz, abenduaren 18an Nafarrate-Zestafe lerroaren aurka eginiko erasoan bakarrik, ehun hildako inguru eta ehunka zauritu izan zituen. Hilaren 21ean, Alonso Vega zutabe frankistak Zestafe ipar-ekialdeko eremu osoa okupatu zuen, arma eta hornigai ugari bereganatuta: 325 fusil, 25 metrailadore, 2 mortero, kamioi blindatu bat eta munizio eta granada ugari. Gainera, hildako gudarien gorpuak jaso zituztela adierazi zuten (60 baino gehiago), baita 3 zauritu ere. Gerra parte frankistak bere gain hartu zuen Zestafe inguruko posizioen okupazioa, eta arerioari kendutako materialaz gainera (2 metrailadore, 2 mortero eta kanoi bat), 50 gorpu aurkitu eta 5 preso hartu zituztela adierazi zuen. Oso litekeena da inguru honetan milizianoak hobietan lurperatuta egotea, eta goian aipatutako datuak bat datoz susmo horrekin. Matxinatuei dagokienez, soilik Melillako Ehiztari Batailoia B agrupazioak 170 hil-zauritu baino gehiago izan zituen; 1937ko urtarrilaren 14an, talde horretako 11 kide beste aldera igaro ziren, Akostatik abiatuta. 1936ko abenduaren 15 eta 31 artean, frankistek 641 hil-zauritu izan zituzten Arabako frontean (112 hildako eta 529 zauritu), Elosua eta Zestafe arteko eremuan gehientsuenak. Abenduaren 15, 18 eta 21eko borroketan bakarrik, 303 baja izan zituzten (abenduaren 15ean, hiru batailoik 9 hildako eta 45 zauritu izan zituzten Zestafen; abenduaren 18an, lau batailoik 9 hildako eta 37 zauritu izan zituzten eremu berean; azkenik, abenduaren 21ean, Alonso Vega zutabeak 42 hildako eta 161 zauritu zituen).</p>

Udalerria	KRUTZETA (ARAMAIO)
Gertakari historikoa	Krutzetako borrokak.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: Otxandioko sektoreko indarrak (Juan Ibarrolaren agindupean), Abellaneda, Asturias (UGTren 7.a), Azaña-Vizcaya, Itxarkundia eta Mungia batailoioak.</p> <p>Alde frankista: Nafarroako 1. brigadaren (Rafael García Valiño teniente koronela) egitekoa zen Alonso Vegaren indarren ipar-ekialdetik erasotzea. Leintz haranetik abiatuta, aurrera egin behar zuen, Krutzetako mendatetik igaro eta Otxandiora iristeko. 1. brigadak bere erreserbak eta 2. brigadarenak erabili zituen. Zaila bada ere jakitea zehazki zer unitatek eratzen zuten, martxoaren 31ko erasoan honako hauek mobilizatu zituen: 5.000 gizon baino gehiago, Lubakitzzaileak, 3 bateria (12 kanoi) eta hainbat zerbitzutako indarrak (Intendentzia, Osasuna, Transmisioak). Nafarroako 4. eta 3. brigadek hegaletatik lagundu zioten.</p>
Data	1937ko martxoaren 31tik apirilaren 4ra.
Deskribapena	Martxoaren 31n frankisten ofentsiba hasi zenean, euskal armadak Albertia eta Aramaioko haranaren artean zituen lehen lerroko posizio gehienak galdu zituen, eta bigarren lerro bati eusten saiatu zen. Bigarren lerro horretako puntuetako bat Krutzeta zen. Euskal tropek hainbat egunez eutsi zioten, baja ugarirekin borrokan parte hartu zuten batailoietan, harik eta, apirilaren 4an, indarberritutako oldarraidi frankistak fronte berria apurtu zuten arte (Otxandio okupatu zuten).
Iturriak	BELDARRAIN (1992) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) OLABERRIA OLEAGA (2011)
Oharrak	

Udalerria	ETXAGUEN
Gertakari historikoa	Etxaguengo borrokak, Legutioko gudua eta Bizkaiaren aurkako frankisten ofentsiba.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Cueto zutabearen indarrak; bereziki, Asturias (UGTren 7.a), Stalin (Meaberen 2.a) eta UHP batailoiak. Alde frankista: Arabako Gobernu Militarraren indarrak, Alonso Vega zutabearen eta Afrikako indarren laguntzaz.
Data	1936ko azaroaren 30etik abenduaren 24ra, eta 1937ko martxoaren 31tik apirilaren 4ra.
Deskribapena	Meabe zutabearen indarrek frankisten lehen lerroa apurtu zuten, Legutio mendebaldean. Etxaguen, lehen lerroan, errepublikanoen base militar bihurtu zen, eta base horretan antolatu ziren Eribe eta Isasmendiko borrokak. Eribe-Etxaguen eremuko borroketan, alde bien erasoak eta kontraerasoak izan ziren, abenduaren 2, 13, 14, 17 eta 18an, negu gordinean (hotza eta euria). Stalin batailoia (Meaberen 2.a) aginte postua Etxaguenen zegoen, eta hilaren 7ra arte, 381 baja izan zituen (200 hildako eta zauritu inguru, eta gainerakoak gaixotasunek eragindako bajak). Beste unitate batek hartu behar izan zuen haren lekua. Abenduaren 21eko frankisten kontraerasoek euskal armadaren lerroa apurtu zuten, eta Asturias batailoia, ordurako jada 150 hil-zauritu baino gehiago izan zituena, Etxaguendik erretiratu zen, hainbat posizio galdu ondoren. UHP batailoia indarren kontraerasoek matxinatuak geldiaraztea lortu zuten, eta herrigunea euskal tropen esku gelditu zen, sei kilometroko fronte lerro bat zaintzen zuen UHP batailoia defendatua. Bizkaiaren aurkako ofentsiba frankista hasi zenean, UHP batailoia matxinatuek Gorbeiarantz hartu zuten bidea itxi zuen, hegaletik, eta frankisten lehen saio horren porrota eragin zuen. Azkenean, Otxandio erori zenean, Etxaguen ebakuatu behar izan zuten.
Iturriak	BELDARRAIN (2012) TALÓN (1988) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (1996)
Oharrak	Egile batzuek zalantzak badituzte ere UHP batailoia 1937ko martxo-apirilean zuen kokapenaz (Etxaguen eta Gorbeia hego-ekialdea aipatzen dituzte), garai hartako JSUren (Juventudes Socialistas Unificadas) prentsak zalantza guztiak uxatzen ditu, batailoiko milizianoen lekukotasunak eskainiz.

Udalerrria	ELOSUA
Gertakari historikoa	Elosuako borrokak, Legutioko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Cueto zutabearen indarrak; bereziki, Perezagua eta Rusia batailoiak eta Meabe zutabearen 1. eta 2. batailoiak. Egunek aurrera egin ahala, beste batailoi batzuk etorri ziren laguntzera: hala nola Gordexola (Elosuatik barrera Nafarraterako bidean igaro zena), Karl Liebknecht eta UHP (Meabearen 4.a). Elosua erori ondoren, UHP batailoia lerro berriaren defentsan gelditu zen, honako hauen laguntzarekin: Infanteriako Akonpainamendu Makinen (MAI) Irrintzi batailoia 1. konpainia, eta euskal armadaren Ingeniarien 2. batailoia (Lubakitzailen Sarasketa batailoia izenez ere ezaguna, haren komandante Felipe Sarasketagatik). Alde frankista: Arabako Gobernu Militarraren indarrak, Alonso Vega zutabeak eta Marokoko tropek lagunduta.
Data	1936ko azaroaren 30etik abenduaren 23ra.
Deskribapena	Euskal armadaren tropek matxinatuen frontea apurtu zuten Legutio mendebaldean, eta mendean hartu zuten Elosua, besteak beste. Hasieran, Perezagua batailoia aritu zen, eta, ondoren, Karl Liebknecht eta UHP. Nolanahi ere, abenduaren 21ean hasi zen frankisten kontraerasoak atzera egitera behartu zituen, eta, abenduaren 23an, matxinatuek Elosua berreskuratu zuten. Otsailean, Elosuan gotortutako frankisten aurka eginiko ustekabeko eraso batean, kartutxo eta granada gordailu bat berreskuratu zuten euskal tropek.
Iturriak	AGUIRREGABIRIA eta TABERNILLA (2011) BELDARRAIN (2012) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Elosuan, Perezagua batailoiko kideek hogeitabi zibil hil zituzten, karlismoarekin zuten loturagatik, antza. Unitatearen komandante Manuel Teixeira izan zen gertaera horren eragile. Boluntario portugaldar honek gogor kritikatu zuen prentsan alde errepublikanoak guduaren erabilizko estrategia. Agintetik kendu zuten eta Manuel Eguidazuk hartu zuen haren lekua. Azken horrek besteren erruak ordainduko zituen gero, Santoñan epaitu eta fusilatu baitzuten.

Udalerrria	ERIBE
Gertakari historikoa	Eribeko borrokak, Legutioko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Cueto zutabearen indarrak; hasieran, Perezagua batailoia; ondoren, Asturias batailoia (UGTren 7.a). Alde frankista: Arabako Gobernu Militarraren indarrak, Alonso Vega zutabea eta Marokoko Protektoratuko errefortzu tropak.
Data	1936ko azaroaren 30etik abenduaren 24ra.
Deskribapena	Azaroaren 30ean, Perezagua batailoiak aurrera egin zuen, Ubidetik Elosuarantz, eta mendean hartu zituen arerioaren hainbat posizio, Zestafen eta Eriben, eta 10,5 cm-ko bi artilleria pieza. Dena dela, baja asko izan zituenez, erretiratzeko agindua eman zioten. UGTren 7. batailoia (Asturias) gelditu zen fronte lerroa zaintzen, eta atzera egin behar izan zuen matxinatuek abenduaren 21ean hasitako kontraerasoan.
Iturriak	BELDARRAIN (2012) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	LEGUTIO
Gertakari historikoa	Legutioko gudua.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: 1936ko uztailaren 19an, Joaquin Vidal teniente koronelak gidatutako zutabea irten zen Bilbotik Otxandiorantz. Garellanoko mendiko batailoien konpainia batek, ordena indarrek eta ehunka milizianok osatzen zuten zutabea. Uztailaren 21ean, Santamaría kapitaina buru zuen Garellanoko beste konpainia bat batu zitzaien. Ondoren, kide gehiago gehitu zitzaizkien, armadakoak, ordena indarretakoak eta milizietakoak batez ere, eta Otxandio zutabea sortu zuten.</p> <p>1936ko azaroan, Euskadiko Operazioen Gudarostea sortu ondoren, Arabako ofentsiba prestatzeari ekin zioten, Legutioko gudua izenez ezaguna izango zena. Horretarako, 29 batailoi bildu ziren, 28 kanoik eta 8 blindatuk lagunduta, hiru zutabetan eta erreserba batean banatuta. Lehen zutabea Ibarrola komandanteak zuzentzen zuen: 6 batailoi, lubakitzailen konpainia bat, akonpainamendu makinen sekzio bat, 81 mm-ko morteroen sekzio bat, transmisioen sekzio bat, 7 artilleria pieza eta zerbitzuak. Lehen zutabe honen eginkizuna zen Isuskizan eta Arlabango mendatean barrena aurrera egitea, eta Albertia eta Maroto gailurrak menderatzea, ekialdetik jotzeko Legution gotortuta zeuden matxinatuen aurka. Zutabearen ezker hegaletik, Aramaion, Arrasaterantz joko zuten unitateak arituko ziren.</p> <p>Bigarren zutabea, Cueto teniente koronelaren agindupean hasiera batean, handiena eta indartsuena zen, eta Gorbeia eta Albertia arteko frontea apurtzeko eginkizun nagusia zuen. Zutabeak 13 batailoi zituen, eta gainera: lubakitzailen konpainia bat, zubigileen unitate bat, metrailadoreen sekzio bat, transmisioen sekzio bat, 81 mm-ko morteroak, 11 kanoi eta zerbitzuak. Abenduaren 8an, Cueto agintetik kendu eta Vidal Munarriz koronelak hartu zuen haren lekua, Otxandioko fronteko beteranoa. Borroka gogorrenetan aritu zen bigarren zutabe honek Irezabal komandantea buru zuen erreserba bereganatu zuen, neurri handi batean. Erreserbak 4 batailoi zituen, eta zubigileen sekzio bat, 3 blindatu eta 5 kanoi.</p> <p>Hirugarren zutabeak, Aizpuru komandantearen agindupean, Gorbeia mendiaren eta Amurrio-Urduña eremuaren arteko lerroa zaintzen zuen. Baliabide hauek zituen: 6 batailoi, akonpainamendu makinen sekzio bat, morteroen sekzio bat, lubakitzailen konpainia bat, zubigileen sekzio bat, transmisioen sekzio bat, 5 blindatu eta 5 artilleria pieza. Eginkizuntzat zuen, lehenik, matxinatuek Urduña eta Amurrio gainaldean zituzten behatokiak desegitea; ondoren, Murgia mendebaldeko gainak okupatu eta herri horretara iristea.</p> <p>Alde frankista: gerra piztean, Arabako hiriburuko indarrek Alonso Vega zutabea osatu zuten, eta tropa horiek izan ziren lehen hilabeteetan Otxandioko tropa errepublikanoen aurkako borroka txikietan aritu zirenak. Ondoren, azaroaren 30ean euskal armadak Arabako ofentsiba hasi zuenean, lurralde horretako frontea lau azpisektorretan banatuta zegoen. Murgiako azpisektorea, Orduña teniente koronelaren agindupean: 775 gizon (batailoi baten baliokidea) eta artilleria piezaren bat. Gopegi, Vega komandantearen agindupean: 630 gizon, 3 artilleria pieza eta blindatu bat. Urbina, Iglesias teniente koronelaren agindupean: 363 gizon. Uribarri-Ganboa, Revilla teniente koronelaren agindupean: 519 gizon. Gainera, Arabako erretagoardian, beste 1.400 gizon zeuden gutxi gorabehera (Gasteizen nagusiki), mendiko bateria batzuekin eta blindatuekin. Debagoienan, matxinatuen Latorre zutabea zegoen, Arrasate eta Arlaban artean, 1.785 gizonekin eta artilleria baliabide ikusgarriekin (105 mm-ko 16 pieza, 4 bateriatan banatuak), kopurutan Ibarrolaren indarrak nabarmen gainditzen zituena. Amaitzeko, urriaz geroztik, Alonso Vega zutabeak lerro matxinatua zaintzen zuen Angiozarren; 9 infanteria eta metrailadore konpainia (1.519 gizon guztira) eta 4 artilleria pieza zituen. Indar horiei guztiei, hainbat errefortzu batailoi batu zitzaizkien, Marokotik etorritako tropa kolonialak, gehienak.</p>
Data	Hasierako borroka txikiak, 1936ko uztail-azaroan; Legutioko gudua, 1936ko azaroaren 30etik abenduaren 24ra.

Deskribapena	<p>1936ko uztailearen 19an, lehen zutabe errepublikanoa irten zen Bilbotik Arabarantz, Vidal teniente koronelaren agindupean. Uztailearen 20ko 11:30ean, Ubidera eta Legutiora iritsi zen. Uztailearen 21ean, Garellanoko indarrak iritsi ziren Legutiora, Santamaría kapitainaren agindupean, eta honek Otxandiora erretiratzeko agindua eman zuen. Uztailearen 22an, Alonso Vega koronelaren indarrak Legutioon sartu ziren, eta aurrez aurreko batzuk izan ondoren Vidal koronelaren tropekin, erretiratu egin ziren. Hainbat egunez, Legutio ez inoren lurralde izan zen, Gasteiztik etorritako tropak Otxandiorako bidean egunero herritik igarotzen baziren ere. Hala nola uztailearen 24an: Alonsoren zutabeak errekonozimendu operazio bat egin zuen Otxandioko base militarra ikuskatzeko, Legutio okupatzera iritsi ez bazen ere.</p> <p>Uztailearen 26an, matxinatuek beste errekonozimendu operazio bat egin zuten Otxandioko base errepublikanoaren inguruan, Legutio hartuz behin-behinean. Azkenik, abuztuaren 1ean, hirugarren errekonozimendu bat egin zuten, eta, erreketean konpainia batek osatutako goarnizio bat utzi zuten Legutioon. Abuztuaren 23an, Bilboko Garellanoko batailoien kanoiak Legutioren aurka tiro egin zuen. Biharamunean, Alonso Vegak erantzun zuen, Legutiotik Otxandio eta Aramaiorantz hedatzen diren gainak hartuz, nahiz eta atzera egin behar izango zuen, Gasteizera, bi hegazkin errepublikanoen bonbardaketa pairatu ondoren. Nolanahi ere, matxinatuek jada ez zuten Legutio utziko, eta herri horretan gotortutako goarnizioa handituz joango zen pixkanaka, batailoien baten indarra hartu arte.</p> <p>Azaroaren 30ean euskal armadak Gasteiz hartzeko erasoari ekin zionean, Cueto zutabeak matxinatuen lerroa apurtu zuen, Legutio mendebaldean, eta mendean hartu zituen Oketa eta Gorbeia urtegiaren posizio matxinoak eta Zestafe eta Elosua herrixkak. Legutioren aurkako eraso arratsalderako utzita, ez zuten lortuko herrira sartzea, matxinatuek errefortzuak jaso zituztelako egun horretan bertan: 150 gizon, 2 blindatu eta 2 metrailadore. Bien bitartean, Gopegi eta Urbinako azpisektoreetara 900 gizon inguru iritsi ziren, Gasteiztik (3 konpainia eta 2 infanteria sekzioetako kideak), gehi metrailadore sekzio bat, zalditeriako 2 oinezko eskuadroi eta 4 piezako mendiko bateria bat. Bere aldetik, Ibarrola zutabeak presioari eutsi zion Arrasate eta Albertia artean. Hurrengo egunean (abenduaren 1a), bi zutabeek aurrera jarraitu zuten: Cuetoarena Muruan sartu zen, eta Ibarrolarenak mendean hartu zituen areioak Leintz-Gatzagan zituen hainbat posizio. Hala eta guztiz ere, Legutio hartzeko saioek porrot egin zuten, euskal tropek herria inguratuta bazuten ere. Egun horretan (abenduaren 1a), hutsean gelditu zen ere matxinatuek Legutioko indarrak sendotzeko egin zuten saioa, errepublikanoek atzera egitera behartu baitzuten 105 mm-ko 2 pieza garraiatzen zituen konboia. Dena dela, lortu zuten Legutiora munizioak eramatea, eta Gasteizen ere errefortzu handiak jaso zituzten (2.000 gizon inguru eta 8 artilleria pieza), hainbat tokitatik heldutako tropei esker: Gipuzkoan aritu zen Alonso Vega zutabearen atal handiena (6 infanteria konpainia, metrailadore konpainia bat eta 4 piezako bateria), eta beste leku batzuetatik heldutako infanteria indarrak (batailo bat, konpainia bat eta beste artilleria bateria bat).</p> <p>Abenduaren 2an, frankistek Ibarrolaren indarrak (Olabarri eta Isaac Puente batailoiak) bota zituzten Albertia hego-mendebaldeko pinudietatik; 150 euskal miliziano baino gehiago hil eta dozenaka preso hartu zituzten, gero Asaltoko konpainiako indarrek eta Alonso Vega zutabeko falangistek fusilatuko zituztenak. Egun horretan (abenduaren 2a), euskal armadak nagusi izaten jarraitzen zuen lehen lerroan kokatutako tropei dagokienez (15.000 gizon inguru, matxinatuen 7.000 gizonen aldean), nahiz eta ordurako frankistak nagusi ziren erabat artillerian. Egun horretatik aurrera, artilleria hori euskal armadaren erasoak gelditzeko eta kontraeraso partzialak antolatzeko erabiliko zuten, eta Legutio inguruan galdutako eremuen zati bat berreskuratzeko modua emango zien horrek.</p> <p>Abenduaren 3an, Alonso Vega zutabeak eraso egin zion berriro euskal lerroei, areioak herriaren hego-mendebaldetik kanporatzeko, eremu horretan lortua baitzuten euskal miliziek punturik aurreratua.</p>
--------------	--

Deskribapena	<p>Horrela, Nafarrate hegoaldeko gainak okupatzeaz batera, mendebalderago kokatuta zeuden lerro frankistek errefortzuak jaso zituzten. Marokoko errefortzu indarrak Zestafeko azpisektorerara heldu ziren: zehazki, Tetuango Mehal-la bat, Aragoiko frontetik etorria, Galera teniente koronelaren Zutabe Ibiltariko. Gainera, bezperan, Melillako Diziplina Batailoia ere kokatu zen Zestafen, errefortzu gisa etorria ere presaka.</p> <p>Abenduaren 4 eta 5ean, borroka gogorrek jarraitu zuten Zestafe inguruan, eta Tetuango Erregularren Tabor batek hartu zuen Alonso Vega zutabearen lekua. Abenduaren 5ean, aurrez aurrekoak beste leku batzuetara zabaldu ziren. Legutio inguruak garrantzi gutxiak izan baziren ere, Arrasate mendebaldean borroka gogorak izan ziren. Gainera, euskal armadak eraso jo zuen Urduña-Amurrio inguruetan, San Pedro tontorra hartuz, eta Uzkiario mendikatea ere menderatu zuen hurrengo bi egunetan (abenduaren 6 eta 7an). Hala ere, frankistek jada ez zuten inguru honetan atzera egingo, eta Izarrako defentsa sendotu zuten, 3 konpainiak eta mendiko artilleria sekzio batek osatutako zutabe txiki baten bidez (Gutiérrez komandantea). Egun horietan, matxinatuak kontraerasoan hasi ziren, Legutio inguruan galdutakoa berreskuratzeko. Hasteko, Saimendi eta Nafarrateko gainak okupatu zituzten, ez inoren lurrian kokatuta zeudenak, eta Nafarrateko herririk hartu zuten ondoren, abenduaren 8an.</p> <p>Abenduaren 9 eta 10a nahiko lasaiak izan ziren. Ordurako, Francoren aldeko indarrek 7 zutabe zituzten Arabako frontean, 7.000 inguru gizonekin. Indar horiek 1.300 baja inguru izan zituzten azaroaren 30ean euskal armadak ofentsiba hasi zuenetik, eta lehen lerroan gizon gutxiago bazituzten ere (euskal indarren erdiak), artilleria pieza gehiago zituzten, baita aire baliabide handiagoak ere (bonbaketariak batez ere).</p> <p>Abenduaren 10erako, euskal armadaren bajak arerioarenak halako bi ziren. Dena dela, Euzko Gudarosteak bere ofentsiba berrindatu zuen, erreserbak lehen lerroa ekarriz. Abenduaren 11n, borroka hasi ziren berriz Uzkiario, eta euskal tropak aurrera egiten saiatu baziren ere, frankistek geldiarazi egin zituzten. Matxinatuek, beren alde, aurrerapauso batzuk egin bazituzten ere, Gopegin eta Nafarraten, erantzun gogorra izan zuten biharamunean: alde batetik, euskal tropek kontraeraso indartsua jo zuten Zestafetik Saimendirantz (aurrera egin zuten bereziki bigarren posizio horretan); bestetik, blindatuek Legutioko posizioak bonbardatu zituzten. Abenduaren 13an, euskal armadaren presioak jarraitu zuen. Ondoren, egoera baretu egin zen, eta hala iraun zuen hainbat egunetz. Abenduaren 15ean, frankistak Gipuzkoako fronteak berkokatzen ahalegindu ziren; zehazki, Kalamuan, erreketean konpainia batek eraso jo eta atzera egin behar izan zuen berriro, baja gutxi batzuekin.</p> <p>Abenduaren 18an, euskal armadak eraso jo zuen Nafarrate-Zestafe lerroan, eta gogor ordaindu zuen irabazitako lur eremu txikia. Abenduaren 19an, arerioa erantzuna prestatzen hasia zen, eta egun horretan eta hurrengoan egoera nahiko lasaia izan bazen ere, abenduaren 21ean indar frankistek eraso gogorra jo zuten, euskal lerroa suntsituz eta Zestafe ipar-ekialdeko eremu osoa okupatuz. Araban izandako borroken azken gertakariei dagokienez, bi dira aipagarrienak: alde batetik, euskal tropek hainbat eraso jo zituzten Legutioren aurka, abenduaren 22an; bestetik, matxinatuek aurrera egin zuten herri horren mendebaldetik, berriro okupatuz euskal armadak bere posizio taktiko txarragatik abandonatu zituen herriak. Horrela, abenduaren 23an, Elosua frankisten esku erori zen berriro; Akosta eta Murua, hurrengo egunean. Horiek horrela, Gasteiz hartzeko euskal armadaren ofentsibak porrot egin zuten, eta matxinatuek beren garaipena ospatu zuten, arerioari kendutako materiala erakutsiz, abenduaren 27an, hiriburuko aurrezki kutxaren eraikinean.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (2012) TALÓN (1988) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (1996)</p>
Oharrak	<p>Euskal armadak 6.182 baja izan zituen, gaixoak barne, eta horietatik 4.370 borroketan izan ziren. Nolanahi ere, baja gehienak ez ziren gertatu Legutioren aurkako erasoetan, frankistek hori adierazi bazuten ere. Borroka gehienak ez ziren Legution izan. Matxinatuek 2.000 baja inguru izan zituzten. Gerora, diktadurak ezkutatu egin zuen hainbat hamarkadaz Legutioko guduan egiazki gertatutakoa, Legutioko goarnizioak abenduaren 12ra arte 255 hil-zauritu izan zituela esanez (31 hildako eta 224 zauritu).</p>

Udalerrria	MURUA
Gertakari historikoa	Muruako borrokak, Legutioko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Cueto zutabearen indarrak; bereziki, UGTren 2. batailoia (gero Indalecio Prieto izena hartuko zuena) eta Meaberen 2.a (Stalin). Gainera, Asturias batailoiko eta UGTren 5. batailoiko kideek ere parte hartu zuten. Alde frankista: Arabako Gobernu Militarraren indarrak eta Alonso Vega zutabearen errefortzuak. Hasieran, Arabako frontearen eremu hau Gopegiko azpisektorearen barnean zegoen (Vea komandantea), eta 630 gizonen zaintzen zuten.
Data	1936ko azaroaren 30etik abenduaren 24ra.
Deskribapena	Arabako fronteko erasoak azaroaren 30ean hasi ziren. Cueto zutabea osatzen zuen UGTren 2.ak aurrera egin zuen Legutio mendebaldetik, Gorbeia urtegiatarantz eta Muruarantz. Egun horretan bertan, matxinatuek urtegien eremuan zuten posizioa erori zen, urtegiak kontrolatzeko eraikinean kokatu zegoen haien Aginte Postua barne. Abenduaren 1eko arratsaldean, Murua erori zen, bezperan hasitako eraso inguratzailer baten ondoren, eta errepublikanoek euskal frontean izandako preso atzemate handiena egin zuten. Ondoren, Meaberen 2. batailoia (Stalin) arduratu zen Murua eta Zestafe arteko fronte lerroa zaintzeaz, eta baja asko izan zituen. Alonso Vega zutabeak abenduaren 21ean jotako kontraeraso frankistaren ondoren, euskal tropek herria utzi zuten, eta matxinatuen indarren esku gelditu zen, hil bereko 24an. 1937ko martxoaren 9an, euskal armadak Arabako frontean egin zuen sarraldi batean, Etxaguen eta Murua artean, hainbat material berreskuratu zituen: 10.000 kartutxo, 10 kanpaina sukalde, metrailadore kargadoreak eta euskal tropek berek abenduan abandonatutako beste material batzuk.
Iturriak	BELDARRAIN (2012) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	UGTren 2.ak, Gorbeia urtegiatan, bandera bat, metrailadore bat, fusilak eta gas-kontrako materiala harrapatu zituen; Muruan, aldiz: blindatu bat, kanpaina sukalde bat, 10 zaldi, 2 metrailadore eta 200 fusil. Guztira, euskal tropek 107 preso hartu zituzten; zalditeriako soldaduak gehienak, eta erreketek bat edo beste. Matxinatuek 100 baja inguru gehiago izan zituzten, hildakoen eta zaurituen artean, borroka eremuan hil ziren kapitain bat eta ofizial batzuk barne. Historiografia frankistak gudu honen garrantzia ezkutatu du, eta "gure bajak ez ziren garrantzi handikoak izan" adieraztera mugatu da. UGTren 2.ak dozenaka baja izan zituen; tartean, 10 hildako. Ondoren, Meaberen 2.ak eta beste unitate batzuek, hala nola Asturias batailoiak, bajak izan zituzten ere leku berean.

Udalerrria	NAFARRATE
Gertakari historikoa	Nafarrateko borrokak, Legutioko gudua.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: Cueto zutabearen indarrak. 1936ko azaroaren 30ean euskal armadak Gasteiz hartzeko hasi zuen ofentsibako unitate indartsuena zen. Baliabide hauek zituen: 13 batailoi, lubakitzailen konpainia bat, zubigileen unitate bat, metrailadore sekzioak, 81 mm-ko morteroak, transmisio sekzio bat, 11 kanoi (155 mm-ko 4 kanoi, 127 mm-ko 2, 75 mm-ko 4 eta 70 mm-ko 1) eta zerbitzuak. Abenduaren 8an, Cueto agintetik kendu eta Vidal Munarriz koronela jarri zuten haren lekuan. Vidal Otxandioko fronteko beteranoa zen.</p> <p>Ofentsibarako prestatu zen Erreserba, Irezabalen agindupean, berehala ahitu zen borroka eremu nagusian; hau da, Legutioren eta herri horren mendebaldeko eremuaren aurkako erasoak jo zuen Cueto zutabeak okupatutako erdialdeko zonan. Erreserba hori beste lau batailoik osatzen zuten, eta, gainera, zubigileen sekzio bat, 3 blindatuk (BA-5 sobietar blindatuak) eta 5 kanoik (127 mm-ko 4 kanoi eta blindatuen kontrako bat).</p> <p>Alde frankista: Arabako Gobernu Militarren indarrak eta Alonso Vega zutabea, Gipuzkoatik errefortzu modura etorria; gainera, Afrikako Armadako lehen lerroko tropen unitate solteek ere parte hartu zuten, Aragoiko frontetik eta Marokoko Protektoratutik iritsiak (ikus Zestafe eta Muruari eskainitako atalak).</p>
Data	1936ko azaroaren 30etik abenduaren 24ra.
Deskribapena	<p>Azaroaren 30ean euskal tropek Gasteiz hartzeko ofentsiba hasi ondoren, abenduaren 2an, euskal armada Arabako hiribururako bidean menderatuko zuen punturik aurreratuen zegoen, Legutio-Gasteiz errepidearen mendebaldean, Nafarrate eta herrixka horren hegoaldeko gailurrak mendean hartuta. Meabe zutabearen eta Itxarkundia batailoien indarrak eremu horretan borrokatu ziren. Egun horretan (abenduaren 2a), hiru talde frankistak ahaleginak egin zituzten Zestafe ekialdean zegoen artilleria posiziora iristeko, baina Nafarrate eta Saimendi arteko defentsa errepublikanoak geldiarazi zituen. Abenduaren 3an, Alonso Vega zutabeak, bezperan Ibarrolaren indarrek aipatutako errepidearen ekialdean eginiko erasoak geldiarazi ondoren, kontraerasoari ekin zion, Nafarrate hegoaldeko muinoak hartuz, nahiz eta ez zuen aurrera jarraitzerik izan. Abenduaren 4an, borroka odoltsuek jarraitu zuten, eta abenduaren 5ean, indar afrikarrek (Tetuango 5. Taborra) Alonso Vega zutabearen lekua hartu zuten. Euskal armadari dagokionez, egun horietako borroketan, ingeniariaren batailoi mistoaz gainera, Largo Caballero (Meaberen 1.a), Stalin (Meaberen 2.a), Rusia eta Sacco y Vanzetti batailoiek parte hartu zuten.</p> <p>Abenduaren 7ko ilunabarrean, Gordexola batailoiak, frontera iritsi berria, Nafarraten eta haren inguruetan zegoen Meabe zutabearen (1. eta 2. batailoiak) lekua hartzeko agindua jaso zuen. Agindua biharamuneko goizaldeko 05:00ak aldera bete zuen. Euskal armadaren mugimenduen berri izan ondoren, goizeko 09:00etan, frankisten zerbitzura ziharduten 8 hegazkinek ingurua bonbardatu zuten, eta segidan, indar afrikarrek (Tetuango 5. Taborra) erasoari ekin zioten, Nafarrate izanik jomuga (kale bakarrek herrixka, eliza, eta alde bietan etxe ilara banarekin). Matxinatuek herria okupatu zuten, eta Gordexola batailoiak presaka erretiratu behar izan zuen. Herria defendatzen saiatu zen boluntario talde txiki bat sarraskitu zuten.</p> <p>Geroago, bi aldeen arteko aurreko gehiago izan ziren. Abenduaren 12an, euskal tropek kontraerasoa jo zuten, Zestafe eta Saimendi artean. Perezagua batailoiak hartu zuen bere gain erasoaren ardura nagusia, atsedenetik itzuli berria, eta "mugarrien muinoa" izenekoa menderatzea lortu zuen, Nafarraten, eta afrikar unitateen berehalako kontraerasoa gelditzea (baja ugari izan zituzten). Egun batzuk geroago, abenduaren 18an, euskal armadak presioa areagotu bazuen ere Nafarrate-Zestafe lerroan, ez zuen aurrera egiterik izan, eta garesti ordaindu zuen irabazitako apurra: Meaberen 1. batailoiak baja ugari izan zituen. Abenduaren 19tik aurrera, Nafarrate ingurua laguntza puntuetako bat izan zen hastear zegoen frankisten azken ofentsibarako. Alonso Vega zutabeak jo zuen ofentsiba, abenduaren 21etik aurrera, eta Legutio-Gasteiz errepidearen mendebaldean galdutako eremuak berreskuratu zituen, Gorbeiaiko urtegiak izan ezik.</p>

Iturriak	BELDARRAIN (2012) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	<p>Nafarraten eta haren inguruetan izan ziren borrokek ehunka baja eragin zituzten, alde bietan. Gordexola batailoia ehunetik gora baja izan zuten, hogeita hamar hildako inguru horien artean (horietatik 8 erretirada babestu zuten gudari boluntarioak ziren). Iturri batzuek 192 hildako aipatzen dituzte gertakari hauetan; beste batzuek, 102, era guztietakoak (hilak, desagertuak, zaurituak). Abenduaren 18an, Meaberen 1.ak kolpe are lazgarriagoa pairatu zuen, dozenaka hildakorekin (iturriren batek ehun hildako inguru aipatzen ditu).</p> <p>Francoren aldeko indarrei dagokienez, abenduaren 8an, 12 hildako eta 61 zauritu zenbatu zituzten Arabako frontean; baja horietako batzuk Nafarrate hartzeko borroketa gertatu ziren. Garaiko euskal prentsak argitaratu zuenez, abenduaren 12ko kontraerasoan, euskal tropek "Nafarrateko mendilerro osoa" hartu zuten, eta "200 hildako baino gehiago" eragin, "Afrikako semeak" horietako asko. Gainera, "3 metrailadore eta fusil eta munizio ugari" kendu zizkioten arerioari. Dena dela, aipamen horiek erasotutako lerro osoari zegozkion, eta bereziki nabarmentzen zen Saimendiren okupazioa, Legutio hego-mendebaldean, aukera ematen zuelako mendebalderago zegoen Gopegi ere menderatzeko. Hala eta guztiz ere, apenas erabili zen tamaina honetako garaipena propagandarako. Eremua hilotzez beterik gelditu zen, aurreko egunetan izandako aurrez aurrekoen ondorio, eta hildako horietako asko errepublikanoak ziren. Dokumentazio frankistak, bere aldetik, ez du bere aldekoen bazarik aipatzen abenduaren 12an (zehazki, ez du bazarik aipatzen hil horren 11tik 14ra), eta hil-zauritu asko izan zituztela adieraziko luke horrek.</p>

Udalerrria	AMURRIO, IZARRA, URDUÑA
Gertakari historikoa	San Pedro inguruko borrokak, Amurrio, Izarra eta Urduña artean. Legutioko gudua.
Parte-hartzaileak	<p>Aizpuru zutabearen atal batek, Nogueroi kapitainaren agindupean, erasoak jo zuen Amurrio eta Urduñatik hurbil frankisten kontrolpean zegoen mendilerroan. Bi herriak errepublikanoen esku zeuden. Nogueroi erasoan hilda, Aizpuru bere gain hartu zuen operazioen agintaritzak. Hasieran, euskal tropak 3 batailoik osatzen zituzten (Amaiur, Bakunin eta Leandro Carro), eta beste unitate batzuk batu zitzaizkien ondoren (UGTren 3.a, besteak beste).</p> <p>Aizpuru komandantearen zutabeak (euskal armadaren 3.a), Gorbeia eta Amurrio-Urduña artean kokatua, honako baliabide hauek zituen: 6 batailo, akonpainamendu makinen sekzio bat, mortero sekzio bat, lubakitzailen konpainia bat, zubien eta transmisioen sekzioak, 5 blindatu eta 5 artilleria pieza (155 mm-ko 2, 76 mm-ko 2 eta infanteria akonpainamenduko bat). Zutabe honen eginkizuna zen, lehenik, matxinatuek Urduña eta Amurrio gainaldean zituzten behatokiak desegitea, eta Murgia mendebaldeko gailurrak okupatu eta herri horretara iristea. Egun batzuk itxaron zituen borrokan sartu aurretik, eta 5 batailo bakarrak erabili zituen erasoan. Atzerapen hori dela-eta, erasoak abenduaren 5ean hasi zen (ez azaroaren 30ean), eta errua elkarri egotzi zioten Iparraldeko Armadaren Estatu Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak. Antza, atzerapenaren arrazoia izan zen euskaldunek uko egin ziotela Castro inguruan prest zeuden asturiar eta santandertar batailoien parte-hartzeari. Francoren aldeko tropak apenas iristen ziren hasieran batailo baten indarra izatera: 775 gizon, lehen azpisektorean (Murgia) zeuden hainbat jatorritako konpainietakoak, Orduña teniente koronelaren agindupean. Horien artean zeuden Arabako erreketen hiru konpainia (4.a, 7.a eta 9.a), eta hainbat zalditeria eskudroi, Numancia Erregimentukoak, normalean oinez aritzen zirenak, infanteria gisa. Gainera, artilleria pieza batzuk ere bazituzten. 4. eta 7. konpainia karlistak San Pedro-Las Minas kokatuta zeuden; 9.a, Uzkiñon. 75 mm-ko pieza bat, gutxienez, Urduña-Burgos erreperidera begira zuten, bidea ixteko lerro errepublikanoetik etor zitezkeen blindatuei. Indar hauek aurre egin zioten errepublikanoen hasierako erasoari, eta abenduaren 8an, hiru konpainiak eta mendiko sekzio batek (105 mm-ko 2 pieza) osatutako zutabe operatibo txiki baten laguntza jaso zuten. Gutiérrez komandantea buru zuen zutabe horren eginkizun nagusia izan zen tropa errepublikanoei bidea ixtea eta hasierako frontea berrezartzea.</p> <p>Gainera, Urduña hegoaldeko eta mendebaldeko mendilerroan, Burgos iparraldeko frontearen ardura zuen Luis Moliner komandantearen zutabearen eskuin hegaleko indarrak zeuden. Indar horiek babesten zuten lerro Montes de la Peña hasi (Mena Haranaren hegoaldean) eta Urduñako Haitzeraino iristen zen. Lau konpainia ziren guztira, urtarrilean Burgosko Milizien 4. batailoia sortuko zutenak, Santa Gadeako Tertzioa izenez ezagunagoa. Konpainia horien artean, Arturo García Solís alferreza buru zuen Arabako erreketen 6.a zen erasoari aurre egin zioten Murgiako indarrengandik hurbilen zegoen unitatea. Konpainia horrek, 150 bat gizonek osatua, Urduñako Haitzeko eta Peña Viejakoko posizioak zaintzen zituen, Urduña-Burgos erreperidea moztuz Urduñako mendatean.</p>
Data	1936ko abenduaren 5etik 11ra.

Deskribapena	<p>Abenduaren 5ean, borrokak hasi ziren Amurrio-Urduña frontean. Aizpuruk Sektore Buruaren (Noguerol kapitaina) esku utzi zuen operazioaren agintea, eta azken horren unitateak goizaldean abiatu ziren kuarteletatik lehen lerroa okupatzera. Kapitainak bi batailoi zituen bere aginduetara (Bakunin eta Leandro Carro), eta blindatuak eta bateriaren bat. Gainera, tren blindatu bat ere erabil zezaketen, Bilbo-Amurrio ibilbidea egin ohi zuena eta batzuetan Urduñaraino ere iristen zena. Guztira, 2.000 gizon baino gutxiago erabili ziren Arabako lerro frankistan beste haustura bat eragiteko abian jarri zen erasoan. Helburua zen Gasteizerako bidea zabaltzea, Izarra eta Murgian barrena, eta, bide batez, Legution gotortuta zeuden indar matxinatuak ahultzea, hiri-bururanzko bide zuzenena irekitzeko.</p> <p>Hasierako erasoan, unitate oso bat bakarrik erabili zen (Bakunin), Leandro Carro batailoien bi azpiunitatek lagunduta. Eraso Los Cuetoetik abiatu zen, "hamaika posizioa" izeneko eremutik. Erasotzaileek blindatuen laguntza izan zuten ezker hegaletik, Urduñatik abiatuta aurrera egin zutenak behelaino artean Barrerillako errepedean barrena.</p> <p>Helburua San Pedro tontorra (705 kota) menderatzea zen. Matxinatuek berehala erantzun zuten, fusilak eta metrailadoreak erabili. Gasteizko tropak atzera egiten hasi ziren. Eguerdiko 12:00etan, erasotzaileek San Pedro mendia hartu zuten, eta Aloria auzoa menderatzeko aukera zabaldu zien horrek. Noguerol kapitaina leku horretaraino iritsi zen, bala Estatu Nagusiko ofizialek lagunduta, eta bala galdu batek hil zuen, agintaritzak taktikorik gabe utziz borrokan sartu berri zen Amurrio-Urduña lerroko eraso zutabea.</p> <p>Arabako erreketen 4. eta 7. konpainiek atzera egin zuten, lerro berri bateraino, eta bat egin zuten Txibiarte eta Sobrehayaseko posizioetan Uzkiako defendatzen zuten 9.ekin.</p> <p>Abenduaren 6an, indar errepublikanoek Uzkiako frankisten aurkako erasoan jarraitu zuten, Amaiur batailoien eta tren blindatu baten laguntzarekin. Artilleria frankista, trena geldiarazteaz gainera, Urduña bonbardatzen hasi zen, harik eta errepublikanoek Urduña-Burgos errepede gainean kokatuta zegoen pieza desegitea lortu zuten arte.</p> <p>Abenduaren 7an, Aizpuru teniente koronelak ofentsiba berrindartu zuen, Amaiur batailoia eta UGTren 3.a erabili, Txibiarte eta Sobrehayaseko gainak hartzeko helburuarekin. Helburua bete zuen eta lerro berria Inosoko geltokitik kilometro batera ezarri zen. Biharamunean, abenduaren 8an, nazionalak kontraeraso jo zuten, Uzkiatik, sortu berri zen Gutiérrez zutabea erabiliz. Galdutakoaren zati bat berreskuratzea lortu bazuten ere, azkenean UGTren 3.ak bidea itxi zien, Baranbiotik heldutako UGTren konpainia baten eta Amaiur batailoien laguntzarekin. Borroka amaituta, Bakunin batailoia hartu zuen UGTren 3.aren lekua.</p> <p>Abenduaren 9an, tiroketa gutxi batzuk izan ziren Uzkiako-Untza frontean, eta matxinatuek barealdi hori aprobetxatu zuten Gutiérrez komandantearen agrupazioaren erreleboa hasteko. Unitate horrek Gasteizerako bidea hartu zuen, eta errelebo lanak biharamunean amaitu ziren. Abenduaren 10ean, Ruiz de la Cuesta komandantearen agrupazio frankistak, Numancia Erregimentukoa, bere gain hartu zuen frontea zaintzeko eginkizuna, honako hauen bidez: erregimentu horretako 1. eskuadroia, San Marcial erregimentuko 4. batailoien 1. konpainia eta Sizilia batailoien 7. konpainia.</p> <p>Abenduaren 11n, Aizpuren indarrek beste eraso bat jo zuten, Izarra alderantz, Gutiérrez zutabearen aurrean galdutako eremua berreskuratzen eta Barrerillako mendatea hartzen saiatzeko. Leandro Carro batailoia Sobrehayasetik erasotu zuen, eta Amaiur batailoia, Barrerillatik. Biek ala biek atzera egin behar izan zuten, baja ugarirekin.</p> <p>Abenduaren 11ko porrotak amaiera eman zien errepublikanoek Amurrio-Urduña eremuan abian jarri zituzten ofentsiba operazio nagusiei. Egun horretatik aurrera, tiroketa gutxi batzuk izan ziren, alde bietako patruilen artean, eta kanoi eta mortero tiro batzuk, noizbehinka. Gainera, erreleboak ere izan ziren. Alde errepublikanoan, Araba batailoia iritsi zen frontera, atsedean hartuta Legutioko guduan parte hartu ondoren. Urte amaierara arte, errelebo lanak eta negu gordina izango ziren protagonistak Barrerillako mendateak eta San Pedro-Txibiarte-Sobrehayas lerroak osatutako eremuan.</p>
--------------	---

Iturriak	AROSTEGUI (1991) BELDARRAIN (1992) CIUTAT DE MIGUEL (1978) MENDIVIL (1992) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) URIBE GALLEJONES (2007)
Oharrak	Euskal tropek borroketan izandako bajak 200 ingurura iritsi ziren; 50etik gora hildako, horien artean. Aldiz, hainbat iturriren arabera, Francoren aldekoek baja gutxiago izan zituzten; aurreko kopuruaren erdiak, gutxi gorabehera. Gaixo kopuruak askoz handiagoak izan ziren alde bietan, klimatologia gogorraren eraginez.

4.1.2.1.2. Gerra Memoriaren lekuen kokapenaren mapa



Esri, HERE, DeLorme, MapmyIndia, © OpenStreetMap contributors, and the GIS user community

4.1.2.2. Bizkaia

4.1.2.2.1. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda

- Akarregi	- Galdakao	- Morga
- Añetu	- Galdames	- Mungia
- Areatza	- Gamiz-Fika	- Muxika
- Arrazola	- Gatika	- Ondarroa
- Arrieta-Libao	- Gernika	- Orozko
- Artxanda (Bilbo)	- Getxo	- Otxandio
- Bakio	- Gondramendi	- Plentzia
- Barazar	- Igorre	- Portugalete
- Bedia	- Ixerango	- Santurtzi
- Bermeo	- Jata	- Saibigain
- Berriatua	- Kalamua	- Sestao
- Berriz	- Kanpanzar	- Sollube
- Bilbo	- Koltza	- Sondika
- Bizkargi	- Larrabetzu	- Truende
- Castro-Alen	- Larrauri	- Ubidea
- Bilboren Defentsa Hesia (Burdin Hesia)	- Laukiz	- Urkiola
- Deustu (Bilbo)	- Leioa	- Urrimendi
- Dima	- Lekeitio	- Urrutxua
- Durango	- Lemoa	- Zaldibar
- Elantxobe	- Lemoiz	- Zamudio
- Elorrio	- Mallabia	- Zeanuri
- Ermua	- Malmasin	- Zeberio
- Errigoiti	- Mañaria	- Zornotza
- Etxano	- Matxitxako	- Zugastieta (Muxika)
- Fruiz	- Mekoleta	
	- Meñaka	

Udalerrria	Marxina-Xemein
Gertakari historikoa	Akarregiko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako fronteko indarrak; bereziki, Euzko Indarra, Fulgencio Mateos eta Otxandio batailoiak. Alde frankista: González Unzalu eta Cayuela zutabeak, Iruretagoyena zutabearen barnean aritu zirenak. 1937. urte hasieran, Nafarroako 2. brigada iritsi zen frontera, harik eta, apirilean, Kostaldeko sektorean, italiar agindupeko Frecce Nere brigadak (Gezi Beltzak) haren lekua hartu zuen arte.
Data	1936ko irailetik 1937k apirilera.
Deskribapena	Irailaren amaieran, Donostia erori ondoren, euskal armadak matxinatuen tropak geldiarazi zituen Bizkaia eta Gipuzkoa arteko mugan. Markinan, errepublikanoen posizioetako bat Akarregin zegoen, eta Eusko Abertzale Ekintza (EAE) arduratzen zen haren defentsaz (Euzko Indarra batailoia). Urriaren 21ean, tropa errepublikanoek eraso jo zuten, Markina eta kostaldearen arteko sektorean, ahaleginak porrot egin bazuen ere. Borrokan, Fulgencio Mateos hil zen, UGTren 1.aren komandantea, Bilboko zinegotzi sozialista izandakoa. 1937an, Otxandio batailoia kokatu zen posizio honetan, eta baja batzuk izan zituen noizbehinkako borroka txiki eta bonbardaketetan. Apirilaren amaieran, Elgeta eta Eibar erori ziren, eta Akarregiko posizioa utzi behar izan zuten errepublikanoek, inguratuak izateko arriskuagatik.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) JUARISTI LARRINAGA (2008) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Busturia
Gertakari historikoa	Añetuko borrokak, Sollubeko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa (Gómez), 1. euskal brigada (Euzko Indarra batailoia/EAEren 2.a), 13. euskal brigada (Olabarri batailoia/EAEren 1.a), Asturiasko 4. espedizio brigada (252 Méjico batailoia). Alde frankista: Nafarroako 5. brigadaren 1. brigada erdia (Tetuango 5. Taborra eta Al-Hoceimako 4. Taborra).
Data	1937ko apirilaren 30etik maiatzaren 8ra.
Deskribapena	Frecce Nere brigadak sarraldi azkar batean Bermeorantz jo zuenean, 1. euskal brigadaren indarrek Añetuko posizioa utzi behar izan zuten, eta italiar-espainiar batailoiek okupatu zuen. Gero, 1. dibisioak Bermeo berreskuratzeko eraso indartsua jo zuenean, batailoiek atzera egin zuten, Bermeoko errepidera eta Altamirako posizioetara. Aukeraz baliatuz, 13. euskal brigadak (Olabarri batailoia/EAEren 1.a) posizioa berreskuratu zuen. Errepublikanoek Bermeori ezarritako setioa apurtu ondoren, maiatzaren 6an, Sollube hartzeko frankisten ofentsibaren hasieran, euskal tropek galdutzat eman zuten Añetuko posizioa, alde bietatik erasotua izateko arriskuagatik. Matxinatuek Olabarri batailoien konpainia bat sarraskitu zuten. Batailoiek hori eta 1. euskal brigadaren gainerako indarrak erretiratu egin ziren, eta Asturiasko 4. espedizio brigadak hartu zuen haien lekua. Hilaren 8an, afrikar unitateak (Tetuango 5. Taborra eta Al-Hoceimako 4. Taborra) arerioaren eremuan infiltratu eta ustekabean harrapatu zituzten Sollubeko gailurra zaintzen zuten tropa asturiarrak.
Iturriak	MARTÍNEZ BANDE (1971) SOLANO PALACIO (1938) VARGAS ALONSO (2007)
Oharrak	

Udalerrria	Areatza
Gertakari historikoa	Areatzako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Otxandio zutabea, Arabako fronteko indarrak eta 3. euskal dibisioa. 1937ko maiatzaren amaieran, dibisio horren 11. brigada (Pérez Prieto) Areatzan zegoen. Bi batailoi (Ibaizabal eta Arana Goiri) Areatzan kokatu ziren. Iparraldean, 7. brigada zegoen; hegoaldean, 3.a. Azken hori, Matías Sánchezen agindupean, Areatzatik Barazar aldera hedatu zen, 3 batailloirekin (Padura, Gipuzkoa eta Isaac Puente). Alde frankista: Nafarroako 4. brigada (Alonso Vega).
Data	1936ko uztailetik 1937ko ekainera.
Deskribapena	Gerra zibila piztu zenean, Vidal zutabea antolatu zen, Bilbon. Ibarrola eskuin hegala arduratu zen. Gasteiztik zutabe bat zetorrela zioten gezurrezko zurrumuruak iritsi zirenean, hegal hori Areatza eta Ubidea artean hedatu zuten. Vidal zutabearen indarrak Otxandiora iritsi eta base militartzat hartu zuten. Areatza erretagoardian gelditu zen, lehen lerroarentzat funtsezkoa izango zen komunikazio lerro zabal batean. Komunikazio bide horretatik, hornigaiak eta errefortzuak igaroko ziren Arabako frontierantz, eta hil-zaurituak edo erretagoardiarantz atsedean bila zihoazen unitateak ebakutzeko ere erabiliko zen. 1937ko apirilean, Bizkaiaren aurkako ofentsiba frankistan, matxinatuek Barazar eta Zumeltza mendateak hartu zituztenean, Areatza arerioen esku erortzeko arriskuan egon zen. Maiatzaren 22an, Nafarroako 2. eta 4. brigadek erasoari ekin zioten, Mañariko Haitzak inguratu eta menderatzeko helburuarekin. 2. brigadak Durango mendebaldetik ekin zion; 4. brigadak, Altunetik. Azken brigada hori Otxandio-Dima errepidean barrena abiatu eta Urri eta Divaley tontorrek eta Bargondia auzoa okupatu zituen. Maiatzaren 23an, Illunbeko gaina, Dima herria eta Elezkano, Biteriño eta Arantzazugoitia auzoak hartu zituen. Maiatzaren 24rako, 3. euskal dibisioak (Ibarrola) atzera egin zuen Arratiako haranaren mendebaldera, eta matxinatuek Mañarian barrena Durangora zihoan errepidea libratu zuten. Igorre eta Areatza ez inoren lurrean gelditu ziren. Maiatzaren 30ean, 3. euskal dibisioak errekonozimendu operazio bat jarri zuen martxan, Igorre eta Areatza ikuskatzeko. Iparraldean, Pezegagua batailoia (7. brigada) konpainia batek Igorre berreskuratu zuen; hegoaldean, Arana Goiri batailoia (11. brigada) beste konpainia batek Areatza okupatu zuen. Biharamun goizean, euskal artilleriak bertan behera utzi zituen euskal tropen bezperako garaipenari erantzun nahi zioten frankisten ekinaldiak. Mañariko Haitza-Arratia Haraneko gudua amaitutzat eman zen. Frankistek lortu bazuten ere Durango-Gasteiz komunikazio ardatza berriro zabaldu eta Mañariko mendi eremu osoa okupatzea, ez zuten modurik izan Igorrera iritsi eta Areatza-Lemoa ardatza guztiz menderatzeko. Azkenean, ekainaren 16an, Nafarroako 4. brigadak, bezperan Bilbo hartzeko operazio nagusiari batu zitzaiona, Gaztelu-Elexabeitia, Areatza eta Zeanuri okupatu zituen, Arratia haraneko ibilbide osoa menderatuz horrela.
Iturriak	BELDARRAIN (1992)
Oharrak	MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) OKTUBRE TALDEA (1986) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)

Udalerrria	Atxondo
Gertakari historikoa	Ebakuazioa eta Arrazolako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Otxandio erori ondoren, euskal armadak Gipuzkoako frontea sendotzea erabaki zuen. Itxasalde batailoia Baranbiotik Elorriora eraman zuten, eta Arrazolako posizioan kokatu zen, Anboto ekialdeko eremua zaintzen zuen Karl Liebkecht batailoia indarren ondoan. Alde frankista: Nafarroako 1. brigadako tropa frankistek Aramaioko harana hartu zuten, eraso inguratzaile baten bidez, eta Elorrioraino infiltratu ziren ondoren, Gipuzkoako frontearen hondoratzea eraginez.
Data	1937ko apirilaren 16tik 23ra.
Deskribapena	1937ko apirilean, Itxasalde batailoia Altubetik (Baranbio sektorea) Elorriko sektorerara eraman zuten. Hil horren 16 eta 18 artean, Matxin eta Telleria konpainiak Arrazola eta Axpeko herritarrei laguntzen aritu ziren, bi herri horien ebakuazio lanean. Anboto ekialdean eta Arrazola hegoaldean errepublikanoen posizioak galduta, apirilaren 20tik aurrera, batailoiak atzera egin behar izan zuen, Memaiaranzko bidean frankistek eragindako bajen ondorioz. Apirilaren 23an, unitate hau kontraeraso batean erabiltzeko aukera aztertu zen, Udalako arrakala ixteko, baina azkenean uko egin zitzaion asmoari. Hilaren 27an, Atxondo harana matxinatuen esku gelditu zen.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) HERRERA (1974) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Arrieta-Libao
Gertakari historikoa	Arrieta-Libaoko borrokak, Sollubeko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisia, Asturiasko 1. espedizio brigada, Santanderreko 2. espedizio brigada, 18. euskal brigada. Alde frankista: Frece Nere brigada, XXIII di Marzo agrupazioa eta Nafarroako 5. brigada.
Data	1937ko apirilaren 30etik maiatzaren 14ra.
Deskribapena	<p>Apirilaren amaieran Gipuzkoako frontea hondoratu zenean, Bizkaia defendatzen zuten tropak beste era batean antolatu ziren, erresistentzia sendotzeko helburuarekin. Zehazki, batailoiak brigadetan multzokatu ziren, eta brigadak, dibisioetan. Gainera, errefortzuak iritsi ziren Asturias eta Santanderretik. Apirilaren 29an, Gernika erori zen egunean, indar errepublikanoek beste lerro bat ezartzeari ekin zioten, Sollube eta Zornotza artean, matxinatuei bidea ixteko. Biharamunean, tropa errepublikanoek Gernika mendebaldeko arrakala itxi zuten: 4. euskal brigada Muxikan kokatu zen; errefortzuak jaso zituen 2. brigada eta Asturiasko 1. espedizio brigada, Errigoitin; eta Santanderreko 2. espedizio brigada, Libaon. Hurrengo egunetan, eutsi egin zitzaizkien frankistek Errigoiti eta Muxikaren aurka jotako erasoari, eta Bermeo-Sollube bihurtu zen borroka eremu nagusi. Libao auzoan, borroka txikiak izan ziren alde bietako patruilen artean. Maiatzaren 9an, euskal tropak biltzen hasi ziren, Libao (18. euskal brigada) eta Errigoiti artean, ofentsiba indartsu bati ekitako Gernikako itsasadarrean, matxinatuak Bermeo eta Busturia artean inguratuzko. Dena dela, ekinaldia bertan behera utzi behar izan zuten, Nafarroako 1. brigadak Gernikatik Muxikarantz eraso jo zuenean. Biharamunean, brigada hori Bizkargirantz abiatu eta Errigoiti okupatu zuen. Hori horrela, mugimendu horrek eta Sollube hego-ekialdean zegoen Nafarroako 5. brigadaren talde batek Maiaga gailurra inguratua izateko arriskua areagotu zuten, Asturiasko 1. espedizio brigada tontor hori presaka eba-kuatzera behartuz; bestetik, Santanderreko 2. espedizio brigadak atzera egin zuen Arrietako Libaorantz. Horrela, Nafarroako 5. brigadaren zutabe batek Maiaga hartu zuen, iparraldetik. Maiatzaren 11 lasai antzean igaro zen, eta matxinatuek barealdia aprobetxatu zuten Sollube jomuga izango zuen ofentsiba indartsua prestatzeko. Eraso biharamunean jo zuten, eta porrot egin zuen. Bien bitartean, 5. brigadaren beste talde batek Arrietako Libaorantz egin zuen. Hasieran aurrera egitea lortu bazuen ere, baja gehiegirik gabe (34), halako batean ez aurrera ez atzera gelditu zen, euskal tropen defentsaren presiopean, eta arratsaldean, erasoan parte hartzen ari zen batailoietako batek (Tetuango 5. Taborra) Solluberantz abiatu behar izan zuen, errefortzu modura.</p> <p>Maiatzaren 14an, tropa frankistek beste erasoaldi bati ekin zioten. Italiar agindupeko Frece Nere brigadak kostaldetik hurbilen zegoen eremuan erasotu zuen, Jata eta Tollu mendien inguruan. Jatamendirantz abiatu baziren ere, defentsa errepublikanoak bidea itxi zien; Tollu tontorra hartu zuten. 8. euskal brigadaren indarren kontraerasoek frankisten oldarraldia geldiarazi zuten. Italiar tropen erasoaldiak emaitza handirik izan ez bazuen ere, Sánchez Gonzálezen Nafarroako 5. brigadak garaipen handi bat lortu zuen, Sollube mendebaldeko eta Arrietako Libaoko defentsa posizioak deseginez. Azkenean, matxinatuek Arrieta ere hartu zuten, inguratua izan ondoren. Defendatzaileek baja ugari izan zituzten (Santanderreko 1. espedizio brigadaren 138. batailoiak eta EAJren Kirikiño batailoiak), eta atzera egin zuten Libao mendebalde eta hego-mendebalderantz.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) VARGAS ALONSO (2007) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Bilbo, Sondika, Zamudio (borroka eremua hiru udalerrietara hedatu zen)
Gertakari historikoa	Artxanda-Santo Domingoko borrokak, Bilboko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa eta beste dibisio batzuetako errefortzu indarrak. Alde frankista: Nafarroako 5. eta 6. brigadak.
Data	1937ko ekainaren 14tik 18ra.
Deskribapena	<p>Ekainaren 13ko ilunabarrean, 1. euskal dibisioaren lerroa ahulduta zegoen, Burdin Hesia apurtu eta Larrabetzu erori ondoren. Gau horretan, Joseph Putz frantziar koronel internazionalistak bere gain hartu zuen dibisioaren buruzagitza, eta ordura arteko burua (Ricardo Gómez) Estatu Nagusiko buru izendatu zuten. Gau horretan bertan, euskal tropek eraso bortitza jo zuten Santa Marinaran gogortuta zeuden Nafarroako 5. brigadaren indarren aurka.</p> <p>Ekainaren 14an, borrokak hasi ziren Artxandan eta Santo Domingon, Nafarroako 5. brigadak mendebalderantz berrekin zionean. Iturritxualdetik Santo Domingorantz jo zuen, harik eta erretiradan zihoazen unitateen erresistentzia gogorrek geldiarazi egin zuen arte (besteak beste, euskal armadaren 6. eta 7. brigadak eta aurreko orduetan iritsitako errefortzu batailoiak). Aire bonbardaketa gogorrek izan ziren, eta 1. dibisioak Begoñan zuen Kuartel Nagusia ere jo zuten. Sondikatik abiatuta, zutabe frankista bat Dorreoira iristen ahalegindu zen, San Rokeko baselizatik hurbil; lubaki batzuk mendean hartu eta Santo Domingorantz jarraitu zuen, errepublikanoen kontraerasoek geldiarazi zuten arte. Bien bitartean, Artxanda-Santo Domingo inguruan, 2. euskal dibisioa Ganguren menderatzen saiatu zen, Galdakaotik abiatuta, arrakastarik gabe.</p> <p>Ekainaren 15a egun erabakigarria izan zen. Nafarroako 1. brigadak Bilbo hegoalde-tik inguratzeko maniobra hasi zuen, Santa Marinatik jaitsiz eta Ibaizabal eta Nerbioi ibaiak zeharkatuz, 2. euskal dibisioa arrapaladan erretiratzera behartuz. Beren alde-tik, Nafarroako 5. eta 6. brigadek Artxanda eta Santo Domingorantz jo zuten, mendean hartuz San Rokeko baseliza eta auzunea.</p> <p>Biharamunean (ekainaren 16), matxinatuek gainerako fronte guztietan aurrera egin zuten bitartean, errepublikanoen erresistentziak irmo iraun zuen Artxanda-Santo Domingo inguruan, matxinatuen artilleriak, gerra hegazkinek eta blindatuek defentsa lerroa gogor zigortu bazuten ere egun osoan zehar. Egun horretan bertan, egoeraren larritasuna ikusirik, Eusko Jaurlaritzak, goi agintari militarrekin bildu ondoren, Bilbo uztea erabaki zuen. Jaurlaritza Turtziozen kokatu eta behin-behineko Defentsa Batzar bat utzi zuen Bilbon, Gámir jeneralak eta Jaurlaritzako hiru kidek osatua.</p> <p>Ekainaren 17an, 5. dibisioaren bi brigada sartu ziren guduan. 8. brigada Errota eta Berriz inguruan kokatu zen, erreserbak Deustuko Unibertsitatean zituela; 1. brigada, Berriz eta Enekuri arteko lerroan, Elorriaga eta San Bernabe gailurrak ere barne hartuz. Posizio horietatik, arerioari aurre egiten saiatu ziren Bilboko gudua azken egunetan. Egun horretako aurrez aurrekoetan, Artxandako frontean, Nafarroako 5. brigadak Chacolí, Berriz, Artxandasarri eta Kasinoko posizioak hartu zituen, artilleria frankistaren eraso gupidagabearen laguntzarekin. Frankisten erasoaldiak triskantza eragin bazuen ere errepublikanoen artean (Gordexola eta Karl Liebknecht batailoietan), azken horien kontraerasoek Kasinoa une batez berreskuratzea lortu zuten. Azkenean, errepublikanoek posizio hori ere galdu zuten, arerioaren erasoari ezin eutsirik, hainbestekoa zen matxinatuen oldarraldiaren indarra. Ekainaren 18ko lehen orduetan, Euzko Indarra batailoiko kideak Kasinora iristen ahalegindu ziren, Elorriaga mendian barrena, huts egingo zuen posizioari eusteko ahaleginean.</p> <p>Ekainaren 17an, bereziki gogorrek izan ziren Santo Domingoko borrokak. Defendatzaileek lau eraso geldiarazi zituzten, eta beren ekarpena egin zioten Artxanda berreskuratzeko kontraeraso nagusiari, Kasinora heltzen saiatuz bidegurutzearen mendebaldeko posizioetatik. Gainerako fronteetan, euskal armadaren lerroa hondoratuz zihoan, etenik gabe. Nafarroako 6. brigadak Asua hartu eta Elorriaga mendirantz jo zuen; Frece Nere brigadak itsasadarraren eskuin ertza okupatu zuen, Asua ibairaino, eta Leioa, Desertu eta Erandio hartu zituen.</p>

Deskribapena	<p>Ekainaren 18an, erresistentzia aukera guztiak amaitu ziren, Pagasarri inguruan zeuden indarrek (5. euskal brigada eta Asturiasko 8.a, 2. euskal dibisioaren 3 batailoik eta mortero konpainia batek lagunduak) atzera egin zutenean arrapaladan Alonsotegirantz, gerra hegazkin frankisten eraso bortitz baten ondoren. Nafarroako 1.ak Pagasarri, Arnotegi eta San Justoko gailurrak okupatu zituen. Bilbo inguratzekeo operazioa amaitzear zegoen.</p> <p>Hiriburuaren hegoaldean hondamendia gauzatuko zen egunaren goiztirian (ekainaren 18a), matxinatuek aurrez aurre eraso zieten Santo Domingoko posizio errepublikanoei, Artxandatik abiatuta. Atzera bueltarik gabeko egoera batera iritsita, goizeko 08:00etan, Bilbotik erretiratzeko agindua jaso zuten defendatzaileek. Nafarroako 5. brigadak, azkenik, 264 kota, irratia eta Santo Domingoko bidegurutzea hartu zituen, euskal tropen ebakuazioaren ondoren. Gainera, bezperako ilunabarrean, Elorriagan eta San Bernaben zeuden tropa errepublikanoak ere erretiratu egin ziren, eta Nafarroako 4.ak okupatu zituen posizio horiek, Frece Nere brigadaren lehen lerroko taldeekin elkartuz. Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburu Jesus Maria Leizaolak, ekainaren 18an bertan, euskal armadak hartutako presoak frankisten esku uzteko agindua eman zuen. Itxasalde batailoiak eskoltatu zituen, matxinatuek Santo Domingon zuten lerroraino. Ekainaren 19an, Bilbo frankisten esku gelditu zen.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) STEER (1978) URGOITIA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007)</p>
Oharrak	<p>Steer (1978, 379.-380. or.) kazetariak, garai hartako bere lekukotasunarekin, mito moduko bat sortu zuen Artxanda eta Kasinoa hartzeko errepublikanoek egin zuten kontraerasoaren inguruan, gertakari horren protagonistak bihurturik Kirikiño, Itxasalde eta Itxarkundia batailoiak. Parte-hartze hori frogatutzat hartu izan da orain arte. 5. euskal dibisioaren buru izan zen Pablo Beldarrainek <i>Historia Crítica de la Guerra</i> liburu interesgarria idatzi zuen, euskal abertzaletasunak bildutako dokumentazioan eta lekukotasunetan oinarrituta. Haren ondorioak "behin betikotzat" hartu nahi izan gabe, egileak dio akatsa litzatekeela kontraerasoa hiru batailo horiei egozte, azkenean burutu ez zen kontraeraso baterako aukeratuak izan baziren ere. Beldarrainek dioenez (343. or.), kontraerasoa 8. brigadaren indarrek jo zuten, Errota-Kasinoa sektorean eta Unibertsitatean zeudenak.</p>
Observaciones	<p>Steer (1978, pp. 379-380) ha generado con su testimonio de época toda una leyenda acerca del último contraataque republicano sobre Artxanda y el Casino, al hacer protagonistas del mismo a los batallones Kirikiño, Itxasalde e Itxarkundia. Esta afirmación se ha seguido hasta el presente como un hecho probado. Pablo Beldarrain, quien fuera jefe de la 5ª División Vasca, escribió una relevante <i>Historia Crítica de la Guerra</i>, en base a la documentación y testimonios recopilados por el nacionalismo vasco. Sin querer dar sus conclusiones como "definitivas", según él se trataría de un error atribuir a esos tres batallones el contraataque, error que justifica porque dichas unidades estaban, efectivamente, seleccionadas para actuar en un contraataque organizado que no llegó a darse. La conclusión de Beldarrain (p. 343) era que el contraataque lo dieron fuerzas de la 8ª Brigada que estaban en el sector Molino de viento, Casino y Universidad.</p>

Udalerrria	Bakio
Gertakari historikoa	Mobilizazioa, okupazio frankista, Jatako gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa (9. eta 13. brigadak) eta Asturiasko 4. espedizio brigada; ondoren, indar horien atal batek Kostaldeko Sektoreaz arduratuko zen 5. dibisio berria osatu zuen, 8. eta 14. brigadetako eta Santanderreko 1. espedizio brigadako kideek lagunduta. Alde frankista: Frecce Nere brigada, XXIII di Marzo agrupazioak lagunduta.
Data	1937ko uztailetik maiatzera.
Deskribapena	Gerra piztean, Euzko Gudarostea antolatuz hasi zen, boluntarioekin eta mobilizatuekin, eta bereziki aipatzekoa da unitate militar abertzaleekin bat egin zutenen kopurua. Jatamendi konpainia horren adibide da, Ariztimuño batailoia 3.a, Bakio inguruko boluntarioek osatua, gerraren lehen egunetan Mungia batailoia atxikia egon zena. 1937ko maiatzean, Sollubeko guduan, 1. euskal dibisioak (9. eta 13. brigadak) eta Asturiasko 4. espedizio brigadak parte hartu zuten; ondoren, indar horien zati batek Kostaldeko Sektoreaz arduratuko zen 5. dibisio berria osatu zuen, 8. eta 14. brigadetako eta Santanderreko 1. espedizio brigadako kideek lagunduta. Apirilaren 29an Gernika erori ondoren, ordu gutxi batzuen buruan Bermeo ebakutzeko agindua iritsi zen. Frankistak oraindik kilometro batzuetara egon arren, argi zegoen Bermeo eta Bakio mehatxupean zeudela, "gerra eremuan", eta herritarrak ebakutzera behartzen zuen horrek, babes neurri modura. Hain zuzen ere, apirilaren 30ean, Bermeo, Bakio eta beste udalerrri batzuk gerra eremuan kokatzen zituen apirilaren 28ko agindua argitaratu zen. Apirilaren 30ean, beraz, Bermeoko ebakutzioa zela-eta, Matxitxakoko kostaldeko bateriako kideek posizioa utzi eta Bakiora erretiratu ziren. Maiatzaren 1ean, Sollubeko guduko borrokak hasi ziren, goizeko 09:00etan Frecce Nere brigadak eraso jotzeko Molaren agindua jaso zuenean. Aurrera jotzeko buruzagitza frankistak emandako aginduak ez zuen zalantzarako tarterik uzten, eta urrutiko jomugak ezartzen zituen: hala nola Basigo-Bakio eta Jata eta Tollu mendiak. Hainbat egunetz borrokan aritu ondoren, maiatzaren 8an, matxinatuek Sollubeko mendilerroa menderatu zuten, Burgoatik Sollubeko tontorreraino. Euskal armadaren 9. eta 13. brigadek atzera egin zuten mendian behera, Bakiorantz eta Burgoa eta Jata arteko haranerantz. Hilaren 9ko goizeko lehen orduetan, Frecce Nere brigada Burgoa eta Matxitxakotik abiatu eta Bakion sartu zen, goizeko 11:30ean. Ordurako, 9. brigadaren tropek herria utzia zuten, Jata alderantz, eta Bakion, behin herritarrak ebakutzuta aipatutako aginduaren bidez, matxinatuen alde zeuden aurreko urteko udatiarrak soilik gelditzen ziren, bertan gelditzea erabaki zutenak, ezker mugimenduen eraginetik urrun egongo zirelakoan. Maiatzaren 10ean, Bakioko lurretan oraindik, Jatamendi ekialdeko eremua kontrolatzeko borrokak izan ziren; Frecce Nere brigadak Bakio gainaldea okupatu zuen, 372 kota barne, herriaren mendebaldean. Hilaren 14an, ofentsiba indartsu baten ondoren, italiar agindupean ziharduten tropak 400 kota lerroraino iritsi ziren Jatan, Bakioko udalerrria Jatabe-Maruritik eta Mungiatik bereizten duen lurralde mugan ia. Maiatzaren 19an, Jatamendi inguru osoa nazionalen esku gelditu zen.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) STEER (1978) URGOITIA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007)
Oharrak	

Udalerria	Zeanuri
Gertakari historikoa	Barazarko borrokak, Otxandioko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Arabako fronteko indarrak (Ibarrola), batailoi eta unitate hauek eratuak: Largo Caballero, Dragones, Perezagua, Indalecio Prieto, diziplina batailoia, CNTren erreserba (blindatuak), Zergatik-Ez, Asturias 234 eta ibilgailu blindatuak. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 4. brigadak.
Data	1937ko martxoaren 31tik apirilaren 15era.
Deskribapena	Martxoaren 31n Bizkaiaren aurkako eraso hasi zenean, frankistek lehen egunetik ekin zioten Otxandio eta erretagoardiaren arteko komunikazio lerroei erasotzeari (Barazar, Zumeltza eta Urkiolako mendateak). Barazar eta Ubidetik, logistika baliabideak iristen zitzaizkien euskal tropei, eta kontraeraso eraginkorrak egiteko aukera ematen zien horrek (hala nola Zergatik-Ez batailoiak apirilaren 2an Gorbeia aldean eginikoa). Otxandio erori ondoren, apirilaren 4an, matxinatuek inguruko mendateetan ipini zituzten jomugak. Apirilaren 5ean, Nafarroako 1. brigadak Urita gailurra hartu zuen, Durangorako errepidea moztuz; 4. brigadak Motxotegi okupatu zuen, Ubidea ekialdean, gainez gain Barazar eta Zumeltzantz jotzeko aukera ematen ziona, eta Bilbo-Gasteiz eta Otxandio-Barazar errepideen bidegurutzetik hurbil gelditu zen. Defentsa lerroan, Perezagua batailoia, Asturiastik itzuli berria, eta Dragones batailoia aritu ziren, blindatuen laguntzaz. Apirilaren 6an, Nafarroako 1. brigadak Zumeltza eta Saibigain menderatu zituen, 4.ak Barazarreko eraso prestatzen zuen bitartean. Biharamunean, brigada horrek, mendate hori ez ezik, Arralde, Abarokorta, Abaro eta Altun mendiak eta Ubidea herria okupatu zituen. Euskal armadak galera handiak izan zituen, Perezagua, Dragones eta Largo Caballero batailoiek batez ere, eta bizirik irten ziren miliziano asko erretiradan Arteraino iritsi ziren. Frankistek ez zuten arerioaren egoera zaila erabiltzen jakin, eta errepublikanoek eutsi egin zioten herri horretan.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) STEER (1978) URGOITIA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Bedia
Gertakari historikoa	Aire bonbardaketa, 2. euskal dibisioaren tropen base militarra eta Bediako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1937ko ekainean, 2. euskal dibisioa (Vidal koronela) eta 4. brigada (Gorricho) hedatu ziren udalerrian, eta Bediako Gainan ezarri zuten Aginte Postua. Asturiasko 1. espedizio brigadak herri honetan zuen Aginte Postua. 3. dibisioak (Ibarrola) bat egin zuen Bedian 2. arekin, 10. euskal brigadaren etorrerarekin (Muñatones, México eta Durruti batailoiak, Itxedu eta Bedia artean kokatuak). Alde frankista: Nafarroako 2. brigada.
Data	1937ko urtarriletik ekainera.
Deskribapena	Bedia komunikazio gune garrantzitsua izan zen Gerra Zibilean, bere kokapen geografikoagatik. Bizkaiko ekialderanzko eta Gipuzkoako frontieranzko ibilbideetan puntu esanguratsua izateaz gainera, Arratiako haranean barrena Otxandiora iristen errepidea hasten zen herritik hurbil. Gainera, industria jarduera garrantzitsua zuen. Horrek guztiak frankisten jomugan jarri zuen herria. Hala, 1937ko urtarrilaren 3an, frankisten aldeko gerra hegazkinek Bedia, Erandio eta Sestaoko lantegiak bonbardatu zituzten. Maiatzaren amaiera aldera, gerra herriko ateetaraino iritsi zen, Zornotza erori eta Lemoako Haitzeko gudua hasi ondoren. Bedia, gainera, lotura gune zen euskal armadaren 2. eta 3. dibisioentzat. 1937ko ekainaren 9an, 2. euskal dibisioa (Vidal koronela) hedatu zen, 4. brigadarekin (Gorricho), Aginte Postua Bediako Gainan zuela; zehazki, Malatesta (CNTren 2.a) eta Simon Bolibar batailoiek osatzen zuten. Galdakaoko udalerrirantz hedatu eta Bilboko Burdin Hesiaren zati bat okupatu zuten, Oilarren Gurutzea-Erletxeta sektorean. Bestetik, Asturiasko 1. espedizio brigadak (Vidalen mende) Bedian zuen Aginte Postua, eta Lemoa eta Itxedu arteko lerroa hartzen zuen (Asturiasko brigadaren 8.a, 25.a eta 43.a). 3. dibisioak (Ibarrola) bat egin zuen Bedian 2. arekin, 10. euskal brigadaren etorrerarekin (Muñatones, México eta Durruti batailoiak, Itxedu eta Bekoetxe artean eta Arginakoatxa eta Bedia artean kokatuak). Lerro hau erortzen hasiko zen ekainaren 13tik aurrera, Burdin Hesia apurtu ondoren, Nafarroako 2. brigadaren ofentsiban.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerria	Bermeo
Gertakari historikoa	Mobilizazioa eta Bermeoko borrokak. Sollubeko gudua.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: Gerra piztu zenean, herritar askok batailoietan eman zuten izena, ideologia guztietakoak, baita itsas armadan ere (Euzkadiko Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldea). Azken horri dagokionez, bere 919 kideen % 9 bermeotarrak ziren (81 lagun), eta unerren batean ontzidian aritu ziren 59 ontzietatik gutxienez 31k marinela bermeotarrak izan zituzten, baita Armada errepublikanoaren bi gerraontzi nagusiek ere. Sollubeko guduan, 1. euskal dibisioa (Gómez) Bermeon borrokatu zen, 1., 9. eta 13. brigadekin.</p> <p>Alde frankista: Frece Nere brigada, XXIII di Marzo agrupazioa eta Nafarroako 5. brigada.</p>
Data	1936ko uztailetik 1937ko maiatzera.
Deskribapena	<p>Gerra zibila piztu zenean, Bermeo inguruko ehunka lagunek izena eman zuten ideologia guztietako unitateetan, eta hainbat batailo sortu ziren horrela: Itxasalde, San Andres, Ingeniarren 2.a (Sarasketa), Capitán Casero eta Meabe eta Perezagua zutabeetako beste hainbat. Gainera, euskal itsas armadak (Euzkadiko Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldea) zituen 919 kideen % 9 bermeotarrak ziren, eta unerren batean ontzidian aritu ziren 59 ontzietatik 31tan herri horretako marinela itsasoratu ziren.</p> <p>Matxitxakoko itsas guduan, 1937ko martxoaren 5ean, Bou Nabarra ontziak aurre egin zion Canarias gerraontzi frankistari, lurmutur horren parean, eta hondoratu izan zen. Bou Gipuzkoa ontziak matxura bat izan zuen borroka hasi aurretik. Bi ontzi horietan hil ziren 34 marinelen artean, 4 bermeotarrak ziren, gerrak Bermeon eragin zituen dozenaka hildako edo desagerturen zerrendari erantsi beharrekoak.</p> <p>Hirugarren ontzi batek, Bou Bizkaiak, itzuri egin zion Canarias gerraontziaren erasoari, eta gerra hornigaiak zekartzan Yorkbrook merkataritza ontzia Bermeoko kaira eramatea lortu zuen. Martxoaren 11tik 12rako gauean, Bou Bizkaiak merkataritza ontzia eskoltatu zuen Bilboko portura. Martxoaren 20an, Erresuma Batuko Blanche eta Campbell destruktoreek 5-12 urteko 450 ume eta 28 heldu ebakuatu zituzten Bermeotik atzerrirantz.</p> <p>Apirilaren 29an, frankistek Gernika okupatu zuten, eta egun berean, italiar agindupeko Frece Nere brigada Bermeon sartu zen. Maiatzaren 1ean, brigada bera Sollube hartzen saiatu bazen ere, ingurura iritsi berriak ziren euskal tropek atzera eginarazi zuten, eta italiar-espainiarrak Bermeon inguratuta gelditu ziren. Tropa errepublikanoen presioak bere horretan iraun zuen, harik eta, maiatzaren 3an, frankisten kontraerasoak euskal tropek herriari ezarria zioten setioa apurtu zuen arte. Bi eguneko barealdiaren ondoren, maiatzaren 6an, frankistek eraso jo zuten, Sollube eta inguruko gainak ezarririk jomugan.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007)</p>
Oharrak	

Udalerrria	Berriatua
Gertakari historikoa	Kalamendi eta Asterrikako borrokak.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: CNTren eta JSUren miliziak (gero elkarrekin Castilla batailoia osatuko zuten, eta beste kide batzuk CNTren beste batailoi batzuetan sartuko ziren), UGTren 1., 2. eta 3. batailoiak, EAEren 1.a (Olabarri), Boga-Boga konpainia (gero Itxasalde batailoian sartuko zena), Gordexola (apiril hasieran Otxandiora jo zuena), Mungia, eta Infanteria Akonpainamenduko Makinen (MAI) Irrintzi batailoia 3. eta 4. konpainiak.</p> <p>Alde frankista: 1936ko irailean, kostaldeko sektorea Iruetagoyena zutabearen ardurapean zegoen. Gero, Nafarroako 2. brigadaren kontrolpera igaroko zen; 1937ko apirilean, Frecce Nere brigadarenera.</p>
Data	1936ko irailetik 1937ko apirilera.
Deskribapena	<p>1936ko irailaren amaiera aldera, gobernu errepublikanoaren aldeko indarrek kostaldeko sektorea sendotu zuten, Ondarroa inguruan, Gipuzkoatik erretiradan zetozen unitateen eta Bizkaiko Defentsa Batzarrak sortu zituen batailoi berrien bitartez. Ondarroa frankisten esku gelditu zenean, lerro berria Asterrika auzo txikian eta Kalamendin ezarri zen, matxinatuei Berriaturako bidea ixteko eginkizunarekin. Zeregin horretan, CNTren eta JSUren miliziak ez ezik (gero Castilla batailoia eta CNTren beste batailoi batzuk eratuko zituztenak), Eusko Abertzale Ekintzako indarrak eta Boga-Boga konpainia ere (gero Itxasalde batailoian sartuko zena) aritu ziren.</p> <p>Urriaren 6an, Ondarroa erori zen egunean, euskal tropek (UGTren 2. batailoia-aren indarrek batez ere) Berriatua jomuga zuen frankisten eraso geldiarazi zuten. Frontea Asterrika inguruan egonkortu zen, matxinatuei Berriatura nahiz Lekeitiora iristea eragozten zien Kalamendi bihurturik posizio nagusi. Urriaren 21ean, errepublikanoek eraso handi bat jo zuten kostaldeko sektorean, eta UGTren 1.ak hartu zuen bere gain ekinaldiaren ardura nagusia. Asterrikatik, Christiaens belgikarra buru zuen UGTren 3.aren indarrek lagundu zioten; hegoaldean, Akarregin, EAEren Euzko Indarra batailoia aritu zen. Sektore honetan gelditu ziren indarrek Gipuzkoako frontea izenekoa eratuko zuten gero. Fronte hori 1937ko apirilaren amaieran desegin zen, Elgeta, Elorrio eta Eibar erori ondoren. 1937ko apirilaren 26an, Nafarroako 4. brigada Bolibarren sartu zen, eta biharamunean, Etxebarria, Markina eta Urberuaga okupatu zituen; bien bitartean, Frecce Nere brigadak Berriatua okupatu zuen.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) DELGADO CENDAGORTAGALARZA (1998) JUARISTI LARRINAGA (2008) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) PIAZZONI (2011) URGOITIA (2001-2003)</p>
Oharrak	Martínez Bande historiagile frankistaren arabera (<i>Nueve meses de guerra en el Norte</i>), Berriatua 1936ko urriaren 6an okupatu zen. Aldiz, haren beste lan batek (<i>Vizcaya</i>) data zuzena aipatzen du: 1937ko apirilaren 27.

Udalerrria	Berriz
Gertakari historikoa	Berrizko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako frontea, diziplina batailoia, Fulgencio Mateos batailoia (UGTren 1.a), Metrailadoreen Saseta batailoia, Irrintzi batailoia 2. eta 5. konpainien indarrak. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 4. brigadak.
Data	1937ko apirilaren 25etik 27ra.
Deskribapena	1937ko apirilaren 17an, UGTren 1. batailoia Berrizen zegoen, herriko eliz parrokian eta inguruko etxeetan aterpetuta. Elorrioko Komandantziaren agindupean ziharduen. Handik egun gutxira, frankistek Anboto ingurutik abiatuta Intxorta inguratzeko hasi zuten ekinaldia zela-eta, batailoia fronte lerrora itzuli zen. Elorrio menderatuta, matxinatuek aurrera jarraitu zuten, eta apirilaren 25ean, posizio gehiago hartu zituzten: Berriz (Olakuetatik), Bidebarrietako bidegurutzea, Eguarbitza eta Mendisololo. Erasoaldi horrek bonbardaketa gogorra pairatzen ari zen Eibar berehala ebakua-tzera behartu zuen. Frankisten etorrerak ustekabeen harrapatu zituen Saseta eta Irrintzi batailoietako kideak, eta horietako batzuk preso hartu zituzten Olakuetan (Berriz), Eibar inguruko frontearen egoera aztertzen ari zirenean: Ander Plazaola komandantea, Iñaki Lasarte intendentea, beste bi ofizial eta hiru gudari. Irrintzi batailoia blindatuen kontrako Maklen kanoi bat galdu zuen. Diziplina batailoia indarrek erasoari eutsi nahi izan zioten Durangoko mugalerroan, alferrik izan bazen ere.
Iturriak	BELDARRAIN (1972) MARTÍNEZ BANDE (1971) TALÓN (1988) URGOITIA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Bilbo
Gertakari historikoa	Defentsa, Ebakuazioa eta Bilboko ituna.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Eusko Jaurlaritza, Defentsa Saila, Euzko Gudarostea (Errepublikaren Iparraldeko Armadaren 1. gorputza). Alde frankista: Nafarroako brigadak.
Data	1936ko uztailetik 1937ko ekainera.
Deskribapena	<p>Gerra zibila piztu zenean, porrot egin zuten Garellanoko 6. mendiko infanteriako batailoiko eta ordena indarretako hainbat kideren konspirazio saioek, armadako eta beste indar batzuetako buruen erantzun azkarrari (Joaquín Vidal Munarriz teniente koronelarena eta Aranbarri Bilboko Udaltzaingoaren buruarena, besteak beste) eta kuartelak zaintzen zituen herri mobilizazioari esker. Bizkaiko hiriburua, une horretatik aurrera, matxinatuen aurkako erresistentzia antolatzeko gune bihurtu zen, eta hainbat zutabe irtengo ziren hiritik, Arabako mugalerrorantz nahiz Gipuzkoako frontierantz. Gobernu Zibila (Echevarria Novoa gobernadorea) eta Bizkaiko Defentsa Batzarra erabakigarriak izan ziren Errepublikaren lege ordena mantentzeko. Eusko Jaurlaritzak, 1936ko urriaren 7an gobernu erantzukizuna bere gain hartu zuenean, eratzen ari zen antolakuntza militar baten ardura hartu zuen, oinordetzan jasoa aurreko agintariengandik.</p> <p>Bilbo Euzko Gudarostearen base militar bihurtu zen (Errepublikaren Iparraldeko Armadaren 1. gorputza, gobernu zentralaren izendapenaren arabera). Garellanoko kuartelak dozenaka batailoiren eta beste unitate militar batzuen egoitza bihurtu ziren, baita agintariak bahitutako eta prestatutako beste hainbat eskola, ikastetxe (Errekalde zumardiko Eskolapioak), komentu eta eraikin ere. Bestetik, Basurtukoaz gainera, hainbat eraikin ospitale bihurtu ziren; 8, zehazki, Deustukoa alde batera utzirik. Bilbo, gainera, Eusko Jaurlaritzaren egoitza izan zen, matxinada armatuaren aurkako erresistentziaren sinboloa. Horrek jomuga bihurtu zuen hiria frankistentzat, eta bonbardaketa ugari pairatu zituen, airetik nahiz lurretik (frontea hiriaren inguruetara iritsi zenean): gerra hegazkinen bonbardaketak, 1936ko irailaren 25 eta 26an, urtarrilaren 4an, apirilaren 4, 7, 18 eta 22an, maiatzaren 1 eta 24an; aire bonbardaketak eta artilleriakoak, ekainaren 5, 12, 13, 14 eta 15an. 1936ko iraileko eta 1937ko urtarrilaren 4ko bonbardaketek ondorio lazgarriak izan zituzten: jende multzo haerretuek presondegiak eta espetxe ontziak asaltatu eta ehunka preso hil zituzten. Bilbo hartzeko azken ofentsiba ekainaren 11n hasi zen, eta hilaren 12 eta 13 artean, indar frankistek Burdin Hesia apurtu zuten, Urrusti-Gaztelumendi-Larrabetzu sektore garrantzitsuan. Ekainaren 16an, elikagai, edateko ur eta argindar falta zela-eta, Eusko Jaurlaritzak Bilbo ebakuatzea eta Turtziozen kokatzea erabaki zuen, hiriburuan Defentsa Batzar bat utzita, Gámir jeneralak eta Leizaola, Aznar eta Astigarribia sailburuek osatua. Biharamunean, Eusko Jaurlaritza Bilbotik irten zen, eta Jesus Maria Leizaola jeltzalea izango zen une horretatik aurrera erabaki garrantzitsuenak hartuko zituena. Hala, ekainaren 18ko gauean, eskuin ideologiako ehunka preso askatu eta matxinatuen esku uzteko agindua eman zuen (gudariak eskoltatu zituzten frankistek Santo Domingon zuten lerroraino). Gainera, Leizaolak Bizkaiko hiriburuko ordena publikoa ere antolatu zuen, muturreko taldeen gehiegikeriei aurre egiteko. Bien bitartean, Gámir jeneralak uko egin zion borrokak hiriko kaleetan zabaltzeari, eta erretiratzeko agindu zien Artxanda-Santo Domingoko azken defendatzaileei. Ekainaren 19ko goizeko lehen orduetan, Leizaolak eta Defentsa Batzarrak Bilbo utzi zuten. Hirian oraindik tropa errepublikano dezente zegoen, eta indar frankistek erretirada moztu zieten, Arraizen, hiria ebakuatzeko ibilbideen abiapuntuan, hain zuzen. Hiriko ordena publikoa zaintzeko azken ordura arte gelditu ziren gudarien unitateetako buruek behin-behineko batzar bat sortu zuten, hiria entregatzeko negoziazio prozesuari ekiteko. Hiriaren entrega negoziatu zutenen solaskide nagusia Aguilar komandantea izan zen, gerra piztu zenetik hainbat industria gizonen laguntzaz Bilbon ezkatututa egon zen frankisten aldeko militarra.</p>

<p>Deskribapena</p>	<p>Zirriborro bat idatzi zuen, batzuek “Bilboko ituna” deitu zutena, baina Bilboko alkate frankista berriak, J.M. Areilzak, ukatu egingo zuen hori 1937ko uztaileko diskurtso batean, Bizkaiko hiriburua armaz konkistatua izan zela adieraziz. Itunak puntu nagusizat zuen beren burua entregatuko zutenen bizia errespetatzea, eta lehen urrats gisa, Bilbon blokeatuta zeuden indarren borondatearen erakusgarri, hiriburuan zeuden metrailadoreak entregatu ziren. Horrela, ekainaren 19an, Bilbo matxinatuen esku gelditu zen, batailoi eta unitate ugari amore eman edo preso hartuak izan ondoren: Itxasalde, Otxandio, Saseta, Malato eta Muñatones batailoiak, Ertzaintzako ordena indarrak, Polizia Motoriztua, Gerra Kimikoko eta beste zerbitzu batzuetako buruzagitzako kideak, eta erretagoardiako beste unitate batzuk. Rebelión de la Sal, Irintzi eta Itxarkundia batailoietakoa kideak ere erori ziren, baita miliziano talde sakabanatu batzuk eta JSUren Amuategi batailoiaren erdia ere. Artxanda-Santo Domingoko borroka epikoaren ondoren, Bilbo galtzeak euskal erresistentziaren amaiera eragin zuen. Hiriburua galduta, euskal tropek kemena eta adorea galdu zituzten, eta Enkarterrirako bidean erretiradan zihozten unitateetako kideen entrega masiboak izan ziren. Santoñako errendizioa Bilbon ekainaren 19an hasitakoaren epilogoia izan zen.</p>
<p>Iturriak</p>	<p>AZCONA (2007) MARTÍNEZ BANDE (1971) CHIAPUSO eta JIMÉMEZ DE ABERASTURI (2009) OLAZABAL ESTECHA (2009) PENICHE GONZÁLEZ (2010) ONAINDIA URGOITIA BADIOLA (2001 – 2003) VERGARA (2006) Zenbaiten Artean: <i>Bidebarrieta. Revista de Humanidades y Ciencias Sociales de Bilbao. Actas del XI Symposium: 70 años de Guerra Civil: guerra, posguerra y memoria</i>, Bilbo, Bidebarrieta Kulturgunea. Bilboko Udalaren Kultura eta Turismo arloa, 2007. Zenbaiten Artean: <i>“La Guerra Civil en el País Vasco: un balance histórico”</i>, <i>Historia Contemporánea</i>, 35. zk., Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, 2007. Zenbaiten Artean: <i>Memorias del alcalde Ernesto Ercoreca</i>, Bilbo, Bilboko Udala, 2008.</p>
<p>Oharrak</p>	

Udalerrria	Morga, Muxika, Larrabetzu, Zornotza (Bizkargi-Arburu eremua lau udalerrri hauetan banatzen da).
Gertakari historikoa	Bizkargiko gudua, Bizkaiko kanpaina.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa, eta 2. dibisioko kideak, hego-ekialdeko eremuan. Alde frankista: Nafarroako 1. brigada. Brigada horren posizioen ipar eta hegoaldean, 5. brigada eta 2. brigada kokatu ziren, hurrenez hurren, eskuin hegala zaintzeko helburuaz.
Data	1937ko maiatzetik ekainera. Borroka nagusiak maiatzaren 9 eta 15 artean izan ziren, eta ondorengo aurrez aurreko txikiek ekainaren 11ra arte iraun zuten; hain zuzen, Burdin Hesiaren aurkako operazioak hasi ziren egunera arte. Egun horretatik aurrera, Bizkargiko azken posizioak eroriko ziren.
Deskribapena	<p>Maiatzaren 9an, Nafarroako 1. brigadak, Gernika hegoaldeko Eperlanda eta Askari tontorren artean kokatua, eraso jo zuen Bizkargiko posizioen aurka; Gernika-Zornotza errepidea atzean utzi eta Muxikako Ugarte eta Besangiz auzoak okupatu zituen, 238 hil-zauritu izanik erasoaldian. Euskal-asturiar tropek atzera egin zuten. Maiatzaren 10ean, iparraldean, 1. brigada Sollubetik Errigoitira iritsi berria zen 5. arekin elkartu zen; eraso eremuan, fronte lerroa ezarri zen, 266 kotaren (Ugarte-Larrabetzu errepidearen iparraldean), 312 kotaren (Ugarte hego-ekialdean eta aurreko errepidearen hegoaldean) eta Zarragoikoa baserriaren (Bizkargiren ipar isurialdean, gailur horren ekialdean) artean.</p> <p>Hilaren 11ko egunsentian, Nafarroako 1. brigadak eraso jo zuen ustekabean, eta Bizkargi tontorra eta haren inguruko eremu zabal bat okupatu zituen. Erretiradan abiatu ziren euskal armadaren indarrek aurre egin zioten Nafarroako 2. brigadari, Zugastietako eremuko lerroan. Bizkargi, Arburu eta 466 kotaren (Gorozika iparraldean) arteko mendilerro osoa matxinatuen esku gelditu zen. Euskal tropek egun horretan bertan erantzun zuten, eta bost aldiz jo zuten kontraerasoa, artilleriaren laguntzaz, galdutakoa berreskuratzea lortu ez bazuten ere. Dena dela, mendilerroaren hegoaldean gotortu ziren, orografia bereziagatik babesa eskaintzen zuen eremu batean, eta distantzia laburretik erasotzeko aukera ematen zien horrek, arerioak okupatutako lerroaren kontra.</p> <p>Maiatzaren 12 eta 15 artean, Nafarroako 1. brigadaren posizioen aurkako kontraerasoek jarraitu zuten. Maiatzaren 12an, sei kontraeraso izan ziren; 13an eta 14an, hainbat kontraeraso; maiatzaren 15ean, azkenik, errepublikanoek azken ahalegin nagusia egin zuten, goialdeko lerroa berreskuratzeke, egun osoan zehar (05:00etatik 23:00etara) eginiko eraso ugariaren bidez. Une horretatik aurrera, borroka txikiak izan baziren ere (ekainaren 11n frankistek ofentsibari berrekingo zioten arte), Bizkargiko egoera egonkortu egin zen. Egun horretan (ekainaren 11) Bilbo hartzeko azken ofentsiba hasi zen, Urkuluko punta izanik lehen helburua, Bizkargi ipar-mendebaldean. Urkulu zaintzen zuten asturiar tropek hil-zauritu ugari izan zituzten, eta atzera egin behar izan zuten. Gauean, euskal armadaren bi erreserba brigadak (6.a eta 12.a) presakako kontraerasoa jo zuten, Urkulu eta Bizkargiko gailurra berreskuratzen saiatzeko, Burdin Hesiaren aurkako frankisten behin betiko eraso has-tear zegoenean. Biharamunean, kontraerasoa indargabetuta, matxinatuek Burdin Hesiaren aurka ekin zioten. Hurrengo egunetan, arerioa Bizkargi hegoaldetik kanporatua izan ondoren, bidea zabalik zuten tropa frankistek Bilborantz abiatzeko.</p>
Iturriak	AZNAR (1961) BELDARRAIN (1992) HERRERA (1974) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerria	Sopuerta, Artzetales
Gertakari historikoa	Castro-Alengo borrokak, Enkarterriko erretirada.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Asturiasko 10. eta 16. brigaden indarrak, 5. dibisiokoak (dibisio berri eta behin-behinekoa, 5. euskal brigada desagertu ondoren) eta 6. dibisiokoak, asturiar eta santandertar errefortzuek eta berreskuratutako euskal batailoiekin batzuek (Meaberen 2.a eta Perezagua) osatuak. Alde frankista: Nafarroako 2. brigada.
Data	1937ko ekainaren 30etik uztailaren 12ra.
Deskribapena	<p>1937ko ekainaren amaieran, Bilbo erori eta astebetara, mendebalderantz zihozten frankistek erresistentzia gero eta handiagoa aurkitu zuten Enkarterrin, topo egitean asturiar eta santandertar espedizio unitate berriekin eta berrantolatuta eta berrornituta lehen lerrora itzuli ziren euskal batailoiekin.</p> <p>Ekainaren 30ean, Nafarroako 2. brigadaren frontean, erresistentzia errepublikanoak Las Ribas mendian erasotu zuen, Sopuertako meatzaritza tren igarotzen zen lekuan. Borrokan, erreketean San Ignacio tertzioko komandantea hil zen, Juan Suelves Goyeneche, Tamariteko markesa. Aipatutako posizioaz gainera, errepublikanoek Urreiztieta ingurua ere hartu zuten, eta Santiagoko baseliza, Mercadillo hegoaldeko eta hego-mendebaldeko gainak, San Kosme, Keli, Pico Mora inguruak eta San Esteban. Uztailaren 1ean, matxinatuek Montellanoko gainak, Obekuri eta El Llano okupatu zituzten. Frankisten iturriek 2.400 preso atzeman zituztela adierazi bazuten ere, horien artean errepublikanoek aske utzitako 1.500 preso zeudela ezkutatu zuten. Bilbon eta Enkarterriko beste leku batzuetan askatutako ehunka presoekin egin bezalaxe, matxinatuen lerroetara igarotzen utzi zitzaizkien, errepresaliak saihesteko.</p> <p>Uztailaren 2an, errepublikanoen oldarraldiak areagotu egin ziren, kostalde eremuan eta Balmasedan, eta Euzko Gudarostea berregituratzeko Agindu Orokor bat eman zen. Uztailaren 4 eta 5ean, frontearen erdigunean, errepublikanoek kontraerasoa jo zuten, Mello gailurra jomuga izanik, lur eremu zati bat irabaziz. Nolanahi ere, Nafarroako 2. brigadak Castro-Alen hartu nahian jarraitu zuen, eta gailur hori uztailaren 5ean bertan erori zen, baja ugari izan zituen 222. batailoia eta inguratua izatetik ozta-ozta libratu zen 256. batailoia erretiratu ondoren. Hala eta guztiz ere, garrantzitsuena ehunka kilometrora gertatzen ari zen, Madrildik hurbil. Izan ere, errepublikanoek Bruneteko ofentsiba hasi zuten, eta matxinatuen erasoaldia geldiarazi zuen horrek Bizkaia eta Santander arteko mugan. Abiazioaren unitate gehienek, artilleriaren atal batek eta Nafarroako 4. eta 5. brigadek borroka eremu berrira joateko agindua jaso zuten. Dena dela, Castro-Alen inguruko borrokek aurrera jarraitu zuten. Uztailaren 7an, errepublikanoek erasoari ekin zioten, artilleriaren laguntzarekin, eta hilaren 9rako borrokak amaitutzat eman baziren ere, uztailaren 12an asturiar eta euskal tropek Castro-Alen hartzeko beste saio bat egin nahi izan zuten. Ahalegina bertan behera gelditu zen, hasi bezain pronto, batailoietako batek eraso bat ez zuelako.</p> <p>Uztailaren amaieran, euskal tropek Koltza hartzeko abian jarri zuten ofentsibak (uztailaren 27tik 29ra) Castro-Alen gailurra ere zuen jomugan, Balmasedako porrotak ahalegina bertan behera uztera behartu bazuen ere. Santanderreko frontea hondoratu zenean, abuztuaren amaieran, Enkarterriko mendebaldeko lerroa abandonatu zen.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Gómez Aparicio kronista frankistak, Castro-Alengo borroken gogortasuna aipatzen duenean, Sollube, Jata eta Bizkargirekin parekatzen du, eta artilleria eta abiazio baliabide handiak erabili zirela eranstean du, gailurra mendean hartu zuten hiru zutabe erasotzaileez gainera.

Udalerrria	Zierbena, Muskiz, Galdames, Gueñes, Gordexola, Audio, Bilbo, Arrankudiaga, Ugao-Miraballes, Zeberio, Arrigorriaga, Galdakao, Larrabetzu, Lezama, Gamiz-Fika, Zamudio, Mungia, Derio, Loiu, Laukiz, Erandio, Berango, Urduliz, Sopela, Barrika (hesiak udalerrri hauek hartzen zituen mendebalde-ekialde norabidean).
Gertakari historikoa	Bilboren Defentsa Hesia (Burdin Hesia), Bilboko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Fortifikazioko brigada zibilak, Euzko Gudarostearen 1., 2., 3., 4. eta 5. dibisioak. Alde frankista: Nafarroako 1., 2., 3., 4., 5. eta 6. brigadak, Frece Nere brigada.
Data	1936ko urritik 1937ko ekainera.
Deskribapena	<p>Eusko Jaurlaritza sortu zenean, 1936ko urrian, euskal tropek geldiarazi berri zuten matxinatuek Bizkaiaren aurka Gipuzkoatik jo zuten erasoaldia, bi lurraldeen arteko mugan, eta borrokaldian inprobisatutako kanpaina fortifikazioen lerro bat eratu zen. Eusko Jaurlaritza sortu berriak Fortifikazioen Bulego bat sortu zuen, defentsa lerroen eraikuntza zuzendu eta gainbegiratzeko; bereziki, Bilboren Defentsa Hesia izenekoa (Burdin Hesia). Alejandro Goicoechea ingeniariaren kapitaina jarri zuten bulego horren buruzagitzan. Une horretatik aurrera, baliabide materialak eta giza baliabideak bideratu ziren, aipatutako lerroa sendotzeko eta, batez ere, Bilbotik hurbilago egongo zen beste defentsa lerro bat eraikitzeko, hiriburua eta portua menderaez inbihurtuko zituena. Nolanahi ere, hasieran bizi-bizi aritu baziren ere defentsa lerroa sendotu eta gotortzeko lanetan, Legutioko gudua amaitzean, abenduaren bukaeran, erretagoardiako gotortze lanak bertan behera uzteko erabakia hartu zen, horretan jarraitzeak are gehiago hondoratuko zuelakoan jendearen adorea. Erabaki horrek defentsa lerroa perfektionatzea eragotzi zuen. 1937. urtearen hasieran, bertan behera gelditu zen eraikitako lerroa ezkutatzea eginkizun zuen belar landaketa. Horretarako prest zegoen belar hazia ez zitzaion Ingeniariaren sekzioari entregatu, eta ganadu pentsutarako erabili zen.</p> <p>Burdin Hesiak planoetan 70 kilometro gutxi gorabehera bazituen ere (Gámir), 100 kilometro ingurura hurbiltzen zen egiazki, eta 5 sektoretan zatituta zegoen. 1. sektorea Zierbenan kokatuta zegoen, eta Luzuero Puntatik Soduperaino hedatzen zen; 2. sektorea, Ganekogortakoa, Sodupetik Ugao-Miraballeseraino iristen zen, Kadagua eta Nerbioi artean; 3. sektorea Ugao-Miraballes eta Galdakao artean hedatzen zen; 4. sektorea Galdakaoetik Gaztelumendiraino iristen zen; azkenik, 5. sektorea Gaztelumendin hasi eta itsasoan amaitzen zen, Plentzia mendebaldean. Eraikuntza sendotzeko, 1.400 metrailadore habia eta alanbre hesia erabili nahi ziren (obren planoen arabera). Hala eta guztiz ere, otsailaren 27an, obren arduraduna, Alejandro Goicoechea, matxinatuen lerroetara igaro zen, soilik hesiaren trazatuaren % 40a amaituta (edo eraikuntza fasean) eta 180 metrailadore habia eraikita zeudenean.</p> <p>Martxoaren 31n, Bizkaiko ofentsiba hasi zenean, bultzada txiki bat eman zitzaion defentsa hesia eraikitzeko lanei; aldiz, ahalegin handiak egiten ari ziren frankistak geldiaraztea helburu zuten kanpaina defentsa guneak inprobisatzen. Sollubeko gudua amaitzean, maiatzaren erdialdean, borrokek Jatamendin eta Mungia inguruan jarraitu zuten, eta frankisten jomugak Bilboko itsasadarraren eskuinaldea eta Abrako eremua zirela pentsaraztera eraman zuen horrek, mehatxupean jarri Bilboko portua eta ezker aldeko herriak (Santurtzi, Portugalete...). Ondorioz, bizkortu egin ziren Burdin Hesia eraikitzeko lanak, Jata eta Mungia mendebaldean, eta bost defentsa lerro eraiki ziren edo eraikitzen hasi ziren Urduliz eta Berango artean. 3. eta 4. sektoreek ere sendoak ziruditen, Upo mendiaren iparraldeko eremuaren (Ibaizabalen hegoaldean) eta Larrabetzuren (ibai horren iparraldean) artean, jada eraikita zeuden hiru defentsa lerroekin, Zornotzatik ekialde-mendebalde norabidean iritsi zitezkeen oldarraldiak geldiarazteko. Dena dela, sektore hauek ez ziren uste bezain gaindiezinak, eta bi igarobide zituzten, Upon eta Gaztelumendin, arerioari defentsa lerroa zeharkatu eta atzetik erasotzeko aukera emango ziotena.</p>

Deskribapena	<p>Maiatzetik aurrera, areagotu egin ziren Burdin Hesiaren zuloak ixteko ahaleginak, euskal armadaren lubakitzailen eta ingeniarien batailoien bidez, herritar mobilizatu askoren laguntzarekin. Maiatzaren 20an, "herrialdearen defentsa lanen antolakuntza batzordeak" dei egin zien "Euzkadiko alkate guztiei", beren udalerrietako 18-55 urteko herritar edo errefuxiatu guztiak mobilizatzeko. Brigada Zibilek eta sindikatuek mobilizatutako erretagoardiako batailoiek bat egin zuten azken orduko ahalegin horrekin, eta matxinatuen indarrak hurbildu ahala, Bilbo azken erresistentzia lerro batez inguratze saioak egin ziren, Artxanda eta Ganguren artean ("Heriotzaren hesia" izenez ezaguna izango zena).</p> <p>Hiriburu inguruan hastear zegoen azken guduan, itxaropen guztiak Burdin Hesiaren erresistentzia gaitasunean ipini ziren, alferrikakoa izan bazen ere. Gámir jeneralaren arabera, 70.000 gizon behar ziren hesiaren perimetro osoa babesteko, eta soilik 29.000 zituzten (infanteriari dagokionez, ekainaren 7an, euskal armadak 43.500 kide bakarrik zituen). Dena alferrik izan zen. Ekainaren 11n, frankistek eraso jo zuten: hasteko, alemaniar eta italiar abiazioek gogor bonbardatu zituzten euskal lerroak; ondoren, frankisten artilleria modernoak ekin zion; azkenik, infanteriak erasotu zuen. Ekainaren 12an, 144 kanoi eta 110 gerra airekoren eraso konbinatuak Burdin Hesia apurtu zuen, defentsa ahalegina suntsituz Gaztelumendin, Goicoecheak utzitako igarobideetako batean (defentsa lerro bakar bat amaitu ahal izan zen leku horretan). Egun horretan bertan, erabakigarria izango zen abantaila lortu zuten erasotzaileek, eskuinetik eta ezkerretik gaindituta gainerako lerro zatia, Larrabetzu okupatuz eta hiriburuaren azken defentsa hesia zen Ganguren mendilerroaren (Enekuri eta Eretxeta artean) ekialdeko muturreraino iritsiz. Gudua irabazteko eta Bilbori eusteko itxaropenak galdu baziren ere, azken ahalegin bat egingo zen: Artxanda-Santo Domingoko erresistentzia epikoa.</p>
Iturriak	<p>AGUIRRE (1978) AMILIBIA (1978) BELDARRAIN (1992) CIUTAT DE MIGUEL (1939) GÁMIR ULIBARRI (1939) KOLTSOV (1978) LAMAS ARROYO (1972) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) TALÓN (1988) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	

Udalerrria	Bilbo
Gertakari historikoa	Mobilizazioa, borrokak eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: milizien eta batailoien antolakuntza; euskal armadaren 1. eta 5. dibisioak Bilbo defendatzeko azken guduan. Alde frankista: Nafarroako 5. brigada.
Data	1936ko uztailetik 1937ko ekainera.
Deskribapena	<p>Gerra piztu zenean, boluntario ugarik bat egin zuten alderdiek eta sindikatuek sortutako Milizia Boluntarioekin. Jeltzaleei dagokienez, aipatzekoa da Deustuko batzokiak mobilizazioan izan zuen eginkizuna. Batzoki horretako afiliatuek hainbat konpainiatan eman zuten izena: Elgezabal (gero Gordexola batailoian sartuko zena), Arbolagaña... Gormutuen Ikastetxea, Bidarte txaleta eta beste eraikin batzuk jeltzaleen unitateen kuarterel bihurtu ziren. Itxasalde batailoia eta Ingeniarien 7.a (Gogorki) bi eraikin horietatik igaro ziren; Kirikiño batailoia Bidarten egon zen; eta Rebelión de la Sal eta Ariztimuño, Gormutuen ikastetxean. Beste unitate batzuk kuarterel horietan sortu ziren: hala nola Simón Bolibar batailoia edo Jatamendi konpainia. Gainera, Deustuko barrutian, jeltzaleen erretagoardiako batailoietarako boluntarioentzako bulegoak zabaldu ziren, Deustuko, Matikoko eta Elorrietako batzokietan, hain zuzen. Ezkerreko indarrei dagokienez, UGTk Deustuko Unibertsitatea bahitu zuen, kuarterel modura erabiltzeko, eta sindikatu horretako batailoia gehienak igaro ziren bertatik. Adibidez, 9. batailoia Deustun eratu zen, 1936ko azaroan. Unibertsitatearen futbol zelaia milizianoen instrukzio eremu bihurtu zen. Bilbo erortzean, Deustuko Unibertsitate Komertzialeko Kuartela Santanderreko Ampuero herrian kokatu zen, Bizkaitik erretiradan zihoazen indarrak hartzeko, zigiluek aurreko izena erabiltzen jarraitu bazuten ere administrazio lanetan. Deustun, gainera, ospitale bat sortu zen borroketan zauritutakoak artatzeko.</p> <p>Bilbo hartzeko frankisten azken oldarraldian, Elorriaga mendian borroka gogorak izan ziren, eta matxinatuek menderatu zuten azken posizioetako bat izan zen. Deustuko Unibertsitateko kuarteletik, Artxandako eremua hornitzen aritu ziren etengabe, eta azken kontraerasoak jo ahal izan ziren horri esker. Zehazki, 5. euskal dibisioaren eta Asturiasko 4. espedizio brigadaren errefortzu indarrak aritu ziren inguru horietan. Ekainaren 18an, ezkerraldera igaro ziren Deustu-Unibertsitatea eremuan gelditzen ziren defendatzaile gehienak, eta, biharamuneko lehen orduetan, leherkariz suntsitu zuten zubi esekia. Ekainaren 19an, indar frankistak Bilbon sartu ziren.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) GARCÍA MARTÍNEZ (2007) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VILLOTA ELEJALDE (2012)</p>
Oharrak	

Udalerria	Dima
Gertakari historikoa	Dimako borrokak eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gerra hasieratik, hurrenez hurren, Otxandio zutabea, Arabako frontea eta 3. euskal dibisioa. Alde frankista: Nafarroako 1., 2. eta 4. brigadak.
Data	1937ko apirilaren 4tik maiatzaren 24ra.
Deskribapena	Dima herria Otxandion kokatuta zegoen Arabako frontearen erretagoardia izan zen hilabete batzuez. Bizkaiaren aurkako erasoak hasi zenean, apirilaren 4an Otxandio erori-ta, borrokak Dimako ateetaraino iritsi ziren. Apirilaren 5 eta 7 artean, Nafarroako brigadek aurrera egin zuten Kantauri-Mediterraneo isurialdeen banalerroan, eta Zumeltza gaina (Dimako mendatea) hartu zuten. Tropa errepublikanoek beren posizioak sendotu zituzten, haranean eta banalerrotik behera, eta Zumeltza eta Urkiolako mendateak berreskuratzen saiatu ziren, Altun eta Saibigainen jotako bi kontraerasoren bitartez. Borrokak hainbat egunez luzatu ziren, harik eta frankisten artilleria eta abiazioa nagusitzen hasi ziren arte. Euskal tropek, nolana ere, eremu honetan ofentsiba geldiaraztea lortu zuten, eta matxinatuak Elorrio aldetik erasotzera behartu zituen horrek, emaitza ona izango zuen operazioa, azkenean apiril amaieran Gipuzkoako frontea erori baitzen. Hilabete geroago, indar frankistek Arratiako haranaren ekialdeko mendikatea mendean hartzea lortu zuten, Nafarroako 2. eta 4. brigaden operazio konbinatu baten bidez. Maiatzaren 22an, euskal frontea erortzen hasi zen berriro, eta biharamunean, Nafarroako 4. brigadak Dima okupatu zuen.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Ikus Barazar eta Mañariko Haitza atala.

Udalerrria	Durango
Gertakari historikoa	Mobilizazioa, bonbardaketak, borrokak, okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako frontea. Alde frankista: Nafarroako 1. brigada.
Data	1936ko uztailetik 1937ko apirilera.
Deskribapena	<p>Durango Bizkaiaren ekialdeko komunikazio gune garrantzitsua zen: ekialderanzko errepideak eta trenbideak Donostia zuten jomuga, Eibarretik igarota; hego-ekialderanzko errepidea bitan banatzen zen Elorriora iristean, Elgeta eta Kanpanzar mendateetarantz (Debagoienarantz); azkenik, hego-mendebalderantz zihoan beste errepide bat Otxandioraino heltzen zen, Mañarian eta Urkiolako mendatean barrena. Matxinatuak Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugara iritsi zirenean, 1936ko irailaren amaieran, Durango logistika gune nagusi bihurtu zen, borrokan ari ziren hainbat sektoreren erretagoardian (Eibar, Elgeta eta Kanpanzar). 1936ko irailaren 25ean, Francoren aldeko gerra hegazkinek hiria bonbardatu zuten, eta hil-zauritu ugari eragin zituzten pilotaleku inguruan, gehienak milizianoak. Errepresalia modura, preso eskuindarrak fusilatu zituzten, bonbardaketan hildakoen kopuru berean. Durango hainbat unitate militarren kuartelen egoitza izan zen. Hala, Ibaizabal eta Kirikiño batailoiek, adibidez, herriko Jesuiten Egoitza erabili zuten kuartel modura.</p> <p>Bizkaiaren aurkako ofentsiba frankista hasi zenean, 1937ko martxoaren 31n, Durango lehen jomugetako bat izan zen, egun gutxi batzuetan hartu beharrekoa. Egun horretan bertan, aireko frankistek hiria bonbardatu eta ehunka hil-zauritu eragin zituzten. Apirilaren 2an, beste bonbardaketa bat izan zen, biktima kopuru txikiagoarekin. Erasoak eraso, euskal tropen erresistentziak Durangoren okupazioa atzeratzea lortu zuen, apirilaren amaierara arte. Mugimendu inguratzaile baten bidez Udala, Kanpanzar eta Intxorta mendean hartu ondoren, hil horren 24an, Nafarroako 1. brigada Elorrion sartu zen. Ondoren, Nafarroako 4. brigadarekin batera, Durango-Eibar komunikazio ardatza apurtu zuen. 4. brigadak Eibar eta Ermua okupatu zituen, hilaren 26an, eta Gipuzkoako frontearen (Eibar eta kostaldearen artekoa) behin betiko hondoratzearen hasiera eragin zuen horrek. Bien bitartean, 1. brigadak Durango hartzeko borrokei ekin zien, mugimendu inguratzaile bikoitz baten bidez, ipar-ekialdetik eta hego-ekialdetik. Hilaren 28an, Durango erori zen, borroka gogorren ondoren, eta bi egun geroago, apirilaren 30ean, frontea berriro egonkortu zen, erresistentzia errepublikanoak ezarritako lerro berri batean, Santanderreko eta Asturiasko errefortzuei esker.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) IRAZABAL (2012) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	

Udalerria	Elantxobe
Gertakari historikoa	Mobilizazioa eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako frontea. Alde frankista: Frece Nere brigadak.
Data	1937ko apiriletik maiatzera.
Deskribapena	<p>Gerra piztean, alderdi politikoak eta sindikatuak milizia boluntarioak eratzen hasi ziren, gero batailoiak bihurtuko zirenak. Elantxoben, Eusko Abertzale Ekintzako (EAE) kideak Olabarri batailoian sartu ziren, eta horietako bik bizia galduko zuten abenduaren 2an, Legutioko guduan. Herriko talde komunistak 15 militante zituen, eta horietako batzuk ere batailoietan sartu ziren.</p> <p>1937ko apirilaren 27an, Elorrio, Elgeta eta Eibar erori ondoren Gipuzkoako frontea hondoratu zenean, italiar agindupeko Frece Nere brigadaren tropek erasoak jo zuten Ondarroatik, eta Berriatua hartu zuten. Apirilaren 28an, Lekeition sartu ziren. Egun horretan bertan, arratsaldeko 17:30ean, "Operazioei buruzko agindu" zehatza igorri zion Molak brigadari, Gernikarantz abiatzeko aginduz, destakamenduak utzita Ibarangelun, Elantxoben, Antzoran eta Kanalan. Hilaren 29an, italiar-espainiar tropen aurretik zihoan talde bat, Elantxobe okupatu ondoren, Gernikara iritsi zen, eta bat egin zuen herri horretan bertara iritsi berriak ziren Nafarroako 4. brigadaren indarrekin. Elantxobe okupatu berria, eskuindarrez beteriko txalupa bat iritsi zen Bermeotik.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007)
Oharrak	

Udalerrria	Elorrio
Gertakari historikoa	Mobilizazioa, aire bonbardaketak, borrokak, okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako frontea, Elorriko sektorea. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 4. brigadak.
Data	1936ko irailetik 1937ko apirilera.
Deskribapena	<p>1936ko irailaren amaiera aldera, Bergara eta Arrasate matxinatuen esku erorita, frontea egonkortu egin zen, Elgeta-Intxorta-Kanpanzar lerroan borroka gogorrak izan ondoren. Elorrio frontearen ondoko base militar bihurtu zen, eta herri horretatik hartu zuen izena sektoreak. Bizkaiaren aurkako ofentsiba frankista hasi zenean, martxoaren 31n, Elorrio bonbardatutako herrietako bat izan zen, biktima zibil eta militarrekin.</p> <p>Apirilaren 20an, tropa frankistek erasoari berrekin zioten, Gipuzkoako frontea hondoratzea helburu zuen mugimendu inguratzaile baten bidez, Eibar hegoaldearen eta Aramaioren artean. Nafarroako 4. brigadak Intxortan jotako erasoak huts egin bazuen ere, 1. brigadaren indarrek aurrera egin zuten Anboto inguruan; Tellamendi hartu, Aramaio inguratu, eta Udalaren hegala inguratzeari ekin zioten, Karraskainetik. Hilaren 23an, 4. brigadak huts egin zuen berriro Intxortan; aldiz, 1. brigadak Oltzubieta eta Memaia hartu zituen, eta Elorrio, biharamunean, ezerezean utziz herriari sartzea eragotzi nahi zioten indarren ahalegina. Horrela, frankistek Udala-Kanpanzar-Intxorta eremua menderatzea lortu zuten, eta errepublikanoek arrapaladan atzera egin behar izan zuten, inguratuak izateko arriskutik ihes egiteko. Hurrengo egunean, Olakueta, Berriz, Bidebarrietako bidegurutzea, Egoarbitza eta Mendisolo erori ziren, eta bonbardaketa gogorrak pairatzen ari zen Eibar berehala ebakutzera behartu zuen horrek.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerria	Ermua
Gertakari historikoa	Mobilizazioa, base militarra eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako frontea. Alde frankista: Nafarroako 4. brigada.
Data	1936ko irailetik 1937ko apirilera.
Deskribapena	<p>Gerra piztean, boluntarioak mobilizatu ziren, eta horrela sortu zen, adibidez, Iñaki San Miguel konpainia, gero Ibaizabal batailoian sartuko zena. Ibaizabal 1936ko irailaren hasieran eratu zen, Bizkaiko hainbat herritako boluntarioekin; horien artean, ermuarrak. Batailoien base nagusia Ermuan zegoen, eta hainbat hildako izan zituen armamentuak eta ibilgailuek eragindako istripuengatik. Apirilaren erdialdera, batailoiak Arratia konpainia bidali zuen Zeanurira, asturiar tropek inguru horretan eragindako liskarrak baretzera. Gordexola batailoia ere herri honetatik igaro zen, 1936ko azaroaren amaieran Eibarrera bidali zutenean. Berehala, Ermura aldatu zen, eta tarte labur batez egon zen bertan, abenduaren 3an Arabako frontera bidali zuten arte. Itxasalde batailoien konpainia batzuk ere Ermuan kokatu ziren, urte amaierara arte.</p> <p>1937ko apirilean, Elorrio erorita Gipuzkoako frontea hondoratu zenean, Eibarko sektoreko indar errepublikanoak Trabakua mendatean barrena erretiratu ziren, mendebalderantz Durangorako bidea itxita zegoelako. Apirilaren 25ean, zehazki, unitate batzuek Ermuko kaleak zeharkatu eta mendate horretarantz jarraitu zuten, Bolibar eta Markinarantz. Horien artean zegoen Rebelión de la Sal batailoia, goizean Santamañazarren atzera egin behar izan zuena, bonbardaketa gogorra pairatuko zuena Trabakuan gora erretiratzean. Azkenik, apirilaren 26an, matxinatuak Ermuan eta Eibarren sartu ziren.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) JUARISTI LARRINAGA (2008) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	

Udalerrria	Errigoiti
Gertakari historikoa	Errigoitiko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 2. euskal brigada, Asturiasko 1. espedizio brigada, Santanderreko 2. espedizio brigada. Alde frankista: Nafarroako 1., 4. eta 5. brigadak, Frecce Nere brigada, XXIII di Marzo agrupazioa.
Data	1937ko apirilaren 29tik maiatzaren 10era.
Deskribapena	<p>1937ko apirilaren 29an, Nafarroako 4. brigada Gernikan sartu zen. Foru hiribildua babesten aritu ziren euskal eta santandertar tropek, erretiradan, bat egin zuten apirilaren 26ko aire bonbardaketaz geroztik hasitako zibilen exodoarekin; iheslari horiei, borroka fronte bihurtuz zihoazen herrietako biztanleak batu zitzaizkien. Gernika mendebaldean, Errigoitirako erdibidean, defentsa lerro berria ezarri zen, Muxika eta Mungia artean. Lerro horretara, euskal armadaren berrantolatutako unitate berriak eta Asturias eta Santanderretik bidalitako brigada berriak iritsi ziren.</p> <p>Apirilaren 30ean, Frecce Nere brigada Bermeora iritsi zen, Mundakako itsasadarren ezker hegalean barrena, eta Nafarroako 4.ak bere posizioak indartu zituen Gernikan. 1. euskal dibisioa, Asturiasko eta Santanderreko indarren laguntzaz, ofentsiba geldiarazteko lerro berria egituratzen hasi zen. Maiatzaren 1ean, Frecce Nere brigadak Sollubeko gaina menderatzeko ahaleginean atzera egin behar izan zuen bitartean (Bermeora itzuli eta inguratuta gelditu zen), Nafarroako 4. brigada Errigoiti eta Muxikara iristen ahalegindu zen, blindatuen laguntzaz, atzera egin behar izan zuen arren, baja ugariarekin, Maiaga aldean. Maiatzaren 2ko arratsaldean, huts egin zuen berriro Sollubeko gaina hartzeko saioak; Muxikan, aldiz, etengabea zen defendatzaileen eta Nafarroako 1. brigadaren arteko tiro trukaketa. Biharamunean, frankistek, aire eraso gogor baten bidez, euskal tropek Bermeo inguruan ezarria zuten hesia apurtu zuten, eta frontea eta 1. dibisioaren erretagoardia suntsitu zituzten, hil-zauritu ugari eraginez, biktima zibilak barne. Errigoiti zigortutako helburuen artean zegoen. Hala eta guztiz ere, berriro ere, Gernikatik mendebalderantz jotako eraso berriak alferrikakoak izan ziren, eta Santanderreko tropak nabarmendu ziren bereziki defentsan.</p> <p>Maiatzaren 4tik aurrera, Errigoiti eta Muxikak Gernikarekin duten mugalerroan, alde bietako patruilen arteko borroka txikiak izan ziren. Borroka nagusiak Sollube gainaldean izan ziren, hainbat egunez. Azkenik, maiatzaren 9an, Nafarroako 1.ak eroso jo zuen Muxika babesten zuten indarren aurka, eta hutsean utzi zuen 1. euskal dibisioak Oka ibaian hasitako kontraerasoa (kontraeraso horretan, Errigoiti materialen eta tropen kontzentrazio puntuetako bat zen). Biharamunean, Nafarroako 1. brigadak erasoan jarraitu zuen, 5. brigadaren indarrekin bat eginez, eta Sollube ingurutik hego-ekialderantz egin zuen, Maiaga jomugan ezarriz atzealdetik. Posizio hori eta Errigoiti egun horretan bertan erori ziren, eta hurrengo egunetan, herria Nafarroako 1. brigadaren base militar izango zen, Bizkargiko erasoaldia prestatzeko gune.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007) Zenbaiten Artean: <i>La Guerra Civil en Asturias</i> , Ediciones Júcar, Madril, 1986.
Oharrak	

Udalerria	Zornotza
Gertakari historikoa	Etxanoko edo "Heriotzaren Pinudiko" borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 2. euskal dibisioa, 6. eta 11. brigadak, eta errefortzu tropak. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 2. brigadak.
Data	1937ko maiatzaren 9tik 18ra.
Deskribapena	<p>Apirilaren amaieran, errepublikanoek Zugastietara eta Euba artean jo zituzten kontraerasoek Zornotza jomugan zuten frankistak geldiarazi zituzten. Maiatzaren hasieran, matxinatuak ez aurrera ez atzera gelditu ziren Oiz mendiaren mendebaldeko azken maldetan, Euba eta Zornotzara iristeko modua ematen zuten kotetan ("heriotzaren pinudia" ospetsua) eta Zugastietako bidegurutzearen mendebaldean. Gernika apirilaren 29an erori zen. Hori horrela, Frece Nere brigadaren buru Piazzonik Bermeo hartzeko abian jarri zuen presakako operazioak (kostaldeko herria hilaren 30ean okupatu zuten) ataka zailean jarri zuen unitate horren atal bat, eta Molaren asmoak aldatzera behartu zuen horrek; hain zuzen, lehentasuna ematera euskal tropen lerro batek defendatzen zuen Sollube inguruko operazioei.</p> <p>Maiatzaren 9an, Nafarroako 2. brigadak eraso jo zuen, Etxano hego-ekialdean, eta 329 eta 333 kotak hartu zituen, aurrez aurreko gogorren ondoren. Errepublikanoek berehala erantzun zuten. Kota horien inguruko borrokek astebete iraun zuten, eta "heriotzaren pinudiko borrokak" izenez ezagunak izango ziren gerora. Azkenean, maiatzaren 16an, matxinatuek operazio konbinatu bat jarri zuten abian, Bizkargi hego-ekialdetik erasotu zuen Nafarroako 1. brigadaren eta Etxano ipar-ekialdetik jo zuen 2. brigadaren artean. Borroka gogorren ondoren, 2. euskal dibisioaren tropek atzera egin zuten, eta biharamunean frankistak Etxanon sartu ziren. Maiatzaren 18an, Zornotza matxinatuen esku gelditu zen.</p>
Iturriak	<p>AROSTEGUI (1991) ARTECHE (1970) BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	

Udalerria	Fruiz
Gertakari historikoa	Fruizko borrokak eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisia, Barreiro komandantearen sektorea (Kirikiño, Gordexola, Araba eta Santanderreko 138. batailoiak), Asturiasko 1. espedizio brigada, Santanderreko 2. espedizio brigada. Alde frankista: Nafarroako 5. brigada.
Data	1937ko maiatza.
Deskribapena	1937ko apirilaren amaieran, gerra Fruiz inguruetara iritsi zen. Herria igarobide bihurtu zen, hastear zegoen Sollubeko gudutik ihesi zihoazen zibilentzat eta erretiradan zihoazen unitate militarrentzat, eta erresistentzia sendotzera etorritako tropak elkar-tzeko gune (Asturiasko 1. espedizio brigada eta Santanderreko 2.a). Herria hornigai militarrez eta artilleria baliabideez bete zen, 1. euskal dibisioak Arrieta eta Errigoititik abiatuta Okaren ezker ibaiertza hartzeko maiatzaren 9an abian jarri nahi zuen ofentsibarako. Ofentsiba bertan behera gelditu zen, Nafarroako 1. brigadak Muxikan jo zuen erasoagatik, eta maiatzaren 10ean, brigada horri Sollubetik etorritako Nafarroako 5.a batu zitzaionean, Fruiz erresistentzia gune bihurtu zen Errigoititik erretiradan zetozen tropentzat. Hainbat egun iraun zuten borroken ondoren, udalerria bi dibisioren arteko lotura gune bihurtu zen: alde batetik, 5. dibisio berria, Mungia eta kostaldearen arteko fronteaz arduratzen zena; bestetik, 1. dibisioa, Fruiz eta Larrabetzu arteko lerroa zaintzen zuena. Fruizko frontea, 1. dibisioaren mende, 5. dibisioarekin lotura zuen sektore modura antolatu zen, Barreiro komandantea buru zuen brigada inprobisatu batek zaindua. Maiatzaren 19an, frankistek Jata eta Mungiaren aurkako erasoak jo zutenean, areagotu egin ziren borrokak, eta biharamunean matxinatuek herria hartu zuten.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007)
Oharrak	

Udalerrria	Galdakao
Gertakari historikoa	Galdakaoko borroak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: euskal armadaren 1. eta 2. dibisioak, 1937ko ekaineko erretiradan; Askatasuna batailoia (ingeniarien 8.a) eta Azaña-Vizcaya batailoia (hainbat gerra gertakari medio herri honekin lotura izan zutenak). Alde frankista: Nafarroako 1. brigada.
Data	1937ko apiriletik ekainera.
Deskribapena	1937ko apirilaren amaieran, Eusko Abertzale Ekintzak ingeniarien 8. batailoia, Askatasuna izeneko, antolatu zuen. Batailoien kuartela Galdakaoko Udal Ikastetxean ezarri zen, eta eraikin horretara jotzen zuten unitate militarrean izena eman nahi zuten boluntarioek. Maiatzaren 19an, aire bonbardaketa batek herriaren eraikitako aterpe bat suntsitu eta 13 hildako eta hainbat zauritu eragin zituen. Asturiasko Osasun Konpainia militar bateko kideek biktimen erreskatean parte hartu zuten. Ekainean, Bilboko Burdin Hesia apurtu eta euskal armadaren 1. eta 2. dibisioak hondoratu zirenean, erretiradan zihoazen unitate militar asko Galdakaotik igaro ziren. Horien artean, Azaña-Vizcaya batailoia zegoen, Burdin Hesiaren defentsan baja ugari izan zituena. Ekainaren 14an, kide gehiago galdu zituen, Galdakao ekialdean, aurreko bajei gehitu beharreko hildakoak eta preso eroritakoak. Galdakaon kide asko ere galdu zituen beste unitate bat Durruti batailoia izan zen, eta hil-zaurituak eta preso hartutakoak izan zituen. Ekainaren 15ean, Nafarroako 1. brigadaren indarrek Galdakao eta Zaratamo okupatu zituzten.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) DÁVILA (2007) IBARRETXE FERNÁNDEZ DE LARRINOVA eta MOLINUEVO (2009) SALAS LARRAZABAL (1999) TALÓN (1988) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Durruti batailoia (CNTren 5.a) Galdakaon galdu zuen kideetako bat Félix Padín izan zen. Preso hartu eta Gasteizera eraman zuten; gero, presondegi bihurtutako Murgiako komentura, eta bertan bost hilabete eman ondoren, Miranda de Ebroko preso esparrura. Félix Padínek gerra piztu bezain pronto eman zuen izena milizietan. 1936ko uztailean, Bizkaiko 1. espedizio zutabearen sartu zen; gero, unitate horretatik Isaac Puente batailoira igaro zen; azkenik, Legutioko gudua amaitzean, Durruti batailoirako urratsa egin zuen, sarjentu graduazioarekin. Duela gutxi Miranda de Ebron hila, Félix Padín anarkismoaren pertsonaia historiko handi izan zen, prentsa elkarrizketa eta artikulua ugaritako protagonista. Frankismoaren krimenak ikertzen ari den Servini argentinar epailearen aurrean deklaratu zuen.

Udalerrria	Galdames, eta inguruan edo hurbil dituen Gueñes, Zalla, Sopuerta, Gordexola eta Balmaseda
Gertakari historikoa	Galdamesko borrokak eta okupazioa, Enkarterriko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: euskal armadaren 2. eta 3. dibisioak, eta behin-behineko B dibisio berria (Juan De Pablo buru zuena –Dezső Jász egiazko izenez–, 5. espedizio dibisioa izena hartuko zuena 5. euskal dibisioa desegitean), honako unitate hauek zituena: 8. euskal brigada, Santanderreko 1.a eta 12.a (12. brigadari Santanderreko 2. espedizio brigada ere deitzen zitzaion) eta Asturiasko 8. brigada. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 2. brigadak.
Data	1937ko ekainaren 21etik 30era.
Deskribapena	<p>Ekainaren 19an Bilbo erorita, hilaren 20an Barakaldo ikuskatzeko errekonozimendu operazio bat egin ondoren, Nafarroako 1. brigadak, ekainaren 21etik aurrera, Enkarterriko erdialdea jomuga zuen ofentsiba handi bati ekin zion. Kadagua ibaian gora, eremu zabal bat okupatu zuen, Alonsotegitik La Cuadra auzoraino, eta Sasiburu mendilerroan barrena jarraitu zuen, Eretza eta Trianoko mendietarantz. Berrantolatutako euskal tropek (Amuategi batailoia) kontraerasoa jo zuten, Eretza menditik abiatuta, abangoardia frankistak geldiarazteko asmoz. Bere aldetik, Nafarroako 2. brigadak Barakaldo inguratzeko mugimendu bati ekin zion, Burtzeñatik Zugastietara hego-ekialdeko gainetara iristeko. Ekainaren 22an, Nafarroako 2.a Ortuella hegoaldeko meatzaritza eremuan sartu zen; haren ezkerraldetik, García Valiñoren 1. brigadak Ganerango gainak hartu zituen, borroka latzen ondoren. Euskal-asturiar errefortzu unitateak Triano mendiak kontrolpean mantentzen ahalegindu ziren, eta, arratsaldean, Asturiasko 8. brigadaren indarrek kontraerasoa jo zuten, arrakastarik gabe. Frankisten bonbardaketek, ekainaren 22an bertan, 2. euskal dibisioak Zallan zuen Aginte Postua desegitea lortu zuten. Biktimen artean, dibisio horretako buru zen Nino Nanetti italiar brigadista zegoen. Larriki zaurituta, uztailearen 18an hil zen, Santanderren.</p> <p>Ekainaren 23an, Nafarroako 2. brigada Zugastietara eta Gallartara hurbildu zen; bien bitartean, 1.ak Galdames alderantz jo zuen, alde batetik, eta Sodupe alderantz, bestetik. Mehatxuari aurre egiteko, 2. dibisioaren burua ebakatu ondoren, beste dibisio bat inprobisatu zen (B dibisioa), euskal, asturiar eta santandertar indarrekin. Ekainaren 24an, Nafarroako 2. brigadak Gallarta okupatu eta aurrera jarraitu zuen, Zugastietara hego-mendebaldetik igarota. Nafarroako 1.a Sodupen sartu bazen ere, indar errepublikanoek gogor eutsi zioten: iparraldean, Asturiasko 2. espedizio brigadaren eta 8. brigadaren batailoiek; hegoaldean, Santanderreko 1. brigadak eta Santanderreko 12. brigadaren 122. batailoiak (azken unitate horiek B dibisiokoak ziren, eta behin-behinean 3. euskal dibisioaren mende zeuden). Ekainaren 25ean, matxinatuek aurrera jarraitu zuten. Nafarroako 1. brigada Galdamesen sartu eta Garai tontorraren mendebaldeko posizioak menderatu zituen; aldiz, 2.ak meatzaritza eskualdea okupatuz jarraitu zuen. Ibarrolak bereziki nabarmentzen ditu Santanderreko 1. brigadaren eta 12. brigadaren 122. batailoien erresistentzia eta kontraerasoak; B dibisiokoak izanagatik, 3. euskal dibisioaren agindupean zeuden behin-behinean. Ekainaren 26an, Nafarroako brigadek aurrera jarraitu eta Mira tontorra hartu zuten, erresistentzia gero eta gogorragoa bazen ere (Asturiasko 8. brigadak triskantza eragin zuen erasotzaileen zutabe batean). Ekainaren 27an, Nafarroako 1.ak Gueñes, Aranguren eta Cruz gailurra hartu zituen; 2.ak, aldiz, egun horretan eta hurrengoan, Mercadillo erreka ingurua. Ekainaren 28an, 1.a Ubieta muinoraino iritsi zen, eta 122. batailoiko santandertar indarren erresistentzia gogorarekin eta kontraerasoarekin egin zuten topo. Hilaren 29an, Nafarroako 1.a Urrestietara eta Otxaranera iritsi zen, eta egun horretan bertan, 4.ak Balmaseda okupatu zuen. Ekainaren 30ean, 1. brigadak Keli tontorra hartu zuen; 2.ak, Arenal eta Las Rivas auzoak. Biharamunean, Nafarroako 1. brigadaren erreleboa hasi zen.</p>
Iturriak	<p>AROSTEGUI (1991) BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007) Zenbaiten Artean: <i>La Guerra Civil en Asturias</i>, Ediciones Júcar, Madril, 1986.</p>

Oharrak	Dezső Jász hungariarra euskal armadatik igaro zen buru atzerritar misterioitsuena izan zen, brigadisten mugimenduari lotutako pertsonaia ilunenetako bat. Juan de Pablo Jansen izena hartu zuen, eta txekiar nazionalitatea zuela adierazten zuten dokumentuak erabili zituen. Iturri errepublikano batzuek nazien zerbitzura aritu zen espioitzat hartzen badute ere, Hungariako erregimen komunistarentzat lan egingo zuen Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren. Interesgarria litzateke haren Memoriak berreskuratu eta edizio kritiko bat argitaratzea (bi liburu gutxienez argitaratu zituen hungarieraz gerra zibilean izan zuen parte-hartzeari buruz).
---------	---

Udalerrria	Gamiz-Fika
Gertakari historikoa	Gamiz-Fikako borroka eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa, Barreiro komandantearen sektorea; gero, 17. euskal brigada. Alde frankista: Nafarroako 5. eta 6. brigadak.
Data	1937ko maiatzetik ekainera.
Deskribapena	1937ko maiatzaren erdialdean, Gamiz-Fika inguruko biztanleria zibilaren zati handi bat ebakatu ondoren, herria base militar bihurtu zen, handik hurbil Sollubena eta Bizkargin borrokan ari ziren euskal tropak hornitzeko. Frankistek Jatamendin jo zuten erasoan, maiatzaren 19an, Mungiako ateetaraino iritsi ziren; maiatzaren 20an, Fruiz eta Mendigane erori ziren; maiatzaren 22an, Morgakoena. Hori horrela, Gamiz-Fika frontearen lehen lerroan gelditu zen. Hurrengo egunetan, frontea egonkor mantendu zen, alde bien noizbehinkako tiro trukaketarekin, harik eta, ekainaren 11n, Bilbo mendean hartzeko frankisten azken ofentsiba hasi zen arte. Aire eta artilleria bonbardaketa gogorrak pairatu ondoren, defendatzaileak Nafarroako 5. eta 6. brigaden aurrez aurreko eraso geldiarazten saiatu ziren. Bien bitartean, 1. brigadak eskuin hegaletik ekin zion, eta Urkuluko punta hartu zuen, Bizkargin. Gamiz-Fika lurraekin berdinduta gelditu zen, eraikinak sutan, eta 17. euskal brigadaren batailoi sarraskituek erretiratu egin behar izan zuten. Biharamunean, Burdin Hesia apurtu zen, eta egun horretan eta hurrengoan, Mungia erortzeaz batera, euskal tropek kontrolpean zuten Gamiz-Fikako azken lur eremua abandonatu zuten.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007)
Oharrak	

Udalerrria	Gatika
Gertakari historikoa	Euskal armadaren 5. dibisioaren sorrera (Kuartel Nagusia Butroen ezarri zuen), erresistentzia eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: euskal armadaren 1. eta 5. dibisioak. Alde frankista: Frecce Nere brigada.
Data	1937ko maiatzetik ekainera.
Deskribapena	<p>1937ko maiatzean, Solluben eta Jatamendin borrokan ari ziren bitartean, erreserba eta fortifikazio unitateak heldu ziren Butroe ingurura, defentsa lerroa sendotzera, bidea ixteko aurreikuspenen arabera hurrengo egun eta asteetan Bilboko portua jomuga harturik aurrera egingo zuten matxinatuei. Maiatzaren lehen erdian, lubakitzailen Gogorki batailoia iritsi zen Gatikara, eta Urresti-Goiko eremua gotortzen hasi zen, Butroe-Gatika errepidearen 19. kilometro inguruan, eta 191 eta 195 kotetako posizioak, Plentzia-Maruri-Mungia errepidearen 21. kilometrotik hurbil (Octubre batailoiak zaintzen zituen posizio horiek). Gero, Gogorki batailoia 1. dibisioaren eskuin hegalean lanean hasi zen. Uribe Kostako inguru honetan egin ziren gotortze lanean, bertara bereziki ekarritako preso eskuindar taldeak ere aritu ziren. Hala, maiatzaren 12ko egunsentian, ehunka presok osatutako talde bat abiatu zen Bilbotik, "hirugarren espedizioa" izenekoa; Butroen gelditu ziren, atsedean hartzera, eta oinez jarraitu zuten errepidean aurrera, Plentziara; herri horretatik, Barrikara eraman zituzten berehala. Azken herri horretan, Elordui Fundazioaren Egoitzara eraman zituzten, zain egon zitezten, frontera gotortze lanak egitera irten arte. Lan horietan ari zirela, Jatamendiko borrokan lekuko izan ziren.</p> <p>Maiatzean ere, Sollubeko gudua amaitu berritan eta Jatamendikoa hasita, 1. euskal dibisioa bitan zatitu zen, eta kostaldeko sektoreaz eta Mungia hego-ekialdeko eremuaz arduratuko zen 5. dibisioa sortu zen. Dibisioa sortzeko agindua maiatzaren 17an eman zen, eta Pablo Beldarrain izendatu zuten buru. 5. dibisioak Butroen ezarri zuen bere Kuartel Nagusia, eta lau brigadak osatu zuten (1., 5. eta 8. euskal brigadak eta Santanderreko 1.a); aldiz, Santanderreko 2. brigadak dibisioa utzi zuen, euskal eta santandertar tropen arteko Lotura Dibisio berrian sartzeko. Dibisio berriak 15 batailoiz zituen (11 euskaldun eta 4 santandertar). Burdin Hesia apurtu zenean, 5. dibisioak atzera egiteko agindua jaso zuen. Ekainaren 14an, Francoren aldeko Frecce Nere brigadak Gatika okupatu zuen, eta Butroeko gazteluraino iritsi zen egun horretan bertan.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007) YBARRA Y BERGÉ (1941)
Oharrak	

Udalerrria	Gernika-Lumo
Gertakari historikoa	Mobilizazioa, bonbardaketa, erresistentzia eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa. Apirilaren 28an, defentsa lerro berria antolatu zen, Ipar Frontea izenekoaren bidez (berehala 1. euskal dibisioa bihurtuko zena). Iparretik hegora: 1. euskal brigada (Sukarrieta), lau batailoirekin; 2. euskal brigada (Gernika), foru hiribilduaren ekialdea zaintzeko eginkizuna zuena, beste lau batailoirekin (Enderika-Idokilis-Burgogoikoako 189 kota, Burgoa muinoa, Urgogana, eta Marmiz mendebaldeko 128 kota lerroan); azkenik, Hego Frontea, 4. euskal brigadak (San Miguel de Mendata) kontrolatzen zituen hiru batailoirekin eta erdirekin, Marmiz-Urrutxua errepidea doan gainaldean zehar hedatuak. Gainera, Santanderreko 1. espedizio brigadaren unitateak ere Gernika babesten aritu ziren.</p> <p>Alde frankista: Nafarroako 1., 4. eta 5. brigadak, Italiako infanteria eta artilleria unitateak, eta Italiako eta Alemaniako gerra hegazkinak.</p>
Data	1937ko apirilaren 26tik maiatzera.
Deskribapena	<p>1937ko apirilera arte, gerraren eragina euskal tropen kuarteletako jardura eta joan-etorrietara mugatu zen. EAJren Ixtarkundia, Loiola eta Saseta batailoiek Gernikan eduki zuten kuartela. Ezkerreko indarren artean, soilik PCEn Gernikako Arbola batailoiak izan zuen egoitza foru hiribilduan. Gernikan, gainera, boluntario eta erreserbisten taldeak osatu ziren, fronteetarantz abiatzeko; borrokan zauritutakoak artatu zituzten, herrian jasotako behin-behineko ospitaleetan; Gipuzkoatik ihesi iritsitakoak aterpetu zituzten; eta beren gain hartu zuten ere hildako gudariei lur emateko eginkizun mingarria (inguruko gudariak edo herrian kokatutako unitateetakoak, gehienak gipuzkoarrak). Hain zuzen, EAJren Euzko Gudarosteak Gernikan izan zuen hasieran hilerria.</p> <p>1937ko apirilaren amaieran, gerra Busturialdera iritsi zen, bere indar suntsitzaile guztiarekin. Gipuzkoako frontea hondoratu zenean, Intxorta inguratu eta Eibar erori ondoren, Oiz mendiaren iparraldean zeuden euskal tropek atzera egin behar izan zuten, arrapaladan, mendebalderantz. Eibar erori zen egun berean, apirilaren 26an, Gernikaren bonbardaketa gertatu zen (foru hiribildua ez ezik, Markinarako errepidea ere erasotu zuten). Nafarroako 4. brigada Bolibarrera iritsi zen. Gernikak ez zuen gerra hegazkinei aurre egiteko defentsa baliabiderik, eta "hiri irekia" zen, horregatik. Apirilaren 26ko goizean, Rebelión de la Sal batailoien errefortzu indarrak iritsi ziren Gernikara. Unitate militarra garraiatzen zuten kamioiek hirigunean aparkatu zuten (euskal iturriek baieztatzen duten moduan), eta eguerdian frankisten errekonozimendu hegazkinek tropa mugimendu hori detektatu zuten. Arratsaldean, matxinatuen aldeko gerra hegazkinek foru hiribildua bonbardatu zuten, errukirik gabe, eta berehala piztu zen suteak triskantza eragin zuen. 31-41 tona bomba erori ziren 1 km² baino gutxiago zituen eremu batean; horietako gehienak su eragileak. Gernikako bonbardaketa –gerra ekintza– nagusitasun militarren neurri gabeko erabileraren adibide izan zen, agintari militar batek aplikatu dezakeen nagusitasuna, helburu bat betetzeko, biztanleria zibilaren artean izua zabaltzeko eta herri oso bat adoregabetzeko; azken batean, egi bihurtu zuen Molak jaurtitako panfletoek Bizkaia birrintzeko bere ahalmenari buruz ziotena. Gernikakoa izua zabaltzeko bonbardaketa izan zen. Hirigunearen aurka erabilitako bomba astunak eta milaka bomba su eragileak ez zuten inolako zurbiderik horren "xumeak" ziren matxinatuen helburu "taktiko" edo "estrategikoetarako": herriko kaleetan aparkatutako ibilgailu konboi bat edo Erreterriako zubi ospetsua. Nahita, zutik utzi zituzten, zubiaz gainera, industrialdea eta arma fabrika (bi helburu militar bakarrak), baita Juntetxea eta eliz parrokia ere. "Eraikinen % 85,22 erabat suntsituta gelditu ziren –271, guztira–, eta gainerakoek kalteak izan zituzten" (Gernikako Bakearen Museoa). Alemaniarrak beren <i>blitzkrieg</i>-a ("tximista gerra") prestatzen ari ziren, eta, zalantzarik gabe, Gernikak eman zien aukeraz baliatu ziren, arerioaren eremuan eginiko bonbardaketa sakoneko taktikak probatzeko. Helburua argia zen: ibilbideak libratzea norberaren zutabe motordunek aurrera egin zezaten, eta gudu eremua isolatzea, komunikazio guneak suntsituz, alde horretatik eginkizun garrantzitsua zuten hiriguneak bereziki.</p>

Deskribapena	<p>Laburtuz, helburua zen erakustea zenbateraino izango zen abazioa arma erabakigarri urte gutxi batzuen buruan hasiko zen mundu gerran. Richthofenek bere egutegian aipatzen duen “arrakasta tekniko handia” honako hau da: hiri bat guztiz suntsitzeko ahalmen teknikoa, gero infanteriak okupa dezan, inolako erresistentziarik gabe, borrokarik gabe, abazioak lan osoa egin ondoren. Horixe izan zen Gernikan saiatu zena. Dena dela, bai Richthofenek bai hiru armadetako estatu nagusiko gainerako buruzagiek jakin bazekiten Gernika hiri irekia zela, eta horregatik, hain zuzen ere, ukatu egin zuten beti bonbardatua izan zela.</p> <p>Aurretik, 1936ko uztailaren 23an, Italiako legio abazioak Otxandioko biztanleria zibila bonbardatu zuen. 1937ko martxoaren 31n, Durango izan zen bonbardatua, hegazkin gutxiagorekin eta bomba su eragilerik gabe; Eusko Jaurlaritzaren arabera, 276 biktima eragin zituen. Bi erasoek helburu bera zuten: izua zabaltzea herritarren artean. Bestetik, ikusirik errekonozimendu hegazkinen eta ondorengo bonbardaketaren arteko lotura, ez du sinesgarritasun handirik esateak agintari frankistek ez zutela alemaniar aire indarren jardueraren berri. Aviazione Legionariako hegazkinak Condor Legioaren aginduetara aritu ziren, espainiar buruzagi militarrekin (Mola eta Franco) koordinatuta, Vigón jeneralaren bitartez. Zehazkiago esateko, aginduak bete aritu zirela esan beharko litzateke, koordinatuta baino gehiago. Hortaz, Francok eta Molak bazekiten zer gertatuko zen, eta buruzagitza frankistak 1937ko maiatzaren 7an Berlinera bidalitako telegrama batek hori baieztatzen du.</p> <p>Bonbardaketak ia erabat birrindu zuen foru hiribildua. Eusko Jaurlaritzak eman zuen biktimei buruzko parte ofizialak (eskura dugun bakarra) 1.654 hildako aipatzen baditu ere, erregistroan jasotako hildakoei dagokien kopurua dela zehazten du, hondakinak erretiratzeko denborarik izan ez zelako. Bonbardaketaren lekukotasunen % 100en arabera (zuzenean ahoz jasotakoak) –horien artean, Gernikan egon ziren erreportari guzti-guztiena–, aire oldarraldiak 1.000 pertsona hil zituen gutxienez, eta ez dago aurkakoa adierazten duen frogarik, ezta Eusko Jaurlaritzaren parte akasduna edo faltsua dela adierazten duenik ere. Historiografiaren ikuspegitik, 120 edo 300 hildako izan zirela baieztatzea (edo garaiko erregistroetatik behera legokeen beste edozein kopuru ematea) ez da inongo dokumentu historikotan oinarritzen; hau da, ez da irizpide edo estimazio dokumentatu bat, iritzi bat baizik. Hildakoen kopuruak eztabaida pizten jarraitzen du. Egungo egileen artean, Herbert Southworth, Ian Patterson, Philip Knightley, Paul Preston eta Xabier Irujok, besteak beste, ontzat ematen dute euskal agintariek eman zuten kopurua. Aitzitik, Jesús Salas, César Vidal, Vicente Talón, Ricardo de la Cierva, Raúl Arias edo Pío Moak 12 eta 250 arteko zifrak aipatzen dituzte bonbardaketak eragin zituen hildakoez aritzean.</p> <p>Bonbardaketaren bihamunean, lurreko erasoak hasi ziren Busturialdean. Apirilaren 27tik aurrera, Gipuzkoako frontea hondoratuta, Nafarroako 4. brigadak eta Frece Nere brigadak aurrera egin zuten Gernikarantz, Markina-Xemein eta Ondarroatik abiatuta. Egun horretan bertan, agintari errepublikanoek Euzko Gudarostea berrantolatatu zuten, ofentsiba frankistari eusten saiatzeko, batailoiei kohesioa emango zieten dibisioak eta brigadak sortuz, fronteen eta sektoreen antolakuntzaren porrotaren ondoren. Horrela, euskal armadak egun horretan emandako agindu baten arabera, defentsa lerro berri bat sortu zen, iparretik hegora, abangoardiako erresistentzia puntuak Gernika-Zornotza-Gorbeia lerroan kokaturik. Apirilaren 28an, Gernika Ipar Frontea izenekoaren erdian gelditu zen. Hurrengo egunean, frankistek ustekabean harrapatu zuten foru hiribilduaren defentsa inprobisatua, eta Gernikan sartu ziren. Nafarroako 4. brigadak Ajangiz hartu zuen lehenik, eta Marmizen euskal tropen kontraeraso ahalegin txiki bat hutsean utzi ondoren, abiada biziagotu zuen Gernikarantz. Blindatu frankistek errefortzu errepublikanoz betetako tren bat atzerazi zuten Zornotzarantz, eta birrinduta zegoen hirian sartu ziren, hondakinen artean zirauten unitate militar bakanei erresistentziarako ia aukerarik eman gabe. Ondoren, Lumo eta Aixerrota okupatu zituzten. Aurretik zihoan Frece Nere brigadaren talde batek, Elantxobe okupatu ondoren, Gernikara heldu zen.</p>
--------------	--

Deskribapena	<p>Matxinatuen indarrek Llarch Castresana koronela hartu zuten preso, Ipar Fronteko burua (jada ofizialki 1. euskal dibisioa zena), haren Estatu Nagusiko ofizial batzuekin batera. Den-denak fusilatu zituzten –Llarch koronela barne, maiatzaren 1ean, Gasteizen–, azken hori frankistak konbentzitzen saiatu bazen ere, matxinatuekin bat egiteko asmoa zuela eta ezer gutxi egin zuela alde errepublikanoan egon zen bitartean. Llarchek 1. dibisioan utzitako postua betetzeko, Ricardo Gómez karabineroa izendatu zuten. Hurrengo egunetan, frankistek Gernikaren okupazioa sendotu zuten, eta herrira sartzea debekatu, ebidentziak garbitu eta bonbardaketaren efektuak aztertu arte. Jakina da Richthofen bera hondakinak miatzen aritu zela, eta Cabanellas jeneralak egun batzuk igaro zituela herrian. Horrek errepublikanoen aire eraso bat eragin zuen, matxinatuek Bermeon eta Gernikan ezarri zituzten posizioen aurka. Apirilaren 27an eta hurrengo egunetan, Heinkel He 51 airekoek Gernika inguruak metrailatu zituzten berriro. Apirilaren 26 eta maiatzaren 14 artean, matxinatuek 30 bonbardaketa eta metrailadore eraso baino gehiago egin zituzten Bermeo inguruan. Ondoren, frankistek ospitale bat zabaldu zuten Gernikan, gerrako presoak artatzeko; 265 pertsona hil ziren gutxienez, zaurituen eta gaixoen artean.</p>
Iturriak	<p>AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA (1987) AIAPE ARBE (2011) EGURTXIKI (2013) ELGOYEN (2007) ETXANIZ ORTUÑEZ, PALACIO SÁNCHEZ eta SERRANO BLANQUER (2006) GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA (2007) GRANJA eta ETXANIZ (1998) IRUJO (2012) ITURRIA (2014) IRAZABAL (2007) MAIER (1976) MOMOITIO ASTORIKA (2007) MOMOITIO ASTORIKA eta NUÑEZ MONASTERIO (2012) NIEBEL eta EGAÑA (2012) PATTERSON (2008) RECONDO eta RECONCO (2011) SALAS LARRAZABAL (2012) SOUTHWORTH (2013)</p>
Oharrak	<p>Nabarmenezkoa da bonbardaketaren 75. urteurrenaren harira argitaratu zen argitalpen kopuru handia, eta bereziki aipatzekoa da Gernikako Bakearen Museoa Fundazioak gertakari historiko honen inguruan egin duen edizio eta dokumentazio lana. Bestetik, aipagarria da ere agintari frankistek, 1937tik aurrera, Gernikako bonbardaketarekin zerikusia izan zezakeen dokumentazio oro sistematikoki suntsitu edo desagerrarazteko egin zuten ahalegina; bereziki, hildakoen izen-abizenak (orriak ezabatuz Basurtuko Ospitaleko erregistroetan...). 30 urtez gutxienez, diktaduraren propaganda ofizialak euskal armadari egotzi zion Gernikaren suntsiketa, agerian utziz desinformazioa gerra propagandarako tresna ezin hobea izan daitekeela.</p>

Udalerrria	Getxo
Gertakari historikoa	Mobilizazioa, Areetako Nazioarteko Eremuko Polizia Militarra, aire bonbardaketak, borrokak eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Kostaldeko artilleria, 5. euskal dibisioa, Nazioarteko Eremuko Polizia Militarra. Alde frankista: Abiazioa, Frecce Nere brigada.
Data	1936ko uztailetik 1937ko ekainera.
Deskribapena	<p>Gerra piztean, Guardia Zibikoak izenekoak antolatu ziren Bizkaian, ordena publikoa zaintzeko erretagoardian sortutako milizia inprobisatuak; besteak beste, errepublikanoen mende zeuden lekuetan ohikoak ziren talde iraultzaileen gehiegikeriak saihestea zuten helburu. Guardia Zibikoetan eta haien egitekoan, abertzaleek funtsezko eginkizuna izan zuten, ordena publikoaren zaintzan. Hasieran, Errepublikaren Defentsa Komisaria Nagusia arduratu zen indar horiek kontrolatzeaz, ardura hori berehala kenduko bazioten ere –abuztuaren 13an–, Bizkaiko Defentsa Batzarraren esku utzita. Gero, indar horietako kide batzuek Ordena Publikoko Gorputza eratu zuten, gerran zehar polizia lanak egin eta erretagoardian sor zitezkeen lisakarrei aurre egiteko; beste batzuk, aldiz, unitate militarretan sartu ziren, boluntario edo mobilizatu gisa. Adibidez, Ariztimuño batailoien 3. konpainia (Jatamendi) Areetako txalet batean jaso zuen instrukzioa (sortu berritan, Mungia batailoien barnean egon zen aldi labur batez).</p> <p>1936ko abuztuan, atzerritar diplomatikoak Areetan hutsik zeuden txalet batzuetan ezarri ziren, eta inguru hori Nazioarteko Eremu neutral izendatu zuten agintariek, gerra operazioetatik libre egongo zen eremu, gerra garaian beharrezkoak ziren lan diplomatikoak eta humanitarioak errazteko. Indar abertzaleen ekimenez, Nazioarteko Eremuko Polizia Militarra sortu zen (Nazioarteko Polizia), eremu horren zaintzaz arduratzeko. Zehazki, 1936ko irailaren amaieran sortu zen, indar abertzaleetako kideekin, aurretik Guardia Zibikoetako edo autodefentsa indarretako kide izandakoak horietako asko, gerra piztu zenetik jadanik eskarmentua bazutenak herritarren eta eraikinen babesean. Polizia honen kuartela Abrako Itsas Klubean ezarri zen.</p> <p>Frankisten erantzuna Getxo bonbardatzea izan zen. Zehazki, 1936ko urriaren 21ean gertatu zen, Areetako Nazioarteko Eremuari legitimitate oro kentzeko helburuarekin, izaera ofiziala ukatuz eremu horretan ezarri ziren kontsuletxeei. Erasoak errotik eten zuen Marcel Junod doktore suitzarrak –Gurutze Gorriak Espainian zuen ordezkaria– euskal agintarien laguntzaz abian jarri zuen operazioa, preso trukatzeko handi bat egiteko alde bien artean. Zazpi lagun hil eta bi zauritu izan ziren. Hildakoen artean bi polizia zeuden, Ortuzar eta Ibáñez, Ertzaintzaren bi konpainiari izena emango ziotenak. Bonbardaketa gertatu eta berehala, Nazioarteko Polizia desegin egin zen, eta haren kideak Ertzaintzan sartu ziren. Gerora, Getxok aire eraso gehiago pairatuko zituen; besteak beste, 1936ko urriaren 26an eta 1937ko maiatzaren 10, 11 eta 26an. Itsasoko erasoak aurre egiteko, Getxok San Ignazioko kostaldeko bateria zaharra zuen, 1887an eraikia eta 150 mm-ko 4 piezak osatua. Hasieran, Galea lurmuturrera eramatea pentsatu zen, Getxon bertan, kokaleku hobetzat hartzen zelako. Azkenean, 1936ko urriaren 152 mm-ko bi kanoi moderno (Vickers) ezarri ziren San Ignazion, Reinosako Navaletik ekarriak, eta material zaharra (150 mm) Matxitxakora eraman zen (Bermeo). Getxon, halaber, gerran zehar, kuartelak, Itsas Ordezkaritza bat eta 1.100 ohe inguru zituzten 11 ospitale ezarri ziren.</p> <p>Burdin Hesia apurtu zenean, 1937ko ekainean, Mungia eta kostaldearen artean kokatuta zegoen 5. euskal dibisioak atzera egin zuen, inguratua izateko mehatxuagatik. Hilaren 15ean, Bilboko itsasadarraren ezkeraldera igarotzeko agindua eman zen. 5. euskal brigadak Algortako errepide nagusia erabili zuen horretarako; aldiz, dibisioaren zati batek Portugaleteko zubia erabili zuen, arratsaldean leherkariz botako zutena. Aurretik, aurrez aurreko batzuk izan zituen Berangotik blindatuen laguntzaz zetorren Frecce Nere brigadarekin. Algortan, kintakolumnista frankistek ekin zioten. Azken batailoiak ekainaren 15eko gauean erretiratu ziren: batzuk, Portugaletara, txalupetan; beste batzuk, Erandiora, autobusetan. Ekainaren 16an, Malatesta batailoiko kideak Areetara itzuli ziren, ikusirik bezperan Algorta okupatu zuten frankistak oraindik ez zirela bertara iritsi.</p>

Deskribapena	<p>Kintakolumnistak gogor zigortzeko egitekoa zuten, eta eraikuntza jakin batzuk suntsitzeko. Emaitza 15 hildako izan ziren: ustezko kintakolumnistak eta frankisten aldekotzat hartuak izan ziren zorigaitzoko herritarrak (institutzak britainiar bat, horien artean). Indar errepublikanoak erretiratu ondoren, Frece Nere brigada itsasadarraren bokaleraino iritsi zen, Areetan, eta Getxo matxinatuen esku gelditu zen. Bilbo erori zenean, ekainaren 19an, gau horretan fusil eta metrailadore tiro trukaketak izan ziren itsasadarraren bi ertzen artean, eta egunsentian, ekainaren 20an, italiar agindupeko indarrek patruilak bidali zituzten ezkeraldera. Ehun bat gudari errenditu ziren. Frankistek, gainera, itsaso zabalerantz zihoazen milizianoz betetako txalupa bat hondoratu zuten, 120 mm-ko piezak erabilia.</p> <p>1937ko ekainaren 25ean, Algortan, Juan Ajuriaguerra Bizkai Buru Batzarreko burua eta Da Cunto italiar agregatu militarra elkartu ziren, errendizioaz hitz egiteko. Zehazki, Euzko Gudarostea italiar indarren aurrean errendituko zen, eta, trukean, garaileek biztanleria zibilaren, zaurituen, gudarosteko buruen eta buruzagi politiko-koen bizia errespetatuko zuten. Algortako bilerak lehen urratsa izan behar zuen gero Santoñako Itunean hitzartu nahi izan zen akordiorako, baina gerra gertaerek bilera horretan aurreikusi ziren aukera hipotetikoak gainditu zituzten.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) CELAYA BARTUREN (2009) DELGADO CENDAGORTAGALARZA (2010) LANDA MONTENEGRO (1994) MARTÍNEZ BANDE (1971) ONAINDIA (1983) ROVIGHI eta STEFANI (1994) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	
Observaciones	

Udalerrria	Mungia
Gertakari historikoa	Gondramendiko borrokak, Jatako gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. eta 5. euskal dibisioak. Alde frankista: Frece Nere brigada, XXIII di Marzo agrupazioa eta Nafarroako 5. brigada.
Data	1937ko maiatzaren 14tik 22ra.
Deskribapena	1937ko maiatzaren 14an, frankisten esku erori ziren errepublikanoek Sollube inguruan zituzten azken posizioak, eta euskal tropek mendilerroaren mendebaldeko isurialdea utzi behar izan zuten. Matxinatuek Arrieta-Libao okupatu zuten. Sollubeko gudua amaitzean, Jatamendikoa hasi zen. Frece Nere brigadak eta XXIII di Marzo agrupazioak Jata eta Tollu gailurren ekialdea hartu zuten, Mungia mehatxupearan jarri ipar-ekialdetik; ekialdetik eta hego-ekialdetik, Nafarroako 5. brigadaren eraso zatorren. Gondramendi-Larragan mendilerroa, beraz, Mungiaren azken defentsa aukera zen. Maiatzaren 19an, Jatan eta Mungian Santanderreko tropek euskal-asturiar indarren lekua hartu ondoren, matxinatuek Jata eta aipatutako Mungia ondoko gainak hartzeko azken oldarraldia hasi zuten. Frece Nere brigadak Jata hartu zuten; XXIII. di Marzok, Gondramendi, blindatuen laguntzarekin; azkenik, Larragan Nafarroako 5.aren mende gelditu zen. Biharamunean, Beldarrainek, sektorearen ardura zuen 5. euskal dibisio berriaren buru izendatu berriak, Gondramendi berreskuratzeko kontraerasoa jo zuen, aurrean Asturias batailoia zihoala. Ez zen helburua betetzerik izan, frankisten lehen lerroko taldeek atzera egin behar izan zuten arren, eta bertan behera utzi zen ahalegina, baja gehiago ez izateko. Hilaren 22an, frankistek ofentsiba eten zuten, Nafarroako 5.ak Fruiz eta inguruko kotak okupatu ondoren.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MESA (1994) PIAZZONI (2011) ROVIGHI eta STEFANI (1992/1993) STEER (1978) TALÓN (1988) VARGAS ALONSO (2007)
Oharrak	Steer, maiatzaren 19ko borrokak hizpide hartuta, "existitu ez zen gudua"-z mintzo da, eta Santanderreko tropek erretiratzeko erabilitako aitzakiatzat jotzen du. Nolanahi ere, argi dago Steer ez zela egun horretan han izan.

Udalerria	Igorre
Gertakari historikoa	Igorreko borrokak eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 3. euskal dibisioa. Alde frankista: Nafarroako 2. eta 4. brigadak.
Data	1937ko martxotik ekainera.
Deskribapena	Bizkaiaren aurkako ofentsiba hasi zenean, martxoaren 31n, frankistak Arratiako haranaren mugetara iritsi ziren, Barazar eta Zumeltza mendateak hartuta. Euskal-asturiar tropek Altun eta Saibigain hartzeko jotako kontraerasoek matxinatuen ofentsiba geldiarazi zuten, eta Igorre fronte lerrotik hamar kilometro eskasera gelditu zen. Maiatzaren 22an, Nafarroako 2.ak eta 4.ak Mañariko Haitzak inguratzeko erasoak jo zuten. Hilaren 24an, 3. euskal dibisioak (Ibarrola) atzera egin zuen Arratiako haranaren mendebaldera; matxinatuek, bien bitartean, Mañarian barrena Durangora zihon errepedea kontrolatzea lortu zuten. Igorre eta Areatza ez inoren lurtean gelditu ziren. Maiatzaren 30ean, 3. euskal dibisioaren indarrek errekonozimendu operazio bat egin zuten Igorren eta Areatzan. Iparraldean, Perezaguaren (7. brigada) konpainia batek Igorre berreskuratu zuen; hegoaldean, Arana Goiriren (11. brigada) beste konpainia batek Areatza hartu zuen. Azkenik, ekainaren 15ean, Nafarroako 4. brigadak erasoari ekin zion, bat eginez Bilbo hartzeko oldarraldi nagusiarekin, eta Igorre eta Arantzazu okupatu zituen, Arratiako haraneko errepedea zeharkatuz eta haraneko mendebaldeko gainetarantz joz. Hurrengo egunean, Artea, Gaztelu-Elexabeitia, Areatza eta Zeanuri hartu zituen, mendean hartuz horrela Arratiako haran osoa.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerria	Zornotza
Gertakari historikoa	Ixerangoko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 2. euskal dibisioa, 4. euskal brigada. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 2. brigadak.
Data	1937ko maiatzetik ekainera.
Deskribapena	Bizkargiko gailurren eta Zornotzaren okupazioaren ondoren, maiatzaren 11 eta 18 artean, tropa errepublikanoak erretiradan Lemoaraino eta Bizkargiren mendebaldeko maldetaraino iritsi ziren. Ixerango ingurua (216 kota), Zornotza mendebaldean, gobernuaren aldeko indarren gune gisa gelditu zen. Inguru horretan eta ondoan da goen Lemoako Haitzean, 4. euskal brigadaren indarrak zeuden; horien artean, Martiartu batailoia, Muxikatik atzera etorria maiatzaren lehen erdian. Maiatzaren 29an, Nafarroako 2. brigadak eraso jo zuen, Lemoako Haitza harturik jomuga, eta 172 kota (Zornotza iparraldean) eta 216 kota (Ixerango) hartu zituen lehenik, eta haitza bera, ondoren. Borrokek hainbat egunez iraun zuten (halako batean errepublikanoek haitza berreskuratzea lortu zuten), harik eta, ekainaren 5ean, Lemoako Haitza behin betiko Nafarroako 2.aren esku gelditu zen arte. Hala eta guztiz ere, tropa errepublikanoek Lemoako Haitza eta Ixerango inguruetan jarraitu zuten, Burdin Hesia erori zen arte. Hilaren 13an hasi zen Nafarroako 2. brigadaren ofentsibak atzera egitera behartu zituen Zornotza inguruan zeuden euskal-asturiar tropak. Martiartu batailoia baja asko izan zituen Ixerangon. Maiatzaren 29an, dozenaka baja izan zituen, 9 hildako horien artean, eta hurrengo egunetako hil-zaurituak gehitu behar zaizkio kopuru horri, ehundik gora operazio osoan (hogei bat hildako guztira).
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Bakio, Jatabe-Maruri, Lemoiz, Mungia
Gertakari historikoa	Jatako gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. eta 5. euskal dibisioak. Alde frankista: Frecce Nere brigada, XXIII di Marzo agrupazioa. Tropa frankistak 30.000 gizonek gutxi gorabehera osatzen zituzten.
Data	1937ko maiatzaren 9tik 20ra.
Deskribapena	<p>Burgoa eta Matxixako okupatu ondoren, 1937ko maiatzaren 9an, Frecce Nere brigada Bakion sartu zen; bien bitartean, 9. euskal brigadaren indarrak Jata eta Tollutik erretiratu eta lerro berri bat osatu zuten Asturiasko 4. espedizio brigadaren indarrekin eta euskal armadaren erreformatu unitateekin (Eusko Abertzale Ekintzako 3. batailoia-ekin, besteak beste). Hainbat egunez borrokan aritu ondoren, Solluberen gainaldean eta Arrieta inguruetan, maiatzaren 12an, Nafarroako 5. brigadak porrot egin zuen errepublikanoak mendilerro horretatik kanporatzeko ahaleginean; aldiz, Frecce Nere brigadak bertan behera utzi zuen Jatamendi erasotzeko saioa, Alemaniako Condor Legioak eta Italiako Aviazione Legionariak zehaztasun handiz bonbardatu bazuten ere eremu hori: Jatamendi ekialdea, alemaniarrek; Tollu ingurua, italiarrek. Maiatzaren 13a bare igaro zen, bonbardaketek eragindako suteek pizturik jarraitzen bazuten ere. Maiatzaren 14an, frankistek eraso jo zuten: Sollubeko guduaren azken eguna eta Jatamendikoaren lehenengoa izan zen. Nafarroako 5.ak Sollube mendebaldeko maldak hartzen zituen bitartean, italiar agindupeko tropak Jatamendi hartzen saiatu ziren. Frecce Nere brigadak erasoari ekin zion, XXIII di Marzo agrupazioaren batailoiek lagunduta. Operazioak artilleria erasoarekin hasi behar zuen, itsasotik, lurretik eta airetik. Hala eta guztiz ere, Condor Legioak huts egin zuen, ez baitzen agertu, eta Italiako legio abiazioak parte hartu behar izan zuen, ordu batzuk geroago. Farina zutabea Jataren ekialdeko isurian gora abiatu zen, baina ez zuen gailur nagusietara iristerik izan, eta bi blindatu galdu zituen. 3. erregimentuak emaitza hobea lortu zuen, Tollu mendean hartuz. Hala ere, ez zuen lortu Jata hegoaldean aurrera egitea. 9. euskal brigadaren indarrek itxi zioten bidea, beste unitate batzuen laguntzaz (Zergaitik Ez batailoia). Egun horren amaieran, JSUren Octubre batailoiak kontraeraso indartsua jo zuen, eta atzera eginarazi zituen italiar agindupean borrokatzen ziren tropak, baja asko izan bazituen ere.</p> <p>Hilaren 17an, Mungia eta kostaldearen arteko sektorea 5. euskal dibisio berriaren ardurapean gelditu zen, inguru horretan zeuden 1. dibisioaren unitateekin osatu zena. Azkenik, maiatzaren 19an, frankistek eraso jo zuten: Frecce Nere brigadak Jatamendira bideratu zituen ahalegin guztiak; XXIII di Marzo agrupazioa frontearen erdiguneaz arduratu zen bete-betean, jomuga Gondramendin jarririk; eta Nafarroako 5.a Larragan gailurra mendean hartzen saiatu zen, Mungia-Sollube errepidearen ekialdean. Bonbardaketa suntsigarri baten ondoren, helburuak bete zituzten. Italiar agindupean ziharduten indarrek Santanderreko 106. eta 139. batailoiak xehatu zituzten (250 hil-zauritu inguru izan zituzten). Biharamunean, 8. euskal brigadaren indarrek erantzun zuten, eta Gondramendi berreskuratzeko zorian egon ziren. Azkenik, maiatzaren 22an, frankisten ofentsiba amaitu zen. Mungia-ateetara iritsiak ziren.</p>
Iturriak	ALCOFAR NASSAES (1972) AZNAR (1961) BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MESA (1994) PIAZZONI (2011) ROVIGHI eta STEFANI (1992/1993) SALAS LARRAZABAL (1998) STEER (1978) TALÓN (1988) VARGAS ALONSO (2007)
Oharrak	

Udalerrria	Markina-Xemein, Etxebarri, Eibar, Elgoibar
Gertakari historikoa	Kalamuako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako fronteko miliziak eta batailoiak. Alde frankista: Díez de Riveraren Taldea, Nafarroako 2. brigada.
Data	1936ko irailetik 1937ko apirilera.
Deskribapena	<p>Kalamuako gudua irailaren 28an hasi zen, Díez de Rivera Taldearen indar frankistek, Markinarako bidean aurrera egin ezinik, ezkererantz jotzea erabaki zutenean, Eibar hartzeko ahaleginean laguntzeko, iparraldetik. Egun horretan, Díez de Riveraren tropek Kalamua hartu zuten. Bi konpainia eskuin hegala zaintzen gelditu ziren, Barinaga eta Etxebarria arteko errepidetik hurbil zeuden posizio errepublikanoen aurrean. Bien bitartean, taldearen zatirik handiena Arrateraino iritsi zen, eta San Pedro basiliza ere okupatu zuen. Presoren bat edo beste hartuta, berehala fusilatu zituzten. Arraten, Díez de Riverak telefono bat aurkitu zuen, Eibarrekin komunikazio zuzena zuena. Agintari errepublikanoak engainatzen saiatu zen, bere burua errepublikanoentzat aurkeztuz eta errefortzuak bidal zitatzela eskatuz, Arratera iritsi bezain pronto segada batean sarraskitzeko. Goizaldean, huts egin zuen tropa errepublikanoek (Santanderreko unitate bat, ingurura iritsi berria, eta Amuategi batailoia) Arraten zeuden frankistak ustekabean harrapatzeko egin zuten ahaleginak. Markinatik etorritako indarrek Arrate-Kalamua lerroaren aurka jada egunez eginiko hurrengo erasoek ere porrot egin zuten. Baita irailaren 30ekoek ere.</p> <p>Egun horretan, indar errepublikanoek presio egin zuten frankistek Maltzagako errepidetan zituzten posizioen aurka, baita Arrate eta Kalamuan zituztenen aurka ere. Gorputzez gorputz ere borrokatu ziren. Dena dela, erreketeez hutsean utzi zituzten errepublikanoen ahalegin guztiak. Urriaren 2an, erreketete bat galdu zen Kalamua inguruan, eta San Andres batailoiko kideek preso hartu zuten. Revillaren arabera, Eibarrera eraman eta fusilatu egin zuten. Urriaren 4an, porrot egin zuten alde bien erasoek: frankistena, Elgetan eta Intxortan; errepublikanoena, Kalamuan (Lakarreko 4. konpainiaren posizioen aurka). Urriaren 6ko aurrez aurrekoetan, Rosa Luxemburgo batailoi errepublikanoak hartu zuen bere gain erasoaren ardua handiena, ezer gutxi lortu bazuen ere. Errefortzuak iritsi ondoren (UGTren 5.a eta Rusia batailoiak), errepublikanoek eraso gehiago jo zituzten, urriaren 8an eta 21ean, alferrikakoak izan baziren ere; hilaren 21eko oldarraldian, euskal tropek gogor erasotu zuten Markina (Kalamua) eta kostaldearen arteko frontean, Eibar inguruan ere ahaleginak egiten ziren bitartean. Alde biek hil-zauritu asko izan bazituzten ere, alde errepublikanoak baja gehiago izan zituen. UGTren 1. batailoiak triskantza izan zuen, eta komandantea ere galdu zuen, Fulgencio Mateos, Bilboko zinegotzi sozialista izandakoa; handik aurrera, izen hori erabiliko zuen buru izan zuenaren omenez. Abenduaren 15ean eta 26an, "muino berdea" deitzen zuten posizioaren aurka jo zuten frankistek; errepublikanoentzat, Kalamuako San Andres zen. Erreketeez atzera egin behar izan zuten bi ahalegin horietan, Celta batailoi errepublikanoaren erantzun indartsuagatik. 1937ko lehen hilabeteetan, alde bien arteko borroka txikiek eta bonbardaketek jarraitu zuten, harik eta Elorrio eta Eibarren erorketek Gipuzkoako frontearen hondoratzea eragin zuten arte. Errepublikanoek Kalamua eta kostaldearen arteko posizioak abandonatu zituzten, eta, apirilaren 27an, Markina, Etxebarria eta Urberuaga frankisten esku gelditu ziren.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) JUARISTI LARRINAGA (2008) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	

Udalerria	Elorrio, Arrasate
Gertakari historikoa	Kanpanzar eta Udalako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1936ko irail-urrian, Garellanoko mendiko batailoiaz gainera, UHP eta Zabalbide batailoiak, Iñaki San Miguel konpainia (gero Ibaizabal batailoian sartuko zena), beste unitate batzuk eta blindatu bat aritu ziren. Gero, 1937ko apirilean, batailoierreleboak izan ziren: Kanpanzar-Udala eremuan, UHP, González Peña, Celta eta Malatesta batailoiak aritu ziren. Alde frankista: Alonso Vega zutabea, 1936ko irailean; Nafarroako 1. eta 4. brigadak, 1937ko apirilean.
Data	1936ko irailaren 26tik urriaren 4ra, eta 1937ko apirilaren 19tik 23ra.
Deskribapena	1936ko irailaren 26an, Arabako Alonso Vega zutabea Arrasaten sartu zen, artilleriaren eta metrailadoreen laguntzaz. Errepublikanoak Kanpanzarrera erretiratu eta fronte berria ezarri zuten, erresistentzia koordinatzera iritsi berria zen Ibarrolaren koordinaziopean. Irailaren 27an, Alonso Vega zutabe frankista ez aurrera ez atzera gelditu zen artilleria errepublikanoaren etengabeko bonbardaketatik, ordurako hasia bazen ere erabakigarria izatea espero zen kontraerasoa prestatzen, beste indar batzuekin batera, Angiozar eta Arrasate iparraldearen arteko fronte errepublikanoa apurtzeko. Azkenik, urriaren 4an, huts egin zuen zutabe horrek eta Tejero agrupazioak frontea apurtzeko batera jo zuten erasoak: lehenak Kanpanzarren jarria zuen jomuga; bigarrenak, Intxortan. Kanpanzarren, Gallastegi konpainia (UHP batailoioa) eta Zabalbide batailoia aritu ziren. Azken hori irailaren 22an iritsi zen frontera eta hilaren 25ean ekin zion borrokari, bere kide guztientzako arma nahikorik gabe; irailaren 26 eta 28 artean, 434 fusil jaso zituen, eta urriaren 4ko Kanpanzarko guduaren parte hartu zuen. 1937ko apirilean, frontea apurtu egin zen. Nafarroako 4. brigadaren indarrak Elgetan eta Intxortan ez aurrera ez atzera bazeuden ere, euskal tropen erresistentzia gogorragatik, 1. brigada Aramaiotik Memaiarantz abiatu eta Elorrio hartu zuen. Horrela, Udala, Kanpanzar eta Intxorta erori ziren, mugimendu inguratzaile baten bidez, eta Gipuzkoako frontearen hondoratzea azkartu zuen horrek. Udalako posizioen aurkako bonbardaketa indartsuek hil-zauritu ugari eragin zituzten CNTko indarren artean, eta erretiratu egin ziren. Elorrioren erorketa erretirada horri egotzi zitzaion.
Iturriak	BELDARRAIN (1980) BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Beldarrain Intxortako gudua aztertu duen egile nagusia da, eta joera izan du beti indar abertzaleek eta haien buruek izan zuten egiteko erabakigarria goraiatzeko. Hala ere, badirudi ez zuela informazio zehatzik jaso Ibarrolaren indarrek 1936ko urriaren 4an Alonso Vegaren ofentsiba gelditzeko Kanpanzarren izan zuten funtsezko zereginari buruz.

Udalerrria	Balmaseda
Gertakari historikoa	Kolitzako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1937ko ekainaren amaieran eta uztailaren hasieran, B dibisioa aritu zen, Santanderreko 12. brigadarekin (Bizkaian, 2. brigada ibiltaria edo 2. espedizio brigada ere deitzen zioten –101., 102. eta 122. batailoiak–), eta 2. gorputzeko errefortzuak (133. batailoia). Uztailaren amaieran, 2. euskal dibisioa sartu zen borrokan, lehen lerroan aritu ziren 6. eta 12. brigadekin, eta 9. arekin. Alde frankista: ekainaren amaieran eta uztailaren hasieran, Nafarroako 3., 4. eta 5. brigadak aritu ziren; uztailaren amaieran, 3.a eta 6.a.
Data	1937ko ekainaren 29tik uztailaren 29ra.
Deskripzioa	<p>Ekainaren 29an, Nafarroako 4. brigadak Balmaseda okupatu zuen, 5.ak hegoaldeetik lagunduta. Gainera, Garbea, Castillejos eta Sabugal gainaldeak ere hartu zituen; biharamunean, La Nevera tontorra menderatu ondoren, Nafarroako 3.ak hartu zuen haren lekua. Santanderreko unitateek kontraeraso sail bati ekin zioten, Balmaseda mendebaldeko gainetan ezarririk jomuga, alferrikakoak izan baziren ere. Azkenean, indar errepublikanoek Madrilgo frontean hasi zuten ofentsibak (Bruneteko gudua) Nafarroako brigaden erasoaldia geldiarazi zuen. Errepublikanoek hil-zauritu ugari izan zituzten; 12. brigadak, bereziki (2. brigada ibiltaria edo 2. espedizio brigada). Bruneteko gudua amaitu bitartean, Iparraldeko Armadaren buruek operazio militar sail bat antolatu zuten penintsula erdialdean ziharduen armada errepublikanoari laguntzeko. Ahalegin handiena Asturiasen egingo zen, abuztuaren 1etik aurrera. Bien bitartean, berrantolatutako euskal armadak eraso mugatu bat jo zuen, Balmaseda mehatxupean jartzeko, Asturiasko ofentsiba hasi baino egun batzuk lehenago. 2. euskal dibisioa (49. dibisioa) arduratuko zen erasoaz, 6. eta 12. brigadekin; 9.a erre-serban geldituko zen, zain, dibisiokideek zer egingo.</p> <p>Euskal ofentsiba uztailaren 27an hasi zen, Castro Alen, Sabugal eta La Nevera gailurrak izanik hasierako jomugak, eta aurrez aurrekoek uztailaren 29ra arte iraun zuten. 12. euskal brigadak eraso jo zuen Koltiza eta inguruko posizioen aurka, eta frankistek jarritako alanbre hesiraino iritsi bazen ere, ez zuen hesi hori gainditerik izan. Porrot odoltsua izan zen. 6. brigadak iparralderago erasotu zuen, eta helburuak betetzeko zorian egon zen. Haren kemenak laudorioak jaso zituen, Lamas Arroyo buru frankistarenak barne; azken hori, bere behatokitik, ofentsibaren akatsez jabetu zen, eta ez zuen ezer egin abian zen operazioaren bilakaera aldatu eta euskal tropen sarraskia saihesteko. Iluntzean, 6.ak atzera egin zuen, dozenaka hil-zauritu utzi alanbre hesian. Uztailaren 28an, euskal armadak Balmaseda hartzeko abian jarritako eraso betean, Errepublikaren Erdialdeko Armadatik etorri berria zen Adolfo Prada koronelak hartu zuen Vidal koronelaren lekua.</p> <p>Guduak ondorio lazarriak izan zituen alde bietako zibilentzat. Uztailaren 27an, indar errepublikanoen aire bonbardaketa batek 6 lagun hil zituen (4 ume, horien artean), Balmaseda eta Pandozales auzoaren artean kokatuta zegoen bateria frankista suntsitzeko ahaleginean. Militarrek beste herritar bat hil zuten, gazte batzuek komunikazio kable batzuk mozteaz faltsuki salatu zutenean. Hilaren 29an, abiazio frankistak triskantza eragin zuen Turtziozen, eta 21 lagun hil zituen, artilleria asentamendu batzuk desegiten saiatzen ari zirenean, antza.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) ETXEBARRIA MIRONES eta ETXEBARRIA MIRONES (1993) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1972) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Larrabetzu
Gertakari historikoa	Larrabetzuko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa (Gómez), kuartel nagusia Lezaman zuena, hiru brigada (14. eta 17. euskal brigadak eta Asturiasko 2.a) eta 2. euskal brigadatik Bizkargiko sektorea sendotzeko bidalitako bi batailoi (14. euskal brigada). Bilbo hartzeko frankisten azken ofentsiba hasi zenean, euskal armadaren bi erreserba brigadek (6.a eta 12.a), Asturiasko 4.ak eta Burdin Hesiaren defentsari lotutako mediko brigadak parte hartu zuten. Alde frankista: Nafarroako 1., 5. eta 6. brigadak.
Data	1937ko ekaina.
Deskribapena	<p>1937ko ekainaren 11n, Bilbo jomugan zuen azken ofentsiba hasi zen. Indar frankistek erasoak jo zuten Burdin Hesiaren aurrean zeuden posizio errepublikanoen aurka, Urkuluko puntatik (Bizkargi ipar-mendebaldean) Fikaraino; helburuak bete zituzten, euskal-asturiar tropak suntsitu zituzten borroka gogorren ondoren. Euskal armadaren erreserba batailoiek gauez Urkulu eta inguruko posizioak berreskuratzeko egin zituzten kontraerasoek porrot egin zuten, eta baja ugari izan zituzten, adoregabetzen hasiak ziren unitate horien higadura areagotuz.</p> <p>Ekainaren 12an, beren posizio berrietatik abiatuta, Nafarroako hiru brigadek Burdin Hesia apurtu zuten, aire eta artilleria bonbardaketa indartsuen laguntzaz (144 artilleria pieza eta 110 hegazkin). Ekialdetik mendebaldera, Nafarroako 1. brigadak Kantoibaso hartu zuen, eta ezkererantz eginez, Gaztelumendi; hortik abiatuta, alde bietara hedatu eta honako kota hauetan kokatuta zeuden defentsak harrapatu zituen atzetik: 298 eta 274 kotak (Gaztelumendi ekialdean), 243 kota (hegoaldean) eta Irurimendi (hego-mendebaldean). Horrela, posizio garrantzitsuak irabazi zituen, Larrabetzu eta Goikoelexearen atzealdean. Nafarroako 5. brigadak, bere aldetik, Kantoibaso ipar-mendebaldean apurtu zuen Burdin Hesia, eta aurrera jarraitu zuen, Goitioitza eta Garaiotza auzoetaraino, eta Lezama iparraldean dagoen San Bizente basilizaraino. Azkenik, Nafarroako 6.ak Urrustin apurtu zuen Hesia, eta 347 eta 349 kotak bereganatu zituen.</p> <p>Ekainaren 13an, erasotzaileek azken kolpea eman zioten Burdin Hesiari. Nafarroako 1. brigadak Larrabetzuko gotorlekuak inguratu eta herria okupatu zuen, heriotza eta triskantza eraginez. Larrabetzu-Lemoa errepidea zeharkatu zuen, bat egin nahirik Zornotza eta Bizkargi hegoaldearen artean erasoari ekin zion Nafarroako 2. brigadarekin. Larrabetzu hego-mendebaldean, 1. brigadak Ganguren eta ondoko kotak hartu zituen, Enekuritik Galdakao iparralderaino doan mendilerroan. 5. brigadak Lezama eta Zamudio okupatu zituen, bi udalerrien arteko errepidea zeharkatuz eta Santa Marinako gainetara igoz; ondoren, mendebalderantz jo zuen, Santo Domingorantz, Derio-Bilbo errepidea mendean zuen eremurantz. Nafarroako 6. brigadak Burdin Hesiko posizioak hartzen jarraitu zuen, Urrusti ipar-mendebaldean (Berriaga, Artebakarra eta Mantuliz), eta egunaren amaieran, Deriora eta Sondikako aerodromora (alferrikakoa errepublikanoentzat) hurbildu zen.</p> <p>Gudua erabakita zegoen, neurri handi batean, oraindik borroka gogorak izango baziren ere ekainaren 19an frankistak Bilbon sartu ziren arte. 1. euskal dibisioa deseginda zegoen, baita erreserbak eta batailoi ugari ere, eta Burdin Hesian irekitako zuloak ixten saiatzen baziren ere, ahalegin horrek egitura sendoagoa eta, batez ere, material egokia –errepublikanoek ez zutena– behar zituen. 2. euskal dibisioak, aldiz, iparraldean zuen mehatxua, eta 1.a bezain bizkor hondoratzeaz zegoen. Hiru egunetan, frankistek Burdin Hesiaren defentsak desegin eta euskal tropen ia erdiak xehatu zituzten; mila baja inguru izan zituzten. Euskal armadak, aldiz, 4.000 baja inguru izan zituen; hildakoak eta preso eroritakoak, horien erdiak.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) HERRERA (1974) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Mungia
Gertakari historikoa	Bonbardaketak, borrokak eta Larrauriren okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa. Alde frankista: Nafarroako 5. brigada.
Data	Apirilaren 30etik ekainaren 13ra.
Deskribapena	<p>Sollubeko gudua hasi zenean, Larrauriko auzoa (Mungia eta Sollubeko mendatearen artean kokatua, inguruko beste auzo batzuekin batera Mungia-Bermeo errepi-dea kontrolatzeko base egokia) euskal tropak hornitzeko gune bihurtu zen. Auzoan, Solluberantz zihoazen tropak eta materialak bildu ziren, eta horrek jomuga bihurtu zuen indar matxinatuentzat. Maiatzaren 3an, Bermeon setiatuta zeuden italiar agindu- dupeko tropak askatu eta mendikatearen ekialdeko borroka eremuak berengana- tzeko frankistek abian jarri zuten ofentsiba handian, gerra hegazkinek aire eraso gogorak egin zituzten Muxika eta kostaldearen arteko frontearen erretagoardian zeuden komunikazio ardatz eta herriguneeen aurka. Egun horretan, frankisten bonba su eragileek Sollubeko bi isurialdeak kiskali zituzten, eta Sollube-Mungia errepi-dea- ren aurkako aire erasoek biktima ugari eragin zituzten Larraurin; 20 hildako (herrita- rrak nahiz gudariak), horien artean. Hildako militarren artean, Isaac Puente batai- loiko milizianoak zeuden, guduan lehen esku-hartze labur bat izan ondoren unitatea erretiradan zihoanean eroriak. Meñakan, Errigoitin eta Morgan ere hil-zaurituak izan ziren; zibilak, horien artean.</p> <p>Larrauri auzoaren aurkako aire erasoaldiak ez zuen etenik izan, Solluben borrokak areagotu egin ziren bitartean. Maiatzaren 8an, Nafarroako 5.aren ustekabeko eraso batek atzera eginarazi zituen Sollube eta kostaldearen arteko lerroan zeuden eus- kal-asturiar tropak, eta beste erresistentzia lerro bat ezarri zen, Larrauri inguruan eta Jatamendi hegoaldearen eta Arrieta-Libaoren artean kokatutako auzoek eratzen zu- ten ardatzean. Erresistentzia lerro horretan, Larraurik berebiziko garrantzia izan zuen, baita inguruko auzune eta herriguneez ere, Bermeo-Mungia errepidetik etor zitezkeen tropei aurre egiteko gune modura. Egun horretan, miliziano talde sakabanatu bat iritsi zen mendian barrena ihesean Larraurira, horietako batzuk zaurituak; artilleria sekzio bateko kideak ziren, Sollubeko mendatean behera kamioietan erretiradan zihoazela Marokoko mertzenarioek ustekabean harrapatu eta sarraskitu zituztenak.</p> <p>Maiatzaren 9tik aurrera, Larrauri eta inguruko auzo eta herrigune ardatza abiapuntu izan ziren euskal-asturiar indarren kontraerasoetarako, eta mendilerroaren mendebal- deko isurialdeko posizioak sendotu ahal izan zituzten, Sollube berreskuratzeko ahale- gina prestatzeko. Frankisten ekainaren 12ko erasoak huts egin bazuen ere, ekaina- ren 14koak helburua bete zuen, eta indar errepublikanoak kanporatu zituzten Sollube mendebaldetik. 1. euskal dibisioaren defentsa lerro berria Larraurin eta inguruan ez- ker-eskuin zeuden auzoetan ezarri zen. Defentsa indarrak 5. euskal dibisio berrian egituratu ziren, eginkizuntzat zuena Mungiatik itsasoraino hedatzen zen frontearen zaintza. Azkenik, maiatzaren 19an, matxinatuen beste oldarraldi batek Jatamendi eta Mungia ekialdearen arteko posizio errepublikanoak desegin zituen. Nafarroako 5. bri- gadak Larrauri auzoa hartu zuen, eta frontea Mungia-atearaino iritsi zen.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) STEER (1978) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007)
Oharrak	

Udalerria	Laukiz, Loiu
Gertakari historikoa	Unbe, Mantuliz eta Lañomendiko borrokak, eta Laukizen okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 5. euskal dibisioa. Alde frankista: Nafarroako 6. brigada.
Data	1937ko ekainaren 14tik 15era.
Deskribapena	Ekainaren 14an, Nafarroako 6. brigadak Derio eta Artebakarra mendebaldeko gainak hartu zituen, eta Artxanda iparralderantz abiatu zen. 5. euskal dibisioak (Beldarrain) ipar-mendebalde/hego-ekialde noranzkoan kontraeraso gogor bat jotzeko baimena eskatu zuen, hegaletik harrapatzeko Burdin Hesia apurtu zuten indarrak, Bilboren azken defentsa lerroa –Enekuri eta Santo Domingo artean– menderatzeko ahaleginean zihardutenak. Aginte Gorenak uko egin zion kontraeraso horri, eta 5. dibisioa desegin zuen. Brigadetan, Bilboren defentsa sendotzera bidali zuen, Bilboko itsasadarraren ezkerraldera, hain zuzen. Nolanahi ere, Beldarrainek aukera izan zuen kontraeraso partzial bat jotzeko, Nafarroako 6. brigadaren eskuin hegalaren aurka, haren atal nagusia hegoalderantz, Artxandarantz, zihoala baliaturik. Egun bereko ilunabarrean, Ibaizabal batailoiak eraso jo eta Lañomendi hartu zuen, baja askorekin; bien bitartean, Unbetik abiatuta, UGTren 7.ak Mantulizen jarri zuen jomuga; batailoi frankista bat ezustean harrapatu eta 80 preso hartu zituen. Fermín Galán eta Irintzi batailoien laguntza izan zuten. Azkenean, errepublikanoek atzera egin behar izan zuten, Nafarroako 6. brigadak kontraeraso jo eta ekainaren 15ko goizean galdutako posizioak berreskuratu zituenean. Ekainaren 16an, 5. dibisioa erretiratzeko ari zela, Bilbora Erandion barrena eta itsasadarraren ezkerraldera, 6. brigada Sondikan eta Asuan sartu zen, eta Unbe gaina menderatu zuen, bat eginez Laukizen Frece Nere brigadarekin (egun horretan bertan Areetara iritsi zena).
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) STEER (1978) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Leioa
Gertakari historikoa	Mobilizazioa, Lamiakoko aerodromoa eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Batailoi bihurtutako hasierako miliziak, Armadaren Abiazio Zerbitzua (gero Euskal Armadaren Eskuadrilla izango zena) eta Espainiako Errepublikaren Aire Indarrak (FARE). Alde frankista: Armadaren Abiazio Zerbitzua, Alemaniako Condor Legioa eta Italiako Legio Abiazioa.
Data	1936ko uztailetik ekainera.
Deskribapena	<p>Gerra piztean, Gobernu Zibilak eta Bizkaiko Defentsa Batzarrak kontrolatzen zituzten indar zibikoak mobilizatu ziren. Boluntario taldeek –lehenik– eta mobilizatuek –ondoren– bat egin zuten 1936ko udan eta udazkenean antolatu ziren batailoiekin, ideologiaren arabera. Gainera, gerrarako materialak sor zituzketen fabrikak eta industriak ere mobilizatu ziren, Lamiakon batez ere, itsasadarretik hurbil zegoen udalerriko industrialdean. Lamiakon, gainera, aerodromo bat prestatu zen, itsasadarraren ondoan, Lamiakoko hipodromo zaharraren eremuetan, Delta fabrikaren alboan. Kilometro bat luze eta 250 metro zabal zen, eta antiaereo bakar bat zuen. Aerodromoa abiazio frankistaren jomuga nagusi izan zen gerra osoan, eta lehen erasoaren abuztuaren 10ean nozitu zuen.</p> <p>Leioa 20 bat aldiz bonbardatu zuten, aerodromoa ez ezik, baita hirigunea eta auzoak ere (Artaza, La Vidriera fabrika...). 1936ko amaiera aldera, Euskal Eskuadrillako eta “Krone Zirko” izenekoaren ehiza hegazkinak aieratzen hasi ziren Lamiakoko aerodromotik. Irailaren 17tik 19ra, bost hegazkin errepublikanoek Gasteiz bonbardatu zuten: hiriko kuartelak jo eta 10 hildako eragin zituzten (zortzi militar eta 2 zibil). Aireko errepublikano batek (Breguet bat) istripua izan zuen Lamiakon lurreratzean. Hil bereko 25ean eta 26an, frankisten hegazkinak Bilbo, Lamiakoko aerodromoa eta portu eremua bonbardatu zituzten (6 ehiza hegazkin eta 9 bonbaketari); aldiz, errepublikanoek Eskoriatza jo zuten, ehiza hegazkin batek eskoltatuko 2 bonbaketariren bidez. Erasoak pertsona bat zauritu zuen. Bonbaketariek kalte arinak izan bazituzten ere, Lamiakora itzultzea lortu zuten. Alemaniako pilotuek bi hegazkin bota zituztela uste izan zuten, eta garaipentzat hartu zituzten. Biharamunean, matxuratutako hegazkin errepublikanoetako bat (Vickers bat) –jada konpondua– aieratu eta Arrasaten erasotu zuen.</p> <p>Legutioko guduan, aire borrokek garrantzi handia izan zuten, eta bereziki aipatzeak dira abenduan gertaturikoak. Hil horren 5ean eta 12an, errepublikanoek airez erasotu zituzten Gasteizko aerodromoa eta Martínez de Aragón izeneko (Elorriaga eta Oñati artean), eta lurrian zeuden hegazkinak eta hangarrak suntsitu zituztela adierazi zuten (iturri frankistek hegazkin batek izan zituen kalteetara mugatu zituzten galerak). Ehiza hegazkin errepublikanoetako pilotuek, gainera, egun horietan 6 aireko bota zituztela jakinarazi zuten, egiazki He-51 bat bakarrik bota zutela dirudien arren. Frankistek, beren aldetik, beste 6 hegazkin bota zituztela adierazi bazuten ere, badirudi aire borroketan errepublikanoek 2 bonbaketari zaharkitu eta ehiza hegazkin bat (lurreratzean) galdu zituztela. Garai horretan, Errepublikaren aldeko ehiza hegazkinetako pilotuak sobietarrak ziren, eta Boris Alexandrovich Turchanskii kapitainaren agindupean ziharduten (Boris Maranchov izenez ere ezaguna), zauri larriak izango zituen. Hegazkin kopuru handiena, Lamiakoko aerodromoan, garai horretan izan zen: 20 bat hegazkin, 9 errusiar ehiza hegazkin barne.</p> <p>1937ko urtarrilaren 3an, abiazio frankistak Erandio, Sestao eta Bediako lantegiak bonbardatu zituen, kalte materialak eta hil-zaurituak eraginez (hildako bat eta hainbat zauritu). Biharamunean, Bilbo jarri zuen jomugan; dena dela, Lamiakoko ehiza hegazkinak frankisten errekonozimendu airekoak sakabanatu zituzten. Arratsaldean, Burgostik aieratutako 5 Ju-52 alemaniarrek eta Gasteiztik aieratutako 4 Fokker espainiarrek, Alemaniako 13 Heinkel He-51 ehiza hegazkinak lagunduta, Bilbo bonbardatu zuten, 5 hildako zibil eraginez gutxienez. Alde errepublikanoak, erasoari erantzuteko, kanoi antiaereoak eta Euskal Eskuadrillako 8 ehiza hegazkin erabili zituen. Condor Legioko Ju-52 bat jo eta Arraitz mendian erori zen.</p> <p>Matxinatuen beste 2 airekok kalteak izan zituzten. “Chato”-ak eta He-51 ehiza hegazkinak aurrez aurre jarri zituen borroka nahasian, lehenengoetako bi ukituak izan ziren: bata lurreratzea lortu zuen, errusiar pilotu batek gidatuta; besteak lurra jo zuen,</p>

<p>Deskribapena</p>	<p>Zeberion, eta Juan Roldán pilotu errepublikanoa hil egin zen. Zenbait iturriren arabera, bi hegazkinak erori ziren, eta bizirik irten zen pilotuak paraxutean salto egin zuen. Alemaniako pilotu bat harrapatu eta beste bat hil zuten, lurrera iristean. Hainbat iturriren arabera, jendetzak lintxatu zuen, eta herrestan eraman zuten haren gorpua. Ondoren, kartzelak asaltatu eta berrehundik gora preso sarraskitu zituzten, ordena zaintzeko eginkizuna zuten tropek lagunduta.</p> <p>Molak Bizkaiaaren aurka hasitako ofentsiban, apirilaren 6 eta 7an, Condor Legioko eskudrilla esperimentalaren izenekoak (bonbaketari azkarrek osatua) Lamiako eta Santanderreko aerodromoak bonbardatu zituen. Apirilaren 6an, gainera, Alemaniako Me-109 ehiza hegazkin berriek beren nagusitasuna utzi zuten agerian, errepublikanoen Letov ehiza hegazkin zaharkitu bat lurrera botaz eta pilotua preso hartuz. Hilaren 9an, bonbaketari frankistek Lamiakoko aerodromoaren aurka ekin zioten berriro; indar erasotzaileen sei He-70 airekok atzera egin behar izan zuten Polikarpovek behartuta. Apirilaren 13an, Dornier Do-17 hegazkinak erasotu zuten berriro, eta zazpi Bf-109 eta hiru Polikarpov I-15 aritu ziren elkarren aurka, kalterik gabe bi aldeentzat. Apirilaren 15ean, Me-109 eta Dornier DO-17 hegazkinak Bilbo erasotu zuten, eta berriro ere Bf-109 ehiza hegazkinak bere nagusitasuna erakutsi zuten, I-15 bat botatzean (pilotu errepublikanoa hil zen). Galera horri, aurreko egunetako erasoetan Lamiakon erabiltezin gelditutako mota bereko lau ehiza hegazkinak gehitu behar zitzaizkion. Errepublikaren abiazioa ehiza hegazkinik gabe gelditzen ari zen. Indar errepublikanoek inoiz ez zituzten sei ehiza hegazkin baino gehiago eduki; aldiz, matxinatuek mota horretako dozenaka aireko zituzten. Apirilaren 15ean, errusiar ehiza hegazkin bat bota zuten, eta pilotua hil egin zen; apirilaren 18an, sei airekoak (hiru He-111 eta hiru Do-17) Bilbo erasotu zuten, beste zazpik (He-70) Lamiako zigortzen zuten bitartean. Hiriburuaren aurkako erasoan, zibil ugari hil ziren, Cotorruelo lantegian zegoen aterpearen sabaia erortzean. Guztira, 74 hildako eta 60 zauritu izan ziren, gutxi gorabehera (Steerren arabera, 67 hildako eta 110 zauritu, zauriek hildakoak kontuan hartu ez bazituen ere, eta litekeena da ospitaleratu ez zituzten zauritu arinak ere zenbatzea). Bilboren aurkako bonbardaketa bakar batean izandako hildako kopururik handiena izan zen. Hurrengo bonbardaketa hilgarriena aurreko urteko irailaren 25ekoa izan zen: 54 hildako eragin zituen gutxienez, orduko hartan ehunka zauritu izan baziren ere. Nolanahi ere, Polikarpov ehiza hegazkinak alemaniar aireko bat botatzea lortu zuten (hiru tripulanteak hil ziren), eta beste bat jo zuten. Apirilaren 20an, Lamiakoko "chato"-ek Breguet XIX zaharkitu bat bota zuten; hilaren 22an, Me-109 hegazkinak euskal eskudrillako pilotu burua botatzea lortu zuten, Felipe del Río, ezustean harrapatuta Lamiakora iristear zela (Lamiako eta Sondika bonbardatu zituzten). Gertakari horren ondoren, bizirik irten ziren pilotuek Santanderrera joateko agindua jaso zuten.</p> <p>Maiatzaren 12an, frankistek aire bonbardaketa ugari egin zituzten; besteak beste, Lamiakon berriro ere, ordurako aerodromoan ia hegazkinik gelditzen ez bazen ere, Santanderrera eraman zituztelako. Handik aurrera, errepublikanoak hegazkinak Sondikara eta Santanderrera bideratzen saiatuko ziren, eta Arenako hondartzako eremua ere egokitu zuten, Somorrostron. Dena dela, hegazkinak ez zuten iristerik izan, Frantzian lur hartu behar izan zutelako edo eginahalean bota zituztelako, matxinatuen etengabeko erasoetan (hala nola ehiza hegazkin bat baino gehiago suntsitu zituen eraso frankista, ekainaren hasieran). Ekainaren 17an, frankistak Leioan eta Lamiakoko aerodromoan sartu ziren, eta 4 hegazkin aurkitu zituzten (bi erabiltezinak eta beste bi kiskaliak), eta 30 abiazio motor (erdiak erabiltezinak), olio eta abiazio bonbak. Geroago, frankistek Lamiako eta Sondika erabiliko zituzten, Santander eta Asturias airez erasotzeko.</p>
<p>Iturriak</p>	<p>MARTÍNEZ BANDE (1971) SALAS LARRAZABAL (1998) SALAS LARRAZABAL (1999) TALÓN (1988) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
<p>Oharrak</p>	

Udalerrria	Lekeitio
Gertakari historikoa	Lekeitioko defentsa eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Bizkaiko eta Gipuzkoako Defentsa Batzarretako miliziak eta batailoiak; Gipuzkoako Fronteko euskal armadaren batailoiak. Alde frankista: Iruretagoyena zutabea, Nafarroako 2. brigada eta Frecce Nere brigada.
Data	1936ko irailetik 1937ko apirilera.
Deskribapena	<p>1936ko irailaren hondarrean, indar frankistak Deba ibaia alderik alde igaro eta Mutri-kun eta Ondarroan sartu eta gero, gobernuaren hedatzea babesteko aitzineko herri bihurtu zen Lekeitio Bizkaiko kostaldean. Berriatuaren aurrean, Kalamendi eta As-terrika aurrean, egonkortuta geratu zen frontea, eta Lekeitio bihurtu zen kostaldea babesten zuten osten lehenengo basea.</p> <p>Garrantzitsua izan zen indarren kontzentrazioa Lekeition. Eusko Abertzale Ekintzaren 1. batailoiak antza konpainia bakar bat igorri zuen, baina Lekeition bildu ziren borroketan parte hartu eta gero ordurako bertan ziren Gipuzkoako eta Bizkaiko EAE alderdiko talde batzuk, gerora 1. batailoira bilduko zirenak, hain zuzen. Batailoia bilduta, Zubietako jauregian instalatu zuen bere kuartela, geroago Urberuagako Bainuetxean (Markina) antolatuko bazuen ere. Era berean, Lekeition kuarteleratu zen Asterrikan matxinatuen erasoari aurre egiten parte hartu zuen UGT sindikatuaren 2. batailoia. Eta urrian bertatik igaro ziren Santanderreko batailoia bat, Malumbres izenekoa, eta Baracaldo batailoia, handik Kalamua aldera egingo zuena. Era berean, Lekeition kuarteleratu zen Cultura y Deporte batailoia Federación Cultural Deportiva Obrera (FCDO) federazioaren (Juventudes Socialistas Unificadas elkarteari lotua) konpainiekin, baina batailoia horrek leku egin zien baita Gipuzkoatik ihesi kostaldean borrokatu ziren talde anarkistei ere. Halaber, Euskadiko CNTren batailoietako bat egokitu zen Lekeition.</p> <p>1936ko azaroaren erdialdera, euskal armadaren indarrak bederatzi sektoretan banatzen ziren Kantauriko itsasoaren eta Santander-Burgosko mugen artean, horietako bat zen Lekeitio. Gorabehera handirik gabeko egoeran bizi izan zen frontea 1937ko apirilaren hondarrera arte. Orduan, Elgeta, Intxortak, Elorrio, Ermua eta Eibarrek amore eman eta gero Gipuzkoako fronteak etsi behar izan zuenean, azkeneko herriaren iparraldera egin behar izan zuten atzera defendatzaileek. Lekeitio hustu egin zuten eta Frecce Nere brigada italiar-espainiarrak okupatu zuen herria apirilaren 28an.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) JUARISTI LARRINAGA (2008) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Lemoa
Gertakari historikoa	Lemoako Haitzeko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 2. euskal dibisioa. Bereziki 4., 6. eta 15. brigadetako indarrak, gehi Asturiasko 2. espedizio brigada. Alde frankista: Nafarroako 2. brigada
Data	1937ko maiatzaren 29tik ekainaren 14ra.
Deskribapena	<p>Zornotza erori ondoren, Lemoako Haitza izango zen abangoardiako posizio nagusia euskal frontean, Bilbo-Durango bidea eta Bilbo Babesteko Gerrikoaren tarte sendoena, Oilarraren Gurutzeta-Erletxeta, hartuko zuen mendean. Maiatzaren 28ko agindu baten arabera Nafarroako 2. brigadak Zornotzako sektoreko lerroa aurreratu behar zuen Lemoako Haitza eta inguruko gainak okupatzeko xedearekin, talaia ezin hobea baitzen Gerrikoaren gaineko ondorengo erasoari begira. 2. brigadak maiatzaren 29an jo zuen eraso, lehenik Zornotzaren iparraldeko eta mendebaldeko 172 eta 216 kotak hartu zituen (Ixerango), eta jarraian hainbat kilometrotan barneratu zen Lemoako haitzaren gailurra mendean hartuta. Erasoak galerak eragin zituen euskal unitate batzuetan, bereziki Simón Bolibar eta Martiartu batailoietan.</p> <p>Hilaren 30ean, artilleriak eta blindatuak ongi lagundurik, kontraerasoa jo zuten euskal armadaren 2. dibisioaren indarrek. Simón Bolibar batailoiak ahaleginak egin zituen galdutako gainak berreskuratzeko, baina borroka latzaren ostean abiapuntura itzuli behar izan zuen. Etsaiaren airetiko eraso masibo baten beldur, ia ez zuten borrokatzerik izan 225. eta 230. batailoiekin. Hilaren 31n, arrakastarik gabeko beste kontraeraso batzuk egin zituzten hiru batailoiek; Simón Bolibar batailoia Lemoako 365 kota berreskuratzen saiatu zen, eta indar asturiarrek ere ahaleginak egin zituzten 368 metroko kota berreskuratzeko.</p> <p>Ekainaren 2an beste bi kontraeraso jo zituzten oste errepublikanoek, baina ez ziren arrakastatsu gertatu. Euskal buruzagitzak ekintza erabakigarriago bat erabaki zuen, eta euskal armadaren erresebakoko brigadetako bat baliatu zuen, 6.a (Cristóbal), artilleriaren, metrailadoreen Sasetata batailoien, morteroen eta dozena erdi Trubia blindaturen laguntzarekin. Orduan, ustekabean harrapatzeko eta aldi berean erasotzaileei helburua lortzen erraztearren, egunez jo zuten eraso, eta ez gauez edo egunsentian. 6. dibisioaren batailoiek, Dragones batailoien indarrekin batean, azken hori bertako harrobian barrena iritsi baitzen bide ezin malkartsuagoan barrena eta defendatzaileak ustekabean harturik, helburua lortu zuten borroka latzen ostean. Halaz ere, behin okupatu eta gero, erasotzen erraza gertatuko zen etsaiaren artilleriarentzat. Artilleriaren erreakzioak erasoak berak baino kalte gehiago eragin zituen. Nolanahi ere, 6. dibisioaren infanteriak frankisten aurreneko kontraerasoak geldiaraztea lortu zuen. 6. Brigada, lehen lerroko Erresekoko unitatetzat hartua, gaua iritsi baino lehen ordeztu zuten. Hilaren 4an tentsioak bere horretan jarraitu zuen Lemoa aldean, nahiz eta matxinoek prentsan argitaratutako berriak "berririk ez" labur bat baizik ez zioen eta euskal prentsak indarrak neurtzeko saioak izan zirela adierazi zuen.</p> <p>Hilaren 5ean iritsi zen matxinoen erreakzio beldurgarria, airetik bonbardatu zuten eta artilleria tiro masiboak egin zituzten, ondotik etorri ziren Infanteriako indarrak eta Haitza mendean hartu zuten. Biharamunean huts egin zuen errepublikanoen kontraeraso saioak, eta hurrengo egunetan, hilaren 10era arte, borroka arinak izan ziren, arinak baina etengabeak, eta baja ugari eragin zituzten 4. eta 15. euskal brigaden unitateetan.</p> <p>Azkenik, ekainaren 11n Bilboren aurkako azken erasoari ekin ziotenean, hilaren 13an bere eraso jo zuen Nafarroako 2. brigadak Larrabetzutik Galdakaorako erretiratze lerroa eteteko, Larrabetzun gaingidutako indarrek Galdakaorantz egin ez zezaten. Hegazkinen eta artilleriaren laguntza sendoarekin, Lemoako Haitzetik eta Bizkargi mendiaren hegoaldeko jo zuen eraso. Iparraldean, Tanteluzieta eta Munesorritz hartu zituen mendean Nafarroako 2. brigadak, eta hegoaldean Burlotza, Lemoako Haitzaren aurrean, eta haren luzapena mendebaldean. Aldi berean, Nafarroako 1. brigadaren indarrek erretagoardiatik egin zuten mehatxua, Sarrikoleatik azaldu ziren, Larrabetzu eta Erletxeta arteko errepidean. Eta ez hori bakarrik. Nafarroako 1. brigadako beste unitate batzuek Gangurengo gainak okupatu zituzten, bizkarraldetik Oilarraren Gurutzeko gotorlekuen eremua mendean harturik. Vidal zutabearen euskal dibisioa desegiten hasiko zen lehendik 1. euskal dibisioa suntsitu zuen erasoak hartaraturik.</p>

Iturriak	AROSTEGUI (1991) BELDARRAIN (1992) CASAS DE LA VEGA (1977) CIUTAT DE MIGUEL (1978) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Lemoiz
Gertakari historikoa	Lemoizko mobilizazioa, borrokak eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Hasieran egoiliarak euskal abertzaleen batailoieta bildu zituzten, horien artean aipagarri gudari asko bildu zituztelako, Itxasalde, Malato, Ariztimuño eta Abellaneda batailoiak. Talde errepublikano-ezkertiar xumeak ideologia horretako batailoieta bildu ziren. Gero, borroka frontea beren eremuetara iritsi zenean, 1. eta 5. euskal dibisioek jardun zuten. Alde frankista: Frece Nere brigada.
Data	1936ko uztailetik 1937ko ekainera.
Deskribapena	Gerra piztu zenean, hasteko boluntarioen mobilizazioa gertatu zen, eta gero, kinten araberako nahitaezko erreklutatzea bideratu zen. Lemoizen euskal batailoi abertzaleetan bildu ziren borrokalaria gehienak. Errepublikano-ezkertiar urriak joera horretako batailoieta bildu ziren. Borroka frontea herritik hurbil zegoenean, Sollubeko eta Jatako gudueta borrokatu zen 1. euskal dibisioa. Dibisio horren atal bat 5. euskal dibisio bihurtu zen, Santanderreko indarrak ere biltzen zituen 5. dibisio. Jata galdu-ta, Jata, Armintza eta Lemoiz bitartean geratu zen frontea. Lehenik 5. arekin bat egin zuen 1. euskal brigadak, baina ekainaren hasieran aipatu dibisioaren erreserba gisa geratu zen. Lemoizen, besteak beste, Cultura y Deporte batailoia egon zen, aipatu brigadako erreserbako unitatea, eta ekaina hasieran, baita bere brigadako (8.a) erreserba gisa ere, Fermin Galan batailoia igaro zen herri honetatik. 8. brigadak Bilbo inguruan ari zen 1. dibisioa sendotzeko agindua jaso zuenez, 1. euskal brigadako indarrek babestu behar izan zuten eremu hau, eta Nerbioi ibairantz egin behar izan zuten atzerantz. Atzera egiteko unean Lemoizen zeuden 1. brigadako batailoieta artean zegoen Mungiakoa. Azkenik, ekainaren 14an, Frece Nere brigadak besteak beste Lemoiz eta Plentzia hartu zituen mendean, eta zubi-buru bat sortu zuen itsasadarren ezker aldean.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) SOLANO PALACIO (1938) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007)
Oharrak	

Udalerria	Mallabia
Gertakari historikoa	Trabakuako mendateko bonbardaketa eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako frontea. Alde frankista: Nafarroako 4. brigada.
Data	1937ko apirilaren 25a eta 26a.
Deskribapena	Gipuzkoako Frontea Elorrio aldean urraturik, eta Durangorekiko komunikazioak eten ostean Eibar eta Ermua mehatxupean zeudela, euskal tropak Bolibarrerantz eta Markinarantz erretiratu ziren apirilaren 25ean Trabakuako mendatean barrena; bertan eraso masibo bat gertatu zen. Deseginda geratu ziren batailoi asko eta asko, bajak ugari izan ziren, esate baterako Rebelión de la Sal batailoian. Hilaren 26an, Eibar, Ermua eta Mallabia okupatu zituzten frankistek, eta biharamunean eutsi egin zioten erasoari, fronte errepublikanoa Eibarko Iparraldetik itsasoraino desagerrarazi arte.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Arrigorriaga, Basauri, Bilbo
Gertakari historikoa	Malmasingo borrokak. Bilboko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 2. euskal dibisioa. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 2. brigadak.
Data	1937ko ekainaren 15etik 18ra.
Deskribapena	<p>Ekainak 15ean Nafarroako I. brigada, egun oso bat prestatzen eman eta gero, trumilka jaitsi zen Santa Marina eta Ganguren barrena Ibaizabal ibaiaren eskuineko ertzerantz. 2. euskal dibisioak (Vidal) atzerantz egin zuen, Arrigorriaga eta Bilborantz, behar bezala antolatu gabe. Nafarroako 1. brigada frankistak (García Valiño) Elexalde eta Galdakao okupatu eta Ibaizabal ibaia igaro zuen alderik alde. Nahasmendu horretan hainbat zubi geratu ziren matxino frankisten esku, ez zituzten leherrarazi. Galdakaotik gertu, Torreabalgo zubia hartu eta alderik alde igaro zuten arin-arin, Artetako baselizan eta Upo mendian egokitu ziren Valiñoren gizonak. Ibaiaren eta Ugaoko herriaren arteko babesteko Gerrikoaren lerro osoa behera etorriko zen gibelaldetik eraso zutenean. Era okupatu egin zuten. Eta mendebaldean, Galdakaotik Bilbora doan errepidetik hurbil, ukitu gabe topatu zuten Urbiko zubia; berau alderik alde igaro, gain batzuk mendean hartu eta Artunduaga eta Nerbioi ibaiaren gaineko zubia hartu zituzten mendean, Dos Caminos-Basauri eta Malmasin mendia konkistatzeko bidea erraztuz. Hasia zen Bilbo hegoaldetik inguratzeko maniobra. Nafarroako 2. brigada Galdakaora joan zen 1. brigada ordeztuko eta hark erretoardian uzten zituen posizioak sendotzeko.</p> <p>Ekainaren 16an Nafarroako 1. brigada berriro ere abian jarri zen Nerbioi ibaiaren alde bietan. Eskuinaldean Zaratamo eta 342 kota hartu zituen mendean, azken horrek aukera ematen baitzion bertatik eta mendebalderantz Upora iristeko. Ezkerraldean Artunduagako zubitik aurrera egin zuen, eta Basauri eta Arrigorriaga hartu zituen. Malmasin ere mendean hartu zuen nahiz eta unitate batzuek erresistentzia jarri zuten. Unitate horien artean zegoen Otxandioko batailoi iritsi berria, eta batailoi horretako komandante Koldobika Larrañaga anaia Iñakirekin eta beste gudar batzuekin batera zendu zen gudu horietan. 15. euskal brigadak, Peñako auzoan eta bidearen gaineko isurietan, itxi egin ziren bidea frankistei Arrigorriaga eta Bilbo arteko errepede aldean. Sukarrieta batailoiaren konpainietako bat Buia aldetik hurbildu zen Malmasinera ekainak 16an defentsa sendotzeko asmoz. Alferrikakoa gertatu zen. Arratsalde, Nafarroako 1. brigadako indarrak Malmasin mendian behera etorri ziren Asturiasko 16. brigadari Ollarganeko Haitzak kentzeko. Arrigorriagatik hurbil, Nafarroako 1. brigadako beste unitate batzuk hasiak ziren Pagasarri igotzen eta Abrisketa baserria eta 174 kota okupatzen.</p> <p>16tik 17rako gauean borroka biziak izan ziren Malmasin menditik Nerbioi ibairantz jaisten diren mazeletan. Egunsentian Asturiasko 16.ak jo zuen eraso, eta 256. batailoiak aurreko arratsaldean galdutako eremu batzuk berreskuratu zituen, baina abangoardian zuen konpainiak, lehenengoak, baja ugari jasan zituen fusilekin bideratutako borroken ondorioz. Era berean, Otxandiano batailoiaren indarrek parte hartu zuten. Nafarroako 1. brigadak Malmasinen zituen posizioak sendotzen eman zuen eguna, iparralderantz zabaldu ziren eta gero 2. brigadak ordeztu zuen. Malmasin mendiaren iparraldeko muturreko ertzak Asturiasko 16. brigadaren mende jarraitzen zuen. Hilaren 18an, Bilbo hegoaldetik menderatzen duten Pagasarri eta Arnotegi erori eta gero, atzera egin zuten Bilbo defendatzen zuten indar gehienek. Hilaren 19an eroriko zen Bilbo.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Zornotza, Igorre, Arantzazu, Dima, Arteaga, Areatza, Zeanuri, Mañaria
Gertakari historikoa	Mañariko Haitzetako eta Arratiako haraneko gudua (1937ko maiatzaren 22tik 30era).
Parte-hartzaileak	Euskal indarrak: 2. dibisioa (Vidal) eta 3. dibisioa (Ibarrola). Indar frankistak: Nafarroako 2. eta 4. brigadak.
Data	1937ko maiatzaren 22tik 24ra.
Deskribapena	<p>Indar frankistek maiatzaren 19an plan bat prestatu zuten Lemoaren herriaren hego-ekialdeko Mañariko Haitzak inguratzeko eta Urkiola ingurura hurbiltzeko. Maiatzaren 22an jo zuten eraso, artilleriak eta hegazkinek euskal posizioak eraso zituztenean. Ondoren, Nafarroako 2. brigadako Tutorren Taldeak (Venancio Tutor teniente koronela) aurrera egin zuen Durangotik Zornotzara doan errepidearen ezker aldeko mendialdea mendean hartzeko xedean. Nafarroako 4. brigadak, Zumeltzako mendatearen eta Igorreko herriaren arteko errepidea inguratzen duten mendialdeen ardatz bikoitzari jarraiki, eraso jo zuen egun berean. Beraz, Nafarroako 2. eta 4. brigadetako lehenengo unitateek Igorren egin behar zuten bat, Mañariko Haitzen mendilerro osoa inguratu.</p> <p>Nafarroako 2. brigadaren erasoaren jomuga izan ziren 15. euskal brigada eta iparraldean zuen auzoa, 6. brigada. Gobernuaren abazioak ahaleginak egin zituen frankisten hirurogeita hamar hegazkinek jotako erasoari aurre egiteko hiru Polikarpov I-15 ehiza-hegazkin igorrita, baina haietako bat bota eta pilotua hil egin zen. Lurrean, Nafarroako 2. brigadak Euba eta Bernagoitia auzoak hartu zituen mendean, bonbardaketen ondorioz 15. euskal brigadak jaso zuen zigorra osatuz. Asturiasko 2. espedizio brigadak atzera egin zuen Zornotza eta Lemoa aldera. Hego-mendebaldean frankistek ezkerretara egin eta Mañariko mendilerroa hartu zuten mendean. Barazar eta Dimako mendateetatik jo zuen eraso Nafarroako 4. brigadak. Artilleriarekin eta airetik eraso suntsigarria jo ondoren eta Ibarrolaren 3. dibisioaren 3. eta 10. euskal brigaden indarrek defentsa sutua egin bazuten ere, matxinoen unitateek aurrera egin zuten Zumeltzatik Dimara doan errepidearen alboetako gailur-lerroak okupatu. Lehendik adierazitako Nafarroako 2. brigadako Tutorren Taldeak lehenik Mugarra mendiaren ekialdeko haitzak hartu zituen mendean, eta gero Lengarrako Haitzak (Lenganan). Era berean, Urtemondo eta ondoko haitzak okupatu zituen, baina ez zuen Leguate aldea mendean hartzen duen muino bat konkistatzerik izan, eta ondorioz hilaren 24ko lehen orduetan hautemandako eta atzera eragindako batailoi batek ezin izan zuen Pagotxueta mendia okupatu, eraso jasandako 16. brigada ordeztu zuen 6. euskal brigada aipatu maniobraz ohartu baitzen.</p> <p>Hilaren 23an 3. euskal dibisioaren fronteak aurre egin behar izan ziren Mugarra okupatua zuten Nafarroako 2. eta 4. brigaden indarrei. Azken horiek hartua zuten Illumbe, Elezkano, Biteriño eta Arantzazugoitia auzoak, 263 kota eta, azkenik, Dimako herria. Ondorioz, okupatuta geratu zen Mañariko herri hustua, eta libre geratu zen Gasteiz eta Durango arteko errepidea, Durango hartuta ia hilabete geroago. Ibarrolaren brigadek ahal zuten guztia egin zuten etsaiak gerarazteko, eta baja ugari jasan zituzten 7., 10. eta 11. brigadetako indarrek.</p> <p>Maiatzaren 24an, ordu txikietatik aurrera, indar frankistek segida eman zioten erasotzeko ahaleginari. Porrotean amaitu zen ustekabeko kolpea eman eta gero, konfinatuta geratu ziren errepublikanoak. Halaz ere, frankisten artean urri izan ziren bajak, eta 2. brigadako batailoi porrot egile berak (Melillako "B" batailoia) berrantolatua eta Leguateko kobazuloetan hartu zuen atsedean, eta hurrengo egunsentian berriro ere ekin zion erasoari, 6. brigada ustekabean harrapatuta. Aipatu brigadaren batailoiek Pagotxueta galdu zuten, eta atzera egin zuten Brigadaren erreserbek lerro bat osatu zuten arte Aramotz defendatzeko eta Pagotxuetatik aurrera egiten ari zirenen aurkako kontraerasoa jotzeko. Azkenean, defentsa sendotzeko beste unitate batzuen laguntzarekin, erresistentziaren lerro bat sendotu zuten frankistei Igorre eta Lemoa arteko errepidera jaisteko aukera galarazteko. Halaz ere, egun horretan amaitu zuten frankistek Mañariko mendilerroa okupatzen, Urtekoatxe, Pagotxueta eta Igorre herriaren iparraldeko 332 kota eta Garai hartu zituzten mendean, eta Euban barrena sarraldiak egin zituzten Artaun eta Urtemondoraino. Hala eta guztiz ere, Nafarroako 4. brigadak ez zuen Igorren sartzerik izan, hustuta zegoen arren, eta batailoi frankista batzuetako talde aurreratuek atzera egin behar izan zuten. Ibarrolak matxinoen eraso geldiaraztea lortu zuen.</p>

Deskribapena	Hurrengo egunetan, 2. euskal dibisioaren tropek Lemoa inguruko posizioak sendotzeko ahaleginak egin zituzten, oztopo gaindi ezina eraiki nahi izan zuten Durango eta Bilbo arteko errepide nagusian. Ibarrolaren 3. dibisioak, bere aldetik, defentsa bermatu zuen Igorreko herriaren iparraldetik Zeanuriraino. Oraindik tiroketa eta saraldi batzuk gertatu ziren borroka leku nagusia euskal fronteko beste leku batzuetara aldatzen zen bitartean. Maiatzaren 30ean 3. dibisioaren indarrek amaiera sinboliko bat eman zioten erasoari, hilaren 24az geroztik abandonatuta zeuden Igorren eta Areatzan sartu baitziren armaturik. Horrenbestez berreskuratu zituzten bi herri horiek, baina ekainaren erdialdera galduko zituzten berriro ere.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) CIUTAT DE MIGUEL (1978) MARTÍNEZ BANDE (1971) TALÓN (1988) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (1996)
Oharrak	

Udalerria	Bermeo
Gertakari historikoa	Matxitxako lurmuturreko itsas gudua eta Matxitxako Lurmuturreko kostaldeko bateria.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Euzkadiko Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldea, Bizkaia, Donostia, Gipuzkoa, Nabarra bou artilleriadunak, Galdames bapore ontzia, Yorkbrook merkataritza ontzia; Matxitxakoko kostaldeko bateria. Alde frankista: Canarias kruzeroa, Cervera kruzeroa eta Galerna bou artilleriaduna; Frecce Nere brigada.
Data	1937ko martxotik maiatzera.
Deskribapena	<p>1937ko martxoaren 4an Euzkadiko Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldeko Gipuzkoa, Bizkaia, Nabarra eta Donostia bouak Galdames bapore ontzia eskoltatzen hasi ziren. Galdames Bordeleatik zetorren botikez, hornigaiez, makineriaz eta bidaiariez beteta Bilbora bidean. Merkataritza ontziaren eskarmentu txikiak eta itsasoaren egoera nahasiak eragin zuten martxoaren 5eko goizalderako bat-bateko ontzidua erabat barreiatuta gertatzea eta Gipuzkoa eta Bizkaia bouak Galdames ontzitik eta beste bi bouetatik guztiz berezita gertatzea. Bitartean, euskal ontzien bideak matxinatuen Canarias kruzero boteretsuarekin egingo zuen topo; Canarias ontziak harrapatu berria zuen Yorkbrook merkataritza ontzi estoniarra, armaz beterik zegoena eta helmuga errepublikanoen mende zegoen Iparraldea zuena.</p> <p>Canarias gerraontziak aurreratuen zegoen euskal unitateari egin zion eraso, Gipuzkoa bouari, atzetik Bizkaia zetorkiola ohartu gabe. Gipuzkoa boua larri kaltetuta geratu zen, baja ugari jasan zituen. Nekez, euskal ontziak ihes egitea lortu zuen Galea lurmuturreko kostaldeko bateriaren irismen eremuan sartu zenean. Bost hildako eta dozena bat zauritu jasan zituen arren, hildako bat eta zauritu bat eragin zituen inpaktuarekin jo zuen Canarias ontzia. Canarias ontziak galdu egin zuen lehendik harrapatutako Yorkbrook ontzia, matxinatutako ontzia ez zegoela aprobetxaturik Bou Bizkaia merkataritza ontzia Bermeora bidean jartzera behartu baitzuen; horrenbestez irten ziren onik bi ontzi horiek. Canarias kruzeroak, Yorkbrook ontziaren bila iparralderanzko bidea hartu baitzuen, Galdames merkataritza ontziak eta berau zaintzen zuten Bou Nabarrak eta Bou Donostiak osatutako ontzidiarekin egin zuen topo. Ontzi horiekin batean zetozen portura itzultzen ari ziren bi arrantzontzi, Joseba Mikel eta Pantzeska. Kanoikadak jaurtikiz, gelditzera behartu zuen kruzeroak merkataritza ontzia, eta Bilbora zihoazen 173 lagun en artean hainbat zauritu eragin zituen (egile bakarren baten arabera lau hildako ere gertatu ziren). Jarraian Donostia bou txiki eta armarik gabeari, defentsarik gabeko ontziari, egin zion eraso; baina Donostia ontziaren aurkako erasoak minutu batzuk besterik ez zuen iraun, kruzeroa Nabarra ontziaz arduratu behar izan baitzuen. Izan ere, Nabarra ontziak ezin irabazizko borrokari ekin zion Donostia ontzia eta aipatutako bi arrantzontziak onik irten zitezten. Nabarra ontziak bi orduz eutsi zion erronka guztiz desorekatuari. Azkenean, Nabarra boua hainbat aldiz jo ondoren, ontzia abandonatzeko agindua eman zuen Enrique Moreno komandanteak. Morenok eta beste bost gizonen nahiago izan zuten Nabarra ontziarekin eta hildako gudarien gorpuekin batean hondoratu. Guztira bouko 29 marinela hil ziren zorigaitzoko martxoaren 5eko egun hartan. Beste 20 itsasgizonak, batzuk zaurituta, Canarias ontziak hartu zituen atxilo, Donostiako ontziak bere segurtasuna bera arriskuan jarriz marinela erreskatatzeko xedean egindako eskaintza aintzat hartu gabe. Bou txikiak lortu zuen Frantziara ihes egitea, bertan geratuko zen. Canarias kruzeroak itsasoan zeudenak jaso eta gero, Pasaia eraman zuen Galdames ontzia. Bidaiarietako bat hil egin zuten ihes egiten saiatu zenean, eta 33 eskifaikide eta 173 bidaiarietatik asko eta asko espetxean amaitu zuten, beste batzuk fusilatu egin zituzten, esate baterako Manuel Carrasco politikari kataluniarra eta Aitzol apaiza.</p> <p>Gerraren eztrandak ia babesik gabe harrapatu zuen Bizkaiko kostaldea matxinatutako itsas armadaren mehatxuaren aurrean. Gerra piztu zenean, aspalditik zeuden desaktibatuta kostaldeko bateriak; baina Getxoko San Ignazioko bateria zaharretako material ez gutxi, 150 mm-ko 4 piezak (1887. urteaz geroztik zeuden instalatuta) eta Zierbenakoak (240 mm-ko 6 Ordoñez obus, 1894. urte inguruan instalatuak) osatua, berriro ere erabili ahal izan zuten. Hortaz berreskuratutako 240 mm-ko 5 piezekin bateria bat osatu zuten Luzuero Puntan (geroago seigarren pieza bat egokitu zuten), 15eko piezak Galea Lurmuturrean egokitzea pentsatu zuten bitartean, Getxon bertan kokaleku egokiagoa baitzen San Ignaziokoaren aldean.</p>

Deskribapena	<p>Azkenik, azken puntu horretan, Reinosako Ontziolatik ekarritako 152 mm-ko bi pieza moderno, bi Vickers, egokitu zituzten 1936ko urrian. Ondorioz, 15eko materiala (150 mm-koa) Bermeoko beste lekuren batera, Matxitxakoko lurmuturrera, eramateko aukera gertatu zen. Ez zen leku egokia. Erraz ikusten zen posizioa, labarretatik oso gertu zegoen, erraz eraso zezaketen itsas artilleriak eta abiazioak; baina Bermeon segurtasun uste handiagoa eragin zuen bateria zaharrak.</p> <p>1937ko martxoaren 5ean, aipatu bateriak babestu zuen Yorkbrook merkataritza ontzi estoniarraren sarrera Bermeoko portura. Hilabete bereko 20an bateria berriro ere egon zen alerta egoeran, haurrak atzerrira bidean ontziratuko baitzituzten Bermeoko portuan. Egun gutxi batzuk geroago, apirilaren 8an, matxinatuen bi ontzi ikusita, Cervera kruzeroa eta Galerna bou armatua, gerra guztian zehar jaurti zituen kanoi-kada gutxi horiek jaurti zituen Matxitxakoko bateriak. Galerna ontziak portuko malekoia eta Bermeoko portuaren ondoko altuerak bonbardatu zituen. Bitartean, ekintza babesten zuen Cervera ontziak. Matxitxakoko bateriak hiru tiro egin zizkion Galerna ontziari erretiratzeko hasia zenean. Cervera ontziak egindako 21 tiro eta Galerna ontziak egindako tiro batzuk izan ziren berehalako erantzuna, baina eraikitzen ari ziren jaurtigaiantzako biltegia baizik ez zuen galdu bateriak; bestalde, metrailaz josita geratu ziren Bekoetzeko baserriak. Azkenean, apirilaren 30ean, Bermeo hustu behar izan zuten, baterian ari zirenek abandonatu egin zuten posizioa eta Cárcamo sarjentua eta bederatziz gizon arduratu ziren itxurak suntsituta piezak baliogabetzen. Maiatzaren 8ko gauean okupatu zuten bateria Frece Nere brigadaren tropek.</p>			
Iturriak	<p>CERVERA PERY (1988) MORTERA PEREZ, MOLINA FRANCO eta PERMUY LOPEZ (2001) PARDO SAN GIL (1998) ROMAÑA (1984) RUIZ SIERRA (2005) SARRIA (1978) TALÓN (1988) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>			
Oharrak	<p>Matxitxakon borrokatutako Euzkadiko Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldeko gudarien memoriari eusten nabarmendu da Bermeo. Klandestinitateko urteetan jada, matxoaren 5ean –edo data horretatik gertuen zegoen igandean–, Matxitxakoko itsas guduaren urteurrenaren harira, “itsasoko gudariei” omenaldiak egiten hasi ziren herrian. 1978. urtean, frankismoaren amaierarekin bat, omenaldi handi bat egin zieten Nabarra boutik bizirik irten zirenei. Hogei mila lagun inguru bildu zituen ekitaldiak, eta haietatik ehunka batzuk 58 arrantzontzitan loreak eskaini zituzten Lurmuturraren aurreko uretan. Nabarra boutik bizirik irten zirenek lorez osatutako koroa bat jaurti zuten; haren gainean geratu zen koroa kataluniar bat, Carrasco i Formiguera kataluniar politikari abertzalearen omenez, frankistek Galdames ontzian hartu eta Burgosen fusilatu baitzuten geroago. Bestalde, Bermeotik Bakiora doan errepidean, Aketxeko irlaren parean, Basterretxeak egindako monumentua inauguratu zuten, 4 bider 2,4 metrokoa, zementuzkoa, gudu hartan parte hartu zuten euskal bouen izenekin eta hiru eletan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) dagoen inskripzioarekin, Thomas Walsingham Erdi Aroko kronikari ingeles baten izkribu batetik hartua, idazki horretan euskal marinelek Wilchenseako guduan (1350) erakutsi zuten adorea goraiatzeko baitzuten eta kasu honetan Matxitxakon borrokatu ziren euskal marinelek omentzeko baliatuko baitzuten:</p> <table border="0" data-bbox="454 1702 1359 1859"> <tr> <td data-bbox="454 1702 774 1859"> “Biotzen Sen Doak Zirelako Il Guragoizan Zuten Beren Buruak Eman Baiño Lenago.</td> <td data-bbox="774 1702 1077 1859"> <i>Prefirieron Por La Rudeza De Su Corazón Morir Antes Que Rendirse</i></td> <td data-bbox="1077 1702 1359 1859"> <i>They Preferred, Because Of The Rudeness Of Their Heart, To Die Rather Than To Surrender (Walsingham)”.</i></td> </tr> </table> <p>Bermeoko Itsas Museoa gudu hura gogoan izateko maketak eta objektuak daude. 2002. urtean erakusketa bat egin zen Bermeon Matxitxakoko gudua gaitzat harturik. Milaka lagun izan ziren bertan hirurogeita hamabost urte lehenago jazotakoa xehe-tasun osoz ezagutzeko.</p>	“Biotzen Sen Doak Zirelako Il Guragoizan Zuten Beren Buruak Eman Baiño Lenago.	<i>Prefirieron Por La Rudeza De Su Corazón Morir Antes Que Rendirse</i>	<i>They Preferred, Because Of The Rudeness Of Their Heart, To Die Rather Than To Surrender (Walsingham)”.</i>
“Biotzen Sen Doak Zirelako Il Guragoizan Zuten Beren Buruak Eman Baiño Lenago.	<i>Prefirieron Por La Rudeza De Su Corazón Morir Antes Que Rendirse</i>	<i>They Preferred, Because Of The Rudeness Of Their Heart, To Die Rather Than To Surrender (Walsingham)”.</i>		

Udalerria	Otxandio
Gertakari historikoa	Mekoletako borroak
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Otxandioko zutabea, gero Arabako frontea, Mekoletako sektorea (Loyola, Stalin (Meaberen 2.a), Abellaneda batailoiak). Alde frankista: Nafarroako 4. brigada.
Data	1937ko martxoaren 31tik apirilaren 5era.
Deskribapena	<p>Otxandioko auzoa da Mekoleta, haren hego-ekialdean dago. Gerra hasi zenetik bertan egokitu ziren Otxandioko zutabeko indarrak, indar horiek hilabeteetan osatu zuten Gasteizko matxinatu frankistei aurre egingo zien abangoardia. Mekoletatik iristen den Motxotegi mendira eta haren hegoaldeko gailurretara, Barazarretik iristen den eta Mendiganeraino jaisten den gailur-lerrora. Sektore horretan hiru batailoik jardun zuten, lehenengo lerroan egokitu ziren martxoaren 31z geroztik. Hala eta guztiz ere, Ubideko Sektorearen mende zegoen Mendigan eta Motxotegi aldea, eremu gotortu-netakoa bera, Mekoletako auzoaren hegoaldean. Mekoletako sektoreak Legutioko iparraldea eta ekialdea hartzen zituen, Maroto eta Jarinto (Jarindo) mendiak, Albertia eta La Granja aldea; bertan zeuden bigarren lerroko posizioak, Legutiotik Kruzetako mendatera eta Pagotxikira daraman errepidearen erdialdera.</p> <p>1937ko martxoaren 31n eraso frankistak hasi zirenean Maroto, Jarinto eta Albertia erori ziren Nafarroako 4. brigadaren erasoan aurrean, baina brigada horrek Legutio-Kruzeta-Aramaio errepidean geratu behar izan zuen. Apirilaren 1ean ia ez zuen aurrera egiterik izan, beste indar batzuk (1. eta 3. brigadak) eskuinaldetik noiz iritsi zain zeuden. Hilaren 2an eta 3an geldirik jarraitu zuen 4. brigadaren eraso fronteak. Azkenean, hilaren 4an batera jo zuten eraso Nafarroako hiru brigadek artilleriaren eta airetiko erasoan laguntzarekin. Min handia egin zuten, Otxandio eta San Bernabe baseliza haien mende geratu ziren, eta hilaren 5ean Motxotegi eta Mekoleta.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) HERRERA (1974) IRAZABAL (2006) MARTÍNEZ BANDE (1971) OLABARRIA OLEAGA (2011) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerria	Meñaka
Gertakari historikoa	Sollubeko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa, eta gero 5. dibisio bihurtuko ziren kostaldearen eta Mungiaren arteko indarrak. Alde frankista: Nafarroako 5. brigada, Frecce Nere brigada, XXIII di Marzo agrupazioa.
Data	1937ko apirilaren 22tik maiatzaren 22ra.
Deskribapena	<p>Sollubeko guduan zehar Meñaka izan zen udalerrri kaltetuenetako bat. Meñakako auzoak baliatu zituzten indar errepublikanoek mendialdean borrokatzen ari ziren unitateak gizonekin eta materialekin sendotzeko. Gailur nagusiak galdu zituztenean, 1. euskal dibisioaren defentsa lerro berriaren atal bihurtu ziren aipatu indarrak, eta hartatik abiatu ziren maiatzaren 9ko eta 10eko euskal-asturiar kontraerasoak, Sollubeko mendebaldeko isuria, 606 kota barne, Sollubeko erpinaren ondoan, mendean hartzeko balio izan zutenak. Aipatu erpinean porrot egin zuen maiatzaren 12ko eraso frankista orokorrak. Geroago, maiatzaren 14ko eta 19ko eraso frankisten ondorioz, Meñaka eta Meñakabarrena erori ziren, eta hurrengo egunetan matxinatuen esku geratu zen Meñakako lurralde osoa.</p> <p>Aipagarria da maiatzaren 9an Kirikiño batailoiak jasan zuen airetiko bonbardaketa. Batailoi horrek goizez eta Sollubeko gainetan gertatutako kontraerasoan parte hartu zuen bezperan galdu ondoren, eta bajak nozitu zituen bere artilleriak egindako tiro laburren ondorioz. Gero, gelditzeko agindua jasota, hegazkin frankistek bonbardatu zuten gudariak abiapuntura itzultzen ari zirenean, eta hildakoen eta zaurituen artean hamarka baja jasan zituzten.</p>
Iturriak	ALCOFAR NASSAES (1972) AZNAR (1961) BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MESA (1994) PIAZZONI (2011) ROVIGHI eta STEFANI (1992/1993) SALAS LARRAZABAL (1998) STEER (1978) TALÓN (1988) VARGAS ALONSO (2007)
Oharrak	

Udalerria	Morga
Gertakari historikoa	Bizkargiko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisia. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 4. brigadak.
Data	1937ko maiatzaren 9tik 15era.
Deskribapena	<p>Apirilaren 28an Busturiako mendebaldeko herriak husteko agindua eman zuten, hil horren hondarrean frankistek aurrera egin baitzuten azkar eta herri horiek mehatxupean baitzeuden. Hilaren 29an Gernika erori zen eta biharamunean argitaratu zuten ofizialki aipatu agindua. Hustu beharreko udalerrien artean zegoen Morga. Aldi berean, indar militarrek iristen hasi ziren, erresistentzia emateko beste lerro bat osatuko zuten Errigoiti eta Muxikako herrietan, Gernikara iritsitako oste frankisten aurrean. Morga komunikazio gune garrantzitsua zen, Gerekiz ondoko Morgako Gainarekin eta Andra-Mari auzoarekin. Lehenengo lerroko osteen erretagoardia osatzen zuen Arrietan, Errigoitin eta Muxikan. Gainera, aipatu herrien defentsari laguntzen zioten bateria artilleriadun asko Morgara bildu ziren, esate baterako, 155 mm-ko 5. bateria astunak Gerekizen egokitu zituen bere piezak eta Errigoiti eta Muxika erasotzen ari ziren eta maiatzaren 8tik aurrera Sollubeko gainak okupatu zituzten frankisten aurkako bonbardaketa bideratu zuten. Artilleria errepublikanoa etsaiaren artilleriaren eta airetiko erasoen xede izan zen, eta hainbat baja jasan zituen maiatzean zehar.</p> <p>Lehenengo lerroko erretagoardian defentsa lerro bat sortzen saiatu ziren Morgan. Euskal armadaren Lubakitzaielen eta Ingeniarien indarrek jardun zuten, esate baterako Gogorki batailoiak, maiatzaren hasieran Morgako gaina gotortuko zuten 300 gizon jarri baitzituen. Baina Nafarroako 1. brigadak maiatzaren 9tik aurrera erasoak jo zuen, eta 5. brigadak Sollubeko mendiaren hegoaldea eraso zuen biharamunean; ondorioz, Ugarte, Besagiz eta Errigoiti hartu zituzten mendean egun horietan, eta Bizkargiko gailurrak hilaren 11n. Gertakari horiek lehenengo lerroan kokatu zuten Morga, Nafarroako 1. brigada ekialdetik egiten ari zen aurrera, eta 5.a iparraldetik, bi horien mehatxupean geratu zen herria. 5. brigadak Mendigana hartu zuen hilaren 20an, eta 22an Morgakonea erori zen. Inguru horretan borrokatu ziren indar defentzaileak Gamiz-Fikara eta Bizkargi mendiko ipar-mendebaldeko muturrera bildu ziren, eta euren esku egon ziren bi alde horiek Bilbo mendean hartzeko azken guduari ekin zioten arte.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) STEER (1978) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007)</p>
Oharrak	

Udalerrria	Mungia
Gertakari historikoa	Mungiako borrokak eta okupazioa. Sollubeko gudua. Bilboko azken gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa, gero 5. euskal dibisioa. Alde frankista: Nafarroako 5. brigada, Frece Nere brigada, XXIII di Marzo agrupazioa.
Data	1937ko apirilaren 30etik ekainaren 14ra.
Deskribapena	<p>Sollubeko gudua hasita, Mungia zen herri nagusia borroka lerroaren erretagoardia hurbilean. Morgan eta Sollubeko mendatean barrena Busturialderantz, Butroen barrena Uribe-Kostarantz eta Derion barrena Bilborantz komunikabide gune garrantzitsua izanik, Mungiaren kokapena guztiz garrantzitsua zen alde defendatzailearentzat, eta aldi berean helburua zen erasotzaileentzat. Ez zuten etenik izan airetiko erasoek eta, gero, artilleria eta mortero bidezko erasoek eta arma arinen bidezkoek. Alde frankistaren erabateko nagusitasuna ulertzeko nahikoa da abiazio frankistaren adar bakar baten jarduera gogora ekartzea, Italiako legio abiazioarena alegia. Condor legioarekin batean, ekainaren 3an Bermeoko hesia hautsi zuen Frece Nere brigadaren erasoari masiboki lagundu zion aipatu legioaren abiazioak, frontean bezala Mungiako eta inguruko komunikabideak erasotzen lagundu baitzuen; hilaren 6an eta 7an masiboki metrailatu eta bonbardatu zituen Sollube eta Mungia; hilaren 11n errepublikanoen posizioak bonbardatu zituen Tollu mendian, baita Bilboko portuan ainguratuta zeuden ontziak ere; hilaren 12an Santanderreko aerodromoa eraso zuen; hilaren 13an Mungia inguruan zeuden posizioak eraso zituen. Hilaren 14an, 15ean eta 16an biziki eraso zituen euskal fronteko lerro errepublikanoak, batik bat Mungia inguruetan, eta azken egun horretan Lamiakoko aireportua eraso zuen. Nabarmentzekoak dira Mungian eta inguruetan gertatutako ekintza horietako batzuk. Maiatzaren 6an lehenik pertsonen aukako bonba txikiekin bonbardatu zuten herria. Gero, garaiera apalean hegaldatzen ziren hegazkinek izua eragin zuten herriko eta landako baserriko biztanleen artean. Geroago abiazioa itzuli eta bonba astunak jaurti zituen hirigunera eta hirigunetik kanpora, Gatika bidean. Ondorioak guztiz suntsitzaileak gertatu ziren eraikin batzuetan, esate baterako, zeharo txikituta geratu zen Bizkaiko Bankuaren eraikina. Bukatzeko, propaganda egiteko eskuko orri batzuk bota zituzten hegazkinek beste sarraldi batean. Zorionez gutxi izan ziren erasoen biktimak. Euzkadi kazetako korrespondentsal Garrizen arabera ez zen biktimarik izan Mungian. Maiatzaren 12ko airetiko erasoari dagokionez, Mungiako herriak 40 bonbaren zuzeneko edo zeharkako inpaktu jasan zituen.</p> <p>Maiatzaren 19ko eraso frankistek lehenengo su lerroan kokatu zuten Mungia. 5. euskal dibisioaren indar defendatzaileek Sollube mendiari begira zeuden eraikinetan eta baratzeetako hormetan hartu zuten babesak. Eta herriak su frankistaren zigorra jaso zuen egunero eta hilabete inguruan. Gobernuaren aldeko prentsak "<i>ruinas gloriosas de Munguia tenaz y heroica</i>" eta "<i>Munguía el Villarreal vizcaíno</i>" hitzak ekarri zituen bere orrietara, eta frankistek soilik maiatzaren 28an fusilekin milioi bat tiro egin, artilleriarekin 200dik gora granada bota, morteroekin gutxi gorabehera 800 tiro eta ehundik gora eskuko bonba jaurti zituztela azaldu zuen. Hala eta guztiz ere, errepublikanoen artean oso-oso gutxi izan ziren bajak, bost hildako eta zauritu gutxi batzuk baino ez. Mungia ekainaren 13an hustu zuten Larrabetzuko Burdinazko Gerrikoa urratu eta gero. Kasu honetan, eraikinak geroago suntsiarazteko xedean utzitako erretagoardiako indarrek Frece Nere patruila bat zelatatu zuten, patruila aurreratu eta kalte handiak nozitu zituen herrian sartu eta defendatzaileek kontrolpeko leherketak eragin eta gero. Horrek aukera eman zien frankistei herriaren suntsipena defendatzaileek eragindako suteei eta leherrarazitako dinamitarik egozteko, betiere herritarren aurka etengabe egindako airetiko eta artilleria bidezko erasoak ahanzirik.</p>

Iturriak	ALCOFAR NASSAES (1972) AZNAR (1961) BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MESA (1994) PIAZZONI (2011) ROVIGHI eta STEFANI (1992/1993) SALAS LARRAZABAL (1998) STEER (1978) TALÓN (1988) VARGAS ALONSO (2007)
Oharrak	

Udalerrria	Muxika
Gertakari historikoa	Muxikako borroka eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 4. brigadak.
Data	1937ko apirilaren 29tik maiatzaren 9ra.
Deskribapena	<p>Apirilaren 28an, frankistak aurrera azkar ari zirela ikusirik, udalerrri asko husteko agindua eman zuten, "gerra eremutzat" jo zituzten horiek, eta tartean zegoen Muxika. Apirilaren 30ean argitaratu zuten agindua, bezperan Gernika frankisten esku erori zenean eta frontea Muxikako herriaren ateetan zenean. Une horretan borroka la-tzak gertatzen ari ziren Muxikako herriaren ekialdean. Erresistentzia Zornotzarako errepidearen mendebaldean sendotu zen, eraso frankistak maiatzaren 9an Bizkargi aldean eta hil bereko 16tik aurrera Zornotzako herriaren aurka abiarazitako erasoek Muxikako lurralde osoa erasotzaileen kontrolpean utzi zuten arte.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) HERRERA (1974) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	<p>Maiatzaren 9an erasoak jo zuen Nafarroako 1. brigadan gertatutako zaurituen artean zegoen Cayetano de Borbón Parma printzea, Tertzioan Gaetan de Lavardín ezizenarekin borrokatzen zena. Cayetano Borbón Parmaren bajak eragin zuen haren anaia Javier Espainiara hurbiltzea, Javier Karlismoaren erregeordea baitzen karlisten errege Alfonso Carlos 1936ko irailean Vienan harrapatuta hil ondoren. Erregeorde tradizionalista zur eta lur geratu zen Bermeon, Gernikan, Durangon eta Eibarren ikusitako txikizioen aurrean.</p>

Udalerria	Ondarroa
Gertakari historikoa	Ondarroako borrokak eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako eta Bizkaiko Defentsa Batzarretako miliziak; euskal armadaren batailoiak Alde frankista: Iruretagoyena zutabea, Nafarroako 2. brigada eta Frecce Nere brigada.
Data	1936ko irailetik 1937ko apirilera.
Deskribapena	1936ko irailaren hondarrean, matxinoen erasoak aurrera egin zuen Gipuzkoako mendebaldeko itsasbazterrean barrena, Deba ibaia alderik alde igaro eta hil horretako 27an Mutriku hartu zuten mendean. Oste errepublikanoek ahaleginak egin zituzten Ondarroa defendatzeko; baina etsaiek inguratuta, atzera egin behar izan zuten urriaren 4an, matxinatuek herria okupatu zuten eta frontea Berriatua aldean egonkortu zen, matxinoak Lekeitiora eta Markinara irits zitezen galarazita. Lehenengo lerro frankistaren base bihurtu zen Ondarroa. Gobernuaren aldekoek bonbardatu eta airetik eraso zuten herria, esate baterako, urriaren 21ean hiru hegazkin errepublikanok eraso zituzten Ondarroa eta ondoko herri batzuk Euskal armadaren indarren lurteko eraso batekin koordinaturik, Urkarregi eta itsasoaren artean. Geroago, 1937ko apirilean, Frecce Nere brigadaren tropek ordeztu zituzten kostaldea babesten zuten Nafarroako 2. brigadaren indarrak. Apirilaren 26ko ilunabarrean, euskal tropek hustu egin zituzten Ondarroatik gertu zeuzkaten posizioak, eta mendebalderantz abiatu ziren. Biharamunetik hasita, Ondarroatik bertatik hasi zen erasotzen Frecce Nere brigada.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Orozkoko
Gertakari historikoa	Orozkoko frontea eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Orozkoko Operazioetarako zutabea: Arabako frontea.
Data	1936ko uztailetik 1937ko ekainera.
Deskribapena	<p>Gerra piztuta hainbat zutabe irten ziren Bilbotik, eta haietako bat, Aizpuru izenekoa, Araba aldeko Amurrio-Urduñan eta Orozkoko haranean egokitu zen. Orozkoko Operazio zutabea izena hartu zuen, eta Baranbioko Fronteaz arduratuko zen Gorbeia mendikatearen mendebaldean. Alde horretatik igaroak ziren euskal konpainia abertzale batzuk, tartean Alberdi izenekoa, 1936ko irailaren hasieran Orozkon zebilena. Geroago Otxandioko batailoira bilduko zen. Urte bereko azaroan, Euskadiko fronteak banatzen ziren bederatzitatik bat zen Orozkoko sektorea, haren mendebaldean zegoen Urduñakoa eta ekialdean Otxandiokoa.</p> <p>Abenduan hainbat unitate kuarteleratu ziren Orozkon, tartean Itxasalde batailoien konpainia batzuk eta hilabete hartan Izarrako herriaren aurkako erasoan parte hartutako UGT sindikatuaren 3. batailoia. Fronte lasaia izan zen oro har, gerra ekintzak urri izan ziren. 1937ko otsailean gobernuaren aldekoek apur batean aurrera egin zuten Sarasola eta Altube inguruan; baina ia ez zen erasorik izan, inorenak ez ziren lurraldeak baitziren. Beraz, alde honetan patruilatzeko eta sendotzeko egitekoak izan ziren gobernuaren aldeko osten gerra jarduera nagusiak.</p> <p>1937ko ekainean, Bilbo ondoko frontea behera etorruta, erabakita geratu zen haranaren geroa. Nafarroako 4. brigada ekainaren 15ean hasi zen aurrera egiten Arratiako haranaren mendebaldean, eta 3.a batu zitzaion biharamunetik Gorbeia aldetik. Ekainaren 17 eta 20 bitartean frankisten esku geratu zen Orozkoko lurralde osoa. Gero, aurrera egin zuten Enkarterrirantz.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) HERRERA (1974) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	

Udalerria	Otxandio
Gertakari historikoa	Otxandioko borrokak eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Otxandioko zutabea; Arabako frontea. Alde frankista: Alonso Vega zutabea; Nafarroako 1., 3. eta 4. brigadak.
Data	1936ko uztailetik 1937ko apirilera.
Deskribapena	Gerra Zibila piztu zenean Otxandio izan zen Arabarantz zihoazen gobernuaren aldeko zutabeen lehenengo norakoa. Uztailaren 22ko airetiko bonbardaketak, zibilen artean (gehien-gehienak), milizianoen artean eta Bilboko indarretako soldaduen artean berrogeita hamarretik gora hildako eragin baitzituen, erabakigarriak izan ziren gobernuaren aldeko tropak geldiarazteko. Bitartean, Legutio zen matxinatuaren esku zegoen hiri gertuena. Hainbat hilabetetan zehar gudu txikiak gertatu ziren frontean, Euskadiko Operazio Armada osatu berriak azken buruan, abenduan, porrotean amaituko zuen Gasteizko hiriaren aurkako erasoak jo zuen arte. Beste sasoi egonkor luze baten ostean, Bizkaiko lurraldearen aurkako erasoak abiarazi zuten ostean frankistek 1937ko martxoaren 31n. Aramaion erresistentzia gogorra erakutsi eta gero, Otxandioko hirigunearen ondoko eremuak bonbardatu ostean, apirilaren 4an frankisten esku geratu zen Otxandio, eta Kantauriko isurialdeak banatzen dituzten mendateen eta Arratiako haranaren aurkako eraso frankistaren base aurreratu bihurtu zen herria.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) HERRERA (1974) IRAZABAL (2006) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) OLABARRIA OLEAGA (2011) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Plentzia
Gertakari historikoa	Plentziako mobilizazioa eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 5. euskal dibisioa. Alde frankista: Frece Nere brigada.
Data	1936ko uztailetik 1937ko ekainera.
Deskribapena	<p>Ordena Publikoaz arduratzen ziren Guardia Zibikoen bidez mobilizatu zen hasiera batean Uribe Kosta, gehien-gehienak euskal abertzaleak ziren. Plentzian atzera eragitea zuten xede, Portugaletetik heldu ziren MAOC eta CNT-FAIko talde ezkertiarren beldur baitziren. Geroago, batailoien moduko unitateetan bildu ziren mobilizatuak eta boluntarioak. Euskal unitate abertzaleetan lerrotu ziren plentziarrak, esate baterako, Ariztimuño batailoian eta bereziki batailoi horretako Jatamendi konpainian. Era berean, Ertzaintzan eta Polizia Motorizatuan jardun zuten. Talde errepublikanoak eta ezkertiarrek, gutxiago baitziren, esate baterako Durruti anarkistaren batailoian eta euskal armadaren disiplina batailoian borrokatu ziren. Era berean, Euzkadiko Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldean borrokatu ziren plentziar batzuk, haietako bik bizia Matxitxakoko Lurmuturreko guduan galdu zutela.</p> <p>Eusko Jaurlaritzak apirilaren 29an emandako aginduaren bidez ordezkari batzuk izendatu ziren Plentziako plazarako, horrenbestez bilduko zen “gerra eremuaren” kategoriara. Herriarentzako eta auzoentzako gerraren helduera izan zen, unitate militarrek beren kaleetan zehar ibiltzen ziren, eta Sollube eta Jata mendietako berehalako gudu etengabeen hasierarekin bat zibilak ebakutzen hasi ziren erretagardia seguruago eta urrunago baten bila. Plentziako lurretatik igaro ziren, besteak beste 5. eta 9. euskal brigaden unitateak, Santanderreko 2. espedizio brigada eta Lubakitzaille eta Ingeniarrien indar ugari.</p> <p>Azkenik, Bilbo Defendatzeko Gerrikoa hautsita, 5. euskal dibisioak atzera egin behar izan zuen Nerbioi ibaiaren ezkeraldera, eta aurrera egin zuten Frece Nere brigadaren indarrek. Azken horiek ekainaren 14tik egin zuten aurrera Jatatik, Plentzia okupatu zuten eta zubi-buru bat osatu zuten itsasadarraren mendebaldeko ertzean. Bitartean, unitate bereko beste indar batzuk iritsi ziren Butroe gaztelura Maruri, Lemoiz, Gorliz, Gatika eta Laukiz okupatu eta gero. Biharamunean, italiar agintaritzaren indarren esku geratu zen Uribe Kostako gainerakoa, baina jazoera deitoragarri bat gertatu zen alde frankistaren abiazioa tronpatu eta Plentzia metrailadoreekin eraso zuenean; haur bat hil zuten, eta eraso amaitu egin zen gizon batek bandera frankista bat haizatu zuenean hegazkin pilotuak ohartu zitezen herria frankisten esku zegoela.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) JUARISTI LARRINAGA (2008) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Portugalete.
Gertakari historikoa	Mobilizazioa, Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldearen basea eta Okupazioa
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Hasierako miliziak, Justo Rodríguez Rivas Asaltoko tenientearen zutabea, batailoi askotan eta Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldean ibilitakoak. Ontzitalde horrek Portugaleten eduki zuen base nagusia. Alde frankista: Nafarroako 4. brigada.
Data	1936ko uztailetik 1937ko ekainera.
Deskribapena	<p>Altxamendu militarra hasita goiz ziren mobilizatzen Portugaleten. Uztailaren 21ean Justo Rodríguez Rivas tenientea buru izango zuen zutabea antolatu zen Bilbon. Bizkaiko Gobernari Zibil Echeverría Novoak Donostiara bidali zuen hiri hartan hasi berria zelako matxinoen saioa. Rodríguez zutabeak ehunka gizon bildu zituen, eta handitu egin zen Donostiara bidean hamarnaka gizon batu ahala; guztira 600 gizon, kamioi blindatuak eta morteroak bilduko zituen. Gudularien ia herena Portugaleteko Euskadiko Alderdi Komunistak jarri zuen. Gainera, Euzkadiko Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldearen basea izan zen Portugalete. Itsas armadako Goi Agintaritza Bilboko Carlton Hotelean zegoen, eta 1936ko azaroz geroztik Portugaleteko Hotelean zegoen herriko Itsas Ordezkaritzaren egoitza. Ordezkaritza horrek bideratzen zuen kostaldeko zaintza, minak kentzeko zeregina, lotura lanak egiten zituen borrokarako bouen artean, eta portuko instalazioei zegozkienak bideratzen zituen. Ondorioz, airetiko bonbardaketen jomuga bihurtu zen Portugalete; izan ere, maiatzaren 10ean bereziki eraso zituzten Portugalete eta Getxo.</p> <p>Gatazka luze jotzen ari zenez, konpainietara eta batailoietara bildu ziren hasierako miliziak. Batailoi horietako batzuek Portugaleten antolatutako kasernetan zuten egoitza, hainbat unitate izan ziren egoitza hori txandaka okupatu zutenak: Ariztimuño, Euzko Indarra (Eusko Abertzale Ekintzaren 2.a), Baracaldo-Martínez Aragón (UGT sindikatuaren 13.a), Malatesta eta Diziiplina batailoiak. Azken horrek San Antonio txaletean izan zuen bere kuartela.</p> <p>Bizkaiaren aurkako eraso frankistak eta Bilbo Defendatzeko Gerrikoaren hausturak behartu zituen euskal armadaren indarrak ezkerraldera eramatera. Portugalete ezinbesteko igarobidea izan zen 5. euskal dibisioaren indarrak erretiratzeko, Plentzia-Getxo-Erandio eremuan inguratuta geratzeko arriskuan baitzeuden. Ekainaren 15ean, frankistak Artxandan eta Basaurin borrokatzen ari zirenean, Asua ibaiaren haranean aurrera eginda, Nerbioi ibaiaren ezkerraldera erretiratzeko agindua jaso zuten. Unitate batzuk Getxora daramaten errepideetan barrena erretiratu ziren. Dibisioaren atal bat zubi esekian barrena iritsi zen Portugaletera, geroago leherraziko zuten, egun berean. Unitate batzuek gauera arte eutsi zioten ebakuatzeko zubi-buruari, orduan erretiratu ziren Portugaletera era berean leherrarazi zuten zubitik, eta beste indar batzuk Erandion barrena iritsi ziren Bilbora, autobusez, Nerbioi ibaiaren eskuinaldeko errepideetatik.</p> <p>Azkenean, ekainaren 22an, Nafarroako 2. brigada sartu zen Portugaleten. Geroago, iparraldea husten ahalegindu ziren ontzi errepublikano batzuk harrapatu zituzten frankistek, eta Portugaletera itzultzera behartu zituzten. Horixe bera gertatu zitzaion Adin-Mendi atoi ontziari, Portugaletera eraman baitzuten abuztuaren 23an Santanderretik gizez beterik ihes egiten saiatu zenean.</p>
Iturriak	MUNARRIZ HERNANDO (2012) PARDO SAN GIL (1998) ROÑANA (2005) RUIZ SIERRA (2005) SARRIA (1978)
Oharrak	

Udalerrria	Santurtzi
Gertakari historikoa	Mobilizazioa, okupazioa eta errepresioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gerora euskal armadaren batailoietara bilduko ziren miliziak. Alde frankista: Nafarroako 4. brigada.
Data	1936ko uztailetik 1937ko ekainera.
Deskribapena	<p>Indarren mobilizazio goiztiarrak eragin zuen indar horiek aurreneko zutabeetara biltzea, eta geroago alderdien eta sindikatuen konpainiak eta batailoiak osatzea. Unitate askok izan zuten beren kuartela Santurtzin, esate baterako Lenago-il batailoiak, 1937ko urtarrilaren hondarrean egoitza Santa Eulalia kuartelean zuenak. Portu aldeari esker garrantzitsua zen herri hau matxinatuen airetiko sarraldien jomuga izan zen hainbat aldiz, esate baterako, 1936ko abuztuaren 8an eta 1937ko apirilaren 29an eta maiatzaren 12an. Azken egun horretan itsas unitate errepublikanoak izan ziren hegazkin frankistek bilatzen zituztenak, eta “Galdamesko ontziralakua” deituan C-6 itsaspekoa jo zuten, matxuratuta geratu zen eta sei marinela hil eta hiru zauritu zituzten.</p> <p>Santurtziko portu aldeak, gainera, zibilak atzerrira eta Santander aldera eramateko balio izan zuen, bertan izan zen gero Frantzia barrena SESBra igorritako haurrak jaso zituen Habana transatlantikoa. 1937ko maiatzaren 6aren eta ekainaren 17aren artean gutxienez 16 espedizio handi izan ziren, 36 merkataritza ontzik eta transatlantikok parte hartu zuten (arestian adierazitako Habana transatlantikoak hainbat bidaia egin zituen), 29 Frantziara joan ziren eta zazpi Santanderrera, azken hiri horretara errefuxiatuz beteriko hamar arrantzontzi eta txalupa iritsi zirela. Guztira gutxi gorabehera 35.000 lagun iritsi ziren Frantziara, asko eta asko haurrak zirela, eta 10.000 baino gutxiago ez Santanderrera.</p> <p>Bilbo erorita behera etorri zen ezkerreko erresistentzia. Etsaien erasoak desgindako unitateak iritsi ziren Santurtzira. Esate baterako Zergatik-ez batailoiaren buruek unitatea abandonatu eta Frantziara ihes egin zuten destruktore batean ekainaren 15eko goizaldean, unitatea barreiatu egin zen Barakaldo-Santurtzi aldean, eta ekainaren 23an Santurtzi okupatzen zuten gizon asko hartu zituzten atxilo.</p> <p>Geroago, artean ikertzeko dagoen errepresio frankistaren alderdi batekin lotutako gertakari batzuekin jarri zuten harremanetan herriaren izena. Santander erori ondoren, hainbat ontzi errepublikano harrapatu zituen armada frankistak, ehunka gudulari eta zibil zeramatzen Frantzia aldera. Asko eta asko Santurtzira eraman zituzten, eta berehalako taldeko identifikazio saioak egin zituzten haiekin. Arrazoi batengatik edo bestengatik identifikatzen bazituzten, bereizi eta desagerrarazten zituzten. <i>Aller</i> bapora ontziarena da adibide bat; besteak beste Bakunin batailoi akrotako gizon asko zihozten hartan. Santurtzira eraman zuten ontzia, eta lehorreratu bezain laster salatu egin zituzten lagunekin kamioi bat bete zuten frankistek, lagun horien artean zegoen batailoiko komandante Julio Martínez. Segur asko guztiak bidali zituzten “paseatzera”, hau da, akabatu egingo zituzten prozesu eta formaltasunik bat ere izan gabe.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) ALONSO CARBALLE (1998) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) MENDIVIL (1992) PARDO SAN GIL (1998) SOLDEVILLA ORIA (1998) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	Iparraldeko Frontearen itsasoz barneko ebakuazioak aztertzean, “euskal herritar-tzat” jotzen dituzte iturri batzuek Kantauriko portuetatik irtendako errefuxiatu guztiak, eta horrek nahasi egiten du errealtatea, asturiarrek eta santandertarrek beren errefuxiatuen kuota izan baitzuten ebakuatutako taldeetan, baita Habana transatlantikoak garraiatu eta Frantzia barrena SESBra iritsi ziren hauren artean ere.

Udalerria	Abadiño, Mañaria, Dima
Gertakari historikoa	Saibigaingo (Sebigain, Sabigan, Sabigain, Saibi, Sebigan bezala ere aipatua) borrokak. Otxandioko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Arabako Fronteko indarrak eta Asturiastik iritsitako erreformatuak. Alde frankista: Nafarroako 1. brigada.
Data	1937ko apirilaren 5etik 15era.
Deskribapena	1937ko martxoaren 31n Bizkaiaren aurkako eraso frankista hasita, apirilaren 4an erori zen Otxandio, eta biharamunean berriro ere ekin zioten erasoari Kantauriar mendikateko mendateak mendean hartzeko xedearekin. Nafarroako 1. brigadak Urkiolako mendatea zuen jomuga, haren mendebaldean dago Saibigain mendia, funtsezko posizioa bera, hura mendean edukita mehatxupean geratzen baitziren aipatutako mendatea eta Saibigain mendiaren hego-mendebaldean urrunxeago dauden Zumeltza eta Barazar mendateak. Apirilaren 5ean Urita mendiaren erpinean egokitu zen Nafarroako 1. brigada, Urkiolako hegoaldean, eta handik Saibigain konkistatu zuen biharamunean borroka latz baten ondoren; horrenbestez, Urkiolako mendatea eta Zumeltzako okupatu zituzten. Hilaren 11n errepublikanoek gogor erantzun zuten, hasieran ez zuten helburua lortu, baina 12an bai, erabakigarria izan zen Asturiasko 2. espedizio brigadaren parte hartzea. Hilaren 13an kontraerasoa jo zuten frankistek airetiko eta artilleria bidezko eraso masiboarekin, eta posizioa berreskuratu zuten. Halaz ere, euskal armadaren tropek, Arana Goiri batailoiak, berriro ere berenganatu zuten hilaren 14an, biharamunean betikoz galduko bazuen ere. Geroago, maiatzaren hondarrean, Saibigain izango zen Nafarroako 4. brigadaren indarren abiapuntuetako bat Mañariko Haitzak inguratzeko eta Dimako herria okupatzeko operazioan.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) TABERNILLA eta LEZAMIZ (2002) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2012)
Oharrak	Beldarrainen obra izango da, agian, gerrak Euskal Herrian bizi izandakoak batera hartzen dituen narraziorik zehatzena eta aberatsena. Gainera, gertakarietan izan zen batek idatzia da, beste lekuko batzuen testigantzetan eta ikerlariek eta erakundeek metatutako dokumentazioan oinarrituta dago. Egilea euskal abertzalea zenez, ezinbestekoa da euskal unitate abertzaleen gorabeheren berri izateko; baina baditu beste ideologietako indarrekin jazotakoei begira hutsune edo subjektibotasun batzuk, nahiz eta beste iturri horiek ezagutzen ez zituelako izango zen, eta ez datuak manipulatu nahi izan zituelako. Esate baterako, Saibigain asturiarrek berreskuratu zuten kontu horri dagokionez, Beldarrainek honela dio (134. or.): <i>no se cual o cuales fuerzas participaron en esa acción</i> “.

Udalerrria	Sestao
Gertakari historikoa	Sestaoko mobilizazioa eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: aurreneko Zutabeetako miliziak, gerora batailoietara bilduko zirenak. Alde frankista: Nafarroako 6. brigada.
Data	1936ko uztailetik 1937ko ekainera.
Deskribapena	<p>Gerra piztu zenean mobilizazio goiztiarra gertatu zen. Sestaoko milizianoak aurreneko Zutabeetara bildu ziren, horien artean Vidalen zutabera. Haietako batzuk hilik eta zauriturik gertatu ziren 1936ko uztailaren 22an matxinatutako abazioak Otxandio bonbardatu zuenean. Biktima gehien-gehienak bertako herritarrak izan ziren, baina Garellano Mendiko batailoiko soldaduen artean, Basauri-Etxebarriko taldeetako milizianoen artean eta Sestao-Somorrostrokoen artean gutxienez dozena bat hildako eta askoz ere zauritu gehiago izan ziren.</p> <p>Alderdi eta sindikatu guztietako miliziak konpainia eta batailoietara bildu ziren, horietako batzuek Sestaon zuten kuartela. Elgezabal euskal konpainia abertzalea 1936ko abuztuan osatu zen hainbat batzokitatik, tartean Sestaokotik, etorritako gudar boluntarioekin. Gordexola bezalako batailoiek Sestaon izan zuten beren kuartela. Legutioko gudua kolpe latza izan zen Sestaoko bizilagunentzat, herriko borrokalari asko eta asko zendu baitziren gudu hartan. Haietako bat Sestaoko Fronte Popularreko buruzagi Francisco García Pinedo zen; Baranbioko frontean hil zen borrokan ari zela, abenduaren 7an, UGT sindikatuaren 3. batailoian sartuta.</p> <p>Sestaoko fabrikek, bereziki Sestaoko Naval ontziolak, parte hartu zuten gerra irabazteko ahaleginean. Aipatu ontzian Trubia blindatuak eraiki zituzten, "Euzkadi" blindatuak izenarekin ezagutzen ziren, blindatuen batailoian zerbitzatu zuten, eta Asturiasko Trubia fabrika gerra hasi baino lehen diseinatutako blindatuetan oinarritzen ziren. Sestaoko industria garrantzitsua izanik, Francoren zerbitzuan jardun zuen abazioaren airetiko erasoen helburua izan zen. Behin eta berriz eraso zuten Sestao. Bilbo erori baino lehen, 1936ko urriaren 11koa, 1937ko urtarrilaren 3koa (ez zuen hildakorik eragin Sestaon), apirilaren 29koa, maiatzaren 23koa eta ekainaren 15koa izan ziren airetiko bonbardaketa aipagarrienak. Era berean, hildakoak eragin zituzten ezbeharrak gertatu ziren lehergaiak fabrikatzean, esate baterako La Vizcaya fabrika apirilaren 15ean gertatu bezala.</p> <p>Tokiko fronte popularrak Erretagoardiako Batailoiak deituak osatzen zituzten boluntarioekin elkartu ziren, gotorlekuak antolatzen zituzten. Sestaoko batailoiak konpainien 10 brigada edo sekzio zeuzkan kontrolpean maiatzaren 10 aldera, gotorlekuak eraikitzen ematen zuten. Bilbo erori ondoren, euskal abertzaleen lehentasuna zen ezker aldeko industriak balizko triskantzetatik babestea. Irrintzi batailoien 1. konpainiak helburu horrekin jardun zuen Naval ontzian, Santanderrera erretiratu baino lehen. Euzko Indarra batailoiak (Eusko Abertzale Ekintza), bere aldetik, Sestao eta Barakaldo arteko ibai tarte babestu zuen, eta batailo horretako buruek uko egin zioten Frece Nere italiar brigadako buruekin hasitako negoziazioetan parte hartzeari; negoziazio horiek, finean, Barakaldo ematera eta Labe garaiak entregatzera mugatu ziren, eta batailoiak bat egin zuen Santander aldera erretiratzen ari zirenekin. Ekainaren 22an, Trapaga eta Portugalete okupatu ostean Nafarroako 6. brigadak aurrera egin eta isolatuta utzi zuen Sestao, jarraian okupatu zuten herria.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) PIAZZONI (2011) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Bakio, Mungia, Meñaka, Arrieta, Errigoiti (Sollubeko mendiaren lurretan banatzen dira herri horiek)
Gertakari historikoa	Sollubeko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa, 1., 5., 8., 9. eta 13. euskal brigadak osorik; batailoien atal batekin edo errefortzuez sendoturiko batailoiekin jardun zuten 2., 4., 14. eta 17. euskal brigadek, Euskadiko Morteroen batailoietako eta Irrintzi batailoia indarrek, euskal armadaren Transmisioen bi batailoiek, blindatuen batailoiak, Ingeniari, Artilleria, zerbitzu eta beste hainbatek osatutako batailo batzuek; Asturiasko 1. eta 4. espedizio brigadek, Santanderreko 1. eta 2. espedizio brigadek eta blindatuek eta artilleriak osatutako indar batzuek. Alde frankista: Nafarroako 5. brigada, bere 10 batailoiekin gehi molde horretako hiru unitate osorekin eta Nafarroako 4. brigadatik etortitako konpainia batzuekin. Nafarroako 4. brigadak, guztira 12 batailoiez osatuak, bere indarren zati batekin parte hartu zuen Sollube konkistatzeko lehenengo fasean, Matzaga mendean hartu nahi izan zuenean. Era berean, osorik jardun zuten Frece Nere italiar-espainiar brigada bitarikoak, italiarren agindupean, eta Francisci Taldeak, era berean XXIII di Marzo deituak. Gainera, Italiako hainbat artilleria taldek jardun zuten. Nafarroako 1. brigadari dagokionez, indar batzuek parte hartu zuten Matzaga okupatzeko eta Sollube hegoaldetik inguratzeko operazioetan. Indar horiei gehitu behar zaizkie Blindatuen, Ingeniarien eta Zulatzaileen indarrak, Osasun zerbitzuak, bestelako zerbitzuak eta espainiar hegazkin ugari, baita Italiako Legioko Abiazioa eta Alemaniako Condor Legioa ere.
Data	1937ko apirilaren 30etik maiatzaren 14ra.
Deskribapena	Apirilaren 29an Gernika hartu zuten frankistek, eta biharamunean Bermeon sartu ziren Frece Nere brigadaren indarrak. Maiatzaren 1ean Sollube okupatzen saiatu ziren, baina atzera eragin eta kontraerasoa jo zuten haien aurka; horrenbestez, Bermeon eta Mundakan geratu ziren Frece Nere brigadaren indarrak isolatuta. Maiatzaren 3ra arte egon ziren euskal tropek inguratuta. Maiatzaren 6tik aurrera Nafarroako 5. brigadak mendilerroa konkistatzeko borrokan jardun zuen, aurrerapen batzuk egin zituen egun horretan eta hurrengoan. Hilaren 8an, Marokoko indar erregularrek ustekabeko eraso jo eta euskal-asturiar tropek gainetatik behera egin behar izan zuten mendikateko mendebaldeko isurialderantz. Hilaren 9an, Frece Nere brigadaren indarrek iparralderago Burgoa eta Bakioko okupazioak sendotzen zituzten bitartean, euskal armadaren tropek kontraerasoa jo zuten Sollubeko gainaldeetan. Hilaren 10ean, euskal-asturiar indar bateratuen presioak mehatxupean jarri zituen berriro ere gain nagusiak, sarraldi arriskuak bideratu zituzten. Hilaren 12an Nafarroako 5. brigadak eraso orokorra jo zuen euskal armadaren tropak mendikatearen mendebaldeko isuritik urrunarazteko. Hegoaldetik Arrieta-Libaorantz egitea lortu zuen, baina azkenik bertan eutsi zieten. Gainaldeetan, porrot biribila izan zen euskal armada mendebaldeko isurialdetik egozteko saioa, ehunka baja nozitu zituzten. Azkenean, hilaren 14an, Frece Nere brigadaren erasoak, XXIII di Marzo agrupazioak eta Nafarroako 5. brigadak lagundurik, aukera eman zion italiar brigadari Jata mendiaren ekialdeko isurialdean finkatzeko eta Tollu mendia okupatzeko, 5. brigadak Sollubeko mendebaldeko isurialdetik tropa errepublikanoak egotzi eta Libao okupatu zuen artean. Amaitua zen Sollubeko gudua, eta hasia zen Jatakoa.
Iturriak	ALCOFAR NASSAES (1972) AZNAR (1961) BELDARRAIN (1992) DELGADO CENDAGORTAGALARZA (1998) MARTÍNEZ BANDE (1971) MESA (1994) PIAZZONI (2011) ROVIGHI eta STEFANI (1992/1993) SALAS LARRAZABAL (1998) STEER (1978) TALÓN (1988) VARGAS ALONSO (2007) Zenbaiten artean: <i>Crónica de la guerra española</i> , 5 liburuki. Arg.: Codex, Buenos Aires, 1966 Zenbaiten artean: <i>La guerra Civil en Asturias</i> , 2 liburuki. Arg.: Júcar, Madril, 1978
Oharrak	

Udalerrria	Sondika
Gertakari historikoa	Aerodromoa eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Armadaren Abiazio Zerbitzua, gero Espainiar Errepublikaren Aire Indarren (FARE) Iparraldeko Aire Indarrak. Alde frankista: Armadaren Abiazio Zerbitzua, Alemaniako Condor legioa, eta Italiar Legioko Abiazioa.
Data	1937ko maiatzetik ekainera.
Deskribapena	<p>Bizkaiaren aurkako eraso frankistaren hasiera-hasieratik lurraldea airez babesteko egoeran ez zegoenez, Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz eskatu zion estatuko gobernuari hegazkinak bidali zitzaala lurraldearen babesa sendotzeko. Neurri hori babesteko argudioetako bat zen Sondikako aerodromoa eraikitzen amaitu zutela, ordura arte Bizkaian erabilitako Lamiakokoak (Leioa) baino baldintza hobek zituela, Lamiakokoak baliogabetua zegoela eta ez zutela apirilaz geroztik erabiltzen, abiazio errepublikanoak Bizkaia utzi behar izan zuen unetik, alegia.</p> <p>Ugari izan ziren Iparraldea abiazioarekin sendotzeko saioak, porrotak bezainbeste. Apirilaren 10ean, maiatzaren 3an bezala, iparraldera iristen saiatu zen lagunduta ez zihuan hegazkin bat, baina ez zuen helburua lortu, Frantzia lurreratu behar izan zuen, armak kendu zizkieten, eta Kantauri aldera joan ez zedin, itzularazi egin zuten armaz hornituriko eskoltak lagunduta. Maiatzaren 9an, Sollubeko gudua gertatzen ari zenean, 15 hegazkinek itzuli behar izan zuten errepublikanoen mendeko lurraldera (bederatzi ehiza-hegazkin, bost bonbaketari eta garraio-hegazkin bat). Maiatzaren 17an beste horrenbeste gertatu zitzaizen beste 17 hegazkini (12 ehiza-hegazkin eta eremuak arakatzeko beste bost). Porrot horien aurrean, taktika aldatzea beste aukerarik ez zegoen. Hegazkinak zuzeneko hegaldietan bidali zituzten iparraldera, Frantzia lurreratu gabe baina tarte batzuk Frantziako lurraldearen gainean eginez, hegazkinen bat matxuratuz gero Frantziako lurretan lurreratzeko aukera izan zezan. Maiatzaren 24an 12 ehiza-hegazkin irten ziren iparralderantz. Tamalez, erabatekoa izan zen porrota. Matxuratuta edo nabigazio alorreko akatsak tarteko, errepublikanoen mendeko lurraldera itzuli ziren ehiza-hegazkinetatik erditik gora, bat itsasora jauzi zen Donostiako hiriaren aurrean, eta beste bat Lamiako gainean bota zuten. Iritsi zirenak gutxira matxuratu ziren, edo aireko borroketan suntsitu zituzten, edo Santanderren jasandako bonbardaketen ondorioak nozitu zituzten. Sondikako aerodromo berria era-biltzeko saioari berehalakoan erantzun zioten, maiatzaren 24an bertan 3,5 tona bonba jaurti baitzituzten Sondikako instalazioen aurka hiru bonbaketari italiarrek. Beraz, ezin izan zuten aerodromoa erabili, eta ekainaren 16an etsaiaren esku geratu zen Sondika.</p>
Iturriak	AGUIRRE (1978) ALCOFAR NASSAES (1975) SALAS LARRAZABAL (1998) TALÓN (1988) VARGAS ALONSO (2012)
Oharrak	

Udalerrria	Bermeo
Gertakari historikoa	Truendeko borrokak. Sollubeko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa, 1. eta 13. euskal brigadak. Alde frankista: Frece Nere brigada, Nafarroako 5. brigada.
Data	1937ko apirilaren 30etik maiatzaren 8ra.
Deskribapena	Truendeko gaina edo 418 kota Sollubeko mendilerroko gailurretako bat da, bertatik mendean hartzen da Bermeo, mendiaren hego-ekialdean dago herria. Funtsezkoa izan zen gain hori mendean edukitzea maiatzaren 1ean Frece Nere brigadak aurrea ez egiteko eta egun horretan eta biharamunean, euskal armadaren jazarpenaren aurrean, tropa frankistak Bermeon eta Mundakan egotera behartu zituzten kontraerasoak bideratzeko. Hilaren 3ko erreakzio frankistak gaintara gibelatzera behartu zituen euskal tropak, eta ondorengo erresistentziaren funtsezko posizio bihurtu zen Truende. Hilaren 6an, Solluberen aurkako erasoaren hasieran, Truendera bildu ziren Bermeotik gertuen zeuden euskal tropak. Hilaren 7an funtsezkoa gertatu zen bertako erresistentzia Nafarroako 5. brigadaren erasoei aurre egiteko. Azkenean, hilaren 8an, abandonatu egin zuten Truende, ustekabean Sollubeko erpina konkistatu baitzuten tropa marokoaiek, Truende bizkarraletik mehatxatuz eta Mungiaranzko errepidea moztuz. Defendatzaileek, landetan barrena, Bakiorantz erretiratu behar izan zuten.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007)
Oharrak	

Udalerrria	Ubide
Gertakari historikoa	Ubideko base militarra, borroka eta okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Vidal zutabea gerra piztutakoan; Cueto zutabeak jardun zuen Legutioko erasoan. Eraso hartan edo geroago, 1937ko apirilera arte, hainbat unetan, honako batailoi hauek borrokatu ziren Ubide aldean: Ariztimuño, Fulgencio Mateos, UGTren 5.a (Madril), UGTren 7.a (Asturias), UHP (Meaberen 4.a), Gordexola, Padura, Larrazabal, Martiartu, Rebelión de la Sal, Rosa Luxemburgo, Perezagua, Azaña-Vizcaya, Isaac Puente, Durruti eta Diziiplina. Martxoaren 31n Bizkaiaren aurkako eraso frankistari ekin ziotenean, Arabako Frontera biltzen zen Ubide aldea. Aizpuru teniente koronela zen aipatu fronteko burua, eta Kuartel Nagusia Ubiden zuten. Gainera, aipatu Fronteko lau sektoreetatik bat zen Ubide, eta UHP, Madrid, Durruti eta Rebelión de la Sal batailoiek babesten zuten. Alde frankista: Nafarroako 4. brigada.
Data	1936ko uztailetik 1937ko apirilera.
Deskribapena	1936ko uztailearen 19tik 20rako gauean irten zen Bilbotik Vidal zutabea, Barazar mendatea igaro eta 20ko goizean iritsi zen Ubidera. Orduz geroztik, Arabako lerro errepublikanoaren base bihurtu zen Ubide Otxandioekin batean. Aurreneko hilabeteetan gudu txikiak izan zituzten gobernuaren aldeko indarrek Araban matxinatutako tropekin. Abuztuaren 8an Legutioko erreketek tirokatu egin zituzten Ubiden prestatzen ari ziren milizianoak. Hil bereko 25ean errepublikanoek gainetatik Gasteizko tropak alboratu eta Ubidetik Legutio tirokatu eta morteroak jaurti zituzten. Hilaren 26an kalte gehiago eragin zituzten urtegiara egindako sarraldiek. Gasteizko hiriaren aurkako abenduko erasoari begira, Cueto zutabearen basearena egin zuen Ubidek, eta Arabako Frontea deitutako sektoreetako bat bihurtu zen gero; fronte horrek Ubiden zuen kuartel nagusia. Martxoaren 31n hasitako eraso frankistak batez ere Otxandio izan zuen helburu, Otxandio hilaren 4an erori zen, eta erasotzaileek Barazar aldera egin zuten sektorea isolatuta uzteko mehatxua egin zuten. Hortaz, herria hustu eta etsaien esku geratu zen apirilaren 7an.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerria	Abadiño
Gertakari historikoa	Urkiolako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Arabako frontea (Ibarrola), Abellaneda, Amaiur, Stalin (Meaberen 2.a), euskal armadaren morteroen 72. batailoia eta 34.a (edo 234.a) bezalako batailo asturiarrak. Alde frankista: Nafarroako 1. brigada.
Data	1937ko apirilaren 6tik 15era.
Deskribapena	<p>Apirilaren 4an Otxandio erorita, Nafarroako brigadek biharamunean jarraitu egin zuten mendateak, Urkiola barne, konkistatzeko erasoekin. 1. brigadak Urita gailurra okupatu eta moztu egin zuen Otxandiotik Durangora doan errepidea, eta Nafarroako 3. brigadak Ollargan gailurra hartu zuen mendean. Blindatu frankisten eraso saio bat galarazi zuten euskal armadaren blindatuek. Hurrengo egunean, Nafarroako 1. brigadak erresistentzia errepublikanoa gainditu eta Zumeltzako mendatea (Dima) eta Saibigain mendia okupatu era Urkiolara iritsi zen. 3. brigadak, aurrekoaren eskuinaldean, Arangio mendia eta Ambotasteko lepoa okupatu zituen. Hilaren 7an, brigada horrek berak 1.007 kota hartu zuen mendean, Urkiola eta Anboto artean, bertatik Urkiolako mendatea kontrolpean edukitzeko. Hurrengo egunetan unitate berriekin sendotu zituzten indar errepublikanoak, bertara bildu ziren Arana Goiri, Itxarkundia eta Salsamendi batailoiak eta brigada asturiar bat. Jarraian Saibigainen izan ziren borrokak, Urkiolaren mendebaldean, indar errepublikanoek frankistek Urkiolan zeuzkaten posizioei eraso zietenean. Durango erori ondoren, Urkiola eta Izurtza arteko errepide tartean zeuden indar errepublikanoak egoera kaskarrean geratu ziren Mañarian, Mugerra aldean eta Urkiolako haitzetan dauden lepoetan barrena jarri behar izan zuten harremanetan erretagoardiarekin. Maiatzaren 22tik aurrera Nafarroako 2. eta 4. brigadek inguratuta gertatu zirenez, euskal armadaren indarrek atzera egin behar izan zuten. Biharamunean geratu zen Abadiño frankisten esku.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) CIUTAT DE MIGUEL (1978) MARTÍNEZ BANDE (1971) TALÓN (1988) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	

Udalerrria	Zornotza
Gertakari historikoa	Urrimendiko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 2. euskal dibisioa: Arana Goiri eta Santanderreko 116. batailoiak. Alde frankista: Nafarroako 1. brigada.
Data	1937ko apirilaren 30etik maiatzaren 1era.
Deskribapena	Santanderreko 116. batailoia, Barba buru zuen Brigadakoa, apirilaren 23an iritsi zen Bilbora errefortzu gisa. Hilaren 24an frontera abiatu eta 30ean Nafarroako 1. brigadaren aurka borrokatu zen Urrimendin, Iurretatik Zugastietara eta Urrutxura doazen errepideen bidegurutzearen mendebaldean. Arana Goiri batailoia indarrekin bat egin nahi zuen Santanderrekoak. Konpainiako lehenengo batailoia bi eraso frankista galarazi zituen, etsaien bajak eta bandera bat harrapatu zituen, eta bandera hori baliatu zuen frankisten artilleria tiroak saihesteko. Banderak nahasmendua eragin eta Arana Goiri batailoia bat egite hori saihestu zuen, eta Nafarroako 1. brigadaren beste eraso batek 116. batailoia indarrek atzera egitea ekarri zuen; batailoia horren 1. konpainiak indarren % 60 galdu zituen egun hartako borroketan. Biharamunean, Arana Goiri batailoia kontraeraso jo zuen alde horretan, Zamalloamendi mendia berreskuratu zuen, nahiz eta ahalegin horretan hamarka baja izan zituen, hamarren bat hildako tartean. Horien artean zegoen Leizaola konpainiako kapitain Juan Aguirre.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) STEER (1978) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Steerrek (227. or.) 116. batailoia parte hartzearen bertsio aurkako bat eskaintzen du, eta egoera hori etenik gabe errepikatzen da bere obran Asturiasko eta Santanderreko unitateak aztergai dituenean.

Udalerria	Muxika, Mendata
Gertakari historikoa	Urrutxua-Aiuriako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako fronteko indarrak, horien artean aipagarri 12. euskal brigada eta beste unitate batzuk (Eusko Abertzale Ekintzaren 3.a), gehi Asturiasko 3. espedizio brigada (213., 216. eta 230. batailoiak). Alde frankista: Zamorako 4. batailoia eta Erregularren 5. taborra. Maiatzean erreke-teen San Fermin tertzioak jardun zuen.
Data	Apirilaren 29tik maiatzaren 6ra.
Deskribapena	<p>Apirilaren 29an, Gernika erori zen egunean, Aiurian bildu ziren, foru hiriaren hegoaldean, euskal indarrak eta Asturiasko espedizio brigadaren indarrak kontraerasoa jartzeko asmoz. 12. euskal brigadak 430 kota eta Urrutxua zituen helburu, auzo horren eta Gernikaren arteko errepidea moztu nahi baitzuen. Hegoalderago, Asturiasko 3. espedizio brigadak, Urrutxua-Durango errepidea gainditu eta Garoño mendia hartu nahi zuen mendean. Hilaren 30eko goizaldean erasoari ekin eta tropa errepublikanoek azpiratu egin zuten Zamorako 4. batailoia, 430 kota eta Garoño mendia konkistatu zituzten, Urrutxuatik Gernikara eta Durangora doazen errepideak moztu zituzten eta aipatu herria inguratu zuten. Baina Tetuango 5. taborraren indarrak iritsi ziren, Zamorako batailoien indarrek erreakzionatu zuten eta atzera eragin zieten erasotzaileei, kalte nabarmenak eraginez, nahiz eta azken horiek kanoiez hornituriko lau BA-6 blindatu sobietarren laguntza izan zuten.</p> <p>Maiatzaren 5ean errepublikanoek kontraerasoa jo zuten Zugastietako frontean, matxinoek Aiurian eta 276 kotan, Ameztu edo "las Piedras" izeneko mendian (beste erreferentziarik ezean Askaraiko Haitzekin identifikatzen dugu, Gernikatik Zornotzara doan errepidearen eskuinaldean) zuten posizioaren aurka. Asturiasko 3. espedizio brigadaren indarrek (Otero 216. batailoia/1. Dutor) jokatu zuten paper nagusia, eta San Fermin tertzioko konpainia batek jasan zituen okerrenak, zeharo murriztuta geratu zen. Eraso arrakastatsuen ostean abandonatu egin zuten posizioa, nahiz eta frankistek hilaren 6an berreskuratu zuten.</p>
Iturriak	<p>AROSTEGUI (1991) BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007) Zenbaiten artean: <i>La Guerra Civil en Asturias</i>, Arg.: Júcar, Madril, 1986.</p>
Oharrak	<p>Ekintzari buruzko euskal berriak, baina, okerreko datuak eman zituen; izan ere, kota hori "Bermeoko sektorean" zegoela zioen, "italiarrak" sutsuki defendatzen ari zirela, eta "euskal infanteriaren" erasoei esker konkistatu zela. Arostegui ere okerreko datu batzuk eman zituen, erasotzaileak "euskal abertzaleen" tropak izan zirela adierazi baitzuen, eta euskal frontea hizpide duenean beti egiten duen bezala, "egun horretan bertan italiarrak Bermeon azpiratuak" izan zirela baitio. Egile horren arabera, hilaren 5etik 6rako goizaldean izan zen eraso, eta tropa errepublikanoek Las Piedrasko posizioa berreskuratu zuten erreketean San Fermin tertzioko 4. konpainia azpiratu ondoren (73 baja izan zituen, tartean 18 hildako eta 50 zauritu).</p>

Udalerrria	Zaldibar
Gertakari historikoa	Santamañazarreko borroka eta Zaldibarko okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako fronteko indarrak eta Abellaneda batailoia. Alde frankista: Nafarroako 1. brigada, Amerika erregimentua, Nafarroako erreketeen tertzioa.
Data	1937ko apirilak 25 eta 26.
Deskribapena	Elorrio okupatu eta gero Intxortako frontea erori ondoren, euskal armadaren indarrek ahaleginak egin zituzten beste lerro bat osatzeko eta Gipuzkoako Frontea deitua suntsitzeko mehatxua egiten ari zen etsaia geldiarazteko. Apirilaren 25ean Zaldibarrera iritsi zen Abellaneda batailoia, eta handik Santamañe Zar edo Santamañazar mendira igo zen. Bertan Amerika errejimenduaren batailoia bat, frankista, ustekabeen harrapatu zuten gudariak, baina Abellaneda batailoia ere ustekabeen eraso zuen Nafarroako erreketeen tertzioak. Iñaki Castet komandantea eta Zubelzu kapitaina hil ziren ekintza hartan. Eusteko ahaleginak egin zituen arren, batailoiak trumilka egin zuen atzera, hogeita hamarren bat hildako utzi zituen eta gatibu bakarren bat frankisten esku. Talde batzuk Gernikara iritsi ziren, eta hilaren 26ko airetiko bonbardaketa jasan zuten.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) HERRERA (1974) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Gerra pasadizo bati bide eman zion borroka horrek. Abellaneda batailoiko gudarietako bat, Jose Vicandi Fernandez, hiltzat jo zuten, eta borroka lekuan abandonatu zuten, buruan tiro bat zuela. Zendu zela argitaratu zen, eta hileta elizkizunak Alonsotegin egin zituzten. Hala eta guztiz ere, bizirik zegoela ohartu zirenean, Gasteizera eraman zuten atzemaileek, eta bala atera zioten burutik trepanazio baten bidez. Ondorioz buruko min handiak jasango zituen bizitza osoan zehar, baita epilepsia krisiak ere.

Udalerria	Zamudio
Gertakari historikoa	Zamudioko base militarra, industriren mobilizazioa eta borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 1. euskal dibisioa. Alde frankista: Nafarroako 5. brigada.
Data	1937ko ekaina.
Deskribapena	<p>Gerran zehar tropak kuarteleratzeko leku bihurtu zen Zamudio. Euskal armadaren ingeniarien 10. batailoiak, EAJ alderdiak antolatutako gisa horretako hirugarrenak, Zamudion izan zuen historian zehar (Derioko udaletxea, Zamudio eta Kastrexana) izandako kuarteletako bat. Era berean, kanpoko errefortzu unitateak izan ziren bertan aldi batez, esate baterako, Santanderreko 116. batailoia. Haren brigada erreserban egon zen Bizkargi aldean, eta gero trenbidez eraman zuten Zamudiotik Mungijara, brigadaren 106. eta 139. batailoiek Asturiasko 4. brigada zeharo murriztua ordeztu baitzuten. Bestalde, militarren intereseko fabrikak zeuden Zamudion, asko eta asko Gipuzkoatik ekarritako materialekin ari ziren, eta Mobilizatutako Industrien artean zeuden. Ekainaren 11n bonbardatu zituzten instalazio horiek, eta bajak izan ziren beharginen artean. Egun hartan, Rebelión de la Sal batailoia iritsi zen Zamudiora Gerrikoko posizioetara iristeko. Posizio horietan erabat murriztua geratuko zen hurrengo egunetan izandako borroketan.</p> <p>Hilaren 11n errepublikanoen abangoardiako posizioen aurkako erasoak jo eta gero, hilaren 12koa erabakigarria izan zen Bizkaiko kanpainan, 144 kanoik eta 110 hegazkinek Gerrikoaren bi kilometroko tartera bideratu zituzten beren suak, azpiratu egin zituzten defendatzaileak, arrakala handi bat ireki zuten eta biharamunean bertatik sartu ziren Nafarroako brigadak, gerrikoaren gainerakoa hartu zuten mendean eta Larrabetzu eta Gangurengo inguru osoa konkistatu zituzten, baita, Santamañazar mendiko gaina eta Zamudioko herria ere. Zamudio aldean garaitu zituzten unitateen artean zeuden euskal armadako buruzagitzak arin-arin eta errefortzu gisa bidalitako unitate batzuk, esate baterako, ekainaren 12 eta 13 arteko gauean Zamudioko frontea sendotzeko xedean bidalitako Perezagua batailoia. Beste horrenbeste gertatu zen Karl Liebknecht batailoiarekin, hilaren 12 eta 13 arteko gauean Urduñatik Santamañazarrera, Zamudio-Lezamako gainera, eraman baitzuten morteroen konpainia batekin eta México batailoiarekin batean, azken hori Zamudio-Santo Domingoko frontera eraman zutela ekainaren 13an.</p>
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) SALAS LARRAZABAL (1999) TALÓN (1988) VARGAS ALONSO (2012)
Oharrak	

Udalerrria	Zeanuri
Gertakari historikoa	Gorbeiako borrokak eta Zeanuriko okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 3. euskal dibisioa, 3. euskal brigada. Alde frankista: Nafarroako 4. brigada.
Data	1937ko apiriletik ekainera.
Deskribapena	1937ko martxoaren 31tik apirilaren 1erako gauean Gorbeiako gurutzeraino iritsi ziren erreketen indar batzuk, eta Lenago-il batailoien indarrek Berretin abandonatu behar izan zuten goizaldean. Lenago-il batailoiek kontraeraso ahul bat jo zuen hilaren 1 eta 2 arteko gauean, baina huts egin zuen eta hainbat baja jasan zituen. Azkenik, hilaren 2ko goizaldean, errefortzu gisa iritsitako Padura batailoien indarrek berreskuratu zuten gurutzea. Hurrengo egunetan batik bat Barazarko mendatera eta Altun mendira (ikus azterlan honetan Barazarri emandako sarrera) mugatu ziren borrokak. Geroago, hilaren erdialdera, gorabehera batzuk gertatu ziren Zeanurin Asturiasko soldadu batzuk herritar batzuekin gaizki portatu zirelako. Gertakari horiei amaiera emateko errefortzuzko unitateak bidali behar izan zituzten. Horien artean zegoen Ibaizabal batailoien Arratia konpainia. Geroago, maiatzaren 22tik aurrera, borrokak eta gudu txikiak izan ziren Nafarroako 4. brigadaren erasoak tarteko. Azkenik, barealdi baten ostean, ekainaren erdialdera, erasoak jo eta ekainaren 16an Zeanuri okupatu zuen 4. brigadak.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) CASAS DE LA VEGA (1977) CIUTAT DE MIGUEL (1978) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	1937ko maiatzeko borroketan hilda gertatu zirenen artean zegoen Padura batailoiko Rafael de Uzkola, etorkizun handiko margolari gaztea, gerrak galarazia.

Udalerria	Zeberio
Gertakari historikoa	Zeberioko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 3. euskal dibisioa (Ibarrola). Zeberion zuen Kuartel Nagusia, 4 brigadek osatuta zegoen, denak Euskal Herrikoak (3.a, 7.a, 10.a eta 11.a), eta guztira 14 batailoi zeuzkan. Alde frankista: Nafarroako 4. brigada.
Data	1937ko urtarriletik ekainera.
Deskribapena	<p>Abiazio frankistak (Condor Legioa) Bilbo eraso zuenean, 1937ko urtarrilaren 4an izandako aireko borrokaren erreferentzia puntuetako bat izan zen Zeberio. Eremua arakatzeko hegazkin frankistak goizeko bederatziak inguruan azaldu ziren, baina "Chatos" esaten zieten bost Polikarpov I-15 ehiza-hegazkinen erasoan aurrean barreiatu egin ziren. Arratsaldean, matxinoek Gasteiztik eta Burgostik jo zuten Bilboko hiriaren aurkako erasoak. Burgostik irtendako bost Ju-52 eta Gasteiztik ateratako lau Fokker, 13 Heinkel He-51 ehiza-hegazkinez lagundurik, Bilbo gainean azaldu ziren, hiria bonbardatu zuten eta gutxienez bost zibil hil zituzten, baina hegazkinen aurkako tiroei eta Euskal Eskuadrillaren zortzi ehiza-hegazkinen erasoari aurre egin ezinik barreiatu behar izan zuten erasotzaileak. Ju-52 bat jo zuten, eta Arana baseritik hurbil erori zen, Arraitzen, Urizar Torreko auzoaren gibelaldean. Matxinatuen beste bi hegazkin kaltetu zituzten. "Chato" deituen eta He-51 ehiza-hegazkinen arteko borroka nahasian, bi "Chato" jo zituzten, errusiar batek gidatutakoak lurreratzea lortu zuen, bestea Zeberion erori zen, Juan Roldán pilotu errepublikanoa bertan hil zelarik. Beste bertsio batzuen arabera, bi hegazkin galdu zituzten errepublikanoek, baina lurrera paraxut baten laguntzaz iritsi zen onik atera zena. Steer eta Ceferino de Jemein adituen arabera, matxuratuta lurreratu zen hegazkin errepublikano bat, eta pilotuak zeregin garrantzitsua bete zuen apur bat geroago tripulatazailer alemaniar bat herritarren amorru bizitik salbatu zuenean; izan ere, herritarrek hil egin zuten hegazkin politu alemaniar bat, eta horrek Bilboko espetxeak erasotzeko eta 200dik gora preso erailtzeko erantzun deitoragarria ekarri zuen berekin batean.</p> <p>Geroago, apirilaren hondarrean, euskal armadaren dibisioen egitura sortu zenean, 3. euskal dibisioak (Ibarrola) Zeberion antolatu zuen bere Kuartel Nagusia, lau brigada zituen, denak Euskal Herrikoak (3.a, 7.a, 10.a eta 11.a). Ibarrola dibisioak Zeberiotik egin zien aurre frankistek maiatzaren amaieran Arratiako haranaren aurka bideratutako erasoari eta frankistek sektore honetan eta ekainean bideratutako azken erasoari. 3. euskal dibisioak Zeberio abandonatu behar izan zuen eta herria ekainaren 17an geratu zen etsaien mende.</p>
Iturriak	MIRANDA eta MERCADO (1988) SALAS LARRAZABAL (1998) STEER (1978) VARGAS ALONSO (2012)
Oharrak	

Udalerrria	Zornotza
Gertakari historikoa	Zornotzako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 2. euskal dibisioa. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 2. brigadak
Data	Apirilaren 29tik maiatzaren 20ra.
Deskribapena	Bizkaiaren aurkako eraso frankista abian jarri zenean, Zornotza zen Gipuzkoako Frontea (Vidal) deitutako komandantziaren egoitza. Aipatu fronteak 2. euskal dibisioari eman zion bide apirilaren hondarrean, Vidal bera zen haren buru. Durango eta Gernika frankisten esku geratu ondoren, berrantolatutako euskal indarrek, Asturiastik eta Santanderretik etorritako unitateekin sendotuta, eutsi egin zieten etsaiei Zornotza aurrean maiatzeko aurreneko egunetan. Zirkulu erdian egonkortuta gertatu ziren lerroak, iparraldetik hegoaldera, Bizkargi, Zugastietia, Etxano, Euba eta Bernagoitia artean. Hilaren 9tik aurrera borroka latzak izan ziren Etxano eta Euba inguruetan, "heriotzaren pinudia" esango zioten borroka lekuan. Hilaren 14an bonbardaketa handia jasan zuen Zornotzak, eta bonbardaketak eragin zuen suteak txikituta utzi zuen hirigunea. Maiatzaren 16tik aurrera Nafarroako 1. eta 2. brigadek bideratutako eraso koordinatuak behartu egin zituen indar errepublikanoak gibelatzera. Maiatzaren 17an sartu ziren Zornotzan Nafarroako 2. brigadaren aurreneko patruilak, biharamunean amaitu zuten Zornotza egiazki okupatzen.
Iturriak	ARTECHE (1970) BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) MARTÍNEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Kontsultatutako dokumentazioak egiaztatu egiten du maiatzaren 14ko Zornotzaren aurkako airetiko bonbardaketak su bomba arinekin bideratu zituztela; hala eta guztiz ere, gaur egun ere behin eta berriz aipatzen da herria hustu zutenean tropa errepublikanoek berariaz eman ziotela su herriari. Maiatzaren 16an Esturun izandako borrokei dagokienez, Amuategui batailoitik bizirik irten zirenek diote borroketan hamarren bat hildako gertatzeaz gain gutxienez bost gizon erail zituztela atzemaileek, horien artean Parra sarjentua. Gainera, Zornotzan sartu zen Nafarroako 2. brigadaren patruilak elizgizon bat fusilatu zuen euskal abertzalea zelako.

Udalerria	Muxika.
Gertakari historikoa	Zugastietako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 2. euskal dibisioa, 12. euskal brigada (Abellaneda, Celta eta Sacco y Vanzetti batailoiak), Asturiasko 3. espedizio brigada (Asturiasko 13., 16 eta 30. batailoiak). Amuategui, Asaltoko Blindatuak, Askatasuna (ingeniarien 8.a) batailoiak eta beste indar batzuk. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 4. brigadak (azkenekoa soilik hasieran).
Data	Apirilaren 29tik maiatzaren 16ra.
Deskribapena	Gipuzkoako frontea erori ondoren, apirilaren 29an iritsi ziren oste frankistak Gernikara. Hiria hiriaren hegoaldean sendotu zen euskal erresistentzia, Asturiastik etorritako espedizio taldeek lagundurik. Hilabete erdiz egonkortuta egon zen frontea, Zugastieta aurreneko lerroan, Askariko erpinaren aurrean, maiatzaren 16an Nafarroako I. eta 2. brigadek Zornotzaren aurkako erasoak jo zuten arte. Nafarroako I.ak Arburutik jo zuen erasoak, Bizkargi hegoaldetik, Gorozika-Zugastieta eta Zornotza-Zugastieta errepidearen albo bietako 288 kotatik 261 kotara arteko lerroak okupatu zituen aipatu bi herrien artean. 2.ak Etxanotik jo zuen erasoak eta Zornotza okupatu zuen egun batzuk geroago. Euskal armadaren indarrek eta Asturiasko tropek Zornotzaren eta Larrabetzu eta Lemoaren arteko mugetara egin zuten atzera.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTÍNEZ BANDE (1971) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

4.1.2.3. Gipuzkoa

4.1.2.3.1. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda

- Aia.	- Eibar.	- Loiola.
- Andazarrate.	- Elgeta.	- Mutriku.
- Andoain.	- Elgoibar.	- Oiartzun.
- Aretxabaleta	- Errenteria	- Ordizia.
- Arrasate.	- Eskoriatza.	- Ormaiztegi.
- Astigarraga.	- Hernani.	- Pasaia.
- Azkarate.	- Hondarribia	- Aiako Harria.
- Azpeitia.	- Irun.	- Pikoketa.
- Beasain.	- Itziar.	- Tolosa.
- Bergara.	- Lasarte.	- Urto-Berastegi.
- Bidania.	- Leintz-Gatzaga.	- Usurbil.
- Donostia.		

Udalerrria	Aia
Gertaera historikoa	Aiako guduak.
Parte hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako miliziak eta Bizkaiko errefortzuak (Azaña-Vizcaya batailoia). Alde frankista: Iruretagoyena zutabearen Latorre zutabea
Data	1936ko irailaren 20a.
Deskribapena	Donostia erori ondoren, matxinatuek erasoari ekin zioten, eta errepublikanoek atzera egin behar izan zuten Zarautz eta Asteasuren arteko ingurura, horiek okupatzeko arriskuaren aurrean. Bilbotik errefortzurako iritsitako Azaña-Vicaya batailoien indarrek atzera egin behar izan zuten, frankisten erasoaren aurrean.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (1994)
Oharrak	

Udalerria	Andazarrate (Andreazarrate gisa ere aipatua).
Gertaera historikoa	Andazarrateko (Zarateko Bentak) borrokak.
Parte hartzaileak	Alde errepublikanoa: Euzko Indarraren (Eusko Abertzale Ekintza) gudariak osatutako Gipuzkoako Euskal Milizia abertzaleak, Bizkaitik iritsitako Bizkaigane konpainiako kideekin eta Amuateguiko miliziano eibartarrekin batera. Alde frankista: Iruretagoyena zutabearen Cayuela zutabea.
Data	1936ko irailaren 15etik 20ra.
Deskribapena	Okupatu berri zuten Gipuzkoako hiriburutik berriro erasoari ekin ondoren, Cayuela zutabea, Iruretagoyena zutabearen hegoaldera zabaldutako indarra, Andatza mendira iritsi zen, irailaren 15ean. Mendia hurrengo egunean hartu zuten, Amuategui batailoiko miliziano eibartarrekin borrokatu ondoren. Hurrengo egunean, matxinatuek Andatzatik jo zuten eraso Andazarratera, baina ez zuten hura hartzea lortu Euskal Miliziek tinko eutsi zietelako. Hurrengo egunean, erresistentzia gogorrek oldarraldiaren porrota ekarri zuen berriro. Hori dela eta, Cayuela zutabearen kide gehienak Zizurkil eta Asteasura eraman behar izan zituzten, Aia eta Zarautz arteko errepidearen ardatzaren gainetik, Zarateko Bentak atzealdetik hartzeko mehatxua eginez. Horregatik, hain zuzen, defendatzaileek atzera egin behar izan zuten, 19aren azken orduan, eta, horren ondorioz, Cayuelako indarrek Bentak hartu zituzten, hilaren 20an.
Iturriak	AZNAR (1961) BARRUSO (1996) BELDARRAIN (1992) MARTINEZ BANDE (1980) UGARTE TELLERIA (1998) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Zarateko Benten borroketan biktima asko izan ziren. Amuateguiko batailoiak bajak izan zituen, hilaren 16an. Euzko Indarraren lehen milizianoak, berriz, hilaren 17an hil zituzten: gidari lanak egiten zituen Teran eta Jose Arana Irastorza. Hurrengo egunean Claudio Olabari hil zuten, eta haren abizenez izendatu zuten gero EA Eren 1. batailoia. EA Jren Bizkaigane konpainiako gudari talde bat joan zen borrokara, Pedro Rodriguez Puig buruzagiaren agindupean, eta Puig bera hil zuten irailaren 17eko borrokan. Frankisten galerak zehaztasun handiagoz ezagutzen dira, Barruso eta Urgoitiaren lanei esker, non Zutabeen Operazioen Egunerokoez baliatu baitziren. Irailaren 15etik 20ra, Andatza eta Bentak hartzeko borroketan, 62 baja izan zituzten; horien artean, hamabi pertsona baino gehiago hil zituzten ekintzetan edo zaurien ondorioz; tartean, teniente bat. Hilaren 19ko borroka "Asteasuko" ekintza gisa egin zen ezagun karlisten artean, Barandalla partidari eskainitako orrialdeetan Ugartek nabarmentzen duen moduan.

Udalerria	Andoain.
Gertaera historikoa	Andoaingo mobilizazioa eta konkista.
Parte hartzaileak	Alde errepublikanoa: ordena indarrak, hala nola mikeleteak eta Gipuzkoako miliziak; tartean, Pasaiaiko Herri Frontea eta Hernanin eta Arrasaten antolatutako beste batzuk; horietako kide batzuk Dragones batailoira igaro ziren gero. Alde frankista: Iruretagoyena zutabea, Cayuela eta Latorre zutabeak biltzen zituen, eta Becerraren kamioi blindatuak.
Data	1936ko abuztuaren 14tik 17ra.
Deskribapena	Gerra hastean, miliziak antolatu ziren, eta Andoainen zeuden mikeleteekin batera, Hernaniko milizietan sartu ziren edo laguntza eman zieten. Tolosa erori ondoren, Iruretagoyena koronelaren agintepean geratu ziren, abuztuaren 14an, Oria bailaran zeuden matxinatuak, eta abuztuaren 16ean berriro ekin zioten erasoari, hilaren 17an Andoainen sartuz.
Iturriak	AIZPURU (2007) LASA BERGARA (2006) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Aretxabaleta
Gertakari historikoa	Aretxabaletako borrokak.
Parte hartzaileak	Alde errepublikanoa: Dragones eta UHP batailoietako miliziak eta MAOkoak (Milicias Antifascistas Obreras y Campesinas del PCE), ordena indarrak eta Garellano mendiko batailoiko kideak. Alde frankista: Alonso Vega zutabea.
Data	1936ko irailaren 22tik 25era
Deskribapena	Hilaren 21ean, erasoaldia Arlabanetik hasi ondoren, Gasteizko Alonso Vega zutabeak aurrera egin zuen Arrasate hartzeko asmoz, kide erregularrez indartutako herri milizien erresistentziarekin topo egin arte. Hilaren 24an, Aretxabaletaren aurkako erasoak jo, eta mendean hartu zuten, erresistentzia gogorra gaingituta. Guztira, 53 hil-zauritu izan ziren (7 hildako eta 46 zauritu). Ibarrola indar errepublikanoen burua zen. Herriaren defentsan, Dragones, MAOC eta UHP milizietako kideek, ordena indarraren zenbait kidek, artilleriak, eskuz prestatutako blindatuek eta errefortzuek parte hartu zuten, baita Sestaotik iritsitako milizien konpainia batek eta Garellano batailoien beste konpainia batek ere. Errepublikanoen galerak handiak izan ziren, 10 hildako –ofizial bat, tartean–, poloniar fusilak eta munizioak geratu baitziren gasteiztarren menpe. Matxinatuen artilleriak eskuz prestatutako blindatu bat suntsitu zuen. Arrasate hartzeko erasoaldiak 25ean jarraitu zuen, eta herria hilaren 26an erori zen. Bien bitartean, Aretxabaletaren defentsan aritutako askok, Otxandio zutabeko kideen errefortzuarekin, erasoak jo zuten Alonso Vegaren ezker aldeko komunikazioen kontra, Aretxabaleta eta Eskoriatza inguruan. Azkenean, urriaren frontea egonkortu zen. Gero, abenduan, beste borroka saio batzuk izan ziren, eta martxora-ko herria oinarritzko kontzentrazio gune bat zen, Molak Bizkaiaren aurka prestatzen ari zen erasoaldirako.
Iturriak	BEREZIBAR (2011) BARRUSO (1996) BELDARRAIN (1992) HORCAJADA MARTINEZ (2008) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerria	Arrasate
Gertakari historikoa	Arrasateko borrokak.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: 1936ko irailean, herriaren defentsan parte hartu zuten: Dragones batailoien miliziek, CNTko miliziek (gero Malatesta batailoian sartu zirenak), Bizkaigane konpainiak eta beste euskal milizia batzuek (Amaiur batailoiak gero Arrasate izeneko konpainia izan zuen), ordena indarrek, eta Garellano mendiko batailoiak. Gero, Arrasate frankisten esku zegoela, Arrasate babesten zuten matxinatuen lerroak Ibarrola zutabearen eta Gipuzkoako frontearen (Euzko Indarra batailoia) erasoak jaso zituen, azaro-abenduan.</p> <p>Alde frankista: Alonso Vega zutabeak herria hartu zuen, irailean. Gero, matxinatuek Latorre zutabearekin defendatu zuten Debagoiena. Zutabe horrek, Arrasate eta Arlaban artean, 1.785 gizon eta 105 mm-ko 16 artilleria pieza zituen (lau bateria). Horrez gain, Arrasate elkargune bat zen Urkarregitik Arrasateraino hedatutako Los Arcos koronelaren zutabearentzat. 1937ko martxoaren 31n, Bizkaiaren aurkako eraso hasi zenean, Latorreren indarrek Nafarroako 3. brigada osatzen zuten, eta haren betebeharra Eskoriatza eta Arrasate arteko frontea haustea zen. 4.343 soldadu zituen, zenbait bateria, eta hilaren 31ko erasorako utzitako M izeneko Artilleria Masa -11 bateria eta erdiz (46 kanoi) osatutakoa-.</p>
Data	1936ko irailaren 25a eta 26a.
Deskribapena	<p>Irailaren 24an, Aretxabaleta matxinatuen esku erorita, Alonso Vega zutabeak, indarberrituta, Arrasateren aurkako eraso jo, eta hilaren 26ean hartu zuen, erresistentzia gogorra gainditu ondoren. Aurrerantzean, herria frankisten basea izango zen, eta euskal tropen erasoak jasango zituen nahiko maiz, artilleriako eta aireko bonbardaketen bitartez. Esate baterako, 1936ko urriaren 21ean, kostaldean izandako eraso errepublikano batean, hiru hegazkin errepublikanok Ondarroa, Deba, Bergara, Arrasate eta bou nazionalak bonbardatu zituzten. Abenduan, borrokak izan ziren, sektorean zebiltzan euskal indarrek bigarren mailako operazioak egin baitzituzten Gasteizeko ofentsiba nagusian laguntzeko. Borroka horietan, Latorre teniente koronelaren zutabeak, Arrasate eta Arlabaneko mendatearen artean kokatuta zegoenak, 147 hil-zauritu izan zituen (14 hildako, eta 133 zauritu), azaroaren 30etik abenduaren 31ra. Gero, zutabe hark Bizkaiaren aurkako erasoan parte hartu zuen, Nafarroako 3. brigada gisa.</p>
Iturriak	<p>AMILIBIA MACHIMBARRENA (2010) BELDARRAIN (1992) MARTINEZ BANDE (1971) MARTINEZ BANDE (1980) OKTUBRE TALDEA (1986) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	

Udalerrria	Astigarraga.
Gertakari historikoa	Astigarragako bentetako borroka.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako miliziak; tartean, JSUren Rusia batailoiko kideak, baita Nazioarteko Milizien talde txiki bateko kideak ere, Victoriano Martín Cerratoren aginduetara. Nazioarteko talde hori borrokatu zen, halaber, Irunen, Astigarragako Bentetan, Urnietan eta Donostiako erretiradan. Erregular batzuek ere parte hartu zuten, hala nola artilleriako 3. erregimentuko soldaduek. Alde frankista: Los Arcos zutabea.
Data	1936ko irailaren 6tik 13ra.
Deskribapena	Irun erori ondoren, indar matxinatuak Donostiarantz abiatu ziren, zirkuluerdi bat eratu Gipuzkoako hiriburuaren inguruan. Frontearen erdialdean kokatuta, Hernani eta Astigarraga hesi natural bihurtu ziren matxinatuei aurre egiteko. Frontearen alboetan, indarguneak ziren Santa Barbarako (Hernaniko mendebaldean), San Markoseko eta Txoritokietako (Astigarragako ipar-ekialdean) gotorlekuak. Irailaren 6an Urnieta erori zen, baina Buruntza eta Santiago Mendi arteko lerroak oldarraldiari eutsi zion, Hernaniren aurkako erasoaren porrota eraginez. Hilaren 7an, errepublikanoak kontraerasoka aritu ziren, eta, hilaren 11n, unitateak berriro kokatzeko geldialdi labur bat egin ondoren, eraso jo zuten matxinatuek. Hala, errepublikanoek atzera egin behar izan zuten gotorleketan, Hernanin eta Astigarragan. Hilaren 13an, ebakatu ondoren, Donostia erori zen.
Iturriak	BARRUSO (1996) BELDARRAIN (1992) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Azkarate.
Gertakari historikoa	Azkarateko borroka.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: JSUren eta CNTren miliziak, eta Bizkaiko Defentsarako Batzarrak antolatutako Barakaldo batailoia. Alde frankista: Los Arcos zutabearen Díez de Rivera taldea.
Data	1936ko irailaren 21a.
Deskribapena	Matxinatuak Gipuzkoako mendebaldetik Bizkaiko ofentsibarako bidean zirela, JSUren eta CNTren indarrak, Barakaldo batailoiak atzeraguardiatik babestuta, Díez de Rivera taldea gelditzen saiatu ziren, Azkoitia eta Elgoibar artean. Hainbat baja jasan ondoren, ordea, atzera egin behar izan zuten.
Iturriak	BARRUSO (1996) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Azpeitia.
Gertakari historikoa	Euskal milizien eraketa, eta Azpeitiko okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Azpeitiko Defentsarako Batzarraren euskal miliziak, 1936ko abuztuaren hasieran sortutako Azpeitiko milizien komandantziaren mendekoak –Azpeiti-Buruzagitza, Euzko Gudarostea–. Alde frankista: Los Arcos zutabea.
Data	1936ko abuztu-iraila.
Deskribapena	Gerra Zibila hasita, nazionalisten kontrolpean zegoen herriko Defentsarako Batzarra euskal miliziak antolatzeko basea izan zen, eta milizia horiek izan ziren, hain zuzen, Euskadiko lurraldearen kontrol politiko-militarra bere gain hartu zuten lehenak. Miliziek Loiolan finkatu zuten basea, eta Euzko Gudarostea Azpeiti-Buruzagitza zeritzon milizien komandantziaren agindupean zeuden. Abuztuaren amaiera aldera, 1.349 gudari zeuden haren kontrolpean. Batzorde batek gidatzen zuen komandantzia, honako kide hauek osatuta: Telesforo Monzon, José María Lasarte, Salvador Aranburu, Miguel José Garmendia, Lino Lazkano, Mikel Ayerdi eta Tomás Mitxelena. Milizien aginte militarri dagokionez, Cándido Saseta militar profesionala zen komandante buru, eta harekin batera zeuden Eduardo Urtizberea, Jesús Luisa, Enrique Etxeberria, José María Fernández de Lekuona eta José Placer komandanteak. Azpeitiko Euzko Gudarostea alderdi anitzeko indarra izan zen hasiera batean; izan ere, EAJz gainera, Euzko Langileen Alkartasuna (ELA), Euzko Nekazari Bazkuna (ENB), Euzkadi Mendigoxale Batza (EMB) eta Euzko Abertzale Ekintza (EAE) zeuden. Taldeko kide gehienek, jeltzaleek osatuta nagusiki, Loiolako Santutegian hartu zuten ostatu, eta EAEkoek, berriz, Loiola hotelean. Kantitateari nahiz kalitateari zegoen gerrarako material eskasa eduki arren, Hernioko mendigunearen defentsarako posizioak hartu zituzten, eta ordena publikoa bermatu zuten, Gipuzkoako mendebaldearen zati handi batean. Borroka nagusiak Beasain kontrolatzera iritsitako indar matxinatuen ezker hegalararen aurka egin zituzten. Donostiako ebakuazioan, irailaren 13an, gudarien hiru autobus iritsi ziren Azpeititik, Saseta buru zela, eta ordena publikoa bermatu zuten, San Bartolomeko kuartela ebakuatu bitartean. Donostia erori ondoren, frankistek Gipuzkoako mendebaldea hartzeko erasoari ekin zioten berriro, eta hilaren 20an Los Arcos zutabearen indarrak Azpeitian sartu ziren. Gero, frankistek hainbat eraikin militar eduki zituzten; tartean, ospitale militar bat, zaurituak artatu zituen Bizkaiko kanpainan.
Iturriak	BARRUSO (1996) MARTINEZ BANDE (1980) MENDIZABAL ELIAS (2006) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Beasain.
Gertakari historikoa	Beasaingo borroak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako Amuateguiko miliziak, Bizkaiko miliziek indartuta; tartean, CNTko kontingenteak. Alde frankista: Cayuela teniente koronelaren zutabea, eta Malcampo eta Albizu komandanteenak.
Data	1936ko uztailaren 20tik 27ra
Deskribapena	Indar matxinatuak Gipuzkoa inbaditzen hasi ziren, Nafarroatik. Cayuela teniente koronelaren agindupeko zutabe bat Lizarratik atera, eta Altsasura sartu zen, uztailaren 20an. Inguru hartan, "garbiketa" operazioak egin zituen, erasoari ekin aurretik. Malcampo eta Albizu komandanteen zutabe txikiek lagunduta, Beasainerako bidea hartu, eta uztailaren 27an hartu zuen, defendatzaileei baja ugari eraginda; tartean, hainbat preso gero fusilatu zituztenak.
Iturriak	BARRUSO (1996) BARRUSO, BLÁZQUEZ BRIMEZ eta VILLANUEVA TELLERIA (1991) MARTINEZ BANDE (1980) MENDIZABAL ELIAS (2006) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Barruso, Blázquez eta Villanuevaren lanak (79-81 or.) matxinatuek harrapatutako defendatzaileen fusilamenduak aipatzen ditu.

Udalerrria	Bergara.
Gertakari historikoa	Bergarako okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako miliziak; tartean, Errenteriako MAOCen indarrak. Alde frankista: Los Arcos zutabearen Tejero taldea.
Data	1936ko irailaren 21a eta 22a.
Deskribapena	Donostia erori ondoren, matxinatuek Gipuzkoako mendebalde hartu zuten, gobernuaren indarrei segika. Los Arcos zutabearen Tejero taldeak Zumarraga eta Urretxu okupatu zituen, eta handik sartu zen Antzuolara lehendabizi eta ondoren Bergarara. Gero, udalerrriak artilleriako eta aireko bombardaketak jasan zituen; esate baterako, urriaren 21ean, hiru hegazkin errepublikanok bombardatu zuten.
Iturriak	BARRUSO (1996) MARTINEZ BANDE (1980) <i>Memoria de la Guerra Civil Española. Partes de Guerra Nacionales y Republicanos</i> , Belacqva, Bartzelona, 2004 (César Vidalen hitzaurrea). URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Desadostasuna dago matxinatuek Bergara hartu zuten egunaren inguruan. Martínez Bandek (96 or.) hilaren 22a aipatzen du, baina oso azaleko deskribapena egiten du, garaiko dokumentazioa aztertu zuen militar frankista bat izan arren. Barrusok (264 or.) hilaren 21ean izan zela dio. Frankisten 21eko gerra partean, soilik aipatzen dira "tokian tokiko garaipenak, hainbat sektoretan", eta 22koan, aipatzen da "Debaren lerroan" errepublikanoen erresistentzia txikitu egin zutela eta "operazio horien bidez Gipuzkoako probintzia ia osorik okupatuta" dagoela.

Udalerrria	Bidania.
Gertakari historikoa	Bidaniko borrokak
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako miliziak; tartean, Loiolako euskal milizien taldeak. Alde frankista: Tutor eta Becerra zutabeak abuztuan, eta Los Arcos zutabearen Díez de Rivera taldea irailean, eta, horiekin bat eginda, "Barandalla partida", Tolosa mendebaldean bere kabuz zebilen talde karlista bat.
Data	1936ko abuztu-iraila.
Deskribapena	Abuztuaren 11n matxinatuak Tolosa okupatu ondoren, frontea herriaren mendebaldean finkatu zen, Bidanirako bidearen erdialdean. Hara irisi ziren atzerantz zihozten defendatzaile batzuk, eta horiekin bat egin zuten Azpeitiko Batzarreko euskal milizietako kideek. Azken horiek borroka txiki batzuk izan zituzten tropa karlista-frankistekin, irailaren hasieran. Lasartek, EAJko diputatuak, euskal milizien indarrak Bidanian geratzeko agindu zuen. Donostia erori ondoren, matxinatuak martxan jarri ziren berriro, probintziako mendebalderantz. Hilaren 19an, Bidania hartu zuten, eta aurrera jarraitu zuten Goiatz eta Errezilera sartu arte, gobernuaren indarrarekin borrokatu ondoren.
Iturriak	BARRUSO (1996) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerria	Donostia.
Gertakari historikoa	Donostiako borroak.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: Gipuzkoako Defentsarako Batzarraren miliziak, hiriburuan eta Loiolako kuarteletan matxinada hastean antolatutakoak. Gero, milizietako kideak konpainia eta batailoietan sartzen joan ziren. Horiekin bat egin zuten altxamendu militarrean inplikaturik ez zeuden armadako eta ordena indarreko kideek. Udarari, hainbat batailoi eta milizia talde antolatu ziren Donostian, eta hortik sortu ziren, besteak beste, Azaña, Rusia, UHP eta Euzko Indarra batailoiak, baita nazionalisten euskal miliziak eta CNTren taldeak ere. Donostian borrokatu ziren ere kanpotik etorritako hainbat milizia, hala nola Eibarko Amuategurenak –batailoiak eratuko zutenak– eta Elgezabal konpainia nazionalista, Gipuzkoako hiriburura ordena publikoa indartzera iritsitakoak. Konpainia horrek presoek lekualdaketa babestu zuen, Ondarretako espetxetik Arantzazu-Mendi itsasontzira. Era berean, Frantziatik iritsitako nazioarteko boluntarioen talde txikiek Donostian finkatu zuten egoitza.</p> <p>Alde frankista: Hasiera batean, Artilleria Astuneko 3. erregimentuan eta Lubakitzailen eta Mina-jartzaileen 6. batailoiaren kolpe militarren alde zeuden indarrak, eta horiekin batera guardia zibilak, karabineroak eta Segurtasun eta Asalto Gorputzeko kideak, baita herritar konprometitu batzuk ere. Altxamendua mendean hartu ondoren, indar horiek errepublikanoen kontrolpean geratu ziren, eta horien agintari asko errepresioan hil edo espetxeratu zituzten. Gero, Donostiaren aurkako azken erasoak Los Arcos, Montoya, Cayuela eta Latorre zutabeek jo zuten, eta hiria matxinatuen esku geratu zen, irailaren 13an.</p>
Data	1936ko uztail-abuztua
Deskribapena	<p>Donostian, agintari militarren jarrera zalantziaren eraginez, atzeratu egin zen altxamendu militarra, eta herri erresistentzia gogorra izan zuen aurrez aurre. Horren erakusle dira hirigunean uztailean eta abuztuan izandako borroak, matxinatuen bastioiak –Maria Cristina hotela, Gran Casino eta Loiolako kuartelak– hartzearekin batera amaitu zirenak. Saialdia menperatu ondoren, hiria Gipuzkoako Defentsarako Batzarraren egoitza bihurtu zen, eta bertatik gidatu zen Gipuzkoako ekialdearen erresistentzia militarra, Nafarroatik iritsita, muga menderatu eta hiria hartu nahi zuten zutabeei aurre egiteko. Donostiak, erori aurretik, matxinatuen aire eta itsas erasoak jasan behar izan zituen, hala nola itsas unitateen bonbardaketak, abuztuaren 13an eta 18an. Azkenean, Irun eta muga erori ondoren, Donostiako indarrek ezin izan zioten aurre egin frankisten erasoari, eta defendatzaileek eta herritar askok alde egin behar izan zuten. Irailaren 13an, frankisten esku geratu zen.</p>
Iturriak	<p>BARRUSO (1996) BARRUSO eta JIMENEZ DE ABERASTURI (2011) BELEDO, EGAÑA, MARTIN eta ZATO (2010) MARTINEZ BANDE (1980) SADA ANGUERA (2009) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) URMENETA eta MARKEZ (2013)</p>
Oharrak	

Udalerria	Eibar.
Gertakari historikoa	Eibarko borrokak.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: behin gerra hasita, Eibarko Defentsarako Batzar bat eratu zen, ezkertiarrek osatuta nagusiki, eta 1936ko abuztuan, haren Gerrako Komisariotzaren bidez, 1.144 pertsonen kontingente bat kontrolatzera iritsi zen, milizianoak eta batzarreko lanak egiteko mobilizatutako langileak kontuan hartuta. Miliziano gehienak Amuategui batailoian sartu ziren. Haren eginkizun nagusia armamentua sortzea eta banatzea zen, eta Gipuzkoako defentsa indartzea, etsaiaren aurrerapenari aurre egiteko. Erasoaldi frankista herriko sarrera iristean eta euskal gobernua eta armada antolatzean, Eibarko frontea finkatu zen, eta hainbat batailoie egon ziren bertan, ezkerrekoak gehienbat (UGTren zutabea eta JSUren Meabe zutabea), herria 1937an ebakuatu behar izan zuten arte, Gipuzkoako frontea erortzearekin batera.</p> <p>Alde frankista: hasiera batean, matxinatuen artean, Los Arcos zutabearen Díez de Rivera taldea borrokatu zen, Lakarreko eta Lesakako erreketek tertzioen indarra nabarmenduz. Gero, Nafarroako brigadak antolatzean, Eibarko eremua Nafarroako 1. brigadaren kontrolpean geratu zen, zeinak Urkarregiren eta Irutontorreta arteko frontea babesten baitzuen. Haren kuartel nagusia Bergaran zegoen. 1937ko apirilean, Nafarroako 4. brigada sektorearen kargura geratu zen.</p>
Data	1936ko irailaren 26a-1937ko apirilaren 25a.
Deskribapena	<p>Gerra hasi zenean, sozialistek Defentsarako Batzar bat sortu zuten Eibarren, eta Juan de los Toyos jarri zuten horren buru. Batzarrak Zumaia eta Zumarraga arteko eremua kontrolatu zuen. Haren eginkizun nagusia Donostiara gizonak eta armak bidaltzea zen. Donostia erori ondoren, matxinatuen lehenengo ofentsiba handia hasi zen, Gipuzkoako gainerako eremuak eta Bizkaia okupatzeko. Irailaren 21ean, Eibar bonbardatu zuten, eta hilaren 26tik aurrera borroka ugari izan ziren Eibar inguruan, matxinatuek herrira sartzea lortu gabe. Zutabe erasotzaileen eta defendatzaileen arteko borrokak etengabeak izan ziren bi astez, eta defendatzaileek batailoie gehiagoren laguntza jaso zuten. Frontea finkatuta, maiz izan ziren unean uneko borrokak lerroaren hainbat gunetan, hala nola Akondian, Arraten, Arrateko Gurutzean, Maltzagan, Illordon, San Romanen, Usartzan eta lerroaren beste hainbat gunetan. Nabarmenezkoak izan ziren abenduaren 25eko eta 26ko borrokak; frankistek, Arratetik, Maltzaga eta beste posizio batzuen aurkako erasoak jo zituzten, eta atzera bota zituzten. 1937ko urtarrilaren 30ean, errepublikanoek presioa egin zuten Arraten, eta martxoaren 13tik 14rako gauean Amuategui batailoiak, sarraldi batean, Arrateko bigurutzean jarritako metrailadore bat suntsitu zuen. Apirilaren 19an, azken borroka handia izan zen, Euskadiko indarrek iparraldean, Garagoitin, jotako erasoaren testuinguruan. Azkenean, Udala-Intxorta frontea erori zenean, erretiratzeko agindua eman zitzaien errepublikanoei, eta atzera egin zuten hilaren 25ean. Frankistak apirilaren 26an sartu ziren Eibarren.</p>
Iturriak	<p>BARRUSO (1996) BARRUSO eta BLAZQUEZ BRIMEZ (1991) BELDARRAIN (1992) GUTIERREZ AROSA (2007) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	Gutiérrez Arosaren monografian jasotzen da informazio gehien, eta gerrako biktimen zerrendak ditu erantsiak.

Udalerrria	Elgeta.
Gertakari historikoa	Intxortako gudua. Elgetako defentsa.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: 1936ko irail-urrian, Elgeta eta Kanpanzarko mendatearen artean, hainbat miliziatako indarrak borrokatu ziren, hala nola UHP, Dragones, MAOC eta euskal miliziak; azken horien artean, Arana Goiri 1. batailoia zegoen, gero jatorrizko konpainien osaera aldatuko zuena. Horiek parte hartu zuten Intxortako lehen borroketan. Gero, Elgeta Euskal Frontearen bederatzi sektoreetako bat izan zen, alde errepublikanoan, eta apirilean, Intxortako bigarren guduan edo borroketan, honako hauek parte hartu zuten sektorearen defentsan: Mariartu, UHP (Meaberen 4.a), Kirikiño eta Dragones batailoiek, eta Sasetaren metrailadore indarrek, Euzkaiko Morteroen 72. batailoia indarrek, eta artilleriak.</p> <p>Alde frankista: 1936ko irail-urrian, Los Arcos (Tejero eta Saleta taldeak) eta Alonso Vega zutabeak; apirilean, Nafarroako 4. eta 1. brigadak.</p>
Data	1936ko irailaren 24a-1937ko apirilaren 24a.
Deskribapena	<p>Bizkaia Gipuzkoako mendebaldetik hartzeko erasoaren testuinguruan, 1936ko irail-lean, Bergara eta Arrasate konkistatu ondoren, Los Arcos eta Alonso Vega zutabeak Bizkaiarekin muga egiten duen mendigunean elkartu ziren, Elorrio eta Durangorako bidea hartzeko. Alabaina, irailaren amaieran eta urriaren hasieran, defendatzaileen indarrek erasoei eutsi zieten, eta atzera bota zituzten. Gipuzkoatik erretiratutako miliziekin bat egin zuten Bilbotik errefortzurako iritsitako konpainiek eta batailoiek, kanpotik iritsi berri ziren armak eskuratu ondoren. Hilaren 24an, Alonso Vega zutabeak Aretxabaleta okupatu zuen egunean, Tejero taldeak amore eman behar izan zuen, Antzuolatik (21ean okupatuta) Elgetara iristeko saialdian. Hurrengo egunean, ordea, Angiozar okupatzea lortu zuen. Hilaren 26an, Saleta San Prudentzion sartu zen, eta Alonso Vega, Arrasaten. Urriaren 4an, matxinatuek Kanpanzar-Elgetako posizioen aurka egindako erasoak porrot egin zuen, eta horretan erabakigarria izan zen Intxorta mendian jasotako porrota. Hilaren 8an, Euskadiko indarrek kontraerasoa jo zuten, emaitzarik lortu gabe.</p> <p>Frontea hilabetez egon zen egonkortua, eta noizean behin izaten ziren bonbardaketak eta tiroketak. Horrelako batean, Eduardo Urtizberea ofizial profesionala eta Elorriko Sektorearen agintaria zauritu zuten, eta handik gutxira hil zen, zaurien eraginez. Haren orde, Pablo Beldarrain jarri zuten. Apirilaren 20an, Nafarroako 4. brigadak eraso jo zuen Intxorta eta Elgetaren aurka, sektore horretan Gipuzkoako Frontearen defentsak suntsitzeko asmoz. Egun hartan eta hilaren 23an, ordea, porrot egin zuten. Azkenean, errepublikanoek beren posizioak utzi behar izan zituzten; izan ere, Nafarroako 1. brigadak, Aramaio eta Anboton barrena, frontea inguratu, eta Memaia eta Elorriora iritsi ziren; hots, Intxortaren atzeragoardiara.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1980) BELDARRAIN (1992) GUTIERREZ AROSA (2007) MARTINEZ BANDE (1971) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	

Udalerria	Elgoibar
Gertakari historikoa	Elgoibarko okupazioa eta San Migeleko borrokak (Aiaztia). Azken borrokak Bizkaian amaitu ziren, Etxebarritik gertu.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: JSUren eta CNTren miliziak, Barakaldo batailoia, eta Arana Goiri batailoia-aren hasierako antolakuntzaren konpainiak. Asaltoko indarrak, eta Garellano mendiko batailoia-arenak. Alde frankista: Iruretagoyena zutabe handiaren González Unzalu eta Cayuela zutabeak, eta Los Arcos zutabearen Díez de Rivera taldea.
Data	1936ko irailaren 21etik urriaren 8ra.
Deskribapena	Irailaren 21ean, Latorre zutabeak Zarautz eta Zumaia hartzen zituen bitartean, Díez de Rivera taldeak Azkarate eta Elgoibarko gainak hartu zituen, JSUren eta CNTren indarrei aurre egin ondoren. Atzeragoardiatik Barakaldo batailoia iritsi zen, San Migel ingurua babestera. Hilaren 22an, Latorre zutabea Deban sartu zen, eta Cayuela Altzolara hurbildu zen; bien bitartean, Díez Rivera taldeak Kalamua inguruak hartu zituen, Urko mendia okupatuta, Elgoibarko sarrera babestu nahian. Irailaren 23an, matxinatuak atsedena hartzen ari ziren Elgoibarren, beren aurreko taldeak Urkarregi eta San Migel ingurura bidalita; indar errepublikanoek, ordea, eraso jo, eta Elgoibar mehatxatu zuten, Barakaldo batailoiko kideekin eta mendigoizale nazionalisten taldeekin. Hilaren 24an, Díezen indarrek jo zuten eraso; Elgoibar eta Altzolaren arteko errepidea gurutzatu, eta Beain erreka-ostean parera doan lehen ibarretik hasi ziren igozten, mendigoizaleen eta Barakaldo batailoiko kideen erresistentziari aurre eginez. Horien errefortzurako, Arana Goiri batailoia-aren hasierako antolaketa-aren konpainiak iritsi ziren, Iñaki Aranaren agindupean, eta lehen lerroan kokatu ziren hilaren 25ean, Asaltoko eta Garellano batailoiko indarrek batera. Díez taldea indar horien aurka oldartu zen, eta erasoaren ondorioz atzera egin behar izan zuten errepublikanoek, Barakaldokoaren indarrek elkartu eta berriro osatu arte; nolana ere, iparraldean, matxinatuek Zirardamendi gainaren defentsa txikitu zuten. Urkarregi mendatea ere erori zen. Bertan, triskantza egin zitzaion Zubiaur konpainiaren Begoñako gudariei, talde erdiaren baja eraginda –dozena erdi hildako, tartean– eta Garaizabal konpainian zeuden erandiotarrei. Arratsaldean frankisten aurreratzea gelditzea lortu bazuten ere, galerak oso handiak izan ziren. Errepublikanoek ehun baja inguru izan zituzten, eta 25 hildako, guztira; horrez gain, dozenaka poloniar fusil eta fusil metrailadore bat galdu zituzten. Matxinatuen artean, sei hildako –alferez bat tartean– izan ziren, eta 10 zauritu. Hilaren 26an, borrokatzen jarraitu zuten. Díez de Rivera taldeak presioa egiten jarraitu zuen, aurrean zeukaten mendi koniko bat hartu, eta posizio hobekak lortu arte. Zutabea, ordea, ezin izan zen aurrerago iritsi. Artilleriako sua ez zen eraginkorra izan, laguntza batera lurrean gaizki jarrita zegoelako, eta errepublikanoen erresistentzia trinkoa zen, frontearen gaineko posizioetan eta Díez de Rivera taldeko alboetan kokatuta. Díezen taldeak 36 hil-zauritu izan zituen (6 hildako eta 30 zauritu) Díez de Rivera komandantea zaurituetako bat izanik. Barakaldo batailoiak eta bertan ziren gainerako indarrek lortu zuten, azkenean, “nazional” edo matxinatuen mendealderako martxa gelditzea. Hurrengo egunean, hilaren 27an, Barakaldo batailoia atzeragoardiara joan zen, izena ematen zion herrira; bien bitartean, lerroan, Díez de Rivera taldearen aurkako erasoek jarraitu zuten. Matxinatuek ezin izan zuten aurrerapauso bakar bat eman, eta errepublikanoen su etengabea jasan behar izan zuten. Hala, matxinatuek 31 baja gehiago izan zituzten. Euzko Gudarostearen indarrek aurreratzea geratzea lortu zuten, baina horren kostua gehiegizkoa izan zen. Guztira, hilaren 21etik 27ra, indar errepublikanoek 200 baja baino gehiago izan zituzten; tartean, 50 baino hildako baino gehiago. Aurkariak 140 baja baino gehiago izan zituzten; tartean, 30 hildako inguru. Díez de Riveraren indarrek ez zuten Markinarako erasoarekin jarraitu; horren ordez, Ziardamendiko gainak eta mendatea ziurtatuta, ezkerrean egin zuten, eta Eibar hartzeko saialdi batean lagundu zuten, herri armagina mendean hartu behar zuen iparraldeko pintza eratuta.

Iturriak	BELDARRAIN (1980) BELDARRAIN (1992) JUARISTI, CHUECA, ETXEBERRIA, ESTEBAN eta GOIOGANA (2014) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	San Migeleko borrokak 1936ko irailean frontera joandako gudari nazionalisten memoria heroikoaren parte dira, eta gertakari horien inguruko iturriek ez dute aipatzen, edo zailtasun jartzen dute, Barakaldo batailoiak (gero UGTren 13.a) horietan izandako papera; Juaristi eta al. (46. or.) lanean, borrokan izandako beste unitate bati buruz zera aipatzen da: "gaur egun ez dago modu frogagarri eta seguruan jasota". Dena den, lan horretan, lekuko baten adierazpenetan baieztatzen da "marokoar tropek" parte hartu zutela, eta, gure iritziz, adierazpen horiek ez dira zehatzak edo gehiago baieztatu behar dira.

Udalerrria	Erreterria.
Gertakari historikoa	Erreterriko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: milizietako unitateen antolakuntza, esate baterako, Gipuzkoako Milizia Antifaxisten 2. konpainia, Erreterriko Sekzioa. Aldi berean edo gero, miliziak herriko taldeak zituzten hainbat batailoitan sartu ziren, hala nola Rusia, Larrañaga, Sacco eta Vanzetti (CNTren 4.a). Talde horietako askok parte hartu zuten Donostiako eta Tolosako borroketan, baita herritik oso gertu zegoen Oiartzungo frontean ere. Ordena publikoaren eta armadaren indarrak; azken horretan, Donostiako Lubakitzailen eta Mina-jartzaileen 6. batailoirenak eta Artilleria Astuneko 3. erregimentuarenak. Alde frankista: Beorlegui zutabea, Oiartzunen zegoena uztailaren 23az geroztik, eta Montoya zutabea, aurrekoaren zati txiki bat, irailaren 13an Erreterria eta Pasaia hartzeko antolatu zena; horren barruan, Utrilla zutabea ere sartuta zegoen.
Data	Uztailaren 23a-irailaren 13a.
Deskribapena	Erreterriko hasierako mobilizazioetan, herriko taldeak sorrerako milizien unitateetan sartu ziren, hala nola Gipuzkoako Milizia Antifaxisten Erreterriko Sekzioa, Luciano Etxeberria Maiz kapitainaren aginduetara; sekzio horretan, gainera, Frantziako Alderdi Komunistako bederatzi kide zeuden. Unitate horietako asko gero Gipuzkoako batailoietan sartu ziren, edo probintziako kontingenteren batean, hala nola Rusia, Larrañaga, Sacco eta Vanzetti (CNTren 4a). Kontingente horietako askok Tolosako eta Donostiako borroketan parte hartu zuten, baita herritik oso gertu zegoen Oiartzungo frontean ere, non Beorleguiren indarrak uztailaren 23tik irailaren 13ra egon baitziren. Miliziez gainera, Erreterrian, ordena publikoaren eta armadaren indarrak borrokatu ziren. Hala, altxamendu saialdiarekin amaitu ondoren, Donostiako Lubakitzailen eta Mina-jartzaileen 6. batailoiak 46 soldadu bidali zituen Erreterriara, abuztuaren 8tik 10era, eta Artilleria Astuneko 3. erregimentuak, berri, abuztuaren 9an, 19 gizonen destakamentu bat zuen Erreterrian, eta beste 41 gizon San Markos eta Txoritokietako gotorlekuen inguruan. Beorlegui zutabea ezustean iritsi zen Oiartzun ingurura, uztailaren 23an, eta horrek hainbat asteko borrokak ekarri zituen. Indar matxinatuek ez zuten lortu aurrera egitea, harik eta, Irunen, mugako guduan garaipen erabakigarria lortu zuten arte. Horrek bidea ireki zien egoera zailen zeuden Beorleguiri eta haren tropei, eta Donostia eta Erreterria hartzea ahalbidetu zuen, irailaren 13an, defendatzaileek beren posizioak utzi zituztela ikusita. Horren aurrean, Beorleguik zutabe txiki bat antolatu zuen (Montoya komandantearena), hilaren 13an Erreterrian eta Pasaian sartu zena.
Iturriak	BARRUSO (1996) MARTINEZ BANDE (1980) <i>Memoria de la Guerra Civil Española. Partes de Guerra Nacionales y Republicanos</i> , Belacqva, Bartzelona, 2004 (César Vidalen hitzaurrea) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerria	Eskoriatza.
Gertakari historikoa	Eskoriatzako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: herriko miliziak, Arrasatekoetan eta ingurukoetan sartuta zeudenak; Gipuzkoaren Defentsarako Batzarraren eta Otxandio zutabearen errefortzuak; Asalto Gorputzaren ordena indarreko kideak; eta, armadaren Garellano mendiko batailoiko kideak. Alde frankista: Arabako Gobernu Militarraren indarrak (Alonso Vega zutabea). Nafarroako 3. brigada, 1937ko martxo-apirila.
Data	1936ko uztailaren 19tik irailaren 23ra, eta 1937ko martxo-apirila.
Deskribapena	Gerra Zibila hastean, herri miliziak antolatu ziren, eta Eskoriatzakoak Arrasate inguruko milizietan txertatu ziren. Hainbat hilabetez, Arlabaneko mendatea izan zen bi fronteen ukipen lerroa. Azkenean, Gipuzkoako mendebaldea hartzeko matxinatuen ofentsiban, Alonso Vega zutabearen helburuetako bat Eskoriatza hartzea zen, Arrasatera iristeko bidean. Irailaren 21ean, astelehenean, Alonsok gobernuaren esku zegoen Debagoiena okupatzeko erasoari ekin zion, eta Arlabaneko mendatea eta Gatzaga udalerria hartu zituen, aurkako erresistentzia gehiegirik gabe. Otxandioko indar errepublikanoek, erasoari aurre egiteko, zutabe bat bidali zuten Herrera alferrezaren agindupean, Garellano batailoiko kideek, Asaltoko kideek eta milizianoek osatutakoa. Maroto eta Jarindo mendiak hartu zituzten, eta aurkarien hainbat patruila aienatu zituzten, baina ez zituzten arazoak sortu Alonso Vegaren komunikazioetan eta atzeragoardian. Hurrengo egunean, hilaren 22an, Otxandioko asaltoko indarrek aurrera egin zuten Eskoriatzaraino, Gasteizko zutabeari bidea ixteko. Borroka txiki batean, Herrera alferreza zauritu zuten, eta haren indarrak eta bertan ziren miliziak Agerre eta Amilla base-rietatik eta Santa Luziako baselizatik kanporatu zituzten, material apur bat ere galduz. Otxandiotik errefortzu txiki bat iritsi zen: kamioneta bat, Guardia Zibilaren Juan Ibarrola kapitainarekin, asaltoko 12 guardiarekin eta metrailadore batekin. Hilaren 23an, ordura arte Arlabaneko fronte errepublikanoaren kuartel nagusia izandako Eskoriatzan sartu zen Alonso; nahiz eta, udalerraren mendebaldeko goiko pinudietatik Otxandioko indarrak eta herriko miliziak haren komunikazioak eteten saiatu ziren, Gasteizko zutabean 15 hil-zauritu eraginda (5 hildako eta 10 zauritu). Hilaren 24an, Aretxabaleta erori zen, eta 26an, Arrasate. Gero, azaroaren 30etik aurrera, Gasteiz eskuratzeko euskal ofentsiban, Euzko Indarra batailoia Eskoriatza eta Leintz-Gatzagako lurretan sartu zen, Arrasate eta Gasteiz arteko errepidea moztu nahian, eta borroka txikiak izan ziren, hainbat egunez. 1937ko martxoaren amaieran, eremua Nafarroako 3. brigada (Latorre koronela) elkartzeko erabili zen. Brigada horren eginkizuna frontea haustea zen mendebaldean, Eskoriatza eta Arrasate artean. 4.343 soldadu zituen, hainbat bateria, eta, batik bat, 31ko erasorako utzitako M izeneko Artilleria Masa -11 bateria eta erdiz osatua (artilleriako 46 pieza)-.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) BARRUSO (1996) MARTINEZ BANDE (1980) <i>Memoria de la Guerra Civil Española. Partes de Guerra Nacionales y Republicanos</i> , Belacqva, Bartzelona, 2004 (César Vidalen hitzaurrea) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Hernani.
Gertakari historikoa	Hernaniko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: gerra hastean, herri mobilizazioak milizien eraketa eragin zuen, eta horietatik konpainia motako unitateak sortu ziren, gero batailoietan sartuko zirenak. Horrela, talde batzuek Dragones batailoien 4. konpainia eratu zuten, eta beste batzuk MAOCren, CNTren eta bestelakoen konpainietan sartu ziren. Donostia eta Gipuzkoako mendebaldearen zati handi bat erori ondoren, irailaren amaieran eta urriko lehenengo hamar egunetan, Gipuzkoako MAOCren konpainiak berrantolatatu ziren, pertsona eta arma gehiago jasoz. Hala, "Hernaniko Milizia Antifaxistak" izenekoek gerra materiala jaso zuten, Mutrikuko kuartelean. Hernaniren defentsan, Rusia batailoia eta MAOCren (batzuk Rosa Luxemburgo batailoian sartu zirenak) eta CNTren miliziak nabarmendu ziren. Alde frankista: Iruretagoyena indarrak edo zutabea, Cayuela, Latorre eta Becerra (blindatuena) zutabeek osatutakoa.
Data	Abuztuaren 19a-Irailaren 12a
Deskribapena	Abuztuaren 17an, Andoain matxinatuen menpe geratu ondoren, hegoaldetik, Hernanin barrena, indar handi batek Donostia zuen jomuga. Hilaren 19an, Latorre zutabeak Hernaniren aurkako erasoari ekin zion. Hala, Tutor komandantearen indarrek aurrera egin zuten Donostiarako errepidearen eskuinaldetik, Urnieta ingurura iritsi arte. Hilaren 23an, Becerraren indarrak Buruntza mendia miaztera abiatu ziren Andoainetik, eta defentsa sendoa zeudela ikusi zuten. Hilaren 28an, Iruretagoyena zutabeak errepidearen ezkerretik jo zuen eraso, Cayuelaren agindupeko tropekin, eta borroka egin ondoren Belkoain mendia hartu zuten mendean. Buruntzan, ordea, erresistentziak matxinatuen erasoei eutsi zien, eta ez zen erori, hilaren 29ra arte. Indar errepublikanoen artean, MAOCren indarrak nabarmendu ziren. Hurrengo egunetan, matxinatuen aurreratzea geratzea lortu zuten Hernaniko Santa Barbarako gotorlekuko artilleriak eta gobernuak Andoainen egindako aireko erasoek. Irailaren 5ean, Iruretagoyenaren tropek aurrera egin zuten Lasarteko errepidetik, Oria ingurura iritsi arte, eta hilaren 6an, Hernaniko errepidean ziren zaldizko indarrak Urnietan sartu ziren, bi bandoetan baja ugari eragin zituen borrokaren ondoren (41 hil-zauritu, matxinatuen aldean). Azkenean, Irun mendean hartu zuten indarren ofentsiba orokorrez baliatuta, Iruretagoyenaren indarrak Santa Barbarako gotorlekuaren ondoan geratu ziren hilaren 11n, hurrengo egunean okupatzeko. Hernani, berriz, hilaren 13an hartu zuten mendean, Donostia erori zen egun berean, hain zuzen ere. Okupazioaren ondoren, alde frankistak errepresiorako erabilitako guneetako bat izan zen Hernani.
Iturriak	AIZPURU (2007) BELDARRAIN (1992) BARRUSO (1996) JIMENEZ DE ABERASTURI CORTA (2006) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Erbestera joandako Hernaniko gudari batzuk Frantziako makiekin borrokatu ziren, II. Mundu Gerran. Juan Carlos Jiménez de Aberasturiren lana ezinbestekoa da horien ibilbide osoa ezagutzeko, Gerra Zibiletik aliatuen 1945eko garaipenera arte.

Udalerrria	Hondarribia.
Gertakari historikoa	Hondarribiko borroka, eta pasadizo militar eta errepresiboak, Guadalupeko gotorlekuan.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: gerra hastean, herritarrak milizien unitateetan antolatuta ziren, gero batailoi gisa egituratzeko. Armadaren unitate batzuk ere izan ziren; esate baterako, Guadalupeko gotorlekuan Artilleria Astuneko 29 gizon egon ziren abuztuaren 9ra arte. Alde frankista: Utrilla eta Los Arcos zutabeak.
Data	1936ko uztail-iraila.
Deskribapena	Gerra hastean, Hondarribian, gobernuaren kontrolpeko gainerako udalerrietan bezala, herriko boterea gauzatzeko errealitate berriak sortu ziren, hala nola defentsarako batzarrak eta batzordeak, miliziak, etab. Gipuzkoako egoera, oro har, eta Irungoa, zehazki, erabakigarriak izan ziren Hondarribiko gatazkaren lehen fasean. Guadalupeko gotorlekua gunen nagusietako bat izan zen, indar erregularrek eta milizianoek babestutako barruti militarra baitzen. Hori dela eta, alde batetik, matxinatuen jomugutako bat izan zen, eta, bestetik, espetxe bihurtu zen, beste gaztelu edo gotorleku militar asko bezalaxe. Gerraren testuinguruan, beraz, Guadalupe kolpe militarreko ustezko nahiz zuzeneko partaide askoren espetxe bihurtu zen, eta horrek ondorio tragikoak izan zituen azkenean. Abuztuan, gutxienez, lau bonbardaketa egin ziren itsasotik. Bitan –hilaren 17an eta 22an– Guadalupe izan zen jomuga (beste bitan, hilaren 13an eta 18an, jomuga Donostia izan zen). Horren ondorioz, hilaren 19an, 13 preso fusilatu zituzten Guadalupen, herri epaimahai batek epaitu ondoren. Hondarribiarentzat erabakigarria izan zen Irun erortzea. Horrek, azkenean, Guadalupeko eta Hondarribiko ebakuazioa eragin zuen, baita mendebaldean ziren San Markos eta Txoritokitako gotorlekuena ere. Borroka amaitu aurretik, irailaren 3an, Irun ebakutzeko agindua eman zitzaion herritarrei, eta hilaren 5ean hartu zuten. Hurrengo egunean, Hondarribia erori zen, ebakuatu ondoren; hortaz, Utrilla zutabeak ez zuen erresistentziarik aurkitu herrian sartzeko. Gero, Guadalupeko gotorlekua erori zen; oraingoan, aipatutako zutabea, Los Arcosen tropekin batera, atzera egiten ari ziren milizien aurka borrokatu ziren. Hilaren 5ean, ebakuazioaren testuinguruan, beste 11 preso fusilatu zituzten Guadalupen; tartean, Leopoldo Matos eta Honorio Mauro monarkikoak, Joaquín Beunza diputatu tradizionalista ohia eta Elósegui markesa. Amaitzeko, matxinatuek, hilaren 6an, borrokan hartutako miliziano batzuk fusilatu zituzten.
Iturriak	AZNAR (1961) BARRUSO (1996) BELDARRAIN (1996) MARTINEZ BANDE (1980) PUCHE MARTINEZ (1978) STEER (1978) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Steer-ek indar anarkistei egotzi zizkien Guadalupen irailean izandako fusilazteak. Dirudienez, hurrengo egunean matxinatuek borrokan hildakoak edo fusilatutakoak MAOCko kideak ziren. Bestalde, nazioarteko ezkerreko boluntarioen talde txiki batek –Alemanak ziren tartean, eta Irunen ere egon ziren– itsasotik alde egin zuen, Hondarribitik Frantziara.

Udalerrria	Irun.
Gertakari historikoa	Irungo gudua.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: hainbat ideologiatako miliziak; tartean, Rusia batailoiko kideak (JSU); MAOCren zenbait konpainia –hala nola "Bala Roja" eta "Guipuzcoa Roja" ize-nekoak, konpainia horietako kide batzuk Frantziara joan ziren, eta gero Katalunia, Aragoi eta Madrilera; Euskadin geratu zirenak, berriz, Karl Liebknecht bezalako batailoietan sartu ziren–; Eibarko Amuateguikoak; Asturiasko dinamitariak; nazioarteko boluntario batzuk –tartean, Alemanak (Thaelman taldea), Frantsesak (Iruni atxikitako frantziar milizien taldea) eta Poloniarrek (bederatzi poloniarren taldea)–; Euskal miliziak; Armadaren indarrak (Artilleria Astuneko 3. erregimentua); Asaltoko Indarrak; karabineroak; eta, Guardia Zibila. Donostiako batzarrak, bertan ziren agintari militarrekin batera, bere gain hartu zuen probintziako borroka sektore nagusiaren defentsa; hau da; hiriburua eta mugaren arteko eremua. Mugaldean, Irunen Defentsarako Batzarrarekin aritu zen elkarlanean.</p> <p>Alde frankista: Los Arcos, Ortiz de Zárate, García Valiño, Galvís, Utrilla zutabeak, eta tertzioaren 2. batailoia.</p>
Data	1936ko abuztuaren 1etik irailaren 5era.
Deskribapena	<p>Altxamendu militarrek Donostian porrot egin ondoren, hiriburua eta Irungo mugaldea mendean hartzeko matxinatuen mugimenduak Gipuzkoa Euskadiko borroka fronte nagusi bihurtu zuen. Abuztuko lehenengo hamar egunetan izandako aurretiko operazioek agerian utzi zuten Beorleguiren indar matxinatuen egoera, Oiartzunen baitzeuden gobernuaren indarrez hiru aldetatik inguratuta. Abuztuaren 8an, Mola jeneralak Beorlegui estutu zuen, Irun eta mugaren aurkako ofentsibari ekin ziezaion, Erlaitz-Pagogainako lerroaren aurkako erasoak joz. Hilaren 10ean, errefortzuak iritsi ziren Iruñetik, eta erasotzaileen kontingentea handitu zen, 3.000 gizonetik gorakoa izan arte. Horrenbestez, planak egokitu zituzten, eta hurrengo egunetan ofentsibari ekin zioten. Pikoketa erori zen, eta Aiako Harria inguratzeari ekin zioten, Erlaitzeraino iritsiz. Posizio horrek hilaren 15era arte eutsi zion, egun horretan matxinatuek hartu baitzuten, Pagogainarekin batera.</p> <p>Hilaren 19an, Irunen aurkako azken ofentsiba hasi zen, baina Erlaitzetik egindako erasoak huts egin zuen. Hilaren 24an, errefortzu gisa, legionarioen 2. batailoia iritsi zen matxinatuen aldera, lehen lerroko unitate gisa. Hilaren 26an, erasoari ekin zioten berriro, baina bai egun horretan bai hurrengoan porrot egin zuten, San Martzial eta Puntzako posizioen aurrean. Molaren gizonak, beraz, porrota jaso zuten bi egun horietan San Martzialen, Irungo posizio garrantzitsuenean. Artilleriako errefortzu gehiago lortu ondoren, Beorleguik etengabe ekin zion jomugak bonbardatzeari. Irailaren 1ean, Zubeltzuko erresistentziak bi asaltori eutsi zion; hilaren 2an, ordea, San Martzial erori zen. Bestalde, hilaren 3an, Behobia ingurura iritsi ziren matxinatuak, Irunen herritarrak ebakutzeko aginduak ematen ari ziren egun berean. Behobia hurrengo egunetan erori zen, eta Irun, hilaren 5ean, aurkarien artilleriako bonbardaketak jaso eta defendatzaileek hiriguneari su eman ondoren. Donostiara joateko irteera itxita zegoenez, Frantziara ihes egin zuten.</p>
Iturriak	<p>AZNAR (1961) BARRUSO (1996) BELDARRAIN (1996) IRUJO (2006) MARTINEZ BANDE (1980) MESA (1998) PRESTON (2011) SEBASTIAN GARCIA (1995) STEER (1978) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (1996)</p>

Oharrak	<p>Mesaren liburua garrantzitsua da frankisten eliteko indar batean, hots, Tertzioan (Legioa), atzerritarren presentziaren berri izateko. Esate baterako, gerra hasi baino lehen iritsitako aleman legionarioen espediente asko desagertu (edo desagerrarazi) badira ere, Mesak batzuen jarduna berreraiki du, igoeren <i>cursus honoruma</i> barne, aldizkari ofizialen kontsulta sistematikoaren bidez.</p> <p>Steer-ek (30. or.) baieztatzen du legioaren 2. batailoiko gizonak Badajozen borrokatu zirela; hori, ordea, ez da egia, 4. eta 5. batailoiek eta marokoar tropek hartu baitzuten parte hiri haren okupazioan. Steer-en obraren zehaztasun akatsetako bat da. Hala eta guztiz ere, 36-37ko Euskadiri buruzko obra "klasiko" horren garrantziak bere horretan jarraitzen du. Era berean, iturri askok aipatzen duten arren, ez ziren borroka unitate musulmanak izan Irungo guduan.</p> <p>Irungo guduan, matxinatuek hartutako preso guztiak fusilatu zituzten. Pikoketan fusilatu zituzten lehendabizi; gero, abuztuaren 15ean, Erlaitz hartu zuten egunean, beste 20 preso fusilatu zituzten, tartean kapitain bat; eta, irailaren 2an, San Martzialen izan ziren fusilamenduak, azken horien artean, belgikar boluntario bat ere bazegoen.</p>
---------	--

Udalerrria	Itziar
Gertakari historikoa	Itziarko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: CNTko miliziak, gero Bakunin batailoien lehen hiru konpainia gisa sartu zirenak. Alde frankista: Iruretagoyenaren agindupeko zutabearen barruko Latorre zutabea.
Data	1936ko irailaren 21a eta 22a.
Deskribapena	Latorre zutabeak kostaldeko sektoretik jarraitu zuen Gipuzkoako mendebaldearen gaineko ofentsiba. Irailaren 21ean, Zarautz eta Zumaian sartu zen, eta hurrengo egunean Debara jarraitu zuen, hura mendean hartuta. Iritsi aurretik, ordea, Itziarren borrokatu ziren, atzera egiten ari ziren indar errepublikanoen atzeragoardia babes-ten ari ziren milizien (CNTkoak gehienbat) aurka.
Iturriak	AZNAR (1961) BARRUSO (1996) BELDARRAIN (1996) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Lasarte.
Gertakari historikoa	Abiazio eremuaren funtzionamendua, eta herriaren okupazioa.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: gerra hastean, hainbat milizia unitate antolatuta ziren (UGT, CNT, JSU, MAOC, Azañaren errepublikanoak, eta euskal miliziak). Abuztuaren Andoainetik zetorren eraso frankistari aurre egiteko, Lasarte zutabea edo frontea antolatuta zen. Horren barruan, atzerriko boluntarioen “Edgard André taldea” zegoen, Juul Christiaens belgikarraren agindupean (gero UGTren 3. eta 10. batailoien komandantea izango zena, Bizkaian). Xede militarrekin egokitutako abiazio eremuan, lurreko langile gisa, 19 milizianok –frantziar bat, tartean– jardun zuten, abuztuaren lehen erdialdean. Beharbada, Lasarteko nazioarteko talde horren barruan egongo zen ere agertzen den frantsesa.</p> <p>Alde frankista: Iruretagoyena buru zen zutabe nagusiko Cayuela eta Becerra zutabeak.</p>
Data	
Deskribapena	<p>Gerra hasieran, miliziak antolatuta ziren, gero batailoietan txertatuta zirenak. Martxan jarri zen, halaber, xede militarra zuen Lasarteko abiazio eremua, Gipuzkoan gobernuaren kontrolpean zeuden hegazkinen basea izango zena. Abuztuaren 17an, Andoain erortzean, Lasarte, Hernani eta Donostia bera arrisku egoeran geratu ziren. Hilaren 19an, Iruretagoyenak erasoari ekin zion Andoainetik, Latorre zutabearen zati batekin. Hernanirako errepidearen eskuintaldea hartu zuen, Urnieta ingurura iritsi arte. Hilaren 23an, Becerraren indarrak Buruntza mendiraino joan ziren. Hilaren 28an, Iruretagoyenak errepidearen ezkerrean jo zuen eraso, Cayuelak gidatutako tropekin, eta Lasarterako bidea irekitzea lortu zuten. Tropek Belkoain mendia hartu zuten. Alabaina, Buruntza mendian, erresistentziak matxinatuen erasoari eutsi zion, eta posizioa ez zen erori hilaren 29an arte. Indar errepublikanoen artean, MAOCren indarrak nabarmendu ziren. Hurrengo egunetan, matxinatuen aurreratzea geratzea lortu zuten Hernaniko Santa Barbarako gotorlekuko artilleriak eta gobernuaren aireko erasoek, Andoainen. Abuztuaren 31n, Christiaens-ek miaketa bat egin zuen. Lasarteko patruila baten buru atera zen, Andoaineko biderantz, eta atzera egin behar izan zuen berriro, matxinatuen aurreko lerroekin tiroketa bat izan ondoren.</p> <p>Irailaren 5ean, Iruretagoyenaren tropek aurrera egin zuten Lasarteko errepideetik, Oria ingurura iritsi arte, eta hilaren 6an, Hernanirako errepidean ziren zaldizko indarrak Urnietan sartu ziren. Azkenean, Irun mendean hartu zuten indarren ofentsiba orokorrez baliatuta, Iruretagoyenaren indarrak Santa Barbarako gotorlekuaren ondoan geratu ziren hilaren 11n, hurrengo egunean okupatzeko. Hernani eta Lasarte, berriz, hilaren 13an hartu zituzten mendean, Donostia erori zen egun berean, hain zuzen ere.</p>
Iturriak	<p>BARRUSO (1996) MARTINEZ BANDE (1980) SALAS LARRAZABAL (1998) TALON (1988) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2007)</p>
Oharrak	Jesús Salasen liburuak aireko gerraren berri ematen du, gatazkaren hasieratik 1937ko martxora arte, eta euskal lurraldean Bizkaiaaren aurkako eraso (martxoak 31) hasi aurreko operazioak aipatzen ditu.

Udalerrria	Leintz-Gatzaga
Gertakari historikoa	Isuskitzako borrokak eta Leintz-Gatzagako okupazioa.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: Arrasateko eremuan sartutako herri miliziak, eta Otxandio zutabea. Azaro-abenduan, Legutioko guduaren testuinguruan, lehen zutabearen (Ibarrola komandantea) indarrak: 6 batailoi, lubakitzailen konpainia bat, akonpainamendu makinen sekzio bat, morteroen sekzio bat, transmisioen sekzio bat, 7 artilleria pieza, eta zerbitzuak. Gero, Otxandioko frontea, Ibarrola bera buru zela.</p> <p>Alde frankista: Arabako Gobernu Militarreko indarrak –Alonso Vega zutabea–, eta Latorre teniente koronela, Arrasatetik Arlabaneko mendatera bitarteko posizioetan kokatuta. Gero, 1937ko martxoan, Nafarroako 1. brigada iritsi zen (Rafael García Valiño teniente koronela), eta haren misioa Leintz bailaratik Krutzeta mendatea hartzea zen, gero Otxandio erasotzeko.</p>
Data	1936ko uztail-abendua eta 1937ko urtarril-martxoa.
Deskribapena	<p>Gerra hastean, inguru guztia Arrasateko milizietan sartutako herriko milizien kontrolpean geratu zen. Miliziak Arlabaneko mendateraino iristen ziren, garrantzi handiko mendatea baitzen eraso jozko nola Gasteizen hala Arrasaten. Borroka gutxiko hilabete batzuk igaro ondoren, irailaren 21ean, Gasteizko indarrek (Alonso Vega zutabea) eraso jo zuten, Gipuzkoako mendebala hartzeko ofentsiba orokorrarekin bat eginez, eta egun horretan bertan Arlabaneko mendatea eta Gatzaga hartu zituzten. Hilaren 24an, Aretxabaleta hartu zuten mendean, eta 26an, Arrasate. Egun haietan, Gatzaga eta Eskoriatza inguruan, Otxandioko zutabeak Alonsoren hegadak eta komunikazio lerroa zigortzeko egindako ahaleginak ahulak eta alferrekoak izan ziren.</p> <p>Urrian, matxinatuen erasoari Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugan eutsi zitzaionean, Euzko Gudarostearen tropek erasoak jo zituzten Eibarren eta Leintz inguruan. Azken horretan, Isuskitza gazteluaren posizioa zen jomuga. Vidalen agindupeko Otxandioko zutabearen indarrek –Perezagua batailoiak nagusiki– eraso jo zuten, eta posizioa hartu zuten, 50 baja inguru izanda (tartean, 15 hildako); bien bitartean, erreketek konpainiek osatutako alde frankistak erabateko porrota jasan zuen: 60 hildako baino gehiago, tartean, sektorearen buru Cogolludo komandantea eta teniente bat, Oriol diputatu tradizionalistaren semea zena. Hamabi preso inguru hartu zituzten; tartean, bi alemaniar boluntario; gero, epaitu eta exekutatu zituztenak; bestalde, 50 zauritu ebakuatu behar izan zituzten. Arrakasta gorabehera eta posizio hura Arlabaneko mendatera iristeko ezinbestekoa izan arren, hain aurrean zegoenez errepublikanoek abandonatu behar izan zuten, eta frankistek atzera hartu zuten, urriaren 18an. Azaroaren 30etik aurrera, Ibarrolaren lehen zutabearen indarrek, Eskoriatza eta Arrasateren arteko eremuaren mendebaldean zeuden beste unitate batzuekin batera, eraso jo zuten Isuskitza aldera, Gasteiz eta Arrasate arteko errepidearen ezker aldeko posizioen aurka. Posizio horiek, hain zuzen, Arrasate eta Arlabaneko mendatearen artean hedatutako Latorre zutabeak defendatzen ziren. Borrokak abendu osoa iraun zuen. Aurrerapenak, ordea, txikiak izan ziren, eta Isuskitzara berriro iristeko saialdia ezerezean geratu zen. Borrokan, baja nabarmenak izan ziren hainbat unitatetan, hala nola Azaña-Vizcaya eta UHP batailoietan. Gero, martxoaren amaieran, Nafarroako 1. brigada iritsi zen eremura (Rafael García Valiño teniente koronela), eta Leintz bailaratik Krutzeta mendate aldera jo zuen eraso, Otxandiora iristeko asmoz.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (1992) MARTINEZ BANDE (1971) MARTINEZ BANDE (1980) OKTUBE TALDEA (1896) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (2012)</p>

Oharrak	<p>Isuskitza mendian preso hartutako alemanak Lothar Gudde Reddel eta Wolfgang von Eynatten ziren. Borroka sutsuen testuinguruan, ez zitzaion inori bururatu errepublikaren eta Eusko Jaurlaritzaren aldeko presoekin truke bat egitea. Gainera, horietako bat, Eynatten, Franz von Papen-en iloba zen, Alemaniako kantziler ohia. Bi presoak epaitu eta exekutatu egin zituzten. Lehenengoa, Falangen izena emanda zegoena, 1936ko azaroaren 11ko egunsentian fusilatu zuten. Bigarrenak, hasiera batean, bizi bitarteko espetxealdi zigorra jaso zuen, baina fiskalari hala iritzita, beste epaiketa bat egin zitzaion, 1937ko urtarrilaren 30ean, eta orduko hartan heriotzara zigortu zuten. Otsailaren 5eko egunsentian fusilatu zuten.</p>
---------	--

Udalerria	Loiola.
Gertakari historikoa	Euzko Gudarostearen Azpeitiko komandantziaren basea, eta frankisten okupazioa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Azpeitian sortutako Defentsarako Batzar Nazionalistatik Euzko Gudarostea sortu zen, 1936ko abuztuko lehen egunetan. Cándido Saseta intendentzia kapitainak hartu zuen horren agintea, gudarostearen komandante buru gisa. Abuztuan erabilitako zigiluan ikus daitekeenez, hasiera batean “Euzko Gudaroztea” deitu zitzaion armadari, eta “Azpeiti Buruzagitza”, Azpeitiko Komandantziari. Abuztuko nominan, 1.349 gizonen izenak jasotzen dira. Horiek osatuko zuten, gehienbat, hurrengo hilabeteetan sortuko ziren EAJ, ELA eta EMBren gudarien batailoiak, eta EAEn batailoien zati bat, gutxienez; izan ere, horixe frogatzen dute, alde batetik, José Placer komandantea, agintari militarretako bat, irailaren hasieran Loiola-Azpeitian zen Euzko Indarra konpainiaren buru izateak, eta, bestetik, Loiola hotolean EAEn kuartela egoteak, kontingentearen gainerako zatiak, EAJkoak nagusiki, Loiolako Santutegian ostatua hartzen zuen bitartean. Alde frankista: Los Arcos zutabearen Díez de Rivera taldea.
Data	1936ko abuztu-iraila.
Deskribapena	1936ko abuztuaren hasieran, Azpeitiaren Defentsarako Batzarrak, euskal nazionalisten kontrolpean zegoenak, Azpeitiko Komandantzia –Azpeiti Buruzagitza– sortu zuen, eta komandantziak berak sortu eta kontrolatu zuen Euzko Gudaroztea (jatorrizko zigilu idatzita dagoen moduan), milizia soilik nazionalistak antolatzen zituen entitate gisa. Euskal armada hura EAJko diputatuak ziren Irujo, Jose María Lasarte eta Telesforo Monzónen kontrolpean geratu zen. Milizien ofizialen artean, José Estornes tenientea agertzen da. Abuztuan, guztira 1.349 gizon zeuden, eta hurrengo hilabeteetan horietatik sortuko ziren EAJren, ELAren eta EMBren batailoiak, baita EAEn batailoien zati bat ere, gutxienez. Kontingentearen zati nagusiak, EAJkoa nagusiki, Loiolako Santutegian hartu zuen aterpe, eta EAEnko gudariak, Loiola hotolean. Azkenean, atzera egin eta Bizkaira iristean, talde nazionalista bakoitzak bere gain hartu zuen bere unitateen gaineko kontrola, eta Euzko Gudarostea terminoa soilik erabili zen jeltzaleen antolakuntza militarra izendatzeko. Kantitateari nahiz kaliteri zegokionez gerrarako material eskasa eduki arren, Hernioko mendigunearen defentsarako posizioak hartu zituzten, eta ordena publikoa bermatu zuten, Gipuzkoako mendebaldearen zati handi batean. Bestalde, euskal milizien lehen taldeek biktimaren bat jasan zuten, abuztuaren hasieran ofizialki eratu baino lehen. Azkenean, atzera egin behar izan zuten hasierako lekura, Gipuzkoako mendebaldea hartzeko matxinatuen ofentsiba orokorra zela eta. Irailaren 20an, Los Arcos zutabearen Díez de Rivera taldeak Azpeitia, Loiola eta Azkoitia hartu zituen mendean.
Iturriak	BARRUSO (1996) BELDARRAIN (1992) IRUJO (2006) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	EAJko diputatu José María Lasarte eta Telesforo Monzón zazpi pertsonak osatutako Euzko Gudarostearen Batzordeko kideak ziren. Gainerako batzordekideak honako hauek ziren: Salvador Aranburu, Miguel José Garmendia, Lino Lazkano, Mikel Ayerdi eta Tomás Mitxelena. Eduardo Urtizbera, Jesús Luisa, José Placer, Enrique Etxeberria eta José María Fernández komandanteek zuten aginte militarra, aipatutako Sasetarekin batera.

Udalerrria	Mutriku.
Gertakari historikoa	Mutrikuko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: JSUren miliziak, errepublikanoen Azaña batailoia, Euzko Gudarostearen Elgezabal konpainia, eta beste euskal indar batzuk. Gero, errefortzuko beste batailoi batzuk iritsi ziren; tartean, Santanderreko bat, hainbat egunez inguruan ibili zena. Alde frankista: Iruretagoyenaren agindupeko Latorre eta González Unzalu zutabeak.
Data	1936ko irailaren 24tik 27ra.
Deskribapena	Gipuzkoako mendebaldea hartzeko erasoan, Deban irailaren 22an sartu ondoren, Latorre zutabeak Debako posizio errepublikanoen aurkako erasoak jo zuen, hilaren 24an. Aldi berean, hegoaldean, González Unzalu zutabeak, egun bat lehenago Mendaro hartu zuenak, Arno mendia hartu zuen, eta Mutriku hegoaldeetik inguratzeari ekin zion. Borrokak izan ziren hilaren 25ean eta 26an; alabaina, indar errepublikanoek atzera egin behar izan zuten, eta matxinatuek hilaren 27an hartu zuten Mutriku.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) HERRERA (1974) MARTINEZ BANDE (1971) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Oiartzun.
Gertakari historikoa	Oiartzungo borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: ordena publikoaren indarrak, Artilleriako militarrik eta ingeniariak, eta, gehienbat, miliziak, hala nola MAOCren taldeak (gero Larrañaga batailoia izango zena), CNTkoak, UGTkoak eta errepublikanoen Azaña batailoikoak. Mugan eta Oiartzun inguruan izandako borroketan, Asturiasko talde batzuek ere hartu zuten parte; guztira, ehun bat miliziano izango ziren. Alde frankista: Beorlegui, Los Arcos eta Montoya zutabeak.
Data	1936ko uztailaren 23tik irailaren 13ra.
Deskribapena	Beorlegui koronela Donostiara iristen saiatu zen, Nafarroatik, matxinatuei laguntzeko. Hala, Aiako Harrian, Aritxulegiko mendatean barrena, Oiartzunera iritsi zen, uztailaren 23an. Oiartzun inguruan, ordea, matxinatuak isolatuta geratu ziren, eta borrokak izan zituzten egunero gobernuaren indarren aurka. Hilaren 27an, Ortiz de Zarate koronelaren errefortzuak jaso arren, Beorleguiren egoerak ia ez zuen hobera egin, harik eta beste zutabe batzuek eskuineko hegala ireki zuten arte, irailaren hasieran, Irun, Hondarribia eta Jaizkibel mendean hartuz. Horrela, Oiartzun, neurri batean, irekita geratu zen. Irailaren 11tik aurrera, Los Arcos eta Montoya zutabeek Errearteria eta Santiagomendi arteko frontea garaitu zuten, San Markos eta Txoritokietako gotorlekuak mendean hartuta. Egoera horretan ezinezkoa zen Donostia defendatzea; hortaz, ebakuatu egin zuten, eta etsaien esku geratu zen, hilaren 13an.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) HERRERA (1974) KATTIN-TXIKI TALDEA (2009) LEKUONA (2010) MARTINEZ BANDE (1971) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Oiartzunen egon zen bitartean, Beorlegui zutabeak dozenaka preso fusilatu, eta hainbat herritar erail zituen.

Udalerrria	Ordizia.
Gertakari historikoa	Ordiziako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: alderdi politiko eta sindikatuetakoa kideak eta jarraitzaileak milizietan sartu ziren, eta gero hainbat batailoi sortu ziren, esate baterako, JSUren batailoi batzuk –hala nola Dragones eta Stalin–, CNTren beste batzuk, eta euskal nazionalistenak. Ordiziako defentsan, CTNren eta UGTren miliziak nabarmendu ziren. Alde frankista: Cayuela teniente koronelaren zutabeak, eta Malcampo eta Albizu komandanteenak.
Data	1936ko uztailaren 27tik abuztuaren 5era.
Deskribapena	Uztailaren 27an Beasain erorita, Cayuela zutabeak Tolosarako bidea hartu zuen, hego-ekialdetik, eta miliziek aurre egin zioten. Abuztuaren 1ean, zutabeak Ordizia hartu zuen, eta 5ean, herriaren ekialdera dagoen Gaintza. Hilaren 6an, Tolosa hartzeko bidea hartu zuen Cayuelak. Ordiziako defendatzaileek atzera egin zuten; batzuk Tolosarako bidetik joan ziren, eta beste batzuk Beasain eta Tolosa arteko errepidearen mendebaldera geratu ziren. Handik, aurkarien komunikazio lerroari egin zioten eraso, matxinatuek Gipuzkoako mendebaldea hartzeko ofentsiba hasi arte.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Ormaiztegi.
Gertakari historikoa	Ormaiztegiko defentsa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako miliziak. Alde frankista: uztailean, Cayuela, Albizu eta Malcampo zutabeak, Beasain hartu zutenak. Irailean, Los Arcos zutabearen Tejero taldea.
Data	1936ko uztail-iraila.
Deskribapena	Uztailaren 27an Beasain okupatu ondoren, matxinatuek ipar-ekialderako bidea hartu zuten, Tolosako bidean, mendebaldean frontea egonkortzen ari zen bitartean. Milizien indarrek, tartean Rusia batailoiko kideak zirela, Ormaiztegiara daraman biaduktua suntsitu zuten, frankistei bidea ixteko asmoz. Gero, borroka txikiak izan ziren, frankistek, Donostia erortzean, berriro erasoari ekin zioten arte. Irailaren 17an, Los Arcos zutabearen Tejero taldeak herria hartu zuten.
Iturriak	BARRUSO (1996) BELDARRAIN (1992) GARMENDIA (2013) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Pasaia.
Gertakari historikoa	Bi bandoen itsas basea.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: gerra hastean, herritarrak, marinelak barne, Donostian eta Gipuzkoa ekialdean sortutako milizietan sartu ziren. Gero, horietako asko hainbat ideologiatako batailoietan eta “Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldean” sartu ziren. Era berean, Pasaian antolatu zen lehenengoz gobernuaren itsas indarra. Itsas unitate nagusia 3. torpedo ontzi zaharkitua zen. Arrantza ontzi batzuek, bestalde, zaintza lanak egin –Iparreko-Izarra eta Goizeko Izarra– edo armak garraiatu zituzten –Lina, Trintxerpe, Alkarri, Lagundu, Domayo eta Mourisca–. Aipatutako azken bi arrantza ontziek euskal nazionalistek osatutako eskifaia zuten, eta irailean Euzko Gudarostearen Itsas Zerbitzuak sortu zituzten.</p> <p>Alde frankista: Montoya zutabea, Pasaia hartu zuena. Gero, Kantauriko bouen eta Alemaniako itsas unitate militarren eta merkantzia ontzien base bihurtu zen.</p>
Data	1936ko uztaila-1939ko apirila.
Deskribapena	<p>Gerra hastean, alderdi politiko eta sindikatuetafiluatuak eta jarraitzaileek hainbat miliziatan eman zuten izena. Beste batzuek matxinatuen aurkako erresistentziaren itsas taldeekin egin zuten bat. 3. torpedo ontzia, Pasaian zegoena duela gutxi Hondarribitik eraman zutelako, Avance Marino sindikatu anarkistaren kontrolpean geratu zen. Itsasontzia, zaharkitua eta motela, desplazamenduko 180 tonakoa, 50 metroko luzerakoa, sorreratik 26 korapiloko abiadura hartzeko gauza ez zena, eta 47 mm-ko 3 kanoi eta 3 torpedo jaurtigailu zituena, Pasaia CNTkoen kontrolpean geratu zen, 30 laguneko eskifaiekin. Uztailean, Donostiako matxinatuen aurkako bonbardaketa batean parte hartu zuen, eta gero Pasaia Donostiara ibili zen, eginkizun militar garrantzitsurik izan gabe. Horrez gain, Pasaian, gutxienez zortzi arrantza ontzi aritu ziren zaintza lanak egiten eta armak garraiatzen, metrailadore batez hornitutako Tabakaleraren txalupa batekin batera. Pasaia eta Donostia irailean 13an erori ondoren, ontziek Bizkaira joateko ebakuazioan parte hartu zuten, eta han, ontzi asko, arrantzakoak gehienbat, armaz hornitu zituzten, “Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldea” izeneko osatzeko.</p> <p>Pasaia itsasontzi base bihurtu zen, eta bertan porturatzen ziren Alemaniako gerra itsasontziak eta merkantziakoak. Hala, U-27 eta U-29 itsaspekoek eta horientzako itsasontzi amek Pasaian finkatu zuten basea. Gauza bera egin zuten matxinatuen armadako laguntzarako bou armatuak.</p>
Iturriak	<p>CERVERA PEY (1988) MORTERA PEREZ, MOLINA FRANCO eta PERMUY LOPEZ (2001) PARDO SAN GIL (1998) ROMAÑA (1984) RUIZ SIERRA (2005) SARRIA (1978) TALON (1988)</p>
Oharrak	Manuel Ruizen liburua ezinbestekoa da, 3. torpedo ontziaren eta haren eskifaia gora-beherak ezagutzeko.

Udalerria	Irun (egia esanda, hainbat udalerrri ukitzen dituen eremua da. Gaur egun, Aiako Harriko Parke Naturalean Irungo, Oiartzungo eta Errenteriako eremuak sartzen dira).
Gertakari historikoa	Aiako Harriko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako ordena indarrak eta miliziak; tartean, CNTren kontingenteak. Alde frankista: uztailen, Beorlegui eta Los Arcos zutabeak.
Data	Uztailaren 23tik abuztuaren 12ra.
Deskribapena	Altxamendu militarra hastean, Beorlegui koronela, Nafarroatik sartu zena, Donostiara iristen saiatu zen, matxinatuei laguntzeko. Horretarako, uztailaren 23an, Aritxulegiko mendatetik sartu zen, gobernuaren garniziorik ez zuen Aiako Harria zeharkatuta. Egun horretan, Oiartzunera hasi zen jaisten, eta Donostiako ur deposituko guardiei aurre egin ondoren, matxinatuak Altzibar auzora iritsi ziren. Oiartzun hartu ondoren, Beorlegui isolatuta geratu zen, gobernuko indarren erasoan aurrean. Hilaren 27an, Aritxulegiko lepotik Ortiz de Zárate koronelaren errefortzuak iritsi arren, indar errepublikanoek Oiartzun eta bertatik Nafarroara iristeko lerroa erasotzen jarraitu zuten, beren indarrak Aiako Harriaren kokatuta. Matxinatuek mugako defentsa nagusien aurkako erasoak planifikatu zuten, abuztuaren 8rako, eta horrek Oiartzungo komunikazioak irekitzea ahalbidetuko zien. Abuztuaren 11n, Ergoiendik atera eta Pikoketa hartu zuten ezustean, eta hilaren 12an Aiako Harriaren lepoa gainditu zuten, Irun aldera joateko.
Iturriak	AROSTEGUI (1991) BELDARRAIN (1992) HERRERA (1974) MARTINEZ BANDE (1971) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Oiartzun.
Gertakari historikoa	Pikoketako borrokak
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: karabineroak eta Gipuzkoako Milizia Antifaxistak; tartean, CNTren kontingenteak. Alde frankista: Los Arcos zutabeko erreketek, gerora Lakar, Nafarroa eta Montejurrako tertzioetan sartuko zirenak.
Data	1936ko abuztua.
Deskribapena	Indar matxinatuek abuztuaren 8an Irungo defentsaren posizio nagusiak erasotzea planifikatu zuten. Abuztuaren 11n, matxinatuak Ergoindik atera, eta Pikoketaraino igo ziren, errepublikanoak ezustean harrapatuta. Borrokan bertan hil, edo harrapatu ondoren fusilatu zituzten errepublikanoak; fusilatutakoen artean, bi emakume miliziano zeuden. Operazio horrek hegaletik Erlaitz eta Pagogaineko posizioen aurkako erasoa jotzea ahalbidetu zien, posizio garrantzitsuak baitziren biak, Irungo defentsarako.
Iturriak	CIA NAVASCUES (1941) IRUJO (2006) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Cía kapilaua (20-21. or.) Pikoketako presoan exekuzioan egon zen, eta horren zehaztasunak eman zituen. Garai hartako ideologia alde batera utzita, gertaerak ezagutu zituzten frankisten lekukotza askok Memoria Historikoa berreskuratzeko duten balioa erakusten digu horrek, gaur egun protagonisten bidez ia lortu ezin diren datuak eta zifrak ematen baitituzte errepresioari buruz. Erasotzaileak Lakarreko konpainia bat eta Montejurrako beste bat izan ziren.

Udalerrria	Tolosa.
Gertakari historikoa	Tolosako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Gipuzkoako miliziak, Tolosakoak barne. Herria erori zenean, defendatzeko indarren artean ziren MAOCren indarrak (Larrañaga batailoia izango zena), milizia nazionalistak, Rusia eta Amuategui batailoietako miliziak, eta beste indar batzuetakoak. Mikeleteak eta guardia zibilak ere baziren, eta horietako batzuk matxinatuen alde jarri ziren, Tolosa erori zenean. Alde frankista: Tutor eta Becerra zutabeak, gero Latorrerren agintepean geratuko zirenak, eta Ordiziatik erasoa jo zuen Cayuela zutabea.
Data	1936ko uztail-abuztua.
Deskribapena	Gerraren lehen egunetan, gobernuaren aldeko indarrak Tolosatik Nafarroako mugara joan ziren borrokatzea, eta atzera egin behar izan zuten Leitza eta Betelutik zetozen aurkariekin topo egitean. Uztailaren amaieran, frontea Tolosa inguruan egonkortu zen. Abuztuaren 1ean, matxinatuek aurrera egin zuten berriro, eta Tolosaren hego-ekialdera dagoen Ordizia okupatu zuten. Hilaren 5ean, Gaintza hartu zuten. Hilaren 6an, Cayuela eta Latorre zutabeek erasoa jo zuten modu koordinatuan, eta Tolosa hartu zuten, hilaren 11n. Borrokan hartutako presoak, Telletxea mikeleteen kapitaina tartean, fusilatu egin zituzten. Operazioen amaieran, gobernuaren aldeko indarren artean, ehun hildako baino gehiago izan ziren, harrapatzeko unean exekutatu zituzten milizianoak barne. Horrela hil zituzten, hain zuzen, miliziano batzuk hilaren 11n, Tolosan eroritako 50 miliziano baino gehiagoren artean.
Iturriak	BARRUSO (1996) BARRUSO, BLAZQUEZ BRIMEZ eta VILLANUEVA TELLERIA (1991) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	

Udalerrria	Urto-Berastegi.
Gertakari historikoa	Urto-Berastegiko borroak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Urton garnizioan ziren mikeleteak, eta Gipuzkoako miliziak. Alde frankista: Tutor zutabea. Tolosa eta Donostiarik ihesean ateratako batzuek ere bat egin zuten zutabe horrekin.
Data	1936ko uztailaren 19tik abuztuaren 4ra.
Deskribapena	Uztailaren 19an, Tutor komandantearen zutabea Iruñetik atera zen, eta iluntzean iritsi zen Leitzara. Han zirela jakin zuten gobernuaren aldeko kontingenteak zeudela Urtoko mikeleteen etxean, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan. Hilaren 20an, Tutor zutabea Betelurantz abiatu zen, Huitzi eta Azpirozko mendatearen barrera, Tolosatik Iruñera Betelutik doan errepidean aurkariak egotearen arriskuaren aurrean. Leitzan, 20 erreketek geratu ziren, eta horiekin bat egin zuten hilaren 20an Tolosa eta Donostiatik ihes egindako 72 boluntariok. Hilaren 23an, Tutor zutabeak aurrera egin zuen berriro Leitzatik, eta Urtoko mikeleteen etxea hartu zuen. Bien bitartean, Vicondoa zutabeak Illarrazarena harrapatu zuen, Betelutik Lizartzarako bidearen erdian geratuta. Hilaren 24an, Tutor zutabeak erreketen konpainia bat jaso zuen, errefortzu gisa, eta Berastegi hartu zuen. Hurrengo egunean, Belauntza erori zen. Hilaren 26an, Latorre teniente koronelak Tutor eta Vicondoa zutabeen agintea hartu zuen, Tolosako eraso batera jotzeko asmoz. Frontea egonkortu zen, eta borroka txikiak izan ziren, harik eta Latorrek Tolosa hartzeko erasoari jo zion arte, hilaren 5ean. Tolosa abuztuaren 11n erori zen.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) HERRERA (1974) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Berastegi erori ondorengo borroka txikietan, Tolosako ELAko (Eusko Langileen Alkartasuna) taldeek parte hartu zuten, eta, gutxienez, hildako bat izan zuten: Valentin Arregi Astiazaran, uztailaren 28an.

Udalerria	Usurbil.
Gertakari historikoa	Usurbilgo frontea.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: Gipuzkoako Defentsarako Batzarraren miliziak, eta ordena indarren eta armadaren kontingenteak; azken horien artean, Artilleria Astuneko 3. erregimentuaren 29 soldaduko kontingente bat, Usurbilen zegoena, 1936ko abuztuaren hasieraz geroztik. Milizianoen kontingenteen artean, Gipuzkoako MAOCren taldeak izan ziren, gero Larrañaga batailoian sartuko zirenak. Usurbilen borrokatu zen milizianoen konpainia bat Juan Antonio Castro Izagirre marinako kadetearen agindupean egon zen, aldi batez.</p> <p>Alde frankista: Cayuela eta Becerra zutabeak, Donostia erortzean, eta Iruretagoyena zutabe handiagoaren Latorre zutabea, Gipuzkoa mendebaldea hartzeko ofentsiba berriro hastean.</p>
Data	1936ko abuztu-iraila.
Deskribapena	Gerra hastean, herri frontearen eta euskal nazionalisten kontingenteak antolatu ziren, matxinatuei aurre egiteko. Abuztuaren 9an, gobernuaren aldekoen artean, Artilleria Astuneko 3. erregimentuko 18 artillari zeuden. Donostia erortzean, irailaren 13an, matxinatuen ofentsiba Usurbildik kilometro gutxira geratu zen, MAOCren indarrekin borrokatu ondoren. Irailaren 15an, Iruretagoyena zutabeak erasoari ekin zion herriaren iparraldetik eta hegoaldetik. Inguratuak izateko arriskuaren aurrean, defendatzaileek ebakuatzeari ekin zioten, eta Latorre zutabea irailaren 19an sartu zen Usurbilen.
Iturriak	BELDARRAIN (1992) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Juan Antonio Castro Izagirre Tolosa jaioterrian zegoen oportretan, fragatako alferezaren azterketak gainditu ondoren, eta itsasketa eskolan itsasontzi alferezeko ikastaroa gainditzea falta zitzaion. Gobernuaren aldekoa zen, familiaren tradizio liberala zela eta. Haren aita, izan ere, lehen gobernadore zibil errepublikanoa izan zen, Bizkaian. Gerra hasi eta berehala, Castrok bat egin zuen miliziekin, eta, haren hitzetan, "armatutako zibilen konpainia inprobisatu" baten buru jarri zen. Konpainiako kapitaina zela, Nafarroaraino iritsi ziren, eta borrokan ibili ziren, bestean beste, Tolosan, Beasainen, Andoainen eta Usurbilen.

4.1.2.3.2. Gerra Memoriaren lekuen mapa



4.1.3. Gerra Memoriaren lekuak, non euskaldunek legezkotasun demokratikoa defendatzeko esku hartu zuten, Euskal Autonomia Erdidegoko mugetatik kanpo

4.1.3.1. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda, Asturiasen

- | | | |
|---------------|------------------|----------------------|
| - Areces. | - Grullos. | - Rañeces. |
| - El Mazuco. | - Pando. | - San Claudio. |
| - Escamplero. | - Peñas Blancas. | - San Pedro de Nora. |

Udalerrria	Areces.
Gertakari historikoa	Areceseko borrokak. Oviedoko gudua eta haren igarobidea.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Saseta brigadak parte hartu zuen, Asturiasera bidalitako brigadetako bat; bi brigada bidali baitzituzten, Oviedoren eta haren komunikazio ardatzaren aurkako ofentsiba orokorrean parte hartzeko. Brigada Amaieur, Euzko Indarra (EAEko 2.a) eta Indalecio Prieto (UGTren 2.a) batailoiek osatzen zuten. Horrez gain, Ariztimuño batailoiairen metrailadore konpainia bat joan zen. Alde frankista: Nora ibaiaren mendebaldeko eremuaren Grado-Escamplero sektorearen indarrak, Asturiasko Komandantziaren 8. dibisiokoak. Gomarako Mehal-la nabarmendu zen bereziki.
Data	1937ko otsailaren 21etik 24ra.
Deskribapena	1937ko otsailaren 21ean, Oviedoren eta haren komunikazio ardatzaren aurkako ofentsiba errepublikanoa hasi zen. Borrokak hilabete inguru iraun zuen, eta une gogorrenak lehenengo bi asteetan izan ziren. Operazioak ez zuen lortu Oviedo eta haren komunikazioak hartzea, eta baja asko izan ziren bi bandoetan. Euskal indarrei dagokienez, bi brigadak parte hartu zuten, bat Candido Sasetaren agindupean. Sasetaren agindupeko euskal brigadak komunikazio ardatzaren erdialdean jo zuen eraso, Nalon ibaia hegoaldetik zeharkatuta hilaren 21ean. Txalupen zubia ustekabean galtzean, brigadaren zati handienak ezin izan zuen ibaia igaro hilaren 22ra arte; gainera, txalupetan igarotzen ari ziren bitartean, etsaiak baja asko eragin zituen. Horrela, ardatza eteteko aukera galdu zen; izan ere, iparraldetik eraso jo zuen Santanderreko brigadak lortu zuen Cuero-Escamplero errepidera iristea, non euskal brigadarekin elkartzekoa baitzen. Egunaren amaieran, ordea, matxinatuen kontraerasoak atzera egitera behartu zituen. Hilaren 22an, Sasetaren indarrek aurrera egin, eta matxinatuen eremuan sartu ziren, Santanderrekoekin elkartzea lortu gabe. Areces eta Premoño herriak hartu zituzten mendean. Hilaren 23an, matxinatuek kontraerasoa jo zuten, eta atzera egin behar izan zuten. Kontraerasoan, Euzko Indarra eta Amaieur batailoien dozenaka gudari hil zituzten, baita Saseta bera ere.. Ibaia zeharkatzeko, Asturiasko indarren laguntza behar izan zuten.
Iturriak	AMBOU (1978) ESTORNES LASA (1979) MARTINEZ BANDE (1980) PALACIO (1938) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) Zenbaiten Artean: <i>La guerra Civil en Asturias</i> , 2. lib., Eds. Júcar, Madril, 1978.
Oharrak	Asturiasko borroketan, Saseta brigadak 600 baja inguru izan zituen; tartean, 200 hildako baino gehiago, gehienak hilaren 21aren eta 23aren artean. Erasoak porrota egin ondoren, onik atera ziren gudariak San Claudio eta Pando inguruetan borrokan zebilen beste euskal brigada batekin elkartu ziren, otsailaren amaieran. Posizio horiek Saseta brigadaren hasierako kokalekutik ekialdera zeuden.

Udalerrria	El Mazuco.
Gertakari historikoa	El Mazucoko borrokak, 1937ko iraila. Asturiasko azken kanpaina.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 156. euskal brigadaren 1. eta 2. batailoiak, eta 50. dibisioaren 164. euskal brigadaren 1. batailoia. Lehenengoa CNTren 3.a zen (Isaac Puente). Horretan biltzen ziren, euskal kanpainaren amaieraz geroztik, CNTko batailoian bertan geratutakoak eta Zabalbide batailoiei errepublikanoaren zati bat. 156.aren 2. batailoia lehengo Gipuzkoa batailoia edo MAOCren 2.a zen, uztailan Azaña-Vizcaya batailoia ere bereganatu zuena. Lehen, 3. batailoia izan zen, baina 2.a izatera pasatu zen, Santanderreko kanpainan galdutako Padura batailoien orde. 164.aren 1. batailoia Larrañaga batailoia komunista zen (MAOCren 1.a). Horren barruan zeuden, uztaiaz geroztik, JSUren Dragones batailoien milizianoak. Horiekin batera, Asturiasko indarrak borrokatu ziren. Alde frankista: Nafarroako 1. brigada, Nafarroako 4.aren errefortzuekin; biak ere 61. dibisiokoak.
Data	1936ko irailaren 4tik 16ra.
Deskribapena	Santanderreko kanpainan onik ateratako euskal infanteriako batailoiek erresistentzian lagundu zuten, Asturiasko ekialdean. 156. euskal brigadaren 1. eta 2. batailoiak eta 164.aren 1. batailoia nabarmendu ziren borroketan. Batailoiei horiek guztien jatorria Juan Ibarrolaren agindupeko 50. Euskal Dibisioa zen. Asturiasen, baino, Francisco Galanen agindupeko Armadaren 14. Gorputza berregitean inprobisatutako dibisioetako batean sartu zituzten. Dibisio horretan biltzen ziren, hain zuzen, Santanderreko hondamenditik onik ateratako euskal eta asturiar indarrak, Asturiastik iritsitako errefortzuekin batera. Llanes eta bertako aerodromoa irailaren 4an erorita, erresistentziak Torneria mendatea deritzon Mazucoko haitzartean jarri zuen arreta; izan ere, bertatik, Llanesetik hego-ekialdean, Asturiaseko ekialdearen barrualdera doan errepidea ixten da zuzenean, eta jomugan geratzen da, era berean, Llanesetik mendebaldera doan kostaldeko hegala. Borrokaen une gorena irailaren 6tik 12ra izan zen, eta euskal indarrek eginkizun nabarmena eduki zuten, frankisten aurreratzea geratzea lortu baitzuten. Hilaren 6ko ekintzan, Askatasunaren Domina eman zioten Gipuzkoa batailoiko Felix Arano Malaxechevarriari (156. brigadaren 2. batailoia). Hurrengo egunean, hilaren 7an, euskal indarrek aipamen gorenak jaso zituzten, eta Iparraldeko Armadaren koronel buru Aldolfo Pradak Askatasunaren Domina eman zien Ignacio Esnaolari eta Antonio Teresari, Larrañaga eta Isaac Puente batailoietako komandanteak, hurrenez hurren. Hilaren 12an, erresistentziak aurrera jarraitu zuen, eta Gipuzkoa batailoiei berak Askatasunaren Domina jaso zuen, egun hartako Armadaren Agindu Orokorraren Gehikuntza batean, zeina Iparraldeko Armadaren Estatu Nagusiaren buru Francisco Ciutatek eman baitzuen, batailoien portaera nabarmenduz. Azkenean, frankisten nagusitasun militarra erabakigarria izan zen borrokan. Irailaren 13an, Biforco eta Llabresko gainak erori ziren; 14an, Llabreseko hegala hartu zituzten, baita Cabezo ere; hilaren 15ean, matxinatuak El Mazuco herrian sartu ziren.
Iturriak	AMBOU (1978) MARTINEZ BANDE (1972) MARTINEZ BANDE (1980) PALACIO (1938) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) Zenbaiten Artean: <i>La guerra Civil en Asturias</i> , 2. lib., Eds. Júcar, Madril, 1978.
Oharrak	Felix Arano kapitainari emandako Askatasunaren Dominaren berrespena eta milizien komandante izateko haren igoera jasota daude 1938ko urriaren 20.181. Zirkularrean, zeina Defentsa Ministerio Nazionalaren Aldizkari Ofizialean (264. zk.) argitaratu baitzen, (Bartzelonan, 1938ko urriaren 11, asteartea).

Udalerrria	Escamplero.
Gertakari historikoa	Lehen euskal espedizioa Asturiasera. Escampleroako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Euskal Meabe zutabearen 1. batailoia, gero "Largo Cabellero" deituko zena, eta Asturiasko milizien indarrak. Alde frankista: Marokoko Protektoratuaren Indar Indigena erregularrak, Oviedo Laguntzeko Galiziar Zutabeen indarrak.
Data	1936ko urriaren 17tik 25era.
Deskribapena	Meaberen I. batailoia, Largo Caballero ere deitutakoa, Asturiasera joan zen Eibarko Frontetik (Arrate-Usartza), Asturiasko erresistentzia indartzeko, arriskuan baitzegoen, matxinatuek Oviedoko inguratzea hautsi, eta hiruburu horrekin komunikazio ardatz bat irekiz geroztik. Batailoia 18an iritsi zen fronteko lerrora, Naranco mendilerroaren iparraldetik sartu ondoren, eta urriaren 20an eraso jo zuen Escampleroen komunikazio gunean, horren gainean zegoen izen bereko kota hartuta; erasoan baja asko eragin zituen. Hilaren 25ean, unitatea Euskadira itzuli zen, eta haren ordez beste unitate bat geratu zen sektorean: Malatesta batailoia anarkista. Urriaren amaieratik eta hilabete batez, San Pedro del Romeral inguruan borrokatu zen, Prieñes eta Rañeces herrixketan, eta Lomas de la Derecha izeneko mendi hegaletan, Escampleron. Unitate hori egonkortutako fronte baten lerroan egon zen, eta borroka txikietan hainbat garaipen eskuratu zituen, baja askorik izan gabe.
Iturriak	AMBOU (1978) ETXEBERRAIA MIRONES eta ETXEBARRIA MIRONES (1993) MARTINEZ BANDE (1972) MARTINEZ BANDE (1980) PALACIO (1938) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) Zenbaiten Artean: <i>La guerra Civil en Asturias</i> , 2. lib., Eds. Júcar, Madril, 1978.
Oharrak	Meabek ehun baja inguru izan zituen; tartean, hogeitun bat hildako. Garaiko kroniken arabera, 80 bat hildako izan ziren posizioan, horietako batzuk fusilatuta, unitatearen garai hartako komandante Mario Alonso italiarrak hala aginduta, marokoairek egindako ekintzen errepresio gisa. Etxeberria anaiek (1993, 261-262) batailoiko gudari baten lekukotza jaso zuten, eta, haren hitzetan, Mario komandantea "italiar komunista oso autoritarioa" zen, eta Escampleron "200dik gora moro eta erregular" fusilatzeke agindua eman zuen.

Udalerrria	Grullos.
Gertakari historikoa	Lehen euskal espedizioa Asturiasera. Grullosko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Larrañaga zutabea (gero Larrañaga batailoia izango zena). Alde frankista: Oviedo Laguntzeko Galiziar Zutabeak.
Data	1936ko urriaren 17tik 28ra.
Deskribapena	Frankistek Oviedo laguntzeko borroketan izandako arrakastaren ondoren, Larrañaga zutabea Asturiasera joan zen, Jesus Larrañaga euskal buruzagi komunistaren agindupean, Asturiasko erresistentzia laguntzeko asmoz. Zutabea urriaren 17tik 28ra borrokatu zen, San Claudio eta Grullos inguruetan, erortzeko arrisku handieneko sektoretan, hain zuzen ere. Ordainetan baja asko izan bazituen ere, Asturiasko erresistentzia finkatzen lagundu zuen. Euskadira itzultzea, zutabearen zati nagusia batailoi bihurtu zen, ofizialki.
Iturriak	AMBOU (1978) MARTINEZ BANDE (1980) PALACIO (1938) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) Zenbaiten Artean: <i>La guerra Civil en Asturias</i> , 2. lib., Eds. Júcar, Madril, 1978.
Oharrak	1936ko urrian, Larrañaga zutabea Grulloseko frontean borrokatu zen lehendabizi (hilaren 17tik 19ra), eta gero San Claudio inguruetan.

Udalerrria	La Argañosa.
Gertakari historikoa	Pandoko muinoko borrokak (1937ko otsail-martxoa).
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Benito Raholak gidatutako euskal brigada, Perezagua, Rusia eta Isaac Puente batailoiek osatutakoa, eta Asturiasko indarrak, hasieran, Valledor batailoia (Cimadevilla izenez ere ezaguna). Gero, Saseta brigadaren indarrak iritsi ziren Pandoko sektorera. Alde frankista: Nora ibaiaren ekialdeko eremuaren Grado-Escamplero sektorearen indarrak, Asturiasko Komandantziarenak –8. dibisioa–, eta erreserba ibiltariak.
Data	1937ko otsailaren 21etik martxoaren 17ra.
Deskribapena	Oviedo eta haren ardatzaren aurkako eraso hasi zenean, Raholaren agindupeko euskal brigadak, Asturiasko indarrekin batera, eraso jo zuen Oviedoren mendebaldean, San Claudio eta Pando artean, hiriburura iristeko ardatza ixteko asmoz. Erasoak porrot egin zuen San Claudion, eta baja asko izan zituzten Rusia eta Isaac Puente batailoiek, azkenekoak matxinatuen aurreko taldeak hartzea lortu bazuen ere. Haatik, Perezagua batailoiak Pandoko muinoa konkistatzea lortu zuen, eta bertatik Grado eta Oviedo arteko errepideko zirkulazioa eten zuen, errepide hura baitzen Asturiasko hiriburua hornitzeko bide bakarra. Horren aurrean, nazionalek pista militar bat ireki behar izan zuten Narancoren hegoaldetik, eta kontraeraso gogorrak egin behar izan zituzten galdutako posizioa berreskuratzeko. Perezaguaren komandante Julián Eguidazuren ekimenez, egunetik egunera fortifikazioak hobetu zituzten, eta horrek defentsa erraztu zuen. Lehen kontraeraso handiari eustea lortu zuten, hilaren 23ko lehen orduetan, Asturiasko Valledor batailoien laguntzaz. Borrokek martxoaren 17ra arte iraun zuten, egun horretan eman baitzen amaitutzat Oviedo eta haren komunikazio ardatza hartzeko borroka.
Iturriak	AZNAR (1961) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) Zenbaiten Artean: <i>La guerra Civil en Asturias</i> , 2. lib., Eds. Júcar, Madril, 1978.
Oharrak	Martxoaren hasieratik, Saseta brigadaren indarrek bat egin zuten Pandoko sektorearen defentsarekin. Hura izan zen ofentsibaren garaipen handiena eta ia bakarra, baita porrotik gogorrena ere frankistentzat.

Udalerrria	El Mazuco (Iparra) eta Carreña (Cabrales) eta Asiego (Hegoa) arteko eremua.
Gertakari historikoa	Peña Blancako borroka, Cuera mendilerroan.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Kantauriko Itsas Indarren Itsas Infanteriako batailoia, desagertutako Santanderreko Armadaren 15. gorputzekoa. Santofian antolatu zen, Bizkaia erori ondoren, marinako soldadugaiekin eta boluntarioekin. Azken horien artean, beregituren ari ziren euskal indarretatik etorritako asko zeuden. Benito Rahola zen buru, batailoiko eta brigadako komandante ohia, Euzko Gudarostean. Alde frankista: Nafarroako 5. eta 4. brigadak.
Data	1937ko irailaren 13tik 20ra.
Deskribapena	Santanderreko frontea erori zenean, Kantauriko Itsas Indarren Infanteriako brigadaren batailoia bakarra erreserba bezala zegoen Kantabriako hego-mendebaldean, eta atzera egin zuen Piedras Luengasetik Potesera eta La Hermidako haitzartera, Panesera (Asturias) iritsi arte. Gero, atzera egiten jarraitu zuen, aginte postua Arenas de Cabrales herrian finkatu arte. Egun gutxitan, batailoiko indarren zatirik handiena Cuera mendilerroa joan zen, eta han konpainiek posizioak hartu zituzten Peña Turbinan eta Peña Blancan. Peña Turbina hartzeko borroka irailaren 7an hasi ziren, eta hilaren 15ean amaitu, posizioa galdu zen egunean. Erresistentzia, beraz, Peña Blancan finkatu zen, non Nafarroako 6. brigadak eta 5.aren zati batek indarrak batu zituzten, eraso jotzeko. Hilaren 17an, Arenas de Cabrales erori zen, Cuerearen hegoaldean. Hilaren 19tik 20ra, Peña Blancako posizioak erori ziren azkenean, artilleriako, aireko eta itsasoko (Cervera gudontzia) bonbardaketa gogorak jasan ondoren. Matxinatuek erresistentziako borrokan eroritako gorpuak baino ez zituzten aurkitu, Peña Blancan (150 inguru).
Iturriak	GARATE CORDOBA (1972) SALAS LARRAZABAL (1973) SARASOLA (1992)
Oharrak	Salasek (1973, II, 1.454) itsas infanteriako bi batailoia aipatzen dituen arren, gaineko iturrietatik bakarra dagoela ondorioztatzen da.

Udalerrria	Rañeces, Prianez eta Valduno.
Gertakari historikoa	Lerro errepublikanoaren defentsa, Escampleroen aurrean.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Euskadiko CNTren Malatesta batailoia. Alde frankista: Oviedoko zutabearen El Escamplero indarrak, Asturiasko komandantziakoak.
Data	1936ko azaroaren 10etik abenduaren 15era.
Deskribapena	Euskadiko CNTren Malatesta 2. batailoia antolatu zen, Gipuzkoan borrokan ibilitako "Bizkaiko Zutabe Konfederala" oinarri hartuta. Zutabe horrek atzera egin, eta Bizkaian sartzean, Otxandion ibilitako milizia anarkistak bereganatu zituen, eta unitate berri-tua Asturias aldera abiatu zen, azaroaren 10ean. Egonkortutako fronte batean sartu zen; Euskadiko JSUren Rusia batailoia utzi berri zuen frontean, hain zuzen ere. Escampleroko eremua babesteko eginkizuna hartu zuen, Prieñes eta Rañeces herrixketan eta Lomas de la Derecha izeneko mendi hegaletan. Batailoia aipatutako hegalak berreskuratzeko borrokan eta defentsako posizioak sendotzeko lanetan parte hartu zuen. Azaroaren 27an, Valduno hartzeko erasoan parte hartu zuen, eta posizioan hainbat egun igaro ondoren, Bilbora itzuli zen, abenduaren 15ean.
Iturriak	TABENILLA eta LEZAMIZ (2007) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (1996)
Oharrak	Nabarmenezkoa da Sancho de Beurko Elkarteko lanean bibliografia urria.

Udalerria	San Claudio.
Gertakari historikoa	San Claudioko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Larrañaga zutabea (gero batailoia izango zena), 1936ko urrian (20tik 28ra, gutxi gorabehera); eta, Rahola brigada (Isaac Puente, Rusia eta Perezagua batailoiak), 1937ko otsail-martxoan. Alde frankista: Oviedo Laguntzeko Galiziar Zutabeen Marokoko Protektoratuko Indigenen Indar erregularrak, 1936ko urrian; eta, Nora ibaiaren ekialdeko eremuaren Grado-Escamplero sektorearen indarrak (Asturiasko Komandantzia, 8. dibisioa), eta erreserba ibiltariak, 1937ko otsail-martxoan.
Data	1936ko urriaren 20tik 28ra, eta 1937ko otsailaren 21etik 17ra.
Deskribapena	1936ko urrian, Larrañaga zutabea Asturiasera joan zen, bertako erresistentzia indartzeko asmoz. Oviedorako komunikazio ardatzaren ipar-mendebaldeko eremuan hainbat egunez borrokatu ondoren, zutabea San Claudiara joan zen, ardatzaren hego-ekialdean. Zutabeak hainbat garaipen lortu zituen, Oviedora bizigaiak eramaten zituzten aurkarien konboiei eraso eginez eta horiek bereganatuz. 1937ko otsailaren 21ean, Rahola brigadak San Claudio inguruan jo zuen eraso, Isaac Puente eta Rusia batailoiekin, baina ez zuten lortu aurkariaren frontea haustea, Isaac Puentek lehen lerroa hartzea lortu bazuen ere. Rusia batailoiaaren porrotaren aurrean, ordea, berehala egin behar izan zuen atzera.
Iturriak	MARTINEZ BANDE (1980) PALACIO (1938) TABERNILLA eta LEZAMIZ (2007) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (1996) Zenbaiten Artean: <i>La guerra Civil en Asturias</i> , 2. lib., Eds. Júcar, Madril, 1978.
Oharrak	Isaac Puente batailoiak 300 baja inguru izan zituen, 1937ko otsail-martxoan; tartean, 80 hildako inguru, gehienak San Claudioko hasierako erasoan eroritakoak. Frankistek Isaac Puente batailoiaaren Vicente Cuesta kapitainaren gorpua jarri zuten ikusgai burdin hesietan, erasotzaileak beldurtzeko.

Udalerrria	San Pedro de Nora.
Gertakari historikoa	San Pedro de Norako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Euskadiko JSUren Rusia batailoia. Alde frankista: Oviedo Laguntzeko Galiziar Zutabeen Indarrak; tartean, Gomarako Mehal-la Jalifiana (4. zenbakia); eta, Atzerritarren Tertzioa (Legioa).
Data	1936ko urriaren 4tik azaroaren 29ra.
Deskribapena	Euskadiko JSUren Rusia batailoia San Pedro de Nora inguruan sartu zen fronteko lerroan, 4 kilometrora Trubiako ipar-ekialdean, "La Cuña" izeneko lehen lerroan. Nalon ibaia batailoia biziaren bizkaraldea geratzen zen. Iritsi berritan, Arias zutabearen (Pablo Arias komandantea) lehen lerroko erasoak jasan zuten, eta hainbat egunez egin behar izan zuten borroka. Rusia isolatuta geratu zen lehen lerroan, eta azkenean inguratzea gainditu, eta erasoak aurre egitea lortu zuen. Dena den, baja asko izan zituen; tartean, Altuna, unitateko komandantea, zaurien ondorioz hil zena. Aurkariak ere ehunka baja izan zituzten. Bi eguneko atsedenaren ondoren, Rusia batailoia lehen lerroan borrokatu zen, La Reboladaren aurkako erasoan, lerro altu bat Nalon ibaia eta haren adar Noraren iparraldean; horixe zen, hain zuzen, Escampleroako denfentsa gune indartsuena. Rusia batailoia konpainiak aurkariaren posizioetan sartzea lortu zuten, eta kontraerasoak eutsi zieten, nekearen nekeaz borroka amaitu zen arte. Rusia batailoia San Pedro de Norako parapetoetan iraun zuen, Rañeces eta Prianez eremuan fronteko lerroa osatuz, azaroaren 13an Euskadira bidea hartu zuen arte.
Iturriak	TALON (1988) TALON (1993) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Gomarako Mehal-la Jalifianaren buru, borroka honetan eta beste batzuetan izandako jarreragatik Pablo Ariasek Domina Militar frankista jaso zuen.

4.1.3.2. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda, Kantabrian

- Cabezón de la Sal.
- Suano.
- Ontón.

Udalerrria	Cabezón de la Sal.
Gertakari historikoa	Cabezón de la Saleko borrokak
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Ibarrolaren 50. dibisioaren 156. eta 164. euskal brigadetatik onik ateratako gudariak (Larrañaga, Gipuzkoa, eta Isaac Puente) atzera egin zuten Asturias aldera, Santanderreko indarrekin batera, hala nola 133. batailoia. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 5. brigadak, Lakar, Nafarroa, Montejurra eta San Fermineko erreketeen tertzioak nabarmenduz.
Data	1937ko abuztuaren 25etik 27ra.
Deskribapena	Santander erori zen egunetan, indar frankistek mendebalderantz egin zuten, erretiradan Asturiasera zihoazen unitate errepublikanoen atzetik. Horien artean, txikitzen joandako Ibarrolaren 156. eta 164. brigadak nabarmentzen ziren, baita Asturias nahiz Santanderreko beste indar batzuk ere (133. batailoia). Euskadiko tropek atzera egin zuten Cabezón de la Sal aldera, Riaño de Ibioko errepidetik. Abuztuaren 25ean, Nafarroako 5. eta 1. brigadek oldarraldiari ekin zioten Torrelavegatik eta Ibioko gainetatik. Bosgarrenak Cobreces eta Torrelavega okupatu zituen, kostaldean, eta lehenengoak, Barcenaciones eta Riaño de Ibioko gainak. Hilaren 26an, 5. brigada Ayuelara hurbiltzen ari zen, Cabezón eta kostaldearen arteko komunikazioa etenda; bien bitartean, 1.ak Riaño de Ibioko hartu zuen, Ibarrolaren indarren erasoari aurre eginez; horrez gain, Cabezón iparraldeko gainak eta herriaren ekialdean dagoen Mazcuera hartu zituzten matxinatuek. Gipuzkoa batailoia ia inguratuta geratu zen erretiradaren atzeragoardian, Cabezóneko ebakuazioa babesten zuen bitartean. Hilaren 27an, Ayuela eta Cabezón erori ziren, eta, azken horren hegoaldean, Santa Luziako haitzartea. Frankisten arabera, operazio horietan 150 hildako baino gehiago izan ziren errepublikanoen artean, eta preso asko hartu zituzten. Halere, defendatzaileek kontraerasoak jo zituzten behin eta berrito, atzera egin bitartean. Gipuzkoa batailoiak inguratzea haustea lortu zuen, eta herria erori aurreko gauean alde egin zuen, "Deva" (Lorenzo Odriozola) kapitainaren agindupean. Halere, 200 baja baino gehiago izan zituen. Santanderreko indarrek, 133. batailoiak barne, baja asko izan zituzten.
Iturriak	NAGORE YARNOZ (2011) TALON (1993) VARGAS ALONSO (1996) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Cabezónen inguratzea saihestea lortu zutenen artean, Nicasio Fernandez Arce kapitaina zegoen, Santanderreko 133. batailoiko bigarren komandantea. Berez, Sestaakoa zen, eta 133.ean baino lehen Euskadiko Olabari batailoian aritua zen. Iparraldeko Armadaren Gerrako Eskola Popularrean ikasketak egin ondoren, Santanderreko Armadaren Gorputzera pasatu zen. Bestalde, frankisten indarrek borrokan hartutako presoak fusilatu zituzten.

Udalerrria	Suano.
Gertakari historikoa	Santanderreko Kanpaina. Reinosako borroka.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Euskal Armadaren Gorputzaren 50. dibisioa, Juan Ibarrolaren agindupean. Santanderreko Armadaren Gorputzaren 54. dibisioa. Alde frankista: Nafarroako 1. eta 4. brigadak.
Data	1937ko abuztuaren 14tik 17ra.
Deskribapena	Abuztuaren 14an, frankistek Santanderren aurako eraso hasi zutenean, Ibarrolaren 50. dibisioaren brigadetako bi Reinosaren hego-ekialdeko eremuan zeuden. 156. euskal brigada, Oyarzabalen agindupean, Portillo de Suano, Población de Suso, Peña Astia, La Lomba eta Cuesta Labra ingurua defendatzen ari zen. Ingurua egun horretan Nafarroako 1. eta 4. brigadek frontea hautsi nahi zuten eremuan zegoen. Halere, 156. brigadak ez zituen jaso eraso horren ondorio bortitzenak, hegoaldean izan baitziren, non Santanderreko 175. brigadak eta beste indar batzuek aireko eta artilleriako bonbardaketa bortitzak jasan behar izan zituzten. Hala eta guztiz ere, indar frankistak 156.aren posizioen ondora iritsi ziren, Cuesta Labra okupatuta. Hilaren 15ean, brigadak atzera egin behar izan zuen, beste indar batzuekin batera, aurkariaren oldarraldiaren aurrean. Halere, zoriondu egin zuten egindako erresistentziagatik. Hurrengo egunean, Reinos erori zen, eta frankistek Torrelavega hartzeko bideari ekin zioten, Santander eta Asturias arteko komunikazioak eteteko asmoz. Ibarrolaren indarrek eraso jo zuten orduan Torrelavegarako bidean ziren Nafarroako brigaden ezker hegalean. Hilaren 20an, Euskal 50. dibisioak bi eguneko kontraerasoa jo zuen, Bárcena de Pie de Concharen mendebaldean, La Guardaren eta Navajoseko tontorraren arteko altuera lerroa aurkariari kendu, eta haren aurreapena eteteko. Saialdiak, ordeak, porrot egin zuen, eta baja asko izan zituzten. Hilaren 21ean, Ibarrolaren hiru batailoik (Padura, Mungia eta Arana Goiri) dibisioa utzi zuten, Laredo-Santoñan biltzeko, Euzko Gudarostaren aginduak betez.
Iturriak	TALON (1993) VARGAS ALONSO (1996) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Larrañaga, Padura eta Isaac Puente batailoiek dozenaka baja izan zituzten borroketan.

Udalerrria	Ontón.
Gertakari historikoa	Ontóneko Peña Amarillako borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: A dibisioa, Asturiasko Espedizio Brigadak eta lehen lerroan zeuden edo handik zetozen euskal unitateak nahastuta zituen (Malatesta, Araba eta Rosa Luxemburgo batailoiak). Borrokak gertatzen ari ziren unean, A dibisioari alde egiteko agindu zitzaion, eta kostaldeko frontearen erantzukizuna dagoeneko frontean unitateak zituen Asturiasko Espedizio Dibisio baten esku geratu zen. Alde frankista: Frece Nere brigada mistoa (espainiar-italiarra).
Data	1937ko ekainaren 26tik uztailaren 5era.
Deskribapena	Ekainaren 26an, Frece Nere brigada misto frankista borroka lerroan sartu zen berriro, Mercadillo ibaiaren eskuineko ertzean, Abanton eta Las Carrerasen, eta Nafarroako 6. brigada ordezkatu zuen. Sei egun igaro zituen zain, zutabe nazionalak hego-ekialdera zihoazen bitartean, Castro Alén eta Balmaseda aldera. Azkenen, uztailaren 2an, Frece Nere brigadak bat egin zuen erasoarekin, Santanderrean doan errepidearen ardatzean. Egun horretan, Barbadún ibaia zeharkatu, Somorrostro hartu, eta Santanderreko Ontón herrian sartu zen, sei kilometro aurreratu ondoren. Hurrengo eguneko borrokak oso gogorrak izan ziren. Indar errepublikanoek kontraerasoa jo zuten kostaldean, Peña Amarilla inguruan; hots, Frece Nereren posizioan, Ontón herriaren atzealdean. Araba batailoiaren laguntza jaso zuten Rosa Luxemburgo komunistak eta Malatesta anarkistak gorputzez gorpu borrokatzera iritsi ziren. Italiarrek eta espainiarrek erasoari aurre egin zioten, 94 bajarekin (23 hildako eta 71 zauritu; horien artean, 3 italiar hil eta 7 zauritu zituzten). Errepublikanoek baja gehiago izan zituzten, ordea: 60 hildako baino gehiago. Uztailaren 4an, indar errepublikanoek kontraerasoari ekin zioten berriro, Santander-Euskadi frontearen hainbat lekutan. Araba batailoia aurrera egiten saiatu zen, baina Frece Nere brigadak haren abangoardia eten zuen. Borrokan, ehun gudari baino gehiago galdu zituen batailoiak, eta Castro Urdialesera erretiratu zen. Uztailaren 5ean, frontea egonkortu zen, abuztuaren Santanderren aurkako ofentsiba hasi arte.
Iturriak	ALCOFAR NASSAES (1972) MESA (1994) PIAZZONI (2011) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)
Oharrak	Frece Nere batailoiak Malatesta batailoiaren suntsipena aldarrikatu zuen, 450 gizonetatik beren lerroetara soilik 110 iritsi zirela adieraziz. Alabaina, Malatestak galdera handiak izan zituen lehendik ere, Bilbo hartzeko borroketan. Egia da, nolana ere, borrokan bandera galdu zuela eta bera izan zela kaltetuena, Luxemburgo batailoiarekin batera. Kostaldeko fronte egonkortu berrian, Frece Nere brigadak 47 hil-zauritu izan zituen (16 hildako eta 31 zauritu), uztailaren 4tik abuztuaren 14ra.

4.1.3.3. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda, Gaztela-Leon (Burgos)

- Villasana de Mena (hedaduraz Menako bailara).
- Noceco.

Udalerrria	Villasana de Mena.
Gertakari historikoa	Menako Bailara Euskadiko eta Santanderreko indarren kontrolpean. Aireko bonbardaketak, eta indar frankistek bailara okupatzea.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: Bizkaitik zetozen gerrillari errepublikanoek bailara kontrolatu zuten, herrikoen laguntzaz. Bailarako biztanleak euskal armadaren batailoietan sartu ziren (batez ere, Octubre edo Meaberen 7.a eta Largo Caballero edo Meaberen 1.a). Meaberen 7.ean (Octubre), Burgosko boluntarioak 2. konpainiara sartu ziren, nagusiki. Bailara Santanderreko indarren kontrolpean geratu zen (gero, 52. dibisioan sartuko zirenak). Kuartel nagusia Lanestosan (Bizkaia) zegoen, baina indarren zatirik handiena, Burgosko lurretan. Menako bailaran, 166. brigada zegoen (Santanderreko 1.a izandakoa). Brigada 124., 130. eta 138. batailoiek osatzen zuten, eta haren kuartel nagusia Villasana de Menan zegoen. Gero, bailararen ekialdean, Santanderreko 114. batailoia kokatu zen. Ezkerrera, UGTren 4. batailoiarekin (Carlos Marx) elkartzen zen, zeina apirilaren amaieraz geroztik Irezabal koronelaren agindupeko 4. Euskal Dibisio berriaren barruan baitzegoen. Dibisio horrek Gorbeiatik mendebaldera zihoan frontea zaintzen zuen, Menako bailaran Santanderreko mugara iritsi arte.</p> <p>1937ko ekainaren 4an, Lotura Dibisio Misto sortu zen, eta haren misioa Euskal Gorputzaren eta Santanderrekoaren arteko lotura egitea zen, Menako bailaran eta Respalditza inguruan. Dibisio hori, kuartel nagusia Balmasedan zuena, hiru brigadek osatzen zuten: bi Santanderrekoak eta bat euskalduna (2.a). Bederatzi batailo guztira (horietako hiru Euskadikoak). Dibisioak frontea zaintzen zuen, Urduñako mendebaldetik Menako bailarara, Balmaseda babesteko Burgostik egindako eraso baten aurrean.</p> <p>Alde frankista: Moliner zutabea; eta, 1937ko ekainean, Gaztelako 1. eta 3. brigadak, bailara inbaditzeko.</p>
Data	1936ko uztaila-1937ko abuztua.
Deskribapena	<p>Gerra hastean, Menako bailara herriko miliziek eta Bizkaiko miliziek hartu zuten. Azkenekoen artean, Balmasedakoak nabarmendu ziren; lehen asteetan, gerrillari gisa borrokatu ziren, eta gero Euskadiko JSUren Octubre batailoia sortu zuten. Geografiari eta lanari lotutako hurbiltasuna zela eta, bailarako biztanle asko euskal unitateetan sartu ziren; batez ere, JSUren Octubre batailoian eta Meaberen 1.an (Largo Caballero). Milizien hasierako aldian, kontrolik gabeko errepresio ekintzak izan ziren. Hala, abuztuaren 21ean, bost pertsona erail zituzten; irailaren 11n, hiru erlijioso; eta, irailaren 25eko gauean, zazpi eta hamahiru pertsona artean, errepresalia gisa, egun horretan Bilboren aurkako lehen bonbardaketa handia egin baitzuten.</p> <p>Azkenean, bailara Santanderreko indarren kontrolpean geratu zen (52. dibisioa), baina lotura zuen hego-ekialdean 4. euskal brigadarekin. 1937ko ekainean, Lotura Dibisio Misto gisa antolatuta ziren inguruan zeuden Euskadiko eta Santanderreko indarrak . Ekainaren 15ean, aireko eraso frankista batek biktima zibil eta militarrek eragin zituen Villasanan, eta ondoren beste eraso batek, Mercadillon. Uztailaren 2an, indar frankistek eraso jo zuten, eta hainbat herri hartu zituzten, baina erresistentziak gehiago aurreratzea eragotzi zien. Azkenean, Gaztelako 1. eta 3. brigadek ingurua hartu zuten, abuztuaren 21etik 23ra, Kantabria hartzeko borrokan errepublikanoek atzera egin ondoren. Agintari frankistak kontrolik gabeko errepresioa saihesten saiatu ziren, Santa Gadeako tertzioaren Menako zenturiari bailaran geratzea eragotziz; garai frankistaren iturriek (Bustamante, 504-505), ordea, errepresaliak saihetsezinak eta justifikatu ezinak izan zirela aitortzen dute. Menako eta Balmasedako biztanle asko, gainera, epaitu ondoren exekutatu zituzten Bizkaian, Burgosen eta Santanderren.</p>

Iturriak	<p>AROSTEGUI (1991) BUSTAMANTE BRICIO (1971) CASAS DE LA VEGA (1977) MARTINEZ BANDE (1972) MARTINEZ BANDE (1980) URGOITIA BADIOLA (2001-2003) VARGAS ALONSO (1994)</p>
Oharrak	<p>1936ko irailaren 25eko gauean errepresaliak jasan zituzten Menako biztanleen gorpuzkiak orain dela urte gutxi berreskuratu ziren, herriko eliza batean, Memoria Historikoaren Legearen esparruan.</p>

Udalerrria	Noceco
Gertakari historikoa	<p>Eraso errepublikanoa, Espinosa de los Monterosen.</p>
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: Espinosa de los Monterosen aurrean, errepublikanoen Santanderreko 1. zutabea zegoen, "Bercedo-Villasante" izenez ere ezaguna. Santanderreko zortzi batailoik osatzen zuten (101, 102, 103, 104, 109, 110, 111 eta 112), eta Gállego Aragúes komandantearen agindupean zegoen. Borroketan, Karl Liebknecht 26. euskal batailoi komunistaren laguntza jaso zuen. Gero, eremua Santanderreko 52. dibisioaren kontrolpean geratu zen. Haren 167. brigada Noceco inguruan zegoen, eta 104, 111 eta 126. batailoiek osatzen zuten.</p> <p>Alde frankista: Luis Moliner komandantearen zutabea, Burgos iparraldeko frontearen arduraduna. Gero, Gaztelako 1. eta 3. brigadak.</p>
Data	<p>1936ko abenduaren 2tik 6ra</p>
Deskribapena	<p>Aurkariak Madrilen aurka egiten ari ziren presioa arintzeko asmoz, Errepublikako Iparraldeko Armadak hainbat eraso egin zituen, 1936. urtearen amaieran. Santanderreko Armadaren Gorputzaren Gallego komandantearen 1. zutabeak Espinosa de los Monteros babesteko lerroen aurkako erasoak jo zuen, Euskadiko Karl Liebknecht batailoi komunistak lagunduta. Erasoak abenduaren 2an eta 6an izan ziren, baina ez zuten lortu lerro frankista haustea, eta galera handiak izan zituzten. Euskal batailoiek hilaren 2ko erasoan parte hartu zuten, eta handik gutxira atzera egiteko agindua jaso zuen, Arabako euskal frontea indartzeko. Han, Legutioko guduaren tarteko eta amaierako fasean parte hartu zuten, herriaren mendebaldetik.</p>
Iturriak	<p>BELDARRAIN (2012) MARTINEZ BANDE (1980) MATARRANZ GONZALEZ (2005) URGOITIA BADIOLA (2001-2003)</p>
Oharrak	<p>Karl Liebknecht batailoiek 50 baja baino gehiago izan zituen; tartean, 15 bat hildako. Horietako bat haren komandante Félix Placer Martínez de Lecea izan zen. Euskal nazionalismoari lotutako pertsona bat zen, eta Gipuzkoako borroketan bere agindupean egondako gizonen buru jarraitzea erabaki zuen. Santanderreko unitateek ehunka galera izan zituzten; sekulako triskantza zenbaitetan; izan ere, batailoiren bat desegin behar izan zuten. Frankistek 400 hildakoen kopurua eman zuten; gehiegizkoa agian. Dena den, dirudenez, erasoak jo zuen zutabeak 500 baja baino gehiago izan zituen. Frankistek, berriz, 200 baja inguru izan zituzten, eta, horien artean, Kataluniako zenturia falangistak izan zuen galerarik handiena, 80 pertsonen artean 67 baja izan baitzituen (17 hildako eta 50 zauritu).</p>

4.1.3.4. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda, Aragoi eta Katalunian

- | | | |
|-------------------------------|------------------------|----------------------|
| - Alfarrás. | - Isona. | - Tardienta. |
| - La Sentiu de Sió (Asentíu). | - Mas-Bell. | - Vilanova la Barca. |
| - Camarasa (Pantano de). | - Poleniño. | |
| - Esplús. | - Senés de Alcubierre. | |

Udalerrria	Alfarrás. (Lleida)
Gertakari historikoa	Alfarráseko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 32. dibisioaren 142. brigada mistoa (Euskal-piriniotarra), eta 26. dibisioaren 120. brigada (biak Ekialdeko Armadaren 11. Gorputzekoak). Alde frankista: Aragoiko Armadaren Gorputzaren 51. dibisioa (Iparraldeko Armada).
Data	1938ko apirilaren 3-4.
Deskribapena	Ebro iparraldean Aragoiko frontea hautsi ondoren, indar errepublikanoek atzera egiten jarraitu zuten. Apirilaren 3an, 51. dibisio frankistak Tamarite de la Litera eta Albelda okupatu zituen, eta Alfarrásetik 4 kilometrora geratu zen, herri horren eta Albeldaren arteko errepideen bidegurutze baten inguruan, Huesca eta Lleida arteko mugan. Hurrengo egunean, 51.aren indarrek aurrera egin zuten berriro. Alfarrás, Andaní eta Almenar okupatu zituzten, eta Noguera Ribagorzana zeharkatu zuten, Segre ibaiaren ardatza hartzeko bidean.
Iturriak	GALINDEZ (2005) MARTINEZ BANDE (1975) SANZ (1977) TALON (1993)
Oharrak	Galíndez eta Talónen –neurri handi batean lehenengoarekin bat datorrenak– lane-tan, euskal-piriniotar brigadaren erresistentziaren ibilbidea zehazten da, Aragoiko frontetik atzera egiten duenean.

Udalerrria	La Sentiu de Sió. Lleida.
Gertakari historikoa	La Sentiu de Sióko (Asentíu) borrokak, Balaguerreko zubi burua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 142. brigada mistoa (euskal-piriniotarra), 119. brigada mistoa (26. dibisioa), 104. brigada mistoa (Erdialdeko gunetik errefortzurako iritsi zena). Alde frankista: Aragoiko Armadaren Gorputzaren 51. eta 54. dibisioak.
Data	1938ko apirilaren 6tik 15era.
Deskribapena	Aragoiko Armadaren Gorputzaren 51. eta 54. dibisioek Balaguer herria hartu zutelarik, apirilaren 9ko gauean, 54. dibisioak Segre ibaia zeharkatu zuen, tropa errepublikanoak ezustean harrapatuta, eta zubi buru bat egin zuten ibaiaren ekialdean Asentíu, Vallfogono eta La Rapita herriak hartuta. Errepublikaren Ekialdeko Armadaren buruzagi berriak zubi buruaren aurkako kontraerasoa agindu zuen berehala, eta berrantolatutako 142. brigada nabarmendu zen borrokan hartan, Asentíu inguruan. Apirilaren 11n hasi, eta 15ean amaitu zen kontraerasoa. Garaipen txikiak alde batera utzita, ez ziren berreskuratu aipatutako herriak, eta baja asko izan ziren, frankisten aurrerapena behin betiko etetea lortu zen arren. 54. dibisio frankistak osorik borrokatu behar izan zuen, 51. dibisioaren errefortzuekin.
Iturriak	GALINDEZ (2005) GALITO, GIMENO, PITA y TARRAGONA (2006) MARTINEZ BANDE (1975) SANZ (1979) PEREA CAPULINO (2007) TALON (1993)
Oharrak	1938ko apirilako Balaguerreko zubi buruaren borroketan, frankistek 527 baja izan zituzten, baina galerak are handiagoak izan ziren errepublikanoen artean, 251 hildako izan baitzituzten eta 147 miliziano preso geratu baitziren aurkarien esku (Martínez Bande, op.cit., 128. or.).

Udalerrria	Camarasa. Lleida
Gertakari historikoa	142. brigadaren (euskal-piriniotarra) atzera egitea.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 142. brigada (euskal-piriniotarra) eta 32. dibisioaren gainerako indarrak. Alde frankista: Nafarroako Armadaren Gorputzaren 62. dibisioa eta Aragoiko Armadaren Gorputzaren 51. dibisioa.
Data	1938ko apirilaren 4tik 8ra
Deskribapena	32. dibisioaren indarrek, 142. brigada barne, atzera egin zuten Segre eta Noguera Pallaresa ibaien ekialderantz, Camarasako urtegiaren inguruan. Haien asmoa zen aurkariaren jazarpenetik ihes egitea, eta Kataluniaren defentsa lerro berri bat ezartzea.
Iturriak	GALINDEZ (2005) GALITO, GIMENO, PITA eta TARRAGONA (2006) MARTINEZ BANDE (1975) SANZ (1979) PEREA CAPULINO (2007) TALON (1993)
Oharrak	Iturrien arabera, 142. brigada bananduta egon zen aldi batez, atzera egitean, kontingentearen zati bat Camarasetik joan baitzen, eta bestea, Balaguerretik.

Udalerrria	Esplús. Huesca.
Gertakari historikoa	Atzeragoardiako ekintza, 142. brigada (euskal-piriniotarra) atzera egiten ari zenean.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 142. brigada mistoa (euskal-piriniotarra). Alde frankista: 51. dibisioa (Aragoiko Armadaren Gorputza).
Data	1938ko martxoaren 30a eta 31.
Deskribapena	Kataluniarantz atzera egiten ari zela, 142. brigada 51. dibisio frankistaren indarren aurka borrokatu zen. Frankistek Binaced eta Pueyo hegoaldeko gainak hartu zituzten, martxoaren 30ean, eta hilaren 31n, Esplúsen sartu ziren.
Iturriak	GALINDEZ (2005) MARTINEZ BANDE (1975) SANZ (1979) PEREA CAPULINO (2007) TALON (1993)
Oharrak	

Udalerrria	Isona (Isona). Lleida.
Gertakari historikoa	Trempeko zubi buruaren borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 142. brigada mistoa eta 32. dibisioaren gainerako unitateak, eta 26. dibisioa (Armadaren 11. Gorputza). Alde frankista: Nafarroako Armadaren Gorputzaren 63. dibisioaren zatirik handiena 150. eta 152. dibisioek ordezkatu zuten, 1938ko maiatzeko ofentsiba errepublikanoan 63.ak izandako galerak zirela eta. Ebroko guduan, Marokoko Armadaren Gorputza borrokan sartu zen Tarragonan , eta bi dibisio horiek horren barruan zeuden. 150. dibisioa Trempeko zubi buruan geratu zen, 61. arekin batera, eta biak sartu ziren Ugelleko Armadaren Gorputz berrian.
Data	1938ko ekain-azaroa.
Deskribapena	1938ko maiatzaren amaieran, errepublikanoek Segre eta Noguera Pallaresa ibaie-tako zubi buru frankisten aurka egindako ofentsibaren ondoren, Kataluniako mendebaldeko frontea egonkortuta geratu zen, Ekialdeko Armadaren zaintzapean. 142. brigada Issonako frontea babestera joan zen, Noguera Pallaresaren zubi buru frankistaren erdialdeari aurre eginez, Tremp ekialdean. Euskal-piriniotar brigadak hainbat hilabetez egin zien aurre frankistei, Conques udalerrian eta Mont de Conquesen.
Iturriak	GALINDEZ (2005) GALITO, GIMENO, PITA eta TARRAGONA (2006) GARATE CORDOBA (1972) MARTINEZ BANDE (1975) PEREA CAPULINO (2007) TALON (1993)
Oharrak	

Udalerrria	Ceró
Gertakari historikoa	Mas-Bell (Maxwell bezala aipatzen da modu okerrean) gailurra. Ponselko gudua.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 32. dibisioaren 142. brigada (euskal-piriniotarra), eta dibisio bereko 137. eta 141. brigadak. Bigarrenengoak, urtarrilaren 10ean, Agramunt ingurura joan zirenean, 26., 30. 31. dibisioetako hainbat batailoi joan ziren 142.a indartzea. Alde frankista: Frankisten indarren artean, honako hauek zeuden: Urgelleko Armadaren Gorputzaren (Delgado Serrano jenerala) 61. dibisioa (García Navarro koronela) eta 150.a (Siro Alonso jenerala); eta Maestrazgoko Armadaren Gorputzaren (García-Valiño jenerala) 82. dibisioa (Delgado Serrano koronela) eta 84.a (Galera koronela). 61. dibisioaren barruan, legioaren 18. batailoia nabarmendu zen, Mas-Bellen. Gero, Urgelleko Gorputzaren 62. dibisioak parte hartu zuen (Sagardía koronela).
Data	1939ko urtarrilaren 5etik 17ra.
Deskribapena	Artesa de Segre herri garrantzitsua 1939ko urtarrilaren 4an erori ondoren, indar frankistek Katalunia iparraldeko ofentsibarekin jarraitu zuten, Ponserako bidea hartuta. Urtarrilaren 5ean, erasotzaileek Brialóko gainak hartzeko eraso prestatu zuten, nazionalen igarobidea oztopatzen baitzuten Artesatik Ponserako errepidearen ardatzaren iparraldean (Puigcerdáko errepidea); bien bitartean, Tudela de Segre eta Ceró herriak eta Santa Feko ermita hartu zituzten. Hurrengo egunean, Brialó erori zen, baita Vilves eta Colldelrat herriak ere; dena den, indar errepublikanoek Mas-Belleko eremuari eta Ceró eta Oliola arteko gainei eustea lortu zuten, eremua erresistentzia gune bihurtuz errepidearen hegoaldean. Hilaren 8an, eraso frankista eten zen, frankistek beste plan bat diseinatu behar zutelako. Hurrengo egunetan, ordea, borrokek jarraitu zuten, errepublikanoek hainbat kontraeraso jo zituztelako. Azkenean, urtarrilaren 13an, 61. dibisio frankistak Mas Belleko tontorra eta ondoko gainak hartu zituen. Borroka gogor baten ondoren, errepublikanoen azken kontraerasoa atzera botatzea lortu zuten. 61. dibisioaren ordez, 62.a iritsi zen, eta Mas-Bell erabili zuen base gisa hilaren 16an berriro erasoari ekiteko; hala, urtarrilaren 18an, Pons hartu zuten, 150. dibisioarekin elkartuta.
Iturriak	CHUECA (2007) ENGEL (1999) GALINDEZ (2005) MARTINEZ BANDE (1975) PEREA CAPULINO (2007) SAGARDIA (1940)
Oharrak	Gálindezek eta haren jarraitzaileek inon ez dagoen Maxwell tontorra aipatzen dute. Egile horrek berak Mas-Bell Sanahuja inguruan kokatzen du; alabaina, herri hori handik 10 km-ra dago. Ziur aski herri hori izango zen 142.aren basea, borroka horietarako. Egile berak baieztatzen du 142. brigadak "Adorearen Domina Kolektiboa" irabazi zuela, baina Talónek dio domina hori 142.aren 1. batailoari eman zitzaiola. 1938. urte hasieran, brigadan 800 euskaldun zeuden erroldatuta. Katalunia erori ondoren, ordea, Gurseko kontzentrazio esparruko 6.089 preso artean, brigadako 283 gudari baino ez zeuden.

Udalerrria	Poleniño. Huesca.
Gertakari historikoa	Poleniñoko borrokak.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 142. brigada (euskal-piriniotarra) eta 32. dibisia (11. Gorputza). Alde frankista: 53. dibisia (Aragoiko Armadaren Gorputza).
Data	1938ko martxoaren 25a eta 26a.
Deskribapena	Ebroko Iparraldean fronte errepublikanoa erortzen ari zen bitartean, indar errepublikanoek atzera egiten jarraitzen zuten, eta 142. euskal-piriniotar brigadaren indarrek ekintza bat egin zuten atzeragoardian, 53. dibisio frankista 24 orduz atzeratu zuena.
Iturriak	GALINDEZ (2005) MARTINEZ BANDE (1975) SANZ (1979) TALON (1993)
Oharrak	

Udalerrria	Senés de Alcubierre. Huesca.
Gertakari historikoa	Senés de Alcubierreko borroka.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 142. Brigada Mistoa (euskal-piriniotarra), eta 32. dibisioaren beste indar batzuk. Alde frankista: Aragoiko Armadaren Gorputzaren 54. dibisia.
Data	1938ko martxoaren 24a eta 25a.
Deskribapena	142. brigadaren indarrek denbora batez gerarazi zuten Aragoiko Armadaren Gorputzaren 54. dibisia, Torralba inguruan, errepublikanoak Senés eta Robres aldera atzera egiten ari ziren bitartean. Erresistentzia gogorraren ondoren, matxinetuek Torralba okupatu zuten, eta martxoaren 25ean, Senés eta Robres erori ziren.
Iturriak	ENGEL (1999) MARTINEZ BANDE (1975)
Oharrak	Galindezek eta haren jarraitzaileek Senén izenez aipatzen dute herria.

Udalerria	Tardienta eta Almodévar. Huesca.
Gertakari historikoa	Aragoiko ofentsiba frankista. Errepublikanoen posizioak lortzeko borrokak Tardientan, frankistek okupatua zuten Almodévar herriaren aurrean.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 32. dibisioaren (Ekialdeko Armadaren 11. Gorputza) 142. brigada mistoa (euskal-piriniotarra), dibisio beraren beste brigada batzuek lagunduta (137.a eta 141.a). Alde frankista: Aragoiko Armadaren Gorputzak ofentsiba bati ekin zion bere sektorean, Huescako hegoaldean, 62. (gehituta), 53. eta 54. dibisioekin. Hurrengo egunean, gorputz bereko 51. dibisioak bat egin zuen ofentsibarekin.
Data	1938ko martxoaren 22a eta 23a.
Deskribapena	142. brigada euskal-piriniotarra Tardienta eta Alcubierre artean zegoen, errepublikanoen lerroetan, azken herri horren eta Torralba de Aragon herrien aurrealdean, biak ere errepublikanoen esku. Bertatik, Almodévar herriko lerro frankistei egin zieten aurre. 1938ko martxoaren 22an, ofentsiba frankista hasi zen Ebroren iparraldean. 142. brigadak hasierako erasoei eustea lortu zuen, baina iparraldean frontea, oro har, erortzen ari zenez Torralba de Aragóneko inguruetara egin behar izan zuen atzera brigadak.
Iturriak	GALINDEZ (2005) MARTINEZ BANDE (1975) SANZ (1979) TALON (1993)
Oharrak	Martínez Bande, Sanz eta Talón egileek garaiko dokumentazioa jasotzen dute, non gertaeren ikuspegi sinesgarria ematen den.

Udalerrria	Vilanova de la Barca (Villanueva de la Barca).
Gertakari historikoa	Zubi buru errepublikanoa, Segreren mendebaldean.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: Dibisio Mistoia, etorkizunean 56. dibisioa izango zena Ricardo Gómez maiorraren agindupean, karabineroa eta 1. Euskal Dibisioaren komandante ohia. Karabineroen 3. eta 179. brigada mistoak borrokatu ziren, non ehunka euskal miliziano ezkertiar biltzen baitziren, iparraldetik ebakuatuak izan ondoren. Evaristo Expósito Escauriaza zen 179.aren buru. Euskadin, Meaberen 1. batailoiko konpainia baten kapitaina izan zen hasieran, eta gero haren agindupean egon ziren batailoi bat (Karl Liebknecht) eta brigada bat (13. euskal brigada). Horrez gain, 145. eta 153. brigada mistoak borrokatu ziren, eta azkenekoan ere euskal gudariak izan ziren; gehienbat, anarkistak.</p> <p>Alde frankista: Aragoiko Armadaren Gorputzaren 54. dibisioa, eta 51. eta 53. dibisioetako errefortzu tropak.</p>
Data	1938ko abuztuaren 9tik 17ra.
Deskribapena	<p>Uztailaren 25ean Ebro hegoaldean hasitako ofentsibaren ondorengo matxinatuen kontraeraso gogorak jasaten ari zen Ebroko Armadaren erresistentziari laguntzeko, Ekialdeko Armadak eraso bati ekin zion, Segren. 1938ko abuztuaren 9ko goizeko lehen orduan, karabineroen 3. eta 179. brigadek ibaia zeharkatu zuten, zalditeria eta blindatuekin batera. Zubi buru txiki bat eratu zuten, eta gero isolatuta geratu ziren, frankistek Noguera Pallaresako urtegietako uhateak ireki zituztelako, egun horretan ibai uholdeak maila gorenera iritsi zedin Ebroko frontean. Horrela, atzeragoardiatik bananduta utzi nahi zituzten bertan ziren indar errepublikanoak, hurrengo egunean, hilaren 10ean, indar nazionalak kontraerasoa jo zezaten. Villanueva mendebaldean, Segreren ibaiertzetara iristen zen uholdeak bete-betean harrapatu zituen indar errepublikanoak, eta ehunka borrokalari hil ziren.</p> <p>Indar frankistek kontraerasoari ekin zioten, borrokaren amaierara arte iraun zuen artilleriako su bortitzen eta 40 hegazkin frankisten laguntzaz. Abenduaren 10eko egunsentian, infanteria frankistaren lehen kontraerasoak karabineroen aurrera egiteko saialdiarekin egin zuen topo, saialdia ezerezean utziz. Zubi burua bi kilometro luze eta 300 metro sakon zen fronte batera murriztu zen. Abuztuaren 10ean eta 11n, erasoak eta kontraerasoak etengabeak izan ziren; bien bitartean, ibaiaren mailak pixkanaka behera egin zuen, eta Gómezek indar errepublikanoen zati bat Segreren ezkeraldera eraman ahal izan zuen. Hilaren 11n, lerroak 700 metro luze baino ez zituen, eta bi defentsa lerro antolatu ziren ibaiertzetik 250 eta 150 metrora, hurrenez hurren. Hilaren 12an, karabineroen bi batailoi geratu ziren lerro horietan, eta kontraerasoa jo zuten, aurkari erasoei aurre egiteko. Hilaren 13ko gauean, bizirik ateratakoak ebakutzera lortu zuten, eta horien ordez 153. brigada errepublikanoaren bi batailoi iritsi ziren. Iritsi berri zirenek posizioei eutsi zieten hilaren 17ko arratsaldera arte. Egun horretan, frankistek, bitarteko gehiagoren laguntzaz, zubi burua hartu zuten, eta atzera egiten ari zirela errenditutako ehunka borrokalarien sarraskia egin zuen Ifni-Saharako mertzenarioen tabor batek.</p>
Iturriak	<p>AROSTEGUI (1991) CASAS DE LA VEGA (1977) KARABINEROEN ZUZENDARITZAKO ORDEZKARITZA NAGUSIA (1938) MARTINEZ BANDE (1988)</p>
Oharrak	<p>Karabineroen zortzi batailoiak bakarrik kontuan hartuta, 1.409 baja izan ziren, hildakoen, desagertuen –gehienak Segren itota–, zaurituen eta ebakuatuen artean. Batailoi horien eta 153. brigadaren hildakoen artean, Euzko Gudaroste ohiaren dozenaka gudari zeuden; besteak beste, Isaac Puente, Zaballbide, Larrañaga eta Dragones batailoietakoak.</p> <p>153. brigada mistoan, Antonio Teresa de Miguel zegoen, zeina brigada horren buru izatera iritsi baitzen eta lehen Isaac Puente batailoi anarkistaren metrailadore konpainiako kapitaina izana baitzen. Asturiasen izan zen konpainia horren buru, eta Askatasunaren Domina eman zioten. Brigada misto horretan borrokatu zen, halaber, Félix Likiniano militante eta egile ezaguna.</p>

4.1.3.5. Gerra Memoriaren lekuen zerrenda, erdialde eta hegoaldeko eremuan

- Boadilla del Monte.
- Fuenteovejuna.
- Madril (Moncloa-Unibertsitate Hiria).
- Navalcarnero.

Udalerrria	Boadilla del Monte. (Madril)
Gertakari historikoa	Boadilla del Monteren defentsa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Barceló zutabea, Madrilgo Casa de Camporen mendebaldean kokatua. Azaroaren 23an, 4.883 gizon zituen, eta haren aginte postua Majadahondan zegoen. Boadilla del Monte inguruan, 1.170 borrokalari zituen, eta, horien artean, 320 "euskal zutabeak" zerituen zutabeetan zeuden. Euskal milizietako beste 200 kide Enciso zutabearen barruan zeuden. Zutabe horren aginte postua, berriz, Villa Siran zegoen, Aravacan, eta guztira 503 gizonek osatzen zuten.
Data	1936ko urri-abendua.
Deskribapena	Navalcarnero eta Brunete erori ondoren, euskal milizien indarrak Boadilla del Monteko defentsan borrokatu ziren. 1936ko azaroaren hasieran, indar frankisten zatirik handienak Madrilerako bidea hartu zuen, hiriaren hegoalde eta mendebaldeko ingurura (Casa de Campo), eta Boadillan presioa egiteari utzi zioten. Fronte hori egonkortuta, bazirudien, itxuraz, errepublikanoen erresistentziak matxinatuen ofentsiba geratu zuela. Euskal milizien indarrek "Boadilla de Euzkadi" izena eman zioten herriari, aurkarien aurrerapena eragozteko beren borondatea adieraziz. Boadilla, azkenean, frankistek hartu zuten mendean abenduaren 14an.
Iturriak	GALINDEZ (2005) KOLTSOV (1978) MARTINEZ BANDE (1982) REVERTE (2004) TALON (1993)
Oharrak	Galíndezek eta haren lanaren jarraitzaileek Boadillaren defentsa euskal miliziek erdialdeko frontearen lortutako lehen garaipen gisa planteatzen dute.

Udalerrria	Fuenteobejuna. (Kordoba)
Gertakari historikoa	Estremadurako ofentsiba errepublikanoa (nazionalen artean “Peñarroyako gudua” izenez ezaguna)
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: Estremadurako Armada, Escobar jeneralaren agindupean, eta lehen lerroko unitateen errefortzuak. Hasierako ofentsiban Armadaren 22. Gorputzak parte hartu zuen, Ibarrolaren agindupean, eta haren lantalde nagusian iparraldeko frontetik alde egitea lortu zuten Euskadiko langileak zeuden. Horrez gain, Toral dibisioen agrupazioa borrokatu zen, eta F. zutabe izenekoa. Gero, 17. Gorputzak ere parte hartu zuen. Alde frankista: Frontea haustean, armadaren bi gorputz eratu behar izan zituzten, García Escámezen eta Muñoz Castellanosen agrupazioekin indartuta.
Data	1939ko urtarrilaren 6tik otsailaren 4ra.
Deskribapena	Kataluniako erresistentziari laguntza emateko asmoz, non abenduaren 23ko ofentsiba frankista hasiz gero defentsa erortzear baitzegoen, Erdialde-Hegoaldeko indar errepublikanoen Estremadurako Armadaren zati batek erasoari ekin zion, Guardia Zibilaren Escobar koronelaren agindupean. Urtarrilaren 6an, hasi zen, beraz, gerraren azken ofentsiba errepublikanoa, Estremadurako ofentsiba edo Peñarroyako gudua izenez ezaguna. T-26 sobietar blindatuen eta Juan Ibarrolaren Armadaren 22. Gorputzaren dibisioetako artilleria masaren laguntzaz, matxinatuen lerroa hautsi zuten, zeina 150 metro bakoitzeko jarritako blokao gotortuez osatuta baitzegoen. Berrogei kilometro baino gehiago aurreratu ziren, eta hilaren 7an Fuenteobejuna hartu zuten; alabaina, ez zuten lortu 10 km eskaseko zabalera zuen arrakala handitzea. Horrek, eguraldiak okerrera egin izanak eta zalantzek ofentsiba geratu zuten. Fuenteobejuna Ibarrolaren buruzagitzaren egoitza izan zen, eta horrek kultu katolikoaren jarraipena babestu zuen, haren lantalde nagusian zegoen apaiz euskaldun baten bidez. Igorritako erreserba frankistek kontraeraso bortitz bati ekin zioten, nagusitasun materialean oinarrituta. Toral eta Ibarrolaren indar errepublikanoek atzera egin behar izan zuten abiapuntura, eta Fuenteobejuna galdu zuten urtarrilaren 25ean. Gudua otsail hasieran amaitu zen.
Iturriak	DE FRUTOS (1967) DEL ROMERO (1996) ENCINAS MORAL (2003) IBARRURI (1992) TALON (1993) TRILLES (2009)
Oharrak	Gudu hartan, Gerra Zibilaren azkenekoan, matxinatuek 10.500 baja baino gehiago izan zituzten, eta 20.000tik gora alde errepublikanoak. Hainbat iturrik (Del Romero, Trilles) planteatu dute Ibarrolak erasoarekin jarraitu nahi zuela ahala kosta. Frontea bisitatu eta Ibarrolarekin elkarrizketatu zen Dolores Ibarruriren leku-kotzak, ordea, baieztapen hori gezurtatzen duela dirudi. Ibarrolaren jarrera dibisio bateko komandante zen Rekalderen komunistaren jarrerarekin nahasten da, beharbada, zeina gerraren ondorengo errepresioan hil baitzuten. Gerra operazio horri dagokionez, interesgarriak dira Encinas Moralek argitaratutako Stepánov-en lanean agertzen diren aipu laburrak. Egile horren bertutea da ez duela bere burua aurkezten Txostenaren egile gisa, garaiko txostenak aztertzen dituzten beste egile batzuek ez bezala.

Udalerria	Madril.
Gertakari historikoa	Unibertsitate hiria-Moncloa sektoreen defentsa.
Parte-hartzaileak	Alde errepublikanoa: 40. brigada (157-160 batailoiak; tartean, euskal milizietan egondako kideek osatutako 158.a). Brigada hura dibisio eta armadaren gorputz batean baino gehiagotan egon zen gerran, baina fronteko leku berean beti. Brigadaren aginte postua errepublikanoen kontrolpeko unibertsitate hirian zegoen, eta gerran eremu hauetan ibili zen: Frantsesen Zubiko sektorea-Moncloa-Unibertsitate hiria-Ospitale Klinikoaren aurreko posizioak. Alde frankista: Madril erasotu zuten zutabeak, gero Erdialdeko armada frankistaren dibisio izango zirenak, Saliquet-en agindupean.
Data	1936ko azaroaren 26tik 1938ko martxoaren 27ra.
Deskribapena	1936ko azaroan, Madrilen aurkako eraso zuzena hasi berritan, Manzaneres ibaiaren iparraldean matxinatuen aurka borrokatzen ari ziren Ortega teniente koronelaren indarretan sartu ziren euskal miliziak. Miliziak militarizatzearekin batera, brigada mistoak sortu ziren; hartara, Ortega brigada 40. brigada izatera aldatu zen, eta euskal miliziak, berriz, Herri Armadaren 158. batailoia (40. brigadaren 2.a). Hogeita zortzi hilabetetik gora eman zuten borrokan, Moncloa-Unibertsitate hiria eremuan.
Iturriak	ALTAFFAYLLA KULTUR TALDEA/COLECTIVO AFAN (1986) ENGEL (1999) GALINDEZ (2005) KOLTSOV (1978) MARTINEZ BANDE (1982) TALON (1993)
Oharrak	Galíndezek bere lanean adierazten du euskal miliziak 42. brigada mistoan sartu zirela; alabaina, brigada hori ez zen sekula egon Ortégaren zuzeneko agindupean, eta garaiko prentsak eta gainerako iturriek euskal miliziak 40. brigadan kokatzen dituzte. Ez dakigu zehaztasunez zenbat euskaldun zeuden brigada horretan, ezta kontingenteak izandako baje kopurua ere. 1936ko urriaren eta 1938ko urriaren artean, brigadaren kontingente andaluziarrari dagokionez, 50 hildakoren, 7 desagerturen eta 27 ezgaituren fitxak daude. Horien artean, bi hildako eta desagertu bat bakarrik agertzen dira 158. batailoiko edo euskal milizietako kide gisa. Aipatutako baja gehienak zer batailoitakoak diren zehazten ez den arren; ziur asko, 157. batailoikoak (Cordoba izenekoa) izango ziren gehienak, gizonen jatorria kontuan hartuta. Talónek iturri bat ematen du, eta horren arabera euskal milizietako gudariak Madril erori ondoren fusilatu zituzten, 1939ko martxoan; dena den, hori gertatu izana zalantzan jartzen du Talónek berak. Haatik, bizirik atera zen baten lekukotzaren arabera (Altaffaylla), irabazleek euskaldunen kontingente handi bati –50etik gorakoa– gerra amaitu eta berehala iparraldera eramango zituztela esan zioten, baina ziria sartu, eta gero “desagerrarazi” zituzten.

Udalerrria	Navalcarnero. Madril.
Gertakari historikoa	Navalcarnero herriaren defentsa eta galdera.
Parte-hartzaileak	<p>Alde errepublikanoa: Sánchez-Plaza zutabea, Pedro Sánchez-Plaza Asaltoko teniente koronelarena, Estremadurako errepidearen defentsa bere gain hartu zuena. Gero, Escobar zutabe bihurtu zen, Guardia Zibilaren Antonio Escobar koronelak haren agintea eskuratu zuenean. Urriaren hasieran, Sánchez-Plazaren agindupean, 3.414 borrokalari, 5 metrailadore eta 10 artilleria pieza zituen zutabeak. Indar horien artean, euskal milizietako kideak zeuden. Urri hartan, eratu eta berehala, 698 gizon ziren guztira, baina, dirudenez, zutabearen bi konpainiak baino ez zuten parte hartu borroketan. Navalcarnero erori eta hurrengo egunean, urriaren 22an, Escobarrek 3.011 borrokalari, 14 metrailadore, 6 artilleria pieza, eta 3 blindatu zituen. Hilaren 29an, 3.047 borrokalari eta 7 kanoi zituzten. Errepublikanoen aireko laguntza 4 bonbaketarik eta 3 ehiza hegazkinek osatzen zuten, eta, aurkariet iturrien arabera, matxinatuek 2 ehiza hegazkin bota zituzten.</p> <p>Alde frankista: Matxinatuei dagokienez, Yagüe koronelaren agindupeko ezker hegaleko indarrak borrokatu ziren. Operazioan parte hartu zuten: 1. zutabeak (Asensio teniente koronela) eta 3.ak (Delgado Serrano teniente koronela); bakoitzak 3 batailoi zituen (Indigenen bi tabor erregular eta atzerritarren tertzioaren batailoi bat); eta, artilleria bateria bat. Errefortzu gisa, bi talde, bateria bat eta artilleriako sekzio bat jaso zuten, baita Fiat-Ansaldo italiar blindatuen konpainia bat ere. AAireko erasorako frankistek baliabide hauek zituzten: Fiat ehiza hegazkinen bi eskuadrilla; Romeo-37ko eskuadrilla bat, errekonozimenduak eta bonbardaketak egiteko; eta, hiru motorreko Savoia-81 hiru hegazkin. Erasotzaileen artean, lehenengoz borrokatu ziren lurrean italiar militarrek, "Agrupación Carros-Artillería" izeneko taldean, eta honela osatuta zegoen: Fiat-Ansaldo blindatuen konpainia, 65 mm-ko artilleriako 1. taldea, eta kalibre bereko blindatuen aurkako 1. sekzioa.</p>
Data	1936ko urriaren 21a.
Deskribapena	<p>1936ko urriaren erdialdean, matxinatuen indarrak Madril aldera abiatu ziren, eta Masquelet jeneralak sortutako fortifikazioen lerro ezegonkorra hartzeko prestatu ziren. Lerroak, zirkuluerdiko forma zuenak, hiriburua zaintzen zuten Villamantatik Valdemorora, Madriler a ekialdetik eta hegoaldetik iristen diren errepideak babesteko asmoz.</p> <p>Urriaren 20an, operazioa prestatzen amaitu, eta hilaren 21ean gauzatu zen. Errepublikako tropek atzera egin behar izan zuten Valmojadotik Navalcarnerora, non lubakien bi lerro baitzeuden. Errepublikako erresistentzia txiki-txiki eginda geratu zen, 40 artilleria piezak, 15 blindatu arinek, hainbat blindatuk eta dozenaka hegazkinek jotako erasoaren ondoren. Herria arratsaldeko lehen orduetan erori zen, baina gune isolatu batzuetan erresistentziari eutsi zioten gau osoan.</p> <p>Navalcamero hartu ondoren, frankistak hiriburutik 32 kilometrora geratu ziren. Alde frankistaren indarren artean, 20 hildako eta 100 zauritu egon ziren. Errepublikanoen artean, berriz, 195 hildako zenbatu ziren, eta 1 metrailadore eta 400 fusil galdu zituzten. Italiako iturrien arabera, 180 errepublikano hil, eta 300 hartu zituzten preso. Eta errepublikanoek ere hau onartu zuten: "matxinatuen esku geratu dira Alacanteko batailoiko bi konpainia, eta ez dakigu zer gertatu den haiekin" Horrez gain, Villamantan, Albacete Batailoien 250 miliziano eta soldadu, Infanteriako lau ofizial profesional barne, matxinatuen alde jarri ziren, Navalcamero hartuta atzera egiteko aukerarik ez zutela ikustean. Euskal miliziek ere hainbat baja izan zituzten; tartean, Frutos Vida kapitain nafarra hil zuten.</p>
Iturriak	<p>ALPERT(1977) ARMIÑAN (1939) KOLTSOV (1978) MARTINEZ BANDE (1982) NUÑEZ CALVO (2004) REVERTE (2004) ROVIGHI eta STEFANI (1992/1993) SALAS LARRAZABAL (1998)</p>
Oharrak	Revertek bere lanean dio errepublikanoen aldetik ez zela ia erresistentziarik izan. Bestalde, frankisten aldetik, Tella zutabea eta Monasterio zalditeria borrokatu zirela esaten du; ez dirudi, ordea, alderdi horiek guztiak oso zehatzak direnik.

4.2. Hiriguneen eta herrien aurkako bonbardaketen zerrenda (1936-1937)

Xabier Irujo Ametzaga dok. (University of Nevada (Reno)

Antón Pérez Enbeita (UPV/EHU)

4.2.1. Sarrera

Zalantzarik gabe, abazioaren erabilera da XX. mendeko gerretan izandako aldaketa nagusietako bat. Gerra Zibilean lehen entseguak egin zituzten, bai helburu militarrekin bai zibilekin. Bonbardaketaren jomuga, batetik, etsaiaren ahalmen belikoa eta logistikoa suntsitzea zen, eta, bestetik, herritar zibilen artean izua zabaltzea eta sarraskia egitea. Horren erakusle dira Durango eta Gernika Gerra Zibilean, baina antzeko esperientziak jasan behar izan zituzten espainiar edo europar herriak ere gogora ekar genitzake. Gerra ekintza mota honen garrantzia kontuan hartuta, beraz, bonbardaketen analisia aparteko atal espezifiko batean landu dugu.

Sintesi honen bidez, Euskadin, 1936ko gerran aireko bonbardaketak jasan zituzten herriak eta lekuak zenbatu, eta haien kokalekua zehaztu nahi dugu. Orain arte, aireko bonbardaketen 600 operazio erregistratu ditugu; nahiz eta, euskal kostaldeko herrietan izandako itsas bonbardaketa nagusietako batzuk ere zerrendan jasotzen diren. Bonbardaketa gehienak 1936ko uztailaren eta 1937ko abuztuaren artean izan ziren, 1938an gutxi batzuk izan baziren ere. Ikerketa honetatik kanpo geratu dira, aurrerago aztertzeko, Alemaniako abazioak 1940an Iparraldeko kostaldeko zenbait herritan egindako bonbardaketak. Izan badira, halaber, bigarren mailako dokumentu batzuk, beste agiritegi batzuetan eskuratu direnak, hala nola Avilako lurreko armadarenean.

Ikerketa honetan erabilitako materiala, funtsean, agiritegi hauetan eskuratu dugu: Aireko Armadaren Agiritegi Historikoa (Villaviciosa de Odón), Italiako Aireko Armadaren Agiritegia (Uffizio Storico de la Aeronautica Militare) eta Gernikako Bakearen Museoaren Dokumentazio Zentroaren Agiritegia. Erabili ditugu, halaber, Italiako Atzerri Gaietarako Ministerioaren agiritegiko dokumentuak (Scrittori sulla guerra civile spagnola. Ministero degli Affari Esteri, Gabinetto del Ministro 1236), IRARGIrenak (Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa), eta Sabino Arana Fundazioaren Agiritegiarenak.

1936ko udaren eta 1937ko abuztuaren artean, matxinatuen eta errepublikanoen abazioak egindako ekintzei buruzko dokumentuen artean, bonbardaketak zer herritan eta datatan izan ziren, zer unitatek parte hartu zuten, eta zenbat lehergai erabili zituzten argitu ahal izateko dokumentuak aurkitzen saiatu gara. Informazio hori bi eratako partetan aurki daiteke: parte orokorrak edo “operazioen laburpenak”, eta pilotuen “hegaldi egunerokoak”.

Horren harira, dokumentazio garrantzitsuena Aireko Armadaren Agiritegi Historikoan dago (Villaviciosa de Odón); izan ere, han gordetzen dira koalizioaren (alemanak, italiarrak eta espainiarrak) hiru armadetako estatu nagusiek Salamancako Kuartel Nagusira bidalitako parteak, Kuartel Nagusi horrek bakarrik baitzuen herri baten edo jomuga baten bonbardaketa agintzeko ahalmena.

Zentzu horretan, oso lagungarriak dira Aireko buruzagitzan (Hirugarren sekzioa. Operazioen laburpena) dauden parteak, horietan laburtzen baitira frankisten alde borrokatutako aireko indar alemanek, italiarrek eta espainiarrek euskal lurraldean egindako operazioak, 1936ko udatik 1937ko abuztura. Daten arabera daude antolatuta. Iparraldeko Aireko Indarren (Espainiako abazioa) parteak oso zehatzak dira, eta informazio asko ematen dute. Oso garrantzitsuak dira, halaber, “Comando Aviazione Legionaria. Jefatura del’Aire. Salamanca” buruzagitzaren espedienteak; izan ere, Aviazione Legionaria (italiarrak) aireko buruzagitzak bere aireko unitateen jardueri buruz aldizka bidalitako parteak ziren, non operazioen eta jomuguen egunerokoa deskribatzen baitzuten. Amaitzeko, Condor Legioaren operazioen laburpenak biltzen dituzten espedienteek ere garrantzi handia dute, Condor Legioak aldizka egindako operazioen ezaugarri nagusiak erakusten dituztelako, informazio zehatza ematea nahita saihesten duten arren.

Estatu Nagusiaren koronel buruaren parteak (Hirugarren Sekzioa. Operazioen Laburpena), aurrekoen oso antzekoak, oso interesgarriak dira, zenbaitetan desberdintasun nabarmenak dituztelako kuartel nagusiaren parteekiko eta desberdintasun horiek, jakina, guztiz esanguratsuak direlako. Aireko Buruzagitzaren eta Salamancako Estatu Nagusiaren koronel buruaren operazio laburpenen parteak idazteko, Iparraldeko Aireko Indarren, Condor Legioaren (alemanak) eta Aviazione Legionariaren (italiarrak) pilotuek ematen zuten informazioa hartzen zen oinarritzat.

Horrez gain, oso garrantzitsuak dira Euskadin hegan egin zuten eskuadrilletako pilotuen hegaldi egunerokoak, batzuetan ez baitzuten bonbardatzen aurreikusitako jomuga edo beste jomuga batzuk hautatzen baitzituzten, modu aski aleatorioan. Egunerokoak zehatzagoak izaten dira, operazio laburpenak baino.

Material horiez gainera, bigarren mailako iturri batzuk ere erabili ditugu, hala nola 1936ko eta 1937ko euskal prentsa eta iturri bibliografikoak; dena den, horrelakoetan, informazioa ez da hain zehatza, ezta, batzuetan, hain fidagarria ere. Salbuespen garrantzitsuak daude, nolana ere, esate baterako, Durango 1937 (Eusko Jaurlaritza, 1937) eta Guernica (Eusko Jaurlaritza, 1937) txostenak. Arreta handiz eginiko bi txosten dira, eta bi bonbardaketei buruzko informazio ugari ematen dute. Gernikako Bakearen Museoko Dokumentazio Zentroaren agiritegian kontsulta daitezke biak, edo Liverpooleko Unibertsitatearen liburutegiko agiritegian, bertara iritsi baitziren Londresko bonbardaketatik onik atera zen Irujoren liburutegiko liburuetatik. George L. Steer-en *The Tree of Gernika* lana ere gertakarien garaiko bibliografia iturri fidagarria da.

Azpimarratu behar da ez dela behin betiko zerrenda bat. Are gehiago, azpimarratu nahi dugu erabat beharrezkoa dela iturri historikoen beste bilaketa bat egitea Villaviciosa de Odóneko agiritegietan eta Italiako aireko armadaren agiritegian (Uffizio Storico de la Aeronautica Militare). Bilaketa horiek nahitaez egin behar dira; zeren eta, gaur egun arte guztira 600 operazio inguru erregistratu baditugu ere, kopuru osoak nabarmen gainditzen baitu zifra hori, eta ezin dugu jakin zer herri bonbardatu zituzten segurtasunez, aipatutako bi agiritegietan utzitako materialetan beste bilaketa zehatz bat egin arte.

Aipatutako lana Antón Perez Embeitak osatu du, bonbardaketei buruzko informazio bilaketa xehe bat eginenez, honako egunkari hauetan: Frente Popular (1936ko uztailetik irailera), Euzkadi, La Gaceta del Norte, El Liberal eta El Noticiero Bilbaíno, 1936eko uztailetik 1937ko uztaileira.

Bildutako informazioaren analisirako, erabilitako fitxan honako datu hauek ematen dira: bonbardaketaren data eta lekua; deskribapena, non biktimak edo kalte materialak jasotzen diren; bonbardatu zuten indar militarrik; eta, informazio hori eskuratzeko erabilitako iturria.

4.2.2. Bonbardatutako herrien zerrenda

Bonbardatutako lekuen zerrenda, hurrenkera alfabetikoan:

- Abadiño: 1936/09/29, 1937/03/31, 1937/04/01, 1937/04/22, 1937/05/18
- Abanto-Zierbena: 1937/06/16
- Alonsotegi: 1937/06/13, 1937/06/14
- Altun, mendia: 1937/04/06
- Amorebieta-Etxano (Zornotza): 1937/04/13, 1937/04/22, 1937/04/28, 1937/04/30, 1937/05/18, 1937/05/22
- Amurrio: 1937/05/31
- Andoain: 1936/08/26
- Angiozar: 1936/10/30, 1936/12/17
- Apatamonasterio: 1937/04/22
- Aranguren: 1937/05/21
- Arantzazu (Bizkaia): 1937/04/06
- Arbatzegi: 1937/04/26
- Areatza: 1937/04/02, 1937/04/06, 1937/04/07
- Arrankudiaga: 1937/05/15
- Arratzu: 1937/04/26
- Arrigorriaga: 1937/04/09, 1937/05/03, 1937/05/13, 1937/05/15, 1937/05/21, 1937/05/25
- Axpe (Atxondo): 1937/05/01, 1937/05/12
- Balmaseda: 1937/05/22, 1937/07/27
- Barakaldo: 1936/11/17, 1937/04/22, 1937/04/23, 1937/04/29, 1937/04/30, 1937/05/06, 1937/05/12, 1937/05/19, 1937/06/13, 1937/06/18, 1937/06/19
- Barakaldo (Burtzeña): 1936/09/25
- Basauri: 1937/05/11
- Basauri (Arizgoiti): 1936/09/25
- Beasain: 1936/07/24
- Bedia: 1937/06/04
- Berango: 1937/04/24
- Bergara: 1936/10/05, 1936/10/21, 1936/12/24, 1936/12/28, 1937/04/09
- Bermeo: 1937/05/01, 1937/05/02, 1937/05/03, 1937/05/07
- Bermeo (inguruak): 1937/05/03, 1937/05/05
- Berriatua: 1936/12/21
- Berriz: 1936/09/29
- Berriz (Deustu): 1937/06/14
- Bilbo: 1937/01/04, 1937/01/08, 1937/04/01, 1937/04/04, 1937/04/06, 1937/04/07, 1937/04/10, 1937/04/19, 1937/04/22, 1937/04/23, 1937/04/24, 1937/04/27, 1937/04/29, 1937/05/13
- Bilbo (Deustu): 1937/06/15

-
- Bilbo (Zorrotza): 1937/04/22, 1937/04/23, 1937/05/12, 1937/06/30
 - Deba: 1936/12/24, 1937/04/12
 - Derio: 1937/05/07
 - Dima: 1937/04/01, 1937/04/07, 1937/04/10, 1937/05/22
 - Dima-Bernagoitia: 1937/05/23
 - Donostia: 1936/07/29, 1936/08/12, 1936/08/13, 1936/08/31, 1936/09/10
 - Donostia (Loiolako kuartela): 1936/07/27, 1936/07/27
 - Donostia (Igeldo eta San Markos): 1936/08/06
 - Durango: 1937/03/31, 1937/04/01, 1937/04/02, 1937/04/25, 1937/04/27, 1937/04/28, 1937/04/29, 1936/09/25
 - Eibar: 1936/08/29, 1936/09/22, 1936/09/25, 1936/09/26, 1936/09/29, 1936/09/30, 1936/10/01, 1936/10/23, 1936/11/03, 1936/11/16, 1936/11/17, 1936/11/23, 1937/04/22, 1937/04/24, 1937/04/25
 - Elgeta: 1936/10/08, 1936/11/17, 1936/10/30, 1937/04/23
 - Elorrio: 1936/11/09, 1936/11/11, 1937/03/15, 1937/03/31, 1937/04/02, 1937/04/19, 1937/04/22, 1937/04/24, 1937/04/25
 - Elorrio (Kanpanzar): 1937/04/01
 - Erandio: 1937/01/04, 1937/01/07, 1937/04/06, 1937/04/22, 1937/04/23, 1937/04/24, 1937/04/25, 1937/04/26, 1937/05/13, 1937/06/14
 - Ermua: 1936/09/24, 1937/04/25
 - Errenteria: 1936/09/01, 1937/04/26
 - Errigoiti: 1937/04/26
 - Errondo: 1936/08/12
 - Etxebarria: 1937/04/26
 - Galdakao: 1937/04/07, 1937/04/09, 1937/04/24, 1937/04/29, 1937/04/30, 1937/05/03, 1937/05/06, 1937/05/12, 1937/05/13, 1937/05/19, 1937/05/21, 1937/05/24
 - Gallarta: 1936/08/08
 - Gaategiz-Arteaga: 1937/04/27
 - Gernika: 1937/04/26
 - Gernika (Sartzeko errepideak): 1937/04/27
 - Gerrickaitz: 1937/04/26
 - Getxo (Algorta): 1937/05/13
 - Getxo (Areeta): 1937/04/22, 1937/04/24, 1937/05/10, 1937/05/11
 - Getxo (Areeta, Nazioarteko Eremua): 1936/10/21
 - Getxo (Neguri): 1937/05/13
Bibliografia	EGAÑA (1999-2004) EGAÑA (2009)

5.2.2. Espetxe errepublikanoak, Bizkaian

1. Bilbo. Cabo Quilates eta Altuna Mendi espetxe itsasontziak.
2. Bilbo Galera etxea
3. Bilbo. Karmelo komentua
4. Bilbo. Aingeru Jagoleen komentua
5. Bilbo. Larrinagako Espetxe Probintziala
6. Durango. Durangoko espetxea
7. Sestao. Urbina Eskoletako espetxea

1

Udalerrria	BILBO
Aldea	Errepublikanoa
Izena	Cabo Quilates eta Altuna Mendi espetxe itsasontziak.
Deskribapena	Bi itsasontzi horiek espetxe gisa erabili zituen Bizkaiko Defentsarako Batzar- rarak, eta Bilboko itsasadarrean zeuden porturatuta, Barakaldo parean. Irail- laren 25ean, matxinatuen abiazioak Bilbon egindako bonbardaketa baten errepresalia modura, milizianoek eta zibilek bi itsasontziak hartu zituzten. Cabo Quilateseko 41 preso hil zituzten, eta Altuna Mendiko 29. Urriaren 2an, Jaime I.aren marinelek Cabo Quilates hartu zuten oldarrez, eta 38 pre- so hil zituzten. Eusko Jaurjaritza eratu ondoren, itsasontzietako zaintzaileak kendu, eta haien ordeztan Miñones Gorputzeko eta Guardia Zibileko kideek hartu zuten bere gain presoak zaintzeko ardura. Aldaketa horrekin, itsason- tzien aurkako oldarraldiak amaitu ziren.
Gaur egungo egoera	Ez daude.
Bibliografia	LANDA MONTENEGRO (2007)

2

Udalerrria	BILBO
Aldea	Errepublikanoa
Izena	Galera etxea
Deskribapena	Galera etxea Santutxuko Zabalbide eta Sorkunde kaleen artean zegoen. 1937ko urtarrilaren 4an, oldarrez hartu zuten. Emakumeen espetxea izan zen.
Gaur egungo egoera	Galera etxea, gaur egun Bilbaomusika dena.
Bibliografia	LANDA MONTENEGRO (2007)

3

Udalerrria	BILBO
Aldea	Errepublikanoa
Izena	Karmelo komentua
Deskribapena	Santutxu auzoan kokatutako karmeldarren komentua. 1936an, ospitale gisa ere erabili zuten. Gerra hasieratik egokitu zuten espetxe gisa, Larrinagako Espetxetik gertu zegoelako. 1937ko urtarrilaren 4an, oldarrez hartu zuten.
Gaur egungo egoera	Karmelo komentua
Bibliografia	LANDA MONTENEGRO (2007)

4

Udalerrria	BILBO
Aldea	Errepublikanoa
Izena	Aingeru Jagoleen komentua
Deskribapena	Santutxu auzoan kokatutako komentua, Aingeru Jagoleen Komentuaren aurrean. 1937ko urtarrilaren 4an, oldarrez hartu zuten.
Gaur egungo egoera	Aingeru Jagoleen Ikastetxea
Bibliografia	LANDA MONTENEGRO (2007)

5

Udalerrria	BILBO
Aldea	Errepublikanoa
Izena	Larrinagako Espetxe Probintziala
Deskribapena	Gaur egungo Santutxu auzoan zegoen, Zabalbide kalearen 19. zenbakian; desagertuta dago gaur egun. XX. mendearen hasieran, Bizkaiko presondegi nagusia izan zen. 1937ko urtarrilaren 4an, oldarrez hartu zuten.
Gaur egungo egoera	Etxebizitzak. Garamendi eraikina.
Bibliografia	LANDA MONTENEGRO (2007)

6

Udalerrria	DURANGO
Aldea	Errepublikanoa
Izena	Durangoko Espetxea
Deskribapena	Barruti judizialeko espetxea. 1936ko irailaren 25ean, matxinatuen abazioak Durango bonbardatu zuen. Errepresalia gisa, herrian zeuden milizianoek 22 preso atera zituzten herriko espetxetik, eta 21 fusilatu zituzten hilerrian, alde zurretik epaiketak egin gabe.
Gaur egungo egoera	Ez dago.
Bibliografia	IPÍÑA BIDAURRAZAGA (2014)

7

Udalerrria	SESTAO
Aldea	Errepublikanoa
Izena	Urbina Eskoletako espetxea
Deskribapena	Estatu kolpearen ondoren, espetxe bat egokitu zen, Sestaoko Urbina eskoletan. 1937ko irailaren 26an, milizianoek oldarrez hartu zuten, eta sei preso hil zituzten. Urriaren 26an, berriro hartu zuten, eta beste lau preso hil zituzten.
Gaur egungo egoera	
Bibliografia	IPIÑA BIDAURRAZAGA (2014)

5.2.3. Espetxe frankistak, Bizkaian

1. Zornotza
2. Balmaseda
3. Bilbo. Segurtasun kuartela
4. Bilbo. Upo mendi espetxe itsasontzia
5. Bilbo. Deustuko Unibertsitateko kontzentrazio esparrua
6. Bilbo. Salestarren konfinamendu esparruak
7. Bilbo. Tabakalerako espetxea
8. Bilbo. Galera etxea
9. Bilbo. Orueko txaleta
10. Bilbo. Eskolapioen ikastetxea
11. Bilbo. Karmelo komentua
12. Bilbo. Aingeru Jagoleen komentua
13. Bilbo. Zezen plaza
14. Bilbo. Larrinagako Espetxe Probintziala
15. Bilbo. Arriaga Antzokia
16. Bizkaia. Guardia Zibilaren postuak.
17. Durango
18. Gernika
19. Getxo
20. Zugaztieta, Galdames eta Gallarta
21. Lezama
22. Urduña

1

Udalerrria	Zornotza
Aldea	Frankista
Izena	Zornotzako espetxea
Deskribapena	Zornotzako espetxea emakume presoak hartzeko sortu zen, eta 1939tik 1949ra egon zen zabalik. Herriko erdigunean zegoen, gaur egun Karmelo ikastetxea dagoen lekuan.
Gaur egungo egoera	Zornotzako Karmelo Ikastetxea
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011)

2

Udalerrria	BALMASEDA
Aldea	Frankista
Izena	Balmasedako barruti judizialaren espetxea
Deskribapena	Balmasedako barruti judizialaren espetxean, frontean hartutako presoak eta inguruko herrietako bizilagunak giltzapetu zituzten. Zentroa atxilotutakoak sailkatzeko eta galdeketak egiteko erabiltzen zen; gero, Bilbora eramaten zituzten presoak. Preso arruntak ere bertan sartzen zituzten.
Gaur egungo egoera	Ez dago.
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011) IPIÑA BIDAURRAZAGA (2014)

3

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Bilboko Segurtasun kuartela
Deskribapena	Epalza kalearen 2. zenbakian kokatzen zen. Guardia Zibilaren postuetan bezala, kuartel horretan galdeketak egiten zitzaizkien polizia atxilotutako presoak, eta gero Bilboko espetxeetara bidaltzen zituzten. Tratu txarrak nahiko ohikoak izan ziren hango ziegatan, eta atxilotutako batzuk "argitu gabeko" egoera berezietan hil ziren.
Gaur egungo egoera	Etxebizitzak
Bibliografia	

4

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Upo mendi espetxe itsasontzia
Deskribapena	Upo Mendi itsasontzia espetxe gisa erabili zuten, Bilbo okupatu ondoren. Itsasontzia Vigoko itsasadarrera eraman, eta San Simo uhartearen inguruan porturatu zuten. Han, hirurogei urte beteak zituzten pertsonentzako espetxe bat zegoen, non euskal preso asko ere sartu zituzten. 1939ko urriaren 6an, Upa Mendin 622 preso zeuden; tartean, 106 euskaldun. Itsasontzian ez zegoen oinarritzko zerbitzurik, ez argirik, ez sukaldarik, ez lastairarik, ez platerik. Edateko ura ere eskasa zen.
Gaur egungo egoera	Ez dago.
Bibliografia	LANDA MONTENGREGO eta GUEZALA (1998)

5

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Deustuko Unibertsitateko kontzentrazio esparrua
Deskribapena	Gerran, milizianoen kuartela izandako Deustuko Unibertsitateko lokaletan zegoen esparrua. 1937ko abuztuan, agintari frankistek esparrua eratu zuten, Bilbotik edo Bizkaitik ihes egin ezin izan zuten presoentzat. Behin-behineko esparrua zen, presoak sailkatzeko erabiltzen zena. 1938ko ekainean, 4.488 preso zeuden esparruan, haren edukiera ia halako bi. Esparrutik 1.000 preso bidali zituzten Durango, Zornotza, Gernika eta Orozko udalerriak berreraikitze lanak egiteko, baita Sevilla, Cadiz edo Zaragozan kokatutako batailoietara ere. Kontsultatutako bibliografiaren arabera, irekita egon zen, gutxienez, 1939ko azarora arte.
Gaur egungo egoera	Deustuko Unibertsitatea
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011) LANDA MONTENGREGO eta GUEZALA (1998)

6

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Salestarren konfinamendu esparruak
Deskribapena	Salestarren Ikastetxea Deustuan kokatzen da. Ikastetxeko zelaiak gerra ibilgailuak berreskuratzeko base gisa erabili zituzten. 2.374 preso edukitzera iritsi zen.
Gaur egungo egoera	Salestarren Ikastetxea
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011)

7

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Tabakalerako espetxea
Deskribapena	Tabakaleran egokitutako espetxea ere Santutxu auzoan zegoen, eta gaur egun desagertuta dago. Garai bateko tabako fabrikaren eremu osoa hartzen zuen. Espetxeko eremua bost hektareako barruti hesitu handi bat zen. Gaur egun, Untzeta Parrokoaren auzunea da, 1951. urte inguruan eraikitakoa.
Gaur egungo egoera	Etxebizitzak. Untzeta Parrokoaren auzunea.
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011) LANDA MONTENGREGO eta GUEZALA (1998)

8

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Galera etxea
Deskribapena	Galera etxea Santutxuko Zabalbide eta Sorkunde kaleen artean zegoen. Gainerako espetxe errepublikanoak bezala, hau ere espetxe gisa erabili zuten agintari frankistek.
Gaur egungo egoera	Galera etxea, gaur egun Bilbaomusika dena.
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011) LANDA MONTENGREGO y GUEZALA (1998)

9

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Orueko txaleta
Deskribapena	Orueko txaleta Karmeloren aurrean zegoen, Larrinagako Espetxetik eta Galera etxetik gertu. Emakumeentzako espetxe izateko egokitu zuten. Etxea 30 pertsonari ostatua emateko eraiki zen arren, 600-700 pertsona inguru eduki zituzten preso. 40 emakume inguruk egiten zuten lo 5,5 x 4,5 metroko gelatan. Karmelo bezala, Orueko txaleta Larrinagaren menpe zegoen. Txaleta 70eko hamarkadan bota zuten, egungo etxebizitzak eraikitzeko, gaur egungo Remigio Gandasegi, Julian Bolivar eta Karmelo kaleetan.
Gaur egungo egoera	Etxebizitzak.
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011) LANDA MONTENGREGO eta GUEZALA (1998)

10

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Eskolapioen ikastetxea
Deskribapena	Eskolapioen ikastetxea egungo Juan Ajuriaguerra kalean eta Urkixo zumarkalean zegoen. Gerran, euskal indar nazionalisten kuartela izan zen. Hiria hartu ondoren, agintari frankistek espetxe modura erabili zuten. 1937ko azaroaren hasieran, 3.438 pertsona zeuden atxilotuta. Espetxearen behin-behinekotasuna 1939. urtera arte luzatu zen. Urte hartako maiatz-ekaina artean, presoak askatzen hasi ziren, espetxealdi arineko erregimenean.
Gaur egungo egoera	Eskolapioen ikastetxea
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011) LANDA MONTENGREGO eta GUEZALA (1998)

11

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Karmelo komentua
Deskribapena	Hau ere Santutxu auzoan zegoen. Karmelo komentuak espetxe izaten jarraitu zuen, indar frankistek Bilbo hartu ondoren. Han eduki zituzten atxilotuta, beste preso batzuekin batera, 45 apaiz, gutxienez. Presondegia Larrinagako Espetxearen menpe zegoen.
Gaur egungo egoera	Karmelo komentua
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011) LANDA MONTENGREGO eta GUEZALA (1998)

12

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Aingeru Jagoleen komentua
Deskribapena	Aingeru Jagoleen komentua gaur egun ikastetxe bat da. Espetxe gisa erabili zen garai errepublikanoan, baita tropa frankistak hirian zirenean ere. Hiriko gainerako espetxeak bezala, hau ere Santutxun zegoen.
Gaur egungo egoera	Aingeru Jagoleen ikastetxea
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011) LANDA MONTENGREGO eta GUEZALA (1998)

13

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Bilboko zezen plaza
Deskribapena	Vista Alegreko zezen plazan, 2.000 gizon inguru sartu zituzten, 1939ko otsailaren 13an. Agintari militarrek espazio hura kontzentrazio esparru gisa ez erabiltzea erabaki zuten, oinarrizko osasun baldintzak betetzen ez zituelako. Zezen plazan 12 egun igaro ondoren, presoak hiruburuko beste espetxe batzuetara eraman zituzten.
Gaur egungo egoera	Bilboko zezen plaza
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011) LANDA MONTENGREGO eta GUEZALA (1998)

14

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Larrinagako Espetxe Probintziala
Deskribapena	Agintari frankistek ere presondegi gisa erabili zuten, eta presoak bertan exekutatzan zituzten. 1938ko urrian, 2.200 pertsona zeuden preso, baina Bilbo erori ondoren 3.000 preso edukitzera iritsi zen.
Gaur egungo egoera	Etxebizitzak. Garamendi eraikina.
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011) LANDA MONTENGREGO eta GUEZALA (1998)

15

Udalerrria	BILBO
Aldea	Frankista
Izena	Bilboko Arriaga Antzokia
Deskribapena	Arriaga antzokia behin-behineko espetxe gisa erabili zuten, Bilbo hartu ondoren. Han atxilotu zituzten; besteak beste, hiriburutik joan ez ziren Bizkaiko Miñones Gorputzeko langileak. Bertan, presoak sailkatu, eta gero hiriko espetxeetara eramaten zituzten.
Gaur egungo egoera	Bilboko Arriaga Antzokia
Bibliografia	IPIÑA BIDAURRAZAGA (2014)

16

Udalerrria	BIZKAIA
Aldea	Frankista
Izena	Bizkaiko Guardia Zibilaren postuak.
Deskribapena	Guardia Zibilaren postuak preso askoren lehen atxilotze zentroak izan ziren. Kanean, etxeetan edo lanpostuetan atxilotu ondoren, presoak herriko postuetara eraman, eta galdeketak egiten zizkieten. Postu horietatik espetxeetara bideratzen zituzten.
Gaur egungo egoera	Ezezaguna
Bibliografia	IPIÑA BIDAURRAZAGA (2014)

17

Udalerrria	DURANGO
Aldea	Frankista
Izena	Durangoko espetxea
Deskribapena	Durangoko espetxea, mojen komentu zaharrean kokatuta, emakumeen espetxea izateko egokitu zuten. Gaur egun, espazio horretan Karitateko Ahizpen eta Nevers kristau hezkuntzaren ikastetxea dago. Espainia osoko emakume presoak eramaten zituzten hara. 1940ko abenduaren 28an, 350 emakume eraman zituzten, Madrilgo Las Ventas espetxetik.
Gaur egungo egoera	Karitateko Ahizpen eta Nevers kristau hezkuntzaren ikastetxea.
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011)

18

Udalerrria	GERNIKA
Aldea	Frankista
Izena	Gernikako atxilotze zentroak
Deskribapena	Indar matxinatuek foru hiria hartu zutenean, hainbat atxilotze zentro ezarri, eta horietan sartu zituzten herria berreraikitze lanetara derrigortutako pertsonak.
Gaur egungo egoera	Ezezaguna
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011)

19

Udalerrria	GETXO
Aldea	Frankista
Izena	Algortako arrantzaleen kofradia
Deskribapena	Algortako arrantzaleen kofradia aldi baterako atxilotze zentro gisa erabili zuten. Getxon eta inguruko herrietan atxilotutako pertsona asko eraman zituzten hara lehendabizi, gero Bilboko espetxeetara bideratzeko.
Gaur egungo egoera	Ezezaguna
Bibliografia	IPIÑA BIDAURRAZAGA (2014)

20

Udalerrria	ZUGAZTIETA, GALDAMES ETA GALLARTA
Aldea	Frankista
Izena	Zugaztieta, Galdames eta Gallartako esparruak
Deskribapena	Meatzetara bidalitako gerra presoak Zugaztietako kontzentrazio esparruan kokatu zituzten. 1938ko maiatzean, Gurutze Gorriak mantak banatu zizkien Gallartako Meatzteen Langile Batailoiko 92 presori eta Galdameskoaren 29ri.
Gaur egungo egoera	
Bibliografia	PASTOR RUIZ (2009)

21

Udalerrria	LEZAMA
Aldea	Frankista
Izena	Lezamako Kontzentrazio Esparrua
Deskribapena	Kontzentrazio Esparruen Ikuskaritzak ez zuen Lezamako kontzentrazio esparrua onartu, zenbait dokumentu militarretan horrelakotzat hartzen den arren. Presoen aldi baterako biltegitzat hartu zuten, udalerrria berreraikitze-ko eta errepide bat egiteko lanetan arituko ziren presoak behin-behinean hartzeko. Tropa frankistek Bilboko Defentsa Hesia hautsi zuten oroitzape-nezko lekura iristen zen errepidea hango presoek egin zuten.
Gaur egungo egoera	Ezezaguna
Bibliografia	IPIÑA BIDAURRAZAGA (2014)

22

Udalerrria	URDUÑA
Aldea	Frankista
Izena	Urduñako Kontzentrazio Esparrua
Deskribapena	Esparru hori Urduñako Jesuiten Ikastetxearen eraikinean kokatu zen. Pre-soak sartu zituzten bertan, 1937tik 1939ra. Gasteizko Gobernu Militarren menpe zegoen, Arabako hiriburuko eta Murgiko espetxeak bezala. 1938ko uztailaren 10ean, 4.131 preso zeuden.
Gaur egungo egoera	
Bibliografia	BADIOLA ARISTIMUÑO (2011) EGIGUREN (2011) LANDA MONTENGREGO eta GUEZALA (1998)

5.2.4. Espetxe errepublikanoak, Gipuzkoan

1. Donostia. CNTko "Txeka"
2. Donostia. Kursaal Antzokiko espetxea
3. Donostia. Ondarretako Espetxe Probintziala
4. Hondarribia

1

Udalerrria	DONOSTIA
Aldea	Errepublikanoa
Izena	Larramendi kaleko CNTren "Txeka"
Deskribapena	Atxilotze zentro hori Larramendi kaleko CNTren egoitzan zegoen, eta nahiko azkar itxi zuten. Gipuzkoan bat-batean irekitako espetxeak berehala desagertu ziren, euskal indar nazionalisten jardueraren eraginez.
Gaur egungo egoera	
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005)

2

Udalerrria	DONOSTIA
Aldea	Errepublikanoa
Izena	Kursaal Antzokiko espetxea
Deskribapena	Bigarren espetxe nagusia Kursaal antzokian inprobisatutakoa izan zen. Atxilotze zentro hura zorrotasunez kontrolatu zuen Ordena Publikoaren komisariotzak. 168 pertsona sartu zituzten, tartean 34 emakume.
Gaur egungo egoera	Kursaal berria
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005)

3

Udalerrria	DONOSTIA
Aldea	Errepublikanoa
Izena	Ondarretako Espetxe Probintziala
Deskribapena	Luis Iglesias sozialista egon zen horren buru. Ordena Publikoko komisariotzaren ekimenez, 260 pertsona atxilotu zituzten; gehien-gehienak, segurtasun indarreko kideak. 1936ko abuztuan, 472 preso zeuden. Presoak Bilbora eraman zituzten itsasontzian, 1936ko irailaren 8an.
Gaur egungo egoera	Ez dago.
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005)

4

Udalerrria	HONDARRIBIA
Aldea	Errepublikanoa
Izena	Guadalupeko Gotorlekuaren espetxea
Deskribapena	Guadalupeko Gotorlekua Hondarribian zegoen, eta Lurralde Historikoaren hirugarren espetxe garrantzitsuena izen zen. Juan Grajera infanteriako kapitainaren agindupean zegoen.
Gaur egungo egoera	Ez da erabiltzen.
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005)

5.2.5. Espetxe frankistak, Gipuzkoan

1. Arrasate
2. Azpeitia
3. Beasain
4. Bergara
5. Donostia. Boulevardeko "Txeka"
6. Donostia. San Jose asiloa
7. Donostia. San Jose de la Montaña ikastetxea
8. Donostia. Asaltoko Guardiaren kuartela
9. Donostia. Zezen plaza
10. Donostia. Ondarretako Espetxe Probintziala
11. Hondarribia
12. Irun
13. Mutriku
14. Tolosa. Zezen plaza
15. Tolosa. Eskualdeko espetxea.

1

Udalerrria	ARRASATE
Aldea	Frankista
Izena	Arrasateko eskualde espetxea
Deskribapena	Arrasateko espetxeko presoak hiruretan eraman zituzten herriko plazara, bonbardaketa errepublikanoak zirela eta.
Gaur egungo egoera	Ez dago.
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005)

2

Udalerrria	AZPEITIA
Aldea	Frankista
Izena	Azpeitiko eskualde espetxea.
Deskribapena	Barruti judizialeko espetxea. 1936ko irailaren amaieran, 62 pertsona zeuden preso eskualdeko espetxe honetan; tartean; lau apaiz.
Gaur egungo egoera	Ez dago.
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005)

3

Udalerria	BEASAIN
Aldea	Frankista
Izena	Beasaingo eskualde espetxea
Deskribapena	1936ko irailaren amaieran, 22 pertsona zeuden preso eskualdeko espetxe honetan.
Gaur egungo egoera	
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005)

4

Udalerria	BERGARA
Aldea	Frankista
Izena	Bergarako eskualde espetxea
Deskribapena	Barruti judizialeko espetxea. Bergarako espetxea zena herriko Gaztetxea da gaur egun.
Gaur egungo egoera	Ez dago.
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007)BARRUSO BARES (2005)

5

Udalerria	DONOSTIA
Aldea	Frankista
Izena	Boulevardeko "Txeka"
Deskribapena	Atxilotze zentro hau EAJrenak izandako Falangearen lokaletan zegoen.
Gaur egungo egoera	
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005) EGAÑA (1999-2004) EGAÑA (2009)

6

Udalerria	DONOSTIA
Aldea	Frankista
Izena	San Jose asiloa
Deskribapena	Emakumeentzako Donostiako espetxe hau Prim kaleko 33. zenbakian zegoen. Bizkaia erori ondoren, itxi egin zuten, eta hango emakume presoak Saturraranera bidali zituzten.
Gaur egungo egoera	San Jose ikastetxea
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005) EGAÑA (1999-2004) EGAÑA (2009)

7

Udalerrria	DONOSTIA
Aldea	Frankista
Izena	San Jose de la Montaña ikastetxea
Deskribapena	Atxilotze eremu hau Ategorrieta kalearen 43. zenbakian zegoen.
Gaur egungo egoera	San José de la Montaña egoitza
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005) EGAÑA (1999-2004) EGAÑA (2009)

8

Udalerrria	DONOSTIA
Aldea	Frankista
Izena	Asaltoko Guardiaren kuartela
Deskribapena	Asaltoko Guardiaren kuartela Zapatari kalean zegoen. Bertako baldintza gogorak zirela eta, "Infernua" deitzen zioten. Eusko Jaurjaritzaren 1938ko apirileko txosten batean adierazten da data horretan 400 preso zeudela bertan.
Gaur egungo egoera	Ez dago.
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005) EGAÑA (1999-2004) EGAÑA (2009)

9

Udalerrria	DONOSTIA
Aldea	Frankista
Izena	Donostiako zezen plaza
Deskribapena	Gerra Zibila amaitu ondoren, errefuxiatuen itzulera masiboa gertatu zen, eta kontzentrazio esparruak sortu behar izan zituzten zezen plazetan. Errefuxiatuak bertan sartu zituzten, sailkatu bitartean. 1939. urtean erabili zen.
Gaur egungo egoera	
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005) EGAÑA (1999-2004) EGAÑA (2009)

10

Udalerrria	DONOSTIA
Aldea	Frankista
Izena	Ondarretako Espetxe Probintziala
Deskribapena	Ondarretako espetxeak Gipuzkoako nagusia izaten jarraitu zuen. Indar frankistek atxilotutakoen kopurua hain handia zenez, agintariek atxilotze zentro berriak ireki behar zituzten. 1936ko irailaren 13an, Donostia erori zen egunean, lehenengo lau preso errepublikano sartu zituzten. Irailaren 17tik aurrera, Errenteriatik eta Beasainetik iritsitako preso berriak sartu zituzten. Eusko Jaurlaritzaren 1938ko apirileko txosten batean adierazten da data horretan 800 preso zeudela bertan.
Gaur egungo egoera	Ez dago.
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005) EGAÑA (1999-2004) EGAÑA (2009) EGAÑA (2012)

11

Udalerrria	HONDARRIBIA
Aldea	Frankista
Izena	Hondarribiko kontzentrazio esparrua
Deskribapena	Esparru honetan mugimendu nazionalaren aldekotzat hartutako pertsonak sartzen zituzten. Gehien-gehienetan, eremu errepublikanotik ihesian ateratuko katalanak ziren, eta bertan atxikitzen zituzten, harik eta haien senideek edo ezagunek nazionalen aldekoak zirela bermatzen zuten edo erreklamatzeko zituzten arte.
Gaur egungo egoera	Ez dago.
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005) EGAÑA (1999-2004) EGAÑA (2009)

12

Udalerrria	IRUN
Aldea	Frankista
Izena	Hilatura edo Hiladura esparrua
Deskribapena	Esparru honetan, mugan barrena itzultzen ari ziren pertsonak sailkatzen zituzten. Badirudi, hasiera batean, Irungo Real Union futbol taldeko zelaian –Stadium Ga– bildu zituztela itzulitakoak, futbol zelai hori muga inguruan baitago. Hilatura esparruari buruzko lehen dokumentuak 1937ko erdialdekoak dira.
Gaur egungo egoera	Ezezaguna
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005) EGAÑA (1999-2004) EGAÑA (2009)

13

Udalerrria	MUTRIKU
Aldea	Frankista
Izena	Saturrarango espetxea
Deskribapena	Emakumeen Gipuzkoako espetxe nagusia izan zen, eta Saturrarango hondartzan kokatzen zen, Mutrikuko udalerrian. Bainuetxe zahar bat zen lekuan sortu zuten, 1937ko abenduaren 29an. Emakume preso gehiegizko kopurua izan zen gertaerarik nabarmenena. Izan ere, 1.500 eta 2.000 emakume artean sartu zituzten, hasiera batean 700 pertsonentzat aurreikusitako lekuan.
Gaur egungo egoera	Ez dago.
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005) EGAÑA (1999-2004) EGAÑA (2009) GONZALEZ GOROSARRI eta BARINAGA (2010) JIMENEZ MARTIN (2012)


14

Udalerrria	TOLOSA
Aldea	Frankista
Izena	Tolosako zezen plaza
Deskribapena	Gerra Zibila amaitu ondoren, errefuxiatuen itzulera masiboa gertatu zen, eta haietzako kontzentrazio esparruak sortu behar izan zituzten, zezen plazetan. Errefuxiatuak bertan sartzen zituzten, sailkatu bitartean. 1939. urtean erabili zen.
Gaur egungo egoera	
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005) EGAÑA (1999-2004) EGAÑA (2009)

15

Udalerrria	TOLOSA
Aldea	Frankista
Izena	Tolosako eskualde espetxea
Deskribapena	Barruti judizialeko espetxea. Hasiera batean, Tolosan eta inguruko herrietan harrapatutako presoak sartu zituzten.
Gaur egungo egoera	Ez dago.
Bibliografia	AIZPURUA MURUA (2007) BARRUSO BARES (2005)

5.3. Espetxeen eta atxilotze zentroyen kokalekuaren mapa



6. Eusko Jaurlaritzak Gerra Zibilean sortu edo erabili zituen ospitale militarrek

Aritz Ipiña Bidaurrazga doktorea (UPV/EHU)

6.1. Sarrera eta metodologia

Eusko Jaurlaritzak 1936tik 1937ra bitarte ezarri zituen ospitale militarrek memoria lekutat har daitezke, horrelakoetan frontean borrokan edo atzeragoardian errebeldeen aireko bonbardaketan ondorioz zauritutako ehunka edo milaka pertsona bizirik atera baitziren medikuen lanari esker.

Hildako ugari ere izan ziren espazio horietan, zauriak sendatu ezinik; hortaz, biztanleriaren zati batek seni-deak galdu zituen toki horietan, eta heriotza horiei lotutako memoria lekuak dira.

Eusko Jaurlaritzak ospitale militar horiek sortu aurretik, Gipuzkoako eta Bizkaiko gerra batzordeek ere berezko osasun zerbitzuak sortu zituzten, Eusko Jaurlaritzak 1936an eta 1937an sortu edo prestatutako 46 ospitaleen aurrekariak izan zirenak.

Osasun militarra Gipuzkoan (Osasun Batzordea)

Gipuzkoako Gerra Batzordeak Osasun Batzordea antolatu zuen, eta erakunde haren zeregina izan zen Gipuzkoako osasun zerbitzu guztiak kontrolatzea, bai zerbitzu zibilak, bai zerbitzu militarrek.

Honako osasun zentro hauek zituen: Gurutze Gorriarena, Ospitale Zibila, Ospitale Militarra, Donostiako klinika pribatuak eta Londresko Ospitalea, lehen mailako larrialdietarako zentrotzat hartua.

Osasun Batzordeak Donostiako Hotel Príncipe hotela konfiskatu, eta bertan ezarri zuen kuartel nagusia.

Lurralde Historikoaren mendebaldeko frontean bi kirurgia zentro garrantzitsu ezarri zituzten: bat Eibarren, sabeleko, toraxeko eta garezurreko zauriak zitutenez, eta beste bat Elgoibarren. Sorospen postu txikiak Bergaran, Azpeitian, Azkoitian, Arrasaten eta Oñatin instalatu zituzten.

Osasun militarra Bizkaian (Osasun Batzordea)

Lehen zentro medikoa modu inprobisatuan eraiki zuten, 1936ko uztailaren 23an, Otxandioko udaletxean. Urkiola gainean zentro txiki bat eraiki zuten, eta beste handiago bat Durangon.

Bizkaiko Osasun Batzordea Probintzia Aldundian ezarri zuten, eta Espinosa eta Zunzunegui jaunak izan ziren batzordearen buru.

Osasun Batzordeak ezarri zituen zaurituak ospitaleratzeko lehen zentroak, hala nola Basurtuko Ospitale Zibila, Gurutze Gorriaren Ospitalea, Iralabarriko Ospitale Militarra eta Otxandio, Urkiola eta Durangoko zentroak.

Osasun militarra Eusko Jaurlaritzarekin

Eusko Jaurlaritzak lau eremutan antolatu zituen ospitaleak:

Abangoardiako ospitaleak: odol ospitaleak ere esaten zieten. Kanpainan zauritutako jendea artatzen zuten horrelakoetan.

Ospitale handiak: fronte eta sektoreetan sakabanatuta zeuden. Ospitale horietan gaixotasunen gaineko ikerketak gauzatzen zituzten.

Ospitale nagusiak: kanpainan larriki zauritutakoei ebakuntza kirurgikoak egiteko erabili zituzten. Bilbon zeuden.

Susperraldiko ospitaleak: atzealdean kokatutako ospitaleak ziren.

Eusko Jaurlaritzak 1936tik 1937ra bitarte erabili zituen ospitale militarrek identifikatzea helburutzat duen atal hau garatzeko, material bibliografikoa erabili dugu.

Iturri nagusia Eusko Jaurlaritzak berak gerra garaian Euskadiko osasun militarri buruz argitaratu zuen monografia bat izan da. Monografia horretan erakundeak sortutako ospitaleak ageri dira, baita horien argazkiak ere, oinarri-oinarrizkoak izan direnak toki horiek identifikatzeko.

Gaurdaino identifikatutako 46 ospitaleak alfabetikoki ordenatu ditugu, udalerraren arabera; hartara, identifikazioa errazagoa izango da.

Bost eremuko identifikazio fitxa bat sortu dugu ospitale bakoitzarentzat. Lehenengo eremuan, ospitalea zer udalerritan ezarri zuten aipatzen da, baita hura ezartzeko erabilitako etxe edo jauregiaren izena ere. Bigarren eremuan zer ospitale mota izan zen zehaztu dugu, hau da, abangoardiako ospitale bat, ospitale handi bat, ospitale nagusi bat edo susperraldiko ospitale bat izan zen. Ospitalearen deskribapena hirugarren eremuan dago jasota, eta azken bi eremuetan erabilitako bibliografia nagusia eta argazkien kokapena aipatu ditugu. Azken eremu horretan ospitale bakoitzaren argazki kopurua eta zein orrialdetan ageri diren zehaztu dugu, eta informazio hori oinarrizkoa da horiek identifikatzeko.

6.2. Ospitale militarren zerrenda

- | | |
|--|------------------------------|
| 1. Zornotza | 24. Gernika. Karmele Deuna |
| 2. Amurrio | 25. Getxo. Adoraziokoak |
| 3. Areatza | 26. Getxo. Ampuero |
| 4. Areta | 27. Getxo. Arriluze |
| 5. Arrigorriaga. Herreria | 28. Getxo. Etxebarrieta |
| 6. Arrigorriaga. Lekunberri | 29. Getxo. Iñaki Deuna |
| 7. Artziniega | 30. Getxo. Motriko |
| 8. Balmaseda | 31. Getxo. Mentxaka jauregia |
| 9. Barakaldo | 32. Getxo. Zugatzarte |
| 10. Baranbio | 33. Gueñes |
| 11. Bilbo. Kirol Kluba | 34. Igorre |
| 12. Bilbo. Deustuko ospitalea | 35. Karrantza |
| 13. Bilbo. El Sitio ospitalea | 36. Lekeitio |
| 14. Bilbo. Gurutze Gorriaren ospitalea | 37. Markina |
| 15. Bilbo. Zezen plazako ospitalea | 38. Mungia |
| 16. Bilbo. San Luis ospitalea | 39. Urduña |
| 17. Bilbo. Iralabarriko ospitale militarra | 40. Orozko |
| 18. Bilbo. Ospitale Zibil Santua | 41. Otxandio |
| 19. Durango I | 42. Portugalete |
| 20. Durango II | 43. Santurtzi |
| 21. Eibar | 44. Ubidea |
| 22. Elorrio | 45. Urkiola |
| 23. Gernika. Joseba Deuna | 46. Zeanuri |

Eusko Jaurlaritzak Gerra Zibilean sortu edo erabilitako ospitale militarren fitxa zehatzak.

1

Udalerrria	ZORNOTZA
Ospitale mota	Ospitale handia
Deskribapena	Herriko kalbarioan kokatua, karmeldarren jabetzekoa zen. 1936. urtean jarri zen martxan. Hiru solairu handi zituen, sotoez gain. 222 ohe jantzi instalatu ziren. Instalazioen barruan, eskolako kide guztiak hartzen zituzten. Bi ebakuntza gela zituen. Horrez gain, X izpien areto bat zeukan.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Lau argazki. 136 or.

2

Udalerria	AMURRIO
Ospitale mota	Abangoardiako ospitalea
Deskribapena	Borroka asko izaten ziren sektore batean jarri zuten. Ospitaleak era guztietako elementu, material eta tresna medikuak zituen.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Hiru argazki. 112. or.

3

Udalerria	AREATZA
Ospitale mota	Ospitale handia
Deskribapena	Lehen ospitaleetako bat izan zen, borroken lehen lerroan zegoelako. José Ibarrola Echeverria Zeanuriko medikuak antolatu zuen. Ebakuntza gela bat zeukan, eta monjek artatzen zuten.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Bi argazki. 146. or.

4

Udalerria	ARETA
Ospitale mota	Ospitale handia
Deskribapena	Eskauriatza alargun andrearen udako etxean zegoen kokatuta, Bilbo eta Gasteiz arteko errepidearen eskuinaldean. Hiru solairuetan egokitu zituzten gelak, eta bereziki nabarmentzen zen material modernoz hornitutako ebakuntza gela. Lorategi handi bat zeukan, non zaurituek eta gaixoek atsedena hartzen baitzuten.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Argazki bat. 142. or.

5

Udalerria	ARRIGORRIAGA (HERRERIA)
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Magdalena Errotan kokatua, eraikinak hiru solairu zituen, eta haren jabeak, Artiach jaunak, utzi zuen. Ebakuntza gela bat eta 120 ohe zituen.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Argazki bat. 198. or.

6

Udalerria	ARRIGORRIAGA. (LEKUNBERRI)
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Lekunberri ospitalea, Arrigorriagan. Torrontegi alargunaren jauregia egokitu zuten ospitale izateko. Inguruan lorategi bat zeukan.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Lau argazki. 195-196 or.

7

Udalerrria	ARTZINIEGA
Ospitale mota	Abangoardiako ospitalea
Deskribapena	Karmeldarren eskolan kokatua, ospitalea 1936ko abuztuaren 8an jarri zen martxan. Menéndez de Lurca fundazioarena zen. Pandoko errepidean kokatzen zen. Karitateko ahizpek artatzen eta zaintzen zituzten zaurituak.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Argazki bat. 114. or.

8

Udalerrria	BALMASEDA
Ospitale mota	Ospitale handia
Deskribapena	Bi ospitale zeuden. San Juan asiloa Bilbo eta Burgos arteko errepidean zegoen. Frontetatik iritsitako zaurituak hara eramaten zituzten. Gero, hura itxi zuten, eta bakarrik Mendia ospitalea geratu zen. Eraikina, Zallako errepidean kokatua, Mendia oinordekoena zen, eta ebakuntzak egiteko erabiltzen zuten.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Argazki bat. 144. or.

9

Udalerrria	BARAKALDO
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Bizkaiko Labe Garaiak enpresak bere ospitalea utzi zuen, gerra hasieratik. Barakaldon zegoen, lorategi handi baten erdian. Ebakuntza gela bat zuen, baita ebakuntza ondoko zainketetarako gelak ere.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Argazki bat. 204. or.

10

Udalerrria	BARANBIO
Ospitale mota	Abangoardiako ospitalea
Deskribapena	Tomás Rementeriaeren jabetzako etxe batean kokatzen zen, Bilbo eta Murgia arteko errepidean. Ospitalea bertan egokitu zen, 1936ko irailaren 23an. Larrialdiko botika ontzi bat zeukan, metarial prestatua zeukana, berehalako ebakuazio baterako. Fronteetako anbulantzien, andazainen eta erizainen osasun basea zen.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Argazki bat. 106. or.

11

Udalerrria	BILBO. KIROL KLUBA
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Kirol Kluba Recalde zumarkalean zegoen, eta hango erizaindegia erabili zen. Eguneroko kontsultetarako lokalez gainera, 200 ohe zituen. 1937ko abenduaren 27an jarri zen martxan.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Hiru argazki. 210. or.

12

Udalerrria	BILBO. DEUSTUKO OSPITALEA
Ospitale mota	Ospitale nagusia
Deskribapena	1936ko urriaren 1ean jarri zen martxan, Deustuko Pasiotarren eraikinean. Madariaga bidearekin egiten zuen muga, Deustuko erriberan. Inguruan, 26.000 metro koadroko baratze bat zeukan. Azterketetarako gela bat, larrialdietarako laborategi bat eta farmazia bat zituen. Farmazian Euzko-Gexozain Bazpatzak emandako laginak zituen.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Argazki bat. 164. or.

13

Udalerrria	BILBO. EL SITIO OSPITALEA
Ospitale mota	Ospitale nagusia
Deskribapena	El Sitio elkartearen lokaletan zegoen, Bidebarrieta kalean. Ebakuntza gela bat, 125 ohe eta sendatzeko bi gela handi zituen. Jantokiez gainera, ile-apaindegi zerbitzua, komuna, duxak eta igogailuak zituen, ebakuntzetarako erabiltzen zirenak.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Hiru argazki. 160-161 or.

14

Udalerrria	BILBO. GURUTZE GORRIAREN OSPITALEA
Ospitale mota	Ospitale nagusia
Deskribapena	Gurutze Gorriaren eraikina, 1936ko azaroan inauguratutakoa. Ebakuntza gela bat, klinika bat, X izpien gela bat, eta hainbat laborategi zituen. Eraikinaren so-toetan, garbigailu mekanikoak, esterilizazio galdarak, berogailua, eta sukaldea zeuden. Kontsulta hauek ematen zituen: kirurgia, oftalmologia, pediatria, otorrinolaringologia, medikuntza orokorra, eta odontologia. Karitateko ahizpen talde batek zaintzen zituen ospitaleratuak.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Lau argazki. 162. or.

15

Udalerrria	BILBO. ZEZEN PLAZAREN OSPITALEA
Ospitale mota	Ospitale nagusia
Deskribapena	Bi areto zituen, horietako bat zezen plazarena berarena. Horrez gain, laborategi bat, esterilizatzeko bi instalazio oso, eta ebakuntza zailak egiteko beharrezkoa zen guztia zeukan.
Bibliografia	
Argazkia	Hiru argazki. 150. or.

16

Udalerrria	BILBO. SAN LUIS OSPITALEA
Ospitale mota	Ospitale nagusia
Deskribapena	Los Luises zentro katolikoak utzi zuen, ospitalea egokitzeko. Eraikin horretan hasi zen Euzko-Gexozainen kanpaina. Ebakuntza gela handi bat zeukan, eta areto handiak, oheekin. Kontsulta medikuak, behaketak eta erradiografiak egiteko gelak zituen.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Lau argazki. 158. or.

17

Udalerrria	BILBO. IRALABARRIKO OSPITALE MILITARRA
Ospitale mota	Ospitale nagusia
Deskribapena	1892. urteaz geroztik funtzionatzen zuen ospitale militar gisa, eta Estatuak sortu zuen. Desinfekzio zentro bat eta gorputegi bat zituen. Zortzi pabiloi zeuden, non ebakuntzak egiten eta erradiologia zerbitzuak ematen ziren.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Hiru argazki. 152. or.

18

Udalerrria	BILBO. OSPITALE ZIBIL SANTUA.
Ospitale mota	Ospitale nagusia
Deskribapena	Basurtun zegoen. Ospitale handi bat zen, pabiloi zabalak eta ebakuntza, esterilizazio eta desinfekziorako gela bereziak zituena. Era guztietako aurrerapen kirurgikoak, klinikoak eta medikoak izan zituen. Bi pabiloi handi egokitu zituzten, gerrako zaurituak hartzeko.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Bederatzi argazki. 154-157 or.

19

Udalerrria	DURANGO I
Ospitale mota	Ospitale handia
Deskribapena	Euzko-Gexozain-Bazpatzaren kontrolpean egon zen, gerra hasieratik. Lehendabizi, Izurtzan jarri zen, baina gero Kurutziaga pasealekuko Angulo eta Castejon andereñoen jauregira eraman zuten, Bilbo eta Urkiola arteko errepi-dean. Hiru solairu zituen, beste hainbeste jantoki, komuna, eta suspertzen ari ziren gaixoentzako lorategiak. Ospitaleak mediku kontsulta bat zeukan atxikita, eta bertan artatzen zituzten herriko gaixoak.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Argazki bat. 126. or.

20

Udalerrria	DURANGO II
Ospitale mota	Ospitale handia
Deskribapena	Durangoko Udal Egoitzaren eraikinean kokatzen zen. Ebakuntza gela bat zeukan, material eta tresna kirurgiko modernoek hornituta. X izpien areto handi bat zeukan.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Bederatzi argazki. 138-140 or.

21

Udalerrria	EIBAR
Ospitale mota	Abangoardiako ospitalea
Deskribapena	San Andreseko udal ospitale-egoitzan zegoen kokatuta. Larrialdiko sendaketak eta kontsultak egiteko areto handi bat zeukan. Eibarko ipar-ekialdean zegoen, hegoaldera begira. Udalarena zen, eta 1936ko uztailaren 22an jarri zen martxan. Larrialdiko sendaketetarako areto handi bat zuen, eta kontsulta bat, bereziki odontologiari eta administrazioari lotuta.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Hiru argazki. 96. or.

22

Udalerrria	ELORRIO (GANONDO)
Ospitale mota	Abangoardiako ospitalea
Deskribapena	Lariz kondesaren Ganondoko ospitalean kokatzen zen. Irailaren 21ean jarri zen martxan, Bergara ingurua militarki ebakuatu zuten egunean. Borroka frontetik hurbil zegoen eta lotura zuzena zuen fronte horren erreserbarekin; zeina Eibartik Udalaiztera iristen baitzen, Elgeta eta Kanpanzarren barrena.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Bi argazki. 98. or.

23

Udalerrria	GERNIKA (JOSEBA DEUNA)
Ospitale mota	Ospitale handia
Deskribapena	Gernikako Josefina Ahizpen komentuan jarri zuten. Ospitaletik herri osoaren ikuspegi panoramikoa zegoen. OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Bibliografia	Argazki bat. 124. or.
Argazkia	Una fotografía. Pág. 124.

24

Udalerrria	GERNIKA (KARMELE DEUNA)
Ospitale mota	Ospitale handia
Deskribapena	Karmeldarren eraikin batean kokatua, irailaren 27an eman zitzaion ospitalea Euzko-Gexozain-Bazpatzari. Ebakuntza gela bat zeukan. LekaimEEK sukalde lan guztiak egiten zituzten.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Bi argazki. 134. or.

25

Udalerrria	GETXO. ADORAZIOKOAK
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Algortako adorazioko ospitalea. Gerra baino lehen martxan zegoen; izan ere, Adorazioko Ahizpen komentu bat zen, gerran utzi zutena.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Bi argazki. 192. or.

26

Udalerrria	GETXO. AMPUERO
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Gainerako ospitale guztiak zeuden kale berean zegoen eraikita Ampueroko mar-kesen gaztelua. Lorategi handi bat zeukan.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Argazki bat. 182. or.

27

Udalerrria	GETXO. ARRILUZE
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Arriluze Jauregian 130 ohe jarri zituzten, eta suspertzen ari ziren zaurituak eta gaixoak han egoten ziren, hala nahi bazuten. Sendaketetarako gela bat zeukan, eta tresneria modernoa.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Bi argazki. 184. or.

28

Udalerria	GETXO. ETXEARRIETA
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Etxebarrieta jauregia Etxekolandeta kalean zegoen, eta atzeragoardia inguruko ospitaleen gune bihurtu zen. 114 ohe zituen.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Zazpi argazki. 186-189 or.

29

Udalerria	GETXO. IÑAKI DEUNA
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Algortako Jesusen Bihotzeko eskolan zegoen. Hiru solairuko eraikin bat zen. Kirurgiako, X izpiko, diatermiako eta odontologiako gelak zituen, baita sorospen gunea ere.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Sei argazki. 174-175 or.

30

Udalerria	GETXO. MOTRIKO
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Itsasadarraren inguruan, aurrekoen kale berean kokatzen zen, eta horien antzekoa zen. Eraikin zabal bat zen, lorategi handi batekin.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Argazki bat. 190. or.

31

Udalerria	GETXO. MENTXAKA JAUREGIA.
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Mentxaka jauregian kokatua, susperraldiko ospitale bihurtu zen, jabeak hala nahi izan zuelako. Handik Portugalete eta Ereaga hondartza ikusten ziren. Lorategi bat, komunak, areto handiak, eta jantokiak zituen.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Zazpi argazki. 170-172 or.

32

Udalerria	GETXO. ZUGATZARTE
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Artetxe jaun andreen bizilekua zen, Getxoko Zugatzarte pasealekuan eraikitako jauregia. Atzeragoardiako ospitalea izan zen, 1936ko azaroaren lehenengo egunetatik. Sukaldea, garbitokia, lisatzeko gela, zortzi komun, garajea, eta lorategia zituen.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Argazki bat. 180. or.

33

Udalerrria	GUEÑES (LA INMACULADA)
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Santander eta Bilbo arteko errepidearen eskuinaldean kokatzen zen. Arrieta Maskarua oinordekoen lursailean zegoen. Eraikina San Bizenta Paulekoaren ahizpena zen. Inguruan lorategi handi bat zeukan.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Bi argazki. 200. or.

34

Udalerrria	IGORRE
Ospitale mota	Ospitale handia
Deskribapena	Elexalde auzoan kokatzen zen.
Bibliografia	Bi solairuko eraikin bat zen, sotoak eta atxikitako pabiloiak zituena; Gurtubai eta Alzola andreak ziren horren jabeak. Bi solairuetan, sendaketa, administrazio eta gaixoen gelak zeuden.
Argazkia	Gaixo gehienak fronteetatik zetozen.
	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
	Argazki bat. 128. or.

35

Udalerrria	KARRANTZA
Ospitale mota	Susperraldiko ospitalea
Deskribapena	Karrantzako ospitalea El Molinar bainuetxean zegoen.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Lau argazki. 202. or.

36

Udalerrria	LEKEITIO
Ospitale mota	Abangoardiako ospitalea
Deskribapena	Zita enperatrizaren jauregian kokatzen zen. Eraikina itsasoari begira zegoen, eta lorategi bat zuen, inguruan.
Bibliografia	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Argazkia	Hiru argazki. 94. or.

37

Localidad	MARKINA
Tipo de hospital	Abangoardiako ospitalea
Descripción	Herriko kanpoaldean kokatuta, 1936ko irailaren 1ean jarri zen martxan, Gaytan de Ayalaren eraikinetako batean. Hiru gorputzeko txalet bat zen, harlanduz egina. Inguruan lorategi bat zeukan, pergola batekin. Tropa frankistek bonbardatu zuten.
Bibliografía	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Fotografía	Argazki bat. 118. or.

38

Localidad	MUNGIA
Tipo de hospital	Susperraldiko ospitalea
Descripción	1936ko azaroaren 1ean sortu zuen Osasun Buruzagitza Nagusiak, Jado Ventades Fundazioaren eraikinean. Mungiako udalak utzi zuen, materiala eta guzti. Sei gela zituen, eta jantokia nabarmentzen zen, denen artean.
Bibliografía	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Fotografía	Hiru argazki. 194. or.

39

Localidad	URDUÑA
Tipo de hospital	Abangoardiako ospitalea
Descripción	Herriko udal ospitalean kokatu zen, 1936ko uztailaren 31n.
Bibliografía	Komentu zahar bat zen, udal ospitale izateko egokitu zena. Bi gela handi prestatu ziren gaixoentzat, eta lau sendaketa gela, bestelako halabeharrei erantzuteko.
Fotografía	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
	Argazki bat. 110. or.

40

Localidad	OROZKO
Tipo de hospital	Abangoardiako ospitalea
Descripción	Ramón Olabarriaren etxean kokatzen zen, berak utzi baitzuen osasun arreta eskaini zezaten. Geletan eraldaketa sakonak egin ziren. Atari handi bat zeukan, ohatilak eta anbulantziak sartzeko. Ebakuntza gelak mahai handi bat zeukan, eta tresneria modernoa. Gela handiak zituen, bai eta farmazia militar bat ere.
Bibliografía	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Fotografía	Argazki bat. 108. or.

41

Localidad	OTXANDIO
Tipo de hospital	Abangoardiako ospitalea
Descripción	Baserri batean kokatzen zen. Azterketak, larrialdiko asistentzia eta sailkatze lanak egiten zituzten, fronteko zauri arinak ospitaleratzeko erraztasunak emanez. Haren kokalekua eta banaketa zirela eta, ospitalea eguzkitsua zen, eta ongi zegoen aireztatuta. Higiene baldintza guztiak betetzen zituen.
Bibliografía	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Fotografía	Bi argazki. 102. or.

42

Localidad	PORTUGALETE (GANDARIAS)
Tipo de hospital	Susperraldiko ospitalea
Descripción	Juan Tomás Gandariasen txaletean kokatutako ospitalea. Portugaleten zegoen, María Díaz de Haro kalean, Zubi Eskegiaren aurrean. Sendaketa gela bat zeukan, eta beste bat ebakuntzetarako; beste gela pribatu bat zuen administraziorako, eta sukalde bat. Eraikinak miradore handiak zituen itsasadarrari begira.
Bibliografía	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Fotografía	Argazki bat. 206. or.

43

Localidad	SANTURTZI
Tipo de hospital	Susperraldiko ospitalea
Descripción	Benefica Agirre Fundazioaren jabetza bat zen, eta San Joan Jainkoaren anaien zaintzapean zegoen. Ebakuntza gelak, erradiologia gelak eta laborategiak zituen; otorrinolaringologia, oftalmologia eta odontologia kontsultak ematen zituen, eta, horrez gain, museo bat eta liburutegi bat zituen.
Bibliografía	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Fotografía	Bederatzi argazki. 207-208 or.

44

Localidad	UBIDEA
Tipo de hospital	Abangoardiako ospitalea
Descripción	1936ko azaroaren 19an finkatu zen, Letonako jaun-andreen txaletean. Lorategi bat eta baratze bat zituen, inguruan. Larrialdiko zerbitzuak ematen zituen, fronteko lerrotik gertu baitzegoen. Haren kokaleku estrategikoa zela eta, borroka askoko sektore baten erdialdean kokatuta, mugimendu handia zegoen ospitale honetan. Ubidean, gaixoen beste ospitale bat zegoen herrigunean, eta leku egokia zen zaurituak ebakutzeko.
Bibliografía	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Fotografía	Argazki bat. 104. or.

45

Localidad	URKIOLA
Tipo de hospital	Abangoardiako ospitalea
Descripción	Urkiolako gainean kokatua, Bizkarra eta Buenos Aires hotelen eta Lazpita ostatuaren eraikinean jarri zen ospitalea, San Antonioren Santutegiaren ondoan. 1936ko uztailaren 25ean irekita, ospitaleen abangoardia izan zen. Bizkarra Hotelean, ebakuntza gela bat zegoen.
Bibliografía	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Fotografía	Argazki bat. 100. or.

46

Localidad	ZEANURI
Tipo de hospital	Abangoardiako ospitalea
Descripción	Zeanuriko Udalaren eskoletan kokatzen zen. 1936ko abenduaren 4an jarri zen martxan. Aireztapen bikaina zuen; oso eguzkitsua zen; eta, higie baldintza egokiak zituen.
Bibliografía	OSASUN SAILA. EUSKO JAURLARITZA (1937)
Fotografía	Argazki bat. 116. or.

6.3. Ospitale militarren kokalekuen mapa



Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza (1937) 90. orr.

Esquema de evacuación de heridos



7. Lan behartuaz baliatu ziren leku publikoak eta pribatuak

Fernando Mendiola Gonzalo dok. (Nafarroako Unibertsitate Publikoa - Memoriaren Bideak elkarte)

7.1. Sarrera

Orain dela urte batzuk Ana Teresa Ortega argazkilariak proiektu bati ekin zion, *Cartografias silenciadas* izenburuko erakusketa batean gauzatu zena. Ortegak hainbat urte igaro zituen estatuko geografian zehar ibiltzen, argazki kamera gainean zeramala, gerra zibilean edo diktadura frankistan lan behartuko eta itxialdiko esparruak izandako lekuen egungo itxura irudietan jasotzeko. Irudiak, gainera, erakusketaren katalogoan jaso zituen (Ortega, 2010). Oso eremu desberdinak ziren, hala nola eraikin erlijioso zaharrak, zezen plazak, ikastetxeak, tren geltokiak, zubiak, errepideak, ubideak...alabaina, ezaugarri komun bat zuten denek, eta, oraindik ere badute. Ia denak, salbuespenen bat kenduta, kartografia isildutaz har daitezke, ez baitago horietan elementu bakar bat ere, bisitariari lekuaren iragan errepresiboa oroitaraziko diona.

